

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EROMENA, AZPIMEMORIA ETA ISILTASUNA (K)

IDAZTEN:

*Hutsune bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta
moralaren ispilu*

Tesi-zuzendaria: Mari Luz Esteban Galarza

Itxaso Martin Zapirain

Donostia, 2015

**EROMENA, AZPIMEMORIA ETA ISILTASUNA(K) IDAZTEN:
HUTSUNE BIHURTUTAKO EMAKUMEAK GARAIKO
GIZARTEAREN ETA MORALAREN ISPILU**

Eskerrak...

... ISILTASUN BATETIK HASI ZEN DENA...	1
	7 Isiltasuna(k)
	10 Eromena
	13 Azpimemoria
	14 Metodologia
	19 Helburuak eta Hipotesiak
	22 Lanaren egitura
	23 Kontraesanak eta interpretazio anitzak

**I. ISILTASUNA(K) ETA EROMENA: ESATEN EZ DENAK ERE EGITEN
GAITU 25**

I.1 ISILTASUNA(K) NONAHI 35

Isiltasuna(k) familietan: Emakume ero bat dago gure artean!	38
42 “Ezin” dugu hitz egin: tabuak eta memoria-ondokoa	
49 Vera bakarrik ez: esaten ez denaren eragina	

Isiltasuna(k) psikiatrikoan: Komunikazioa “gehiegizkoa” denean	79
83 Behaketa parte-hartzailea: egunerokoa	
104 Eromenaren isiltasuna(k) eta idazketa	

**I.2 ISILTASUNA(K), EROMENA ETA AZPIMEMORIA
ERREPRESENTATZEKO MODUAREN BILA 111**

Etnografia eta subertsioa idazketa antropologiko feministatik	119
123 Lengoaia, arrazoa eta isiltasuna(k), emozioak	

“Obra-etnografiko totala”: proposamen teoriko-metodologiko bat 126

133 *Ni, Vera*

137 Artxiboko testuak

149 Literatura tailerra

Isiltasun aktiboa, lengoia alternatiboa eta hutsuneen agentzia 169

II. FRANKISMO GARAIKO ISILTASUNE(T)AN ARAKATUZ: EROETXEETAN SARTUTAKO EMAKUMEEN ISTORIOAK 176

II. 1 ARTXIBOAN EMANDAKO EGUN HAIEK... 178

Artxiboa eta antropologia, antropologia eta artxiboa 184

194 Papera

197 Ulertzeko zailtasunak

199 Eskutitzak

201 Implikazioa

202 Idatzien eragina

II. 2 AZPIMEMORIA ETA MEMORIA: HUTSUNE BIHURTUTAKO EMAKUME EROEN ANTIBIOGRAFIAK 203

8 emakume, 8 antibiografia 211

214 VERA

223 TERESA

235 ROSA

243 CAROLE

256 JOSEFA

267 GREGORIA

275 TOMASA

283 LUISA

II. 3 HUTSUNEEKIN TESTUINGURUA BETETZEN 293

Emakumea 1940ko hamarkadan Hego Euskal Herrian: bekatua, sexualitatea, amatasuna 297

Eroetxeak eta psikiatria 1940ko hamarkadan Hego Euskal Herrian: emakumeen erotzeko “berezko” joera 317

323 Sintomak, diagnostikoak eta tratamenduak

II. 4 EROMENETIK, ERRESISTENTZIA: 8 EMAKUME, 8 ERREISTENTZIA MOTA 343

AMAITZEKO, ABIAPUNTURA 352

BIBLIOGRAFIA 357

Isiltasunen antzera eskerrak ere mila eratakoak izan daitezke, horregatik...

Eskerrak barru-barrutik verari, honen guztiaren inspirazio iturri izan denari; beldur eta irribarre askoren sortzaile, hitz, espazio zuri, esaldi, ideia... guzti-guztien atzean egoteagatik.

Esker haragituak Mari Luz Esteban Galarza ikerketa honen zuzendariari, beldurrak besterik ikusten ez nituen tokian ikergai bat zegoela erakusteagatik eta hartzera animatu ninduen bidean zehar babesa emateagatik.

Esker akademikoak Parisen tutore izan dudana Anne Lovell irakasleari, buruhauste izugarriak ematen zizkidaten hainbat gauza ikerlanaren indargune bihurtzeko egindako proposamenagatik.

Esker ona psikiatrikoan ezagutu ditudan guzti-guztiei ikerketa lan hau egiten utzi eta bertan parte-hartzeagatik.

Esker enpatikoak Carlos, Eli, Irantzu, Jon, Josune, Maialen, Maria, Miren, Miren eta Omarri, bulegoko ordu gogorak eta beroa askoz ere hobeto jasaten laguntzeagatik.

Frantesez eskerrak Parisen hain ondo hartu ninduen Carole Tillier-i, merci ma belle!

Esker sentitu-sentituak, denbora guzti honetan doktore-tesiaz gain beste bizitza bat ere banuela esan gabe (eta batzuetan esanda) erakutsi didatenei: Aitzí (azaleko marrazkiaren artista), Ester, Iza, Laída, Madalen, Nere, Olatzi, Olatz ...

Esker goxoak (Janari usain ederrena duten horietakoak) aitari, amari eta anaiari, egiten ari nintzena oso ondo ulertu ez arren pazientziatzat sostengatu nautelako.

Eta... isilpean ematen den besarkadarik estu eta luzeenean sentitzen den horretaz beterik doazen eskerrak zuri, Antxon.

...ISILTASUN BATETIK HASI ZEN DENA¹...

...

...isiltasun bat...

...

...

...

...

...belaunaldiz belaunaldi senideongan eragina izaten ari zen isiltasun bat...

...azalpenik eman nahi ez zuenak inposatutako isiltasun bat...

...beldurra genuenon borondatezko isiltasun bat...

... egun batean jasanezina egin zen isiltasun bat...

...oihu izateko jaio zen isiltasun bat...

...

...isiltasun bat...

...emakume bat ukatzen zuena...

...nire birramona...

...Vera²...

...

¹ Isiltasun batetik hasi zen dena, baina, doktore-tesi hau Eusko Jaurlaritzak Doktoretza-aurreko Programaren barruan emandako beka (2012-2015) baten laguntzarekin egin dut.

² Izena asmatua da; doktore-tesi honetan erabilitako izen propio guztiak (bildutako hitzak esan dituztenen baimenarekin publiko egindakoak ez badira) asmatuak dira protagonisten intimitatea babestearren.

Nola liteke esaten ez den zerbaitek hainbesteko indarra izatea?

Nola liteke ezkutuan mantendu den zerbait etengabeko beldur bihurtzea?

Nola liteke existitu denik ere ez dakizun horrek zure mugimenduak baldintzatzea?

Horiek izan ziren Vera “aurkitu” nuenean sentitu nituen lehenengo galderak, minak eta lasaitasunak. Konturatu nintzen, hutsune handi batek baldintzatzen zuen nire bizitza. Psikologo bat bisitatzera eraman ninduen krisi handi bat izan zen Verarekin topo egitera eraman ninduen. Hark egin zidan lehen galdera izan zen horretarako bidea ireki zuena: “Baduzu aurrekaririk familian?”.

Baduzu aurrekaririk familian...

Baduzu aurrekaririk familian...

Oihartzun bat bihurtu zen nire buruan. Etengabe errepikatzen zen.

Baduzu aurrekaririk familian...

Baduzu aurrekaririk familian...

Ez zait inoiz ahaztuko psikologoak galdera hura egin zidan gela, aulkia, mahaia, eta galdera egiterakoan koadernotik altxatu ere egin ez zuen begirada. Eta jakina, nire beldurra, nire dardara eta izerdiz betetako nire eskuak. Hori da eskuartean duzun ikerketa lan honen abiapuntua.

Vera, berrogeita hamaika urtez egon zen psikiatriko batean sartuta eta senideen artean harresi bat eraiki genuen nire birramona zenaren inguruan. Denok genekien non egon zen, baina inork ez zuen ezer galdetzen.

Zertarako jakin gehiago horrek ustez antolatuta eta eraikita zeuden gure bizitzetan eraginik izango bazuen?

Zertarako arakatu senide bakoitzaren irudia alda zezakeen zerbaiten inguruan?

Nahi gabe, nahita, egin zitekeenik ere jakin gabe, isiltasuna elikatzen ari ginen. Baina zertaz elikatzen dira isiltasunak? Esaten dugunaz. Hori dela eta, Verari buruz isiltzen zena baino gehiago, esaten zena aztertzen hasi nintzen; ez dut uste kontzientea izan zenik, une hartan horri buruzko ikerketa lan bat egingo nuenik ere ez bainuen susmatzen. Konturatu nintzen ezkututzen dena jakiteko beste modu bat esaten denari atentzioa jartzea dela. Isiltzen ari garen horretara zuzenean jotzea ia ezinezkoa izaten da, behintzat hala zen kasu hartan, beraz, esaten ziren gauza apurrekin gainontzekoa eraikitzea erabaki nuen. Gertuagotik ezagutu zuten senideei egindako galderen erantzunetan erreparatuz gero, esaldiak motzak ziren, kontraesankorrak eta zalantzez beteak. Agerian uzten zuten behin eta berriz Veraren inguruan eraikitako isiltasunezko harresia.

Birramonaren berri izateko galderak egiten hasteak, isiltasunezko harresian lehen zartadura ireki zuen. Gehiago jakin nahiak...

Blaaaaasssstttt!!!!!!

Eta, harresi batek zartadurak dituenen, nor ez da gerturatu eta zulotik begiratzen jarri? Kasu honetan kuriositatea beldurrez mozarrotuta zegoen, edota beldurra kuriositatez. Gerturatu, harresiaren zartaduratik begiratu eta beste aldetik begian makilaren bat sartuko ote zidaten ere pentsatzen nuen. Kalte egingo al dit beste aldean dagoenaren berri jakiteak? Verari gertatutakoa bezalako gauzak genetikoki baldintzagarriak baziren, hainbat senideoi gertatuko zitzaiguna (gertatu zitzaiena) ikustera ausartuko ote nintzen? Batzuetan baietz uste nuen, bestetan ezetz.

Bai.

Ez.

Bai.

Ez.

Eta horrela iragan ziren egun batzuk, hilabete batzuk, bigarren zartadura irekiko zuen leherketa gertatu zen arte. 2012. urtean *Ni, Vera*³ nobela kaleratu nuen. Birramonaren hutsuneak birbiloba batengan nolako eragina izan dezakeen kontatzen nuen bertan, nire krisia eta erotzeko patuari beldurra. Nobela kaleratzeak senideen artean jakin-nahia piztu eta galderak egiten hastea ekarri zuen. Esan daiteke Verak beste zentzu bat hartu zuela gure bizitzetan, harresiaren beste aldeko munduak iluntasun apur bat galdu zuen. Eta harresiari hirugarren zartadura bat gehituko nioke: doktore-tesi hau.

Zzzzaaarrrttt....

Ikerketaren bideak eta ikerlari bezala aritzeak eraman nau ikustera Veraren inguruan eraikitako isiltasuna pertsona batzuen erabakiaren emaitza izan dela; batzuen inposaketaren eta besteen beldurren nahasketa. Baina, batez ere, isiltasuna, errespetua adierazteko modu bat izan da, gertatutakoaren berri zuen eta inoiz galderarik egin ez zitzaion pertsonarekiko errespetua: Veraren senarra. Baina, harresia hausteko zailtasunak handiak ziren, ez bakarrik urtetan eraikitako eta enkistatutako isiltasuna hausten gogorra zelako, baizik eta isiltasunak eta haiek eragiten zizkidatenak adierazteko oztopoak aurkitzen nituelako. Eta hain zuzen ere, hori bihurtu da ikerketa lan honen beste puntu garrantzitsua:

Nola idatzi isiltasunari/isiltasunei buruz?

Nola osatu haiek agerian uzteko bidea?

Nik neuk bizitako krisian konturatu nintzen hainbat gauza adierazteko, hitz bihurtzeko zailtasun handiak nituela, inpotentzia izugarria zen. Bizi eta sentitzen nuena hitzez ezin azaltzeak, gainera, nire kezka areagotzen zuen; nik sentitzen nituen haiek “normaltasunetik” at zeudela esan nahi zuen.

Dar-dar-dar...

³ MARTIN, Itxaso (2012) *Ni, Vera*, Donostia, Elkar.

Ezin nuen nire barnean sentitzen nuen munstroa definitu, ez behintzat ikasia nuen moduan.

Dar-dar-dar...

Beldurra izugarria zen. Psikologoaren aurrean aurkitzen nuen nire burua, negarrez, baina gertatzen zitzaidana azaldu ezinik. Ez zitzaidan iruditzen erabili nitzakeen hitzak, nik nekizkienak, geratzen ari zitzaidan horretara gerturatzen zirenik. Kontraesankorra dirudi, baina idazteak asko laguntzen zidan, ordenagailuz edo eskuz idazten nituen sentitzen nituenak, hori zen barruak askatzeko erabiltzen nuen metodoa. Ahal nuen moduan egiten nuen, azken finean, paperaren edota pantailaren eta nire arteko intimitatea zen eta horrek lasaitu egiten ninduen pixka bat. Era horretan, kanpoko epaiak ekidin nitzakeen, askotan nire epai propioa izaten bazen ere guztietan zorrotzena. Nobela idazteko eta ondoren ikerketa hau egiteko, une haietan idatzitakoak errekupearatu nituen, eta ohartu nintzen momentu haietan erabiltzen nuen idazketak bazituela ezaugarri berezi batzuk; ez ninduen esaldi luze eta landuak egitera eramaten, oka egitea bezala zen: errepikapenak, hitz asmatuak, hitz etenak, amaierarik gabeak eta hutsunez betetako orrialdeak. Eta guztiaren gainetik... kontraesanak.

Horrela sentitzen naiz.

Ez, ez naiz horrela sentitzen.

Hau nahi dut.

Ez, ez dut nahi.

Zerbait azaltzeko modua aurkitzen ez nuenean, espazio zuri bat utzi eta beste gauza bati heltzen nion. Une haietan, pentsamenduak azkar etortzen zitzaizkidan, bata bestearen atzetik eta haien gaineko gogoetarik egiteko denborarik gabe. Irakurlea gertatutakotik eta ikertutakotik gertuago sentiaraziko duelakoan, ikerketa lan honetan, erreferentzia hori mantendu nahi izan dut. Aurrerago azalduko dudan moduan, “buruko gaixotzat” jotako pertsonekin maiz gertatzen den

zerbait da, gertatzen ari zaiena hitzez azaldu nahi ez izatea edo ezin izatea (arrazoiak ezberdinak eta kontraesankorrak dira eta hurrengo ataletan landuko ditut). Baina, zentzurik eza edo zentzuduntasuna kulturalki eta moralki definitutako zerbait da, eta beraz, hitz egiteko modu batzuk zentzuduntzat eta beste batzuk zentzugabetzat hartzeak ere kulturatik eta moraletik du asko, edo dena.

Hiru ardatz nagusi aukeratu ditut ikerketa lan hau egiteko: isiltasuna(k), eromena eta azpimemoria. Horien gainean eta horiek gidaritzat hartuta eraiki dut datozen orrialdeetan azaldu nahi izan dudan guztia. Orain bidelagun eta gidari direnak...

...beldur,

...gogo,

...nahi,

...desio,

...gorroto... izan dira denbora luzean.

Isiltasuna(k)

Esaten ez dena, aipatzen ez dena, eta beraz, hutsune bihurtzen dena, hori esan nahi dut isiltasunei/isiltasunari buruz hitz egiten dudanean. Pluralean eta singularrean erabiltzen dut isiltasun asko daudelako, era askotakoak,

batzuk hitzik gabekoak,

batzuk behartuak,

besteak aukeratuak...

Ez nituzke denak bakar bat bezala planteatu nahi; baina, era berean, denek dute “hitzik eza” ezaugarritzat. Jabetzen naiz batzuetan kontzeptu bat zabalik uztea zehaztasun ezarekin lotzen dela, eta egia da ikerketa lanarekin hasi nintzenean singularrean planteatzen nuela, baina landa lanarekin, elkarriketekin edota artxiboko analisiarekin aritu ondoren, pluralean ere jartzea jo dut egokien, mila isiltasun ezberdin aurkitu ditudalako,

intentzio ezberdinak zituztenak,

jatorri ezberdinak,

forma ezberdinak,

helburu ezberdinak...

Ikerketa honetan, isiltasun ezberdinek duten presentzia eta sortzen dituzten sentrazioek eta emozioek pisu handia hartu dute. Ahalegin handia egin dut egoera ezberdinetan aurkitu ditudan

isiltasunak eurak transmititzen, momentu batzuetan isiltasunak identifikatzea ere zaila egiten zitzaidan arren. Gaur egun existitzen dena hitz egiten duelako da, edota berari buruz hitz egiten delako; hitzak sortzen, sorrarazten edo eragiten ez dituen ez da existitzen. Paul B. Preciado-k *La muerte de la clínica* (2013) hitzaldian esan zuen bezala, gaur egun garrantzitsuena “ekoizle semiotiko” izatea da:

“50 eta 60ko hamarkadetatik aurrera martxan jarri ziren ekoizpen ereduek, ekoizpen kognitiboaren ereduek, komunikazio sozialarekin dute zerikusia, elkartrukearekin, hartu-eman komunikatiboaren bitartez lortzen den etekinaren eta kapitalaren ekoizpenarekin”⁴.

Beraz, hitzik sortzen ez duena, ez da. Isilik dagoena hutsik dagoela kontsideratuko da. Baina, isiltasuna hutsik dagoen zerbait bezala, ez da existitzen:

“Espazio hutsa ez da existitzen. Gizakiaren begiak begiratzen duen bitartean, beti egongo da zer edo zer ikusteko. «Hutsik» dagoen zerbait begiratzen dugunean, horregatik ez diogu begiratzeari uzten, horregatik ez diogu zerbait ikusteari uzten [...] geure itxaropenen mamuak besterik ez izan arren. Osotasuna antzemateko, mugatzen duen hutsunearen zentzu zorrotza mantendu behar da; eta kontrakoa, hutsunea antzemateko, munduaren beste gune batzuk betetzat jaso behar dira” (Sontag, 1997:23).

Azken finean, isiltasuna(k) ikerketa lan honetan komunikatzeko era bezala landu d(it)ut, elementu dialogiko bezala, etengabe ikerlariaren eta isiltasun(ar)en artean egon den hartu-emanaz azpimarratuz; isiltasunak/isiltasunek eman egin dit/didate eta nik jaso, eta nik eman egin diot/diet eta hark/eurek jaso. Baina, era berean ezin dut ukatu isiltasunak/isiltasunek sortu dida(te)n min batean dagoela honen guztiaren jatorria. Eta ezin dut ukatu ezta ere isiltasun horrek/horiek hausteak edo behintzat hura/horiek errepresentatzeak hobeto sentiarazi nauela.

Planteamendua honakoa da: isiltasun(et)az hitz egiteko edo isiltasunak errepresentatzeko bide antz daude. Askotan isildua den edo isiltzen d(it)ugun hori(ek) ohiko hizkuntzatik haustea zaila da eta horregatik, isiltasuna(k) agerian uzteko beste bide batzuk ikertu nahi izan ditut, nik neuk izan dudana isiltasun handi(ar)en esperientzia abiapuntutzat eta eredutzat hartuta.

⁴ Doktore-tesi honetan aipatuta dauden ziten itzulpenak (euskaraz ez zeudenak) nik egin ditut.

Hori horrela, zergatik ez ikusi isiltasuna(k) ahalduntzeko⁵ bide bezala?

Isiltasun(are)n interpretazio bakarra sinplifikazio handiegia da, eta beraz, arriskutsua. Lehen gerturatzean ohartu nintzen isiltasunak/isiltasunek esanahi ezberdinak zituztela, baita kasu, pertsona edo gertakari berari dago(z)kionean ere. Isiltasuna(k) erabiltzerakoan, boterea ikusi dut, hitza dutenek isilduen gainetik ezartzen dutena aurreikusten nuen nik, baina, isiltasuna(k) ahalduntzea ere ekar dezake, eta hori ere aurkitu dut. Isiltasuna(k) *logosaren* kontrola dutenek proposatzen duten hitz horietatik ihes egiteko modu bat izan daite(z)ke, maskulinitasun hegemonikoaren ezaugarriak dituen lengoaiatik urruntzeko era bat. Isiltasuna(k) ekintza bezala ikusia(k) izan daite(z)ke. Isiltasune(ta)tik aritzeko gaitasuna errekonozitzen saiatu naiz, isiltasun hori(ek) garrasi edo hitz bihurtu baino, isiltasun hori(ek) errespetatzen eta bere horretan mantentzen saiatu naiz. Kontutan hartu, hari/haiei buruz egiten dudan interpretazioa edo egiten ditudan interpretazioak batzuk direla, baina beste aukera asko daudela.

⁵ Ahalduntzea eta jabeakuntza bi terminoak erabili dira, ez dago guztiz finkatuta eta zalantzak sortzen ditu Mari Luz Esteban-ek (2012) esaten duenari jarraiki. Berak honela definitzen du: “emakumeek (gizaki orok) erresistitzeko, aldatzeko eta eraldatzeko duten gaitasuna bultzatzen eta ahalbidetzen duen botereaz arituko ginateke” (Esteban, 2012: 9). Ahalduntze kontzeptuari buruz ikus: DE LEÓN, Magdalena (bil.) (1997) *Poder y empoderamiento de las mujeres*, Bogotá: Tercer Mundo Editores / Universidad Nacional de Colombia; DEL VALLE, Teresa (koord.); APAOLAZA, Jose Miguel; ARBE, Pakita; CUCÓ, Josepa; DIEZ, Carmen.; ESTEBAN, Mari Luz.; ETXEBERRIA, Feli; MAQUIEIRA, Virginia (1999) *Modelos emergentes en los sistemas y relaciones de género*, Memoria final de investigación.

Eromena

Eromena...

Erotuko naiz?

Erotuta nago?

Verak psikiatrikoan hainbeste urte eman zituela jakinda, psikologoak aurrekariak aipatu eta aurretik eta ondoren sentitzen nuen ezinegona zela eta, nire barruei etengabe errepikatzen nien zerbait zen eromenarena.

Eromena...

Erotuko naiz?

Erotuta nago?

Ikerketa lan honetan, *eromena* terminoa errekuperatu nahi izan dut. Mendebaldeko medikuntza-sistema hegemonikoak “buruko gaixotasuna” erabiltzen du gaur egun; baina lan honetan zehar “buruko gaixotasuna” elkarrizketatuek espresuki edota testuetan literalki aurkitu dudanean bakarrik erabili nahi izan dut. “Buruko gaixotasun” terminoak, diagnostikoak ateporalak eta unibertsalak balira bezala aurkezten dituela iruditzen zait, “naturalki” emanak balira bezala, gizakia horrekin jaio eta medikuaren edota gizartearen lana horiek identifikatzea balitz bezala. Termino horrekin, ez da “deskubritze” hori kulturalki eta sozialki baldintzatuta dagoela adierazten. Kontrako aldean kokatu dezakegu *eromena* terminoa; zientifikotasunik gabekotzat jotzen da gehienetan, hori dela eta medikuntzatik (zientzia bezala hartzen den horretatik) baztertu egin da.

Eromena irain bat bezala ere ikusi izan da maiz, zientziak “buruko gaixotasun” erabilita errespetu eta babes handiagoa ematen dielakoan diagnostikoa egiten zaien pertsoneri. Baina, “buruko gaixotasun” bat diagnostikatuta duten pertsonen berdina berdina bizi dute horrek dakarren estigma gure gizartean: “Eromena buruko-gaixotasun bezala izendatzea, sailkapen bat da, diagnostiko bat eta etiologia bat; bere barne hartzen du, baita ere, balorazio negatibo bat eta baita ukazioa edota gizarte-errukia ere” (Lagarde, 2011:686).

Honela azaltzen du ideia hau, Almudena Calvo Radio Nikosiako⁶ erredaktoreetako batek elkarrizketa batean:

“Ero hitza gustatzen zaigu dramatismo eta negatibotasun guztia kentzen diogulako, ulertzen dut terminoa nahiko gogorra izan daitekeela gaian oso oso oso sartuta ez dauden pertsonentzat, ero hitzak baduelako mespretxuzko tonoa bat, baina guk naturalizatu egiten dugu”⁷.

Judith Butlerrek *Cuerpos que importan: sobre los límites materiales y discursivos del “sexo”* (2002) liburuan *queer* terminoaren inguruan proposatzen duenarekin alderatu dezakegu *eromena* hitzaren erabilera. *Queer* hitza bazterketarako erabili zen hasiera batean, ondoren termino hori errekonstratu eta debekua edo degradazioak esanahia bera irauli dezake; termino horretatik bertatik abiatzen den baieztapen politikoa bihurtu eta baieztapen hori deuseztatzeko aurretik eman zitzaion esanahitik garatzen delarik (Butler, 2002:325):

“ ‘*Queer*’ hitzak oposizio kolektiboarentzako tokia izan behar badu, hainbat gogoeta historiko eta etorkizunerako perspektibak egiteko abiapuntua, orainaldia dena izaten jarraitu beharko du: inoiz guztiz jabetua izan ez den terminoa, baizik beti aurreko erabilpen horretatik errekonstratua, okertua eta desbideratua [*queer*] izan dena eta premiazkoak eta hedagarriak diren helburu politikoetara zuzendua” (Ibidem:320).

⁶ Radio Nikosia, irrati bat da non euren hitzetan: “atari bat da, komunitateari irekita dagoen plaza intimo bat, entzute anitzaren territorio berri bat, ekintza politikoaren eta parte-hartze sozialarena, buru osasunaren inguruko arazoren bat diagnostikatutako pertsonetatik eta pertsonekin egiten da”. <<http://www.radionikosia.org/>>

⁷ Itzulpena nirea da. Honako hauek dira bere hitzak: “Nos gusta la palabra locos porque le quitamos dramatismo y toda la negatividad, entiendo que es un término un poco fuerte para personas que no están muy, muy, muy metidas en el tema, porque tiene un tono despectivo la palabra loco, pero nosotros lo naturalizamos” (Radio Euskadiko “La Galería” saioan egindako elkarrizketa, 2012-10-07, <<http://www.eitb.com/es/audios/detalle/965199/la-galeria-recorre-caminos-locura-2-parte/>>).

Era honetan, *eromena* terminoak erresistentzia aktiboaren eta subertsioaren ideia mahai gainean jartzen ditu; berrirakurketa bat egiteko aukera daukagu, esanahi sozial eta politikoa izan dezakeelarik. Beraz, *eromena* erabiltzeak baditu abantailak, malguagoa da, aldakorra denboran eta espazioan, une batean gauza batzuk barneratuko ditu eta beste batean beste batzuk. Termino batekin talde bat definitu nahi izaten dugu askotan, baina ikerketa honetan *eromena* ahalik eta era irekienean aurkezten saiatu nahiko nuke. Eskuaratean duzun lan honetan hori ezinbestekoa da eta terminoa afiliazio modu bat bezala proposatzen dut, Butlerrek *queer*-ekin egiten duen bezala: “Beharrezkoa da ‘*queer*’ terminoa afiliazio modu bat bezala ikustea, baina kontutan hartu behar da baita ere kategoria bat dela zeinek ezingo dituen errepresentatu asmo dituen guztiak bere osotasunean deskribatu” (Butler, 2002:323). Aukera zein litzateke? Gauza finko eta itxi bat bezala aurkeztu baino, terminoak etengabe irekia eta berrirakurria izateko aukera zabalik uztea.

Sarrera honetan argi utzi nahi dudan beste gauza bat zera da, nire nahia ez da *eromenaren* zergatian sartzea. Erabaki horren arrazoia Dolores Juliano-ren hitzak erabiliz azalduko dut:

“Arazo teoriko garrantzitsua ez da zergatik hainbat pertsonak ezarritako era hori ez den beste era batera aritzen diren, baizik nola eraiki eta mantentzen diren arau horiek, zein funtzio sozial betetzen duten eta zein zigor sistema inplementatzen duten euren inguruan” (2006:12).

Azpimemoria

Memoria ofizialaren parte ez den memoria horretaz ari naiz azpimemoriaz hitz egiten dudanean. Proposamena ez da azpimemoria memoria izatera iristen ez diren horiek osatzen dutela, izan ere, memoriara pasako bagenitu, hau da, memoria ofizialera pasatuak izatea lortuko bagenu, euren oinarri eta bereizgarri diren elementu asko galduko genituzke. Azpimemorian egoteak baditu bere abantailak, ez da kulturalki eta moralki definitutako logikaren barnean sartu beharreko zerbait eta beraz, kontraesanak azaltzeko aukera gehiago emango digu; adibidez, ez ditugu maskulinitasun hegemonikoaren ezaugarritzat jotzen den *logos* horren arauak derrigorrez jarraitu beharko eta beraz, “logika propio” bat sortzeko aukera ematen digu.

Azpimemoriaz ari naizenean ez naiz memoriak baino garrantzia gutxiago duen zerbaiti buruz ari; memoria ofizialetik aparte mantendua eta urtetan isildua eta hutsune bihurtua izan den zerbaiti buruz baizik. Honek guztiak ez du esan nahi azpimemoriak memoriak baino atentzio gutxiago merezi duenik, kontrakoa, garrantzitsua litzateke azpimemoriaren parte denak azpimemoriaren parte izaten jarraitzea eta memoriak bezainbesteko garrantzia izatea, etengabe azpimarratuz, bide batez, azpimemorian egoteko arrazoia zein den.

Azpimemoriak ihes egiten die memoria ofizialak eskatzen dituen araei, ez du memoriaren parte izan nahi.

Metodologia

Ikerketa lan honetan, Cristina Larrea Killinger-ek aipatzen duen “intentsitate etnografikoak” garrantzia handia izan du; neurri handi batean, pertsonaletik izugarri duen lan bat egiteak horretara eraman zaitzake. Neuregandik hasten ziren isiltasunak gainditzea pausu edo ahalegin handi bat izan zen, eta ondoren, landa-lana nire beldur askoren iturburu edo ondorio zen psikiatriko batean egiteak Larrea-k aipatzen duen “intentsitate” hori bete betean sentitzea ekarri dit.

“Intentsitate etnografikoa landa lanean erreflexibitateak eta emozioak indar gehien hartzen duten jarrera metodologikoa da, era honetan behatzen diren fenomenoek ulermen prozesua erraztuz” (2011:11).

Behin baino gehiagotan sentitu dut landa-lana (batez ere behaketa parte-hartzailea) alde batetara uzteko gogoia, baina sentitu dudak beldurrak beste alderdi batzuk jorratzen ere lagundu dit. Hori dela eta, pertsonalki asko lagundu didaten gogoetak egitera iritsi naiz. Landa-lana ez da datu-bilketa hutsa izan, zerbait gehiago izan da eta hori horrela izateak, intentsitate horrek, beste ulermen-aukerei adiago egotera eraman gaitzake (Ibidem:13).

Metodologiaren atal honetan sartu nahiko nukeen beste elementu bat dago: zoria. Olatz González Abrisketak aipatzen du, ikerketa lanetan lortzen ditugun ezagutzen edota berrikuntzen osagaietako bat dela zoria (2011:47). Doktorego tesi honen oinarrian dagoen Master Amaierako Lana, *Eromenaren irakurketa feminista bat: 1935. urtetik 1986. urterarte Santa Agedako psikiatrikoan egon zen emakume baten antibiografia* (2011)⁸, egiterakoan dagoeneko zoriaren garrantziaz ohartu nintzen. Zoriak eragin handia izan zuen une bat Veraren jaioterrira joan nintzen egunean gertatutakoa da:

⁸ Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) Ikerketa Feministak eta Generokoak Masterraren barruan eta Euskal Herriko Unibertsitateko Berdintasunerako Zuzendaritzaren diru-laguntza batekin egindako Master amaierako lana da.

Bi lagunekin joan nintzen Vera jaio zen baserria ikustera, banekien baserria ez zutela bota, eta inguru hura ikusteko gogoa nuen. Baserria ez dago herrian bertan eta ez neukan oso garbi zein zen hartu beharreko errepidea, hori zela eta, herrira sartu eta taberna batean galdetzea erabaki genuen. Tabernariak esan zidan bazekiela non zegoen baserria, baina bere arrebak azalduko zigula hobeto bidea, bertan bizitako gizon batekin baitzegoen ezkondua. Arreba iritsi zen berehala eta hara zergatik joan nahi nuen galdetu zidan. Nik esan nion birramona bertakoa nuela eta baserria ikusi nahi nuela eta bide batez, bere senarrari Verari buruz galdetzeko aukerarik izango ote nuen galdetu nion. Emakumeak esan zidan saiatuko zela (taberna ondoko etxe batean bizi ziren) eta berehala esango zidala zer edo zer. Hamar minutu besterik ez ziren igaro eta emakumea guregana itzuli zen, bakarrik. Papertxo bat zekarren eskuartean eta esan zidan bere senarrak ez zuela horri buruz hitz egin nahi, baina senarraren ahizpa batzuen (Veraren ilobaren) telefono zenbakiak eman zizkidan. Arkatzez idatzita oroitzen ditut izen abizenak eta telefono zenbakiak, koaderno txiki batetik kendutako paper batean. Emakume haren senarraren aita eta Vera anai-arrebak ziren, Veraren iloba zen beraz. Eskerrak eman genizkion emakumeari, papertxoa hartu eta autorantz abiatu ginen. Izen ezberdinak zeuden idatzita eta batek eman zidan atentzioa, Veraren izen bera zuen emakume batena zen eta zalantzarik egin gabe, hari deitzea erabaki nuen. Arratsalde hartan bertan, eta baserria ikustera beste egun batean itzuliko nintzela erabakiz, Veraren iloba baten⁹ etxean amaitu nuen kafea hartzen eta birramonaren inguruko istorioak entzuten.

Ikerketa lan honetan erabilitako metodologia kualitatiboa izan da. Horren barruan kokatu daitezke behaketa parte-hartzailea, sakoneko elkarrizketa egituratu gabeak eta artxiboko analisisia. Lanaren atal bakoitzean eta lantzen dudan gaiaren arabera sailkatu eta garatu ditut teknika horiek jarraituta jaso ditudan emaitzak: sakoneko elkarrizketak familia ezberdinetan aurkitutako emakume eroen inguruko isiltasuna(k) lantzeko erabili dut (*Isiltasunak nonahi* atalaren lehen zatian); behaketa parte-hartzailea psikiatrikoko isiltasunaz ari naizenean aipatzen dut (*Isiltasunak nonahi* atalaren bigarren zatian) eta artxiboko analisisia, berriz, 1937tik 1950era bitartean eroetxean ingesatutako 8 emakume ezberdinen istorioak kontatzen ditudan zatian (*Frankismo garaiko isiltasune(t)an arakatzuz: eroetxeetan sartutako emakumeen istorioak*). Dena den, esango nuke teknika guztiek izan dutela elkarreragina; denek ere, ikuspegi zabalago

⁹ Luisa Etxeberria, *Isiltasuna(k) familietan* atalean berarekin izandako elkarrizketaren zatiak irakur daitezke.

bat izaten lagundu didate eta ez nintzateke iritsi naizen lan-egiturara iritsiko teknika ezberdinek emandako emaitzengatik ez balitz.

Behaketa parte-hartzailea Gipuzkoako psikiatriko batean egin da, hilabeteak eman nituen (2013ko azaroaren 5etik, 2014ko uztailearen 17ra) han behaketa lana egiten eta ondoren, literatura tailer bat osatu genuen bertan ingresatutako hainbat pertsonen eta nik neuk. Behaketa parte-hartzailea egin ahal izatea, beraz, egoerak berak ekarritako zerbait izan zen.

Psikiatrikoan sartu nintzenean asko ziren egiten ari nintzenaren berri jakin nahi zutenak eta aurretik arduradunekin hitzartu nuen galdetzen zidatenei egia esan behar niela. Egiten ari nintzena azaldu beharrak galdetzen zidanarekin elkarrizketa bat izatera bultzatzen ninduen; bestalde, hainbat ekintzetan ere haiekin parte hartzeko proposamena luzatu zidaten. Bertan eman nituen egunen kontakizuna eguneroko batean idatzi nuen eta pasarte batzuk psikiatrikoko isiltasunaren adibide bezala erabili ditut. Behaketa parte-hartzailearen barruan sartzen dudan beste gauza bat literatura tailerrarena da: 2013ko abendutik 2014ko uztaile bitartean, astean behin eta ordu eta erdiz. Zortzi bat lagunek parte hartzen genuen, kopurua egunaren arabera aldatzen zen, ez baitzen derrigorrezko aktibitate bat eurentzat eta nahi zutenek¹⁰ eta nahi zutenean etorri zitezkeen. Tailerrean testuak irakurtzen eta idazten genituen. Batzuetan gai libreak ziren eta beste batzuetan eurek edo nik proposatutakoak. Literatura tailerra egiteko ideia isiltasunari/isiltasunei buruz idazteko zailtasunari irtenbide bat bilatzeko lanean ari nintzenean egitea erabaki nuen.

Sakoneko elkarrizketak senideren bat psikiatrikoan urtetan sartuta eduki duten pertsonen egin dizkiet, elkarrizketak ez dira egituratuak izan baina hospitaleratzeak eurengan zer nolako eragina izan duen jakitera bideratu ditut galderak. Elkarrizketatuetako gehienak zaila egiten zitzairen gai bati buruz aritu behar ziren hizketan eta elkarrizketa bakoitzak bere bidea hartu zezan uzten saiatzen nintzen, gehiegi behartu gabe. Sakoneko elkarrizketak egin dizkiet baita ere psikiatriko ezberdinetan lanean egon diren psikiatra eta erizainei (denak ere erretiratuak 1940ko hamarkadara ahalik eta gehien gerturatzearen, frankismo garaian aritu dira instituzio hauetan lanean). Elkarrizketatuak aurkitzeko moduari dagokionez esan elkarrizketetako asko *Ni, Vera* eleberria irakurri eta nirekin kontaktuan jarri diren pertsonen egindakoak izan direla. Liburuak, nire esperientziari buruz publikoki hitz egiteak, beste batzuk zer kontatua bazutela esatera bultzatu dituela esango nuke; hori horrela, ikerketa honetarako elkarrizketa egiteko baimena eskatu nien. Batzuek onartu egin zuten, beste batzuek gogorregizat jotzen zuten euren

¹⁰ Psikiatrikoko arduradunek erabakitzen zuten nori proposatu tailerrera joateko aukera eta nori ez.

esperientzia eta ez zuten horri buruz hitz egin nahi izan. Hainbat elkarrizketa bertan behera utzi behar izan ditut hitzartu baino pare bat egun lehenago, elkarrizketatuak hala eskatuta; eta beste elkarrizketa baten aipamenik ez dut egingo, elkarrizketa egin nion pertsonak hala eskatuta. Denera, hamaika elkarrizketa egin ditut. Zazpi, emakumezko-senideren bat ingresatuta eduki duten pertsonak dira (bost emakumezko¹¹ eta bi gizonezko, 40 eta 90 urte bitartekoak), gainontzeko lau elkarrizketa bi psikiatra (gizonezkoak) eta bi erizaini (emakumezkoak) egin dizkiet, denak 60 urtetik gorakoak.

Artxiboaren analisisa metodologiaren barruan erabili dudana beste teknika bat izan da. Behaketa parte-hartzailea egin dudana psikiatrikoko artxiboan egon naiz (2012ko azarotik 2013ko apirila bitartean) eta 1937. urtetik 1950. urtera psikiatriko hartan bertan ingresatuta egon ziren 458 pertsonen mediku-txostenak irakurri ditut. Txosten horien barruan psikiatreek idatzitako oharra, erizainek eta mojek idatzitako ingresatuari buruzko egunerokoak, ingresatutako pertsonen egindako idatziak (eskutitzak eta testuak) eta baita ingresatutakoei senideek edota gertukoek idatzitako eskutitzak aurkitu ditut. Artxiboan lortutako informazioak garrantzia handia izan du eta ikerketa lan honen bigarren atal nagusia informazio horretan oinarrituta dago. Aipatu nahiko nuke baita ere, artxibokoa esperientziak berak garrantzia handia hartu duela eta teknika honen inguruan nuen aurreiritzia (erabat instrumentala) aldarazi egin didala.

Metodologiaren inguruan aipatu nahiko nukeen beste puntu bat, ikerketa hasterakoan ikusten ez nuen zerbait da. Lanarekin aurrera egin ahala garrantzia handia ematera eraman nau proposamen teoriko-metodologiko bat egitea erabaki dudalarik. Laburbilduz, planteatzen dena zera da: ikerketaren idazketa ere metodologiaren parte da, idazketa ez da ikertu dudana islatzeko tresna hutsa izan. Idazketa, amaitu gabeko ikerketa baten parte izan da edo hobeto esanda idazketa ere ikerketa izan da. Idazketarekin esperimendatuak, eta landan

jaso,

eman,

sentitu,

¹¹ Elkarrizketa egin ondoren ez erabiltzeko eskatu zidan emakume hauek batek eta hala egingo dut. Dena den, esan nahiko nuke beste elkarrizketatuek esandako horretatik oso gertu dagoela berak kontatutako guztia eta, beraz, indartu besterik ez luke egingo familia barruko isiltasunari/isiltasunei dagokion atalean azalduko dudana.

antzman...

... dudana islatzea ikerketarekin jarraitzeko modu bat izan da, ez ikerketaren emaitzak jakitera emateko baliabide soila. Ikerketa lan honek etnografiaren idazketa ere botere harremanek zeharkatzen dutela ohartzera eramana nau. Hori horrela, idazketaren ariketa egiten ari garenean gogoeta egitea garrantzitsua dela deritzot, hau da, gauzak nola azaldu eta nola justifikatu “behar” diren eta nola azaldu “behar” diren horretatik ateratzeko saiakera txiki bat egiten saiatu. Gainera, uste dut Antropologiak hori egin ahal izateko aukera bikaina ematen duela, beste hainbat diziplinetan horrelako zerbait onartua izateak zailtasun handiak ekarriko bailituzke.

Beti ere justifikazio teorikoetan aritzeko joera daukagu, ia-ia inposatutako zerbait dela sentitzen dugu, baina, benetan horrela da? Edota guk geuk barneratuta daukagun zerbait da eta gauza bera egiten jarraitzen dugu? Nik neuk ere nire lanaren idazketa justifikatzeko atal bat osatu dut ikerketa lan honetan, aukeratutako moduaren inguruko azalpenak eta erabakiak arrazoitzen saiatuz. Esaterako, dagoeneko nahikoa onartua dagoen autorearen erreflexibitatea oraindik ere justifikatzeko zitak eta zitak erabiltzen ditugu, akademiaren objektibotasun horretatik kanpo egon arren gure lanak duen balioa aldarrikatu eta arrazoitzearen. Gure jarrera etengabe teorizatzeak arrazionaltasunezko gogoeta egitea behartzen gaitu, eta gure metodologia arrazoiz justifikatzen dugu, hortik kanpo egon daitezkeen aldagaiak joko kanpo utziz. Aldagai horiek guztiak idazketan bertan kontuan hartu nahi izan ditut eta batez ere, bertan islatu.

Helburuak eta Hipotesiak

Doktore-tesi honetan gai ezberdinak jorratzen dira eta helburuek ere arlo ezberdinak ukitzen dituzte. Nagusienak antropologikoak eta ikerketa feministaren eremukoak dira, baina historikoak, literatura arlokoak eta psikiatriarenak ere badira tarteko. Dena den, helburu guztiak ikuspuntu antropologikotik eta genero ikuspegi batetik landuak izan dira, bai helburu historikoak, literarioak edota psikiatriaren arlokoak badira ere. Aipatu beharra daukat, ikerketaren hasieran helburuak gutxiago zirela eta etnografian sartu ahala helburuak gehitu ditudala (baztertuen komunikatzeko moduari eta idazketari dagozkionak). Helburuen zabaltzea lagungarria izan zait ikerketan bertan eta doktore-tesiak hartu duen forma dela eta lehen tokian jartzea erabaki dut, datozen orrialdeetan datorrenarekin lotura egin ahal izatea errazagoa suertatzen delako.

Lau helburu nagusi zehaztu nahiko nituzke

- Isilarazten direnek erabiltzen duten komunikatzeko era aztertu:
 - Hitzaren eta arrazionaltasunaren arteko kultur-lotura frogatu.
 - Arrazionaltasuna eta maskulinitasun hegemonikoaren arteko lotura ikusi.
 - Hitzaren subertsioa tresna feminista izan daitekeela proposatu.

- Hutsune bihurtzen dugunak gudan duen eragina aztertu:
 - Zer bihurtzen dugun hutsune ikusi.
 - Aipatzen ez dugunak nola baldintzatzen gaituen aztertu.

- Baztertuta daudenek testuinguruari, izan mikroa (familia bat, esaterako) edo izan makroa (gizarte bat, adibidez), buruzko informaziorik ematen ote duten aztertu.
 - Baztertzen diren kasuak zeintzuk diren aztertu.
 - Baztertzen direnen diskurtsoak bizi duten testuinguruarekin erlazionatu.

- 1940ko hamarkadan Hego Euskal Herrian psikiatrikoetan sartu zituzten emakumezkoen kasuak, psikiatriaren azterketa feministaren teorian kokatzea eta kasu horiek oinarritzat hartuta testuingurua osatzea.
 - Erlijio katolikoak gizartean zuen eragina aztertu eta emakumeari buruz zuen iritzia ikusi.
 - Zientziak *emakumearen* eta eromenaren artean egin zuen lotura azaldu.
 - Emakumeak psikiatrikoetan sartzeak euren erresistentzia jarrera batekin zerikusirik ba ote duen ikertu.

Helburuetan oinarritutako hipotesiak dira jarraian azalduko ditudanak, helburu bakoitzetik hipotesi bat atera dudalarik.

- Isiltasunetara kondenatuak direnek edo isiltasunak aukeratzen dituztenek hitza ez den beste komunikatzeko modu bat erabiltzen dute.
 - Erotzat jotakoek (arrazoi eza bezala ulertuta) hitza erabiltzeko zailtasunak izango dituzte, hitza arrazionaltasunarekin lotzen delako.
 - Arrazionaltasuna eta maskulinitasun hegemonikoaren arteko loturak, hitzaren erabilpena gizonetzkoen uztan die, feminitatea arrazoi ezarekin eta beraz isiltasunarekin lotuz.
 - Hizkuntzaren subertsioa tresna feminista erabilgarria izan daiteke.
- Hutsune bihurtzen dugunak gudan eragin zuzena du:
 - Hutsune bihurtzen ditugunak markatzen den eredu sozialetik at daudenak dira eta, kasu askotan, horiekin identifikatzeak beldurtu egiten gaituelako isilarazten ditugu.
 - Aipatzen ez dugunak gure mugimendu guztiak baldintzatzen ditu, etengabe ari gara hori ekidin nahian eta horrek begirada etengabe hor jartzea dakar.
- Bazterrean daudenen inguruko informazioa eskasa izaten da eta informazio murrizt horrek garaian garaiko gizarteari eta moralari buruzko informazio garrantzitsua ematen digu.

- Bazterten diren kasuak moralki eta sozialki markatzen den “normaltasunetik” at dauden jarrerak dituzte.
 - Bazterten direnen diskurtsoak testuinguruarekin lotura estua dute eta testuinguruaren berri ematen digute, beste ikuspuntu batetik bada ere.
- 1940ko hamarkadan Hego Euskal Herrian psikiatrikoetan sartu zituzten emakumezkoen kasuek psikiatriaren eta oro har gizartearen printzipio patriarkalen berri emango digute:
 - Frankismo garaiko zutabeetako bat erlijio katolikoa izan zen eta honek *emakumeari* buruz zuen ikuspegia atzerakoia eta gizarte patriarkalean oinarritutakoa izan zen: ama eta emazte.
 - Zientziak feminitatearen eta maskulinitasunaren arteko banaketa babestu zuen eta feminitasuna emozioekin lotu zen, eromenerako joera handiagoa zuela “zientifikoki” defendatuz.
 - Emakumeak psikiatrikoetan sartzeak euren erresistentzia jarrera erakusten zuen (kontzientea edo inkontzientea): psikiatrikoetan amaitzen zuten emakumeek “zegokien” rola alde batera uzten zuten.

Lanaren egitura

Ikerketa lan honen egitura hasieran aipatutako hiru ardatzek, isiltasunek, eromenak eta azpimemoriak gidatzen dute eta bi atal nagusitan banatu ditut.

Lehen atalean, *Isiltasuna(k) eta eromena: esaten ez denak ere egiten gaitu*, bi zati nagusi ditu: alde batetik, isiltasunez betetako gai baten inguruan ari naizela erakusteko isiltasunak aurkitu ditudan bi inguruak (familia eta psikiatrikoa) lantzen ditut. Eta beste alde batetik, isiltasun horiek errepresentatzeko egin dudana bidea eta hartu ditudan oinarriak azaltzen ditut; zati honetan “obra-etnografiko totala” deitu diodan proposamen teoriko-metodologikoa egiten dut.

Bigarren zatian, *Frankismo garaiko isiltasune(t)an arakatzuz: eroetxeetan sartutako emakumeen istorioak*, artxiboko analisiaren kokapen bat egiten dut lehenik eta behin. Ondoren, artxiboaren analisiaren ondoren aukeratu ditudan zortzi emakume “eroen” istorioetan murgiltzen naiz. Amaitzeko, emakume horien istorioak oinarritzat hartuz testuingurua osatu eta euren jarreraren erresistentzien inguruko gogoeta egiten dut; erresistentzia toki askotan aurkitu daitekeelako: “Emakumeek borroka egin zuten zeinu politiko eta soziala zuten erresistentzia ikusgarriagoen bitartez, baina baita eguneroko errebeldien eta bizirauteko estrategien erresistentziak erabiliz” (Nash, 2013: XII).

Lanaren egituraz ari naizela, bibliografia osatzeko erabili dudana modua ere azaldu nahiko nuke. Bibliografian, testuan bertan aipatutako autoreen lanez gain, aipatu ez baina irakurri ditudanak ere barneratzea erabaki dut. Ikerketa honetan aipatzen ez denak duen indarra kontutan hartuta, aipamenik ez egin arren, irakurritako guztiek izan duten eragina utzi nahi dut agerian.

Idazketari buruz luze eta zabal hitz egin dezaket, eta hala egingo dut lehen atalaren bigarren zatian. Dena dela, aurreratu nahiko nuke isiltasuna(k) hutsune zurien bitartez islatu nahi izan d(it)udala eta eromenera (ustezko “arrazoi ezera”) esaldi laburren, errepikapenen eta etenduren bitartez gerturatu nahi izan du.

Kontraesanak eta interpretazio anitzak

Gogoan dut Parisera ikerketa lan honi zegokion nazioarteko egonaldia egitera iritsi eta bertan izan dudana Anne Lovell¹² tutorearekin egin nuen lehen bilera. “Zure lana kontraesanez beteta dago” esan zidan eta “hori esplizituki esan behar duzu, zure indargune bihurtu”. Egia da, ikerketa lan hau kontraesanez beteta dagoela, ziurrenik ondorio batzuk ateratzeko nahiak eramana nau hori ikustera. Ondorioak idazterakoan, beti aurkitu dut nire landa lanean ezagutu dudana norbait ondorio horretan sartzen zaila izango litzatekeena. Ondorioak ikerketa egiten duenaren interpretazio eta azalpen dira, berak ikusten duen bide baten helmuga eta Lovell-ek hori esan arte, niretzat arazo ziren kontraesanek buruhauste handiak ematen zizkidaten. Baina, kontraesan horiek lan honen indar-gune bihurtzeko aholkua eman zidanean, beste era batera sentitu nituen lan honen emaitza eta helburua, eta azkenean, ikerketa honen ezaugarri bilakatu dira neurri handi batean.

Hori dela eta, kontraesanak sarrerako honetan aipatzea erabaki dut, irakurketan ere kontuan hartuak izan daitezkeen eta ohiko ondorio garbietara iristea espero duenari aurretik horrelakoak aurkitzea zaila izango zaiola iragarri asmoz. Gai guztiek dituzte kontraesanak, ados, baina isiltasunari/isiltasunei eta eromenari buruzko ikerketa lan batean ezin da beste modu batera izan, bi kontzeptuak ere irekiak eta zabalak baitira oso, antropologiatik gerturatuz gero bederen. Budisten arabera, kontraesanak errealitaterako 84.000 mila atek edo sarrerak dira. Isiltasuna(k) interpretatzerakoan, esaterako, mila aukera daude eta horietako asko kontraesankorrek dira gainera. Eromena bera kontraesankorra da, ezarri nahi den dena beste era batera ikusten duena jotzen dugu erotzat, “normaltasunetik” ateratzen dena. Baina, era berean, “normaltasunetik” ateratze horrek ez du esan nahi zure bizitzako arlo guztietan egiten duzunik, beraz, kontraesanak aurkituko ditugu “normaltasun” horretatik ateratzen den pertsona horretan ere. Isiltasuna(k) hitz bihurtzeko nahia dago batzuetan. Eta gero hitzak isiltasun bihurtzekoa. Ahotsa izan nahi duenak ahotsa galdu nahi du askotan. Hutsuneak eta isiltasunak beteta daude, eskutitzak erdi hutsik eta eskutitzak guztiz beteta. Gainontzekoek nahi dutena egingo ez duela aldarrikatzen duenetik, agintzen diotena gustuz egitera iristen dena. Eta interesgarriena, kontraesan horiek guztiek uzten duten interpretaziorako zelaia zabala da.

¹² Paris-Descartes unibertsitateko irakasle emeritua da, osasunaren antropologiaren eta zientziaren antropologiaren bidegurutzean kokatzen du bere burua.

Isildu, behartuta.

Isildu, lasaitzeko.

Isildu, hitz egitea debekatuta dagoelako.

Isildu, ez esateko.

Isildu, hitzengatik epaitua izango naizelako.

Isildu...

“Kontraesanen presentzia ezegonkortasunaren froga da [...] auresan daiteke sistema ez dela dagoen bezala geldituko, zerbait gertatuko da” (Thuren, 1993:86). Kontraesanak, oztopo izatetik mugimenduaren eta aldaketaren oinarritzko elementu bezala aurkezteak ikuspegi estatiko bat eskaintzetik urrun kokatzen lagun gaitzake.

I. ISILTASUNA(K) ETA EROMENA: ESATEN EZ DENAK ERE EGITEN GAITU

“E as rosas faziam-lhe falta. Haviam deixado um lugar claro dentro dela. Tira-se de uma mesa limpa um objeto e pela marca mais limpa que ficou então se vê que ao redor havia poeira. As rosas haviam deixado um lugar sem poeira e sem sono dentro dela”¹³ .
(Lispector, 1998:33)

Nola idatzi isiltasunei/isiltasunari buruz, hitzek isiltasuna(k) bera/eurak hausten badituzte/badu?

¹³ “Arrosak behar zituen. Toki oso argia utzi zuten bere barruan. Bota mahai garbi batetik objektu bat eta honek utzitako marka garbiarengatik inguruan hautsa zegoela ikusten da. Arrosek hautsik eta barruan ametsik ez zuen toki bat utzi zuten”.

Zer eta nola idazten dute isilduek?

- Aurrekaririk baduzu zure familian?

Ez nion ezer erantzun.

Banekien baietz, baina ez nion erantzun.

Mutu geratu nintzen...

...

Isiltasun hark beldur bat islatzen zuen. Isiltasun hura beldur bat zen. Urtetan isilpean mantendutako zerbaiti buruz hitz egiteko ikara. Inoiz hitzik jarri ez zitzaion zerbaiti hitzak jartzeko ezintasuna.

Dardarka nengoen.

Dar-dar-dar...

Dar-dar-ka.

Hitzek ez zuten sentitzen nuena islatzeko behar adina indarrik, behar adina zehaztasunik.

Mutu geratu nintzen...

Ez nion ezer erantzun.

Urteen poderioz gogortu zen isiltasuna ukitu nezakeen baina ezin nuen hari buruz hitz egin. Isiltasuna zen, azken finean. Hari buruz hitz egitea isiltasun egiten zuen ezaugarri nagusia haustea zen.

Beldurra nuen.

Dardarka nengoen.

Dar-dar-dar.

Beldurra diagnostiko bat egingo ote zidan. Nire patua "buruko gaixotasun" bat izango ote zen. Eta isilik geratu nintzen.

...

...

Gero bota nion...

EZ.

Gezurra zen, eta agian antzemango zuen, neure isiltasun urduriak izugarri komunikatzen zuelako. Isiltasun hura beteta zegoen. Mila gauzez, unez, sentrazioz betea. Baina, ezetz esan nion.

EZ.

EZ.

Eta... EZ.

Ez zen lehenengo aldia. Gertuko senideek nola nengoen ikusi zutenean, nire isiltasunaren atzean zegoen emakumea ekarri zidaten gogora. Baina inork ez zuen hari buruzko azalpenik ematen, adibide bezala jartzen zuten eta ni neu ere ez nintzen gehiago galdetzeraz ausartzen, nire etorkizuna beregan ikusteko beldurra nuen. Haren bizitza nolakoa, nire patua halakoa, pentsatzen nuen.

Haren bizitza nolakoa.

Nire patua halakoa.

Haren bizitza nolakoa.

Nire patua halakoa.

Oihartzun bat zen nire buruan.

Egunak, asteak, hilabeteak igaro ziren nire isiltasunaren atzean zegoen emakumeari buruz galdetzeko indarrak batu nituenerako.

- Zer zuen birramonak? – galdetu nion aitari (bere bilobari).

Ezin dut bere erantzuna hitzez hitz erreproduzitu, baina badakit esan zidala urte asko eman zituela psikiatrikoan eta berak beti ezagutu zuela han, ez zidan zehaztasun gehiago eman. Gogoan dut gutxi gorabehera hauxe galdetu niola:

- Nola ikusten zenuen zuk? Eroa zegoela iruditzen zitzaizun?

Ez zekiela zer esan, hori erantzun zidan. Antzeman nuen nire galderak izutu egin zuela. Bere buruari zertan ari ote nintzen galdetu ziola uste dut. Isilik begiratu nion. Bere erantzuna ez zen nahikoa niretzat, gehiago jakin nahi nuen. Behar nuen. Eta orduan jarraitu zuen esanez berak ondo ikusten zuela, urtean bitan joaten ginela bisitan eta elkarrekin bazkaltzen genuela eta ea ni ez nintzen berarekin oroitzen. Eta, bai, ni oroitzen nintzen, oparitzen zizkidan kolonia pote urdinez, adibidez, baina ez bere jarrera zein zen gogoratzeko haina; nik bost urte nituen Vera zendu zenean.

- Ez zenuen inoiz galdetu zer gertatu zitzaion? Zergatik zegoen han? Noiz sartu zuten?

Ezetz esan zidan, ez zuela inoiz galdetu. Ezin nuen sinetsi; aita ez zen horrelakoa. Arrazoiaren bat egon behar da honen guztiaren atzean aitak galdera hori inoiz ez egiteko, pentsatu nuen. Eta, nondik eta nola hasteko ideia txikiena ere izan gabe, arrazoiaren bila hasi behar nuela erabaki nuen. Bidea egiten hasterako, beste hainbat aste igaro behar izan ziren berriro ere.

Birramonaren irudia ikerketa baino lehen agertu zen, eta aitarekin izandako elkarrizketa hura ikerketa hasi eta hainbat urte lehenago gertatutakoa izan zen. Krisi batek familian eraiki genuen isiltasuna hautsi zuen,

“krisiak potentzialki beharrezkoak bezala ikusten ditut, antzinako galderak berrikusteko aukera dira, baita arazo berriak ordu arte baztertu edota ukatu diren beste perspektiba batzuetatik ikusteko ere. Krisiek bizitzeko eta errealitate soziala pentsatzeko modu zehatz batzuen ahitzeaz gain, dakiguna ezagutza bezala eta jakintza instituzionalizatua zalantzan jarri dezaketen egoeren emergentzia ekar dezakete; baita hauen eraldaketa eta “eguneroko bizitzan” eta bizitza akademiko eta profesionalean duten instituzionalizazioarekiko kritika, hau da, instituzionalizatuarekiko etengabeko itzulera” (Menéndez, 1991:23).

Hau da kasu horietako bat. Krisi batek eragin zuen, familian instituzionalizatuta zegoen egoera bat, birramona inguratzen zuen isiltasuna – eta horrek senideongan eragiten zituen jokaerak – berrikusi eta indarrean zegoen eredia zalantzan jartzeko aukera baten aurrean egotea. Hala eta guztiz ere, berrikusketa ez zen erraza: “isiltasunari buruz hitz egiteak dakarren deserosotasuna, hari buruz hitz egiterakoan itxuraz daukagun helduleku ezan dago” (Marco, 2001:63). Eta honi Augusta Molinari-k esaten duena gehitu diezaiokegu: “Iraganaren memoria errekueratzeak orainaren errealitatearekin liskar bat sortzen du, zeinak ahanzturaren mekanismoa aktibatu besterik ez duen egiten” (2005:391). Nik uste dut kasu honetan, ahanztura baino gehiago, ez ahaztea zela/dela helburua, denek etengabe presente edukitzea. Birramonaren ingurukoak berreskuratzeak – edo behintzat horiei buruzko berrikuspen bat egiteak – orainean bizi genuen errealitatearekin egiten zuen topo aurrez aurre, talka egiten zuten bi errealitateek, eta honek isiltzen ari zen horretara iristeko oztopoen mekanismo guztiak martxan eta ekiteko prest jartzen zituen.

Borroka etengabea izan da, batez ere hasieran isiltasunezko harresiari lehen zirrikitua irekitzekorakoan. Existentziaren mugetan hizkuntzak huts egiten digu askotan (Le Breton, 2001:76), isiltasuna gailentzen da, baina horrek ez du esan nahi existentziaren mugetan zer kontaturik ez dagoenik, baizik eta, eraiki dugun lengoaia – arrazoiaren ordezkari eta ikur dena – ez dela bertan gertatzen dena edo gertatu zena transmititzeko gai, edo behintzat ezin ditugula existentziaren mugetan nagusi diren “arrazoirik gabeko” esperientziak onartuta dagoen lengoaia erabiliz kontatu. Baina, isiltzeak askotan isiltzen dugun horri indar gehiago ematea dakar:

“Baina behartutako isiltasuna su bihurtzen da, esateko desioa eta inpotentziatik aldentzeko nahia bezain sutua, komunikazioaren esperientzia berrezartzeko. Esateko eta isiltzeko ezina, botere bera duten bi beharren arteko zalantza krudela, lasaitzea ezinezkoa den tentsioak sortzen duen mina” (Ibidem:76).

Le Breton-ek isiltasunari buruz idatzitako *El silencio* (2001) liburuan isiltasun ezberdinei buruzko errepaso egiten du. Ikerketa honetan aipatzen d(ir)en isiltasuna(k) ezkutatu nahi den zerbaitekin dago/daude lotuta, eta atal honetan isiltasun hori(ek) hartuko d(it)ut hizpide. Honenbestez, sekretu batek familia batean izan dezakeen eragina aztertuko dut; baina baita – eta psikiatrikoan egin dudana behaketa parte-hartzailea ardatz bezala hartuta – eromenaren inguruan dagoen isiltasuna ere.

Honekin guztiarekin ez dut esan nahi isiltasunak beharrezkoak ez direnik, isiltasunak hitzak bezain beharrezkoak dira, batzuk eta besteak osagarriak dira. Baina, ez ditut dikotomia baten bi parte bezala aurkeztuko. Honela, Gilles Deleuze-k *Le pli - Leibniz et le baroque* (1988) liburuan materiari buruz egiten duen deskribapen batekin alderatu daiteke isiltasunen eta hitzen artean planteatzen dudana harremana:

“Materiak, hutsunerik gabeko egitura porotsua, hanpatua edo leizetsua du, beti dago leize bat beste batean: gorputz bakoitzak, oso txikia izan arren, mundu bat dauka, igarobide irregularrak ditu, geroz eta finagoa den jario batek inguratuta eta zeharkatuta, unibertsoaren osotasuna «fluxu eta uhin ezberdinak dauden materiazko urmaelaren» antzekoa zen” (1989:13).

Lengoiaren eta isiltasunaren arteko harremana ere, era horretan uler daiteke, ez dago bata bestea ez dagoenean, baizik eta biak dira “materia” beraren parte garrantzitsu eta osagarri.

Hainbat egoeren aurrean hitzak falta zaizkigula sentitzen dugu, hainbat egoera deskribatzeko nahikoa hitz ez balego bezala, eta isiltasune(ta)ra – hitzik ezara – jotzen dugu. Mingarriak diren hainbat egoeretan gertatzen den zerbait bezala identifikatu dezakegu:

“Gorputzaren iluntasunean ezkutatuta, mina mugitzen den eremua gizabanakoaren intimitatea da. Eta badago esan ezin den zerbait lengoia blokeatu eta hitzaren erraztasuna hankaz gora jartzen duena: garratzasunak, banaketak, heriotzak, ez dituzte adieraziak izateko intentsitate nahikoa duten hitzak aurkitzen” (Le Breton, 2001:167).

Jakina, ezin dugu ahaztu mingarria den hori (hitzik gabe uzten gaituen egoera) eta baita erabiltzen d(it)ugun isiltasuna(k), kulturalki baldintzatuta dagoela/daudela. Azken finean, minaren ataria ezberdina da batean eta bestean. Hori dela eta, isiltasun(ar)en inguruko azterketa bat egiterakoan ezin dugu alderdi kulturala kontutan hartu gabe utzi; baina baita lengoaia bera ere. Kultura eta lengoaia batzuk irekiagoak eta toleranteagoak dira isiltasun(ar)ekiko, hau da, isiltasuna(k) ez d(ir)a beti ezkutatu nahi denarekin, sekretuarekin eta horrek guztiak sortzen duen ezinegonarekin lotzen. Beraz, lasaitasuna adierazteko ere balio dezake(te) isiltasunak/isiltasunek. Marco-k, esaterako, isiltasuna(k) ulertzeko, erabiltzeko eta kudeatzeko kultura ezberdinen arteko interpretazioa egiterakoan, mendebaldeko kulturen eta ekialdeko kulturen arteko banaketa egiten du. Mendebaldeari dagokionez, mundu grekoan hitzak hartu zuen garrantzia azpimarratzen du, eta batez ere, isiltasunak/isiltasunek eta idatzizko hitzak/hitzek hartu zuten balio kontrajarria azpimarratzen du (Marco, 2001:11). Isiltasuna(k) ikusteko modu honek izan duen ondorioetako bat, isiltasun(ar)en inguruko ikerketak baztertzea edota garrantzirik gabekotzat jotzea izan da; esan dena izan da aztergai esan ez dena baino gehiago. Zentzu horretan, artea izan da batez ere isiltasun(ar)en mundu(et)an sartu dena, akademiak eta ikerketa lanen zientifikotasuna justifikatzeko beharrak, berriz, *logos*-ari garrantzia handiagoa ematera bultzatu gaitu. Hori dela eta, mendebaldeko kulturaren barruan egiten diren ikerketetan, isiltasuna(k) ikertu eta errepresentatzeko zailtasun ugariarekin egiten dugu topo. XX. mendeko abangoardia artistikoen, oro har, krisi bat bizi izan dute lengoiari dagokionez eta neurri handi batean isiltasune(ta)ra jotzea erabaki dute, batez ere poesiak jarri duelarik esperientzia hori praktikan (Marco, 2001:5).

Hau guztia kontutan hartuta, Emily Martin-ek egiten duen galdera batekin amaitu nahiko nuke lehen atalaren sarrera hau: “Zeintzuk dira binarioak kontrolik ez duen leku kultural eta sozialak bisitatzeko beharra planteatzen duten praktika etnografikoen ondorioak?” (2008:125). Esan bezala, ikerketan honetan ez ditugu isiltasuna(k) eta hitza(k) sistema binario eta dikotomiko baten barruan ulertu nahi eta beraz, Martin-ek aipatzen dituen ondorioak ere lan honetan bertan ikusi ahal izango dira. Are gehiago “arrazionaltasunaren” eta “irrazionaltasunaren” arten mugitzen bagara: “Irrazionalak´ bezala etiketatuak izan diren pertsonen ´arrazionalki´ jokatzeko duten egoerek azaleratu egiten dute arrazional-irrazional kategorizazioaren arbitrariotasuna eta baita bien arteko banaketaren argitasuna ere” (Ibidem:136).

Interpretaziorako zailtasun gehiago egon litezke binarioritasun horretatik kanpo kokatzen bagara, eta aterako ditugun ondorioak irekiagoak izango dira. Erantzun posibleak gehiago izango dira

eta horrek gure ikerketa zientifikotasunak eskatzen duen sailkapenetik eta “egia borobiletik” urrun egotera eraman dezake.

Azken finean, isiltasunak/isiltasunek gure entzumena aktibatu egiten dute, alertan jartzen gaituzte:

“Isiltasuna, honen ezaugarria hain da apartekoa zeinak efektu paradoxiko bat sortzen duen: gure entzumena zorrotzen du, badirudi gure belarrien boterea handitzen duela, animali ehiztari batenak gogorarazteraino findu” (Gutiérrez, 2011:49).

I. 1 ISILTASUNA(K) NONAHI

“Yo le había dicho: «Quiero vivir en la oscuridad». Pero la verdad hablaba en ella sin saberlo, e incluso, cuando ella no decía nada, aún hablaba; detrás de su muro, afirmaba algo”
(Blanchot, 1979:17).

Nancy Rose Hunt-ek, Walter Benjamin (1892-1940) aipatzen du zera esanez: “Bihurritutako soinuak entzuteak, esan ezin den eta isiltasunean dagoen horretan atentzioa jartzen duen ‘gertutasun teknika bat’ [...] mantentzea dakar” (2008:236). Hitz hauek jarraituz, eta eskuartean dugun ikerketa gaiari aplikatuz, hitzak ez diren beste hainbat “soinu” entzun beharrean aurkituko dugu geure burua esan ezin den edota isiltasune(t)an dagoen/dauden horri/horiei gerturatu nahi izanez gero, bederen. Hori horrela, isildu direnak “entzuteko” aukera izango dugu, edo behintzat euren existentziaren kontzientzia hartzeko aukera. Beatriz Celaya-k frankismo garaiko hainbat testu aztertu ondoren ateratzen duen ondorioa da:

“Esaten *denarekin* batera, gure iritziz, garrantzia bera du testuetan *esaten ez denak, isiltasunek*. Isiltasunak ideologiaren presentziaren salatari adierazgarrienak dira, izan ere, ezarritako irizpideen arabera eginiko edukien aurretiazko hautaketa bati lotuta daude”¹⁴ (Celaya, 2012:359).

Isiltasuna ez da bat, isiltasunak asko dira, arrazoi anitzek eragindakoak edota helburu oso ezberdinak lortu nahi dituztenak. Eta isiltasunengana gerturatuz gero anitzak direla konturatuko gara, isiltasunez inguratuta gaude. “Gure eguneroko bizitzan isiltasunak duen nonahikotasuna espero genezakeena baino haratago doa” (Marco, 2001:80). Eta isiltasuna(k) interpretatzerakoan arazo batekin egingo dugu topo, isiltasun(ar)en ezaugarrietako bat hitzik eza da, eta askotan hitzik eza hitzekin azaltzea ezinezkoa da, hitzik eza hitzik eza delako, eta askotan hitzik ezak

¹⁴ Kurtsibak autorearenak dira.

hori bera esan nahi du, egiten ari garena – isilik mantentzea – azaltzeko hitzik ez dagoelako jotzen dugula isiltasunera.

Isiltasunari/isiltasunei buruz – hitzik ezari buruz – idatzi duten autore askok interpretazio ezberdinak eman dizkiote/dizkiete isiltasunari/isiltasunei berari/eurei, eta interpretazio horiek erabat kontrajarriak dira askotan, kultura eta gizartearen arabera erabat aldatzen direnak ia beti.

Badakigu isiltzen ari garenean zergatik isiltzen ari ote garen?

Are gehiago, askotan isiltzen ari garenik ere ba ote dakigu?

Ikerketa lan honetan aipatzen d(ir)en isiltasunak/isiltasunek mila esanahi izan ditzake(te), baina aukera guztiak irekita mantentzeko tentazioari eutsi eta hainbat interpretazioetara mugatzen ausartuko naiz.

Isiltasun handi bat(zu)ekin egin nuen topo. Isiltasun hura/haiek ez z(ir)en hutsune bat, ez zegoen/zeuden hutsik. Kontrakoa. Berarekin/Haiekin topo egitean kristalezko masa bat zeharkatzen saiatzen ariko banintz bezala sentitzen nuen.

Ikusezina zen.

Baina sentitu nezakeen/nitzakeen.

Eta ia ukitzera irits nintekeen.

Gure familia, isiltasun handi bat(zu)en inguruan zegoen egituratuta hein handi batean. Isiltasun hori(ek) emakume bat ezkutatzeke eraiki, sortu eta erabiltzen genituen – eta d(it)ugu oraindik ere –, garaiko gizarteak eta moralak gaitzesgarriztat jotzen zuen jarrera izan zuen emakume bat ezkutatzeke, alegia. Ez nuena uste da ikerketa lanaren beste fase batean ere isiltasun(ar)ekin egingo nuenik topo; behaketa parte-hartzailea egin nuen psikiatrikoan aurkitutako isiltasunaz/isiltasunez ari naiz. Hara iritsi nintzen lehen egunean, bertako isiltasunak piztu zuen bereziki nire atenzioa. Konturatu nintzen nire imaginarioan ez zela inondik inora horrelakorik

sartzen; garrasiak, oihuak eta etengabeko bakarriketak espero nituen, baina isiltasun izugarri bat(zu)ekin egin nuen topo. Hori izan zen, isiltasuna(k) ikerketa lan honen ardatz bihurtzeko arrazoi nagusia, isiltasun bat(zu)etik abiatu eta beste isiltasun bat(zu)ekin topo egitea. Gainera, biek bazuten zerbait komunean: eromena.

Galderak iritsi ziren orduan...

Zein(tzuk) d(ir)a lehenago?

Bat(zu)ek bestea(k) dakar(tzate)?

Elkar eragiten dute?

Hauxe gogoeta egin ondoren atera nuen hipotesia: lengoia eta hitza(k) dira gure gizartean “arrazoia” adierazteko bide nagusi – “sendabidetzat” jotzen diren terapiak ere hitzezkoak dira gehienetan – beraz, “arrazoi ezara” kondenatua den pertsona, isiltasune(ta)ra kondenatua ere bada.

Datozen lerroetan bi eremuetako isiltasuna(k) sakonago azalduko ditut. Lehen eremuan aurkitu n(it)uena(k) elkarriketa sakon eta egituratu-gabeen teknikarekin aztertuko ditut; eta bigarren eremuan aurkitu n(it)uenak lantzeko, psikiatrikoan egindako behaketa parte-hartzailea eta hura egiten ari nintzen bitartean idatzitako egunerokoa hartuko ditut oinarritzat.

Isiltasuna(k) familietan: Emakume ero bat dago gure artean!

“Mediku jauna, orain denbora asko eskatu nizun nire familiako norbait hona ekartzeko. Zazpi hilabete baino gehiago dira desesperazio beldurgarriean sartuta nagoela. Denbora tarte honetan nire tailerra, nire gauza guztiak kendu dizkirate”¹⁵
(Camille Claudel, 2003:240).

Sumendi baten irudiarekin islatu daiteke gure familian Verarekin gertatutakoa. Psikologo batek eman zidan sumendiaren adibidea. Ordutik, ez dut zerbait ezkututzen denean edo ezkutatu nahi denean gertatzen dena azaltzeko irudi hoberik aurkitu. Psikologoak honela zioen gutxi gorabehera: zerbait estaltzen dugunean sumendi baten indarra hartzen/ematen du/diogu, lurpean dago ezkututzen dugun horren indarra, ezkutuan, ez dugu ikusten, baina lehertu ez dadin, gainean esertzen gara eta horrek gure mugimendu guztiak baldintzatzen ditu.

Verarekin gure familian gertatzen zena sumendi batekin alderatu daiteke. Leherketak denok sentiaraziko gintuen deseroso, dena hankaz gora jarri zezakeen eta bakoitzak norberaren burua familia horretan birkokatu beharko zukeen. Atal honetan azalduko dudan moduan, Veraren kasuan gertatzen zena beste hainbat kasutan ere ikusi ahal izan dut. Isiltasunaren bitartez mantentzen da sumendia “lasai” – lehertu gabe –, baina horrek bakoitzaren mugimendu libreak mugatu edo deuseztatu egiten ditu.

Aipatuko ditudan kasuetan paradoxikoa den gauza bat gertatzen da. Senideak batuta egotea eskatzen duen estrategia baten parte dira, hau da, nahikoa da bat sumendiaren tontorretik altxatzea, urtetan funtzionamenduan egon den sistema bertan behera geratzeko. Baina, “isiltasuna, esanezinaren metafora da, baina baita giza bakardadearena ere. Ez dago ezer isiltasunak bezainbeste isolatzen duenik” (Marco, 2001:75). Senide guztiak dira isiltasun(ar)en

¹⁵ Camille Claudel (1864-1943) eskultore frantsesa, bi psikiatriko ezberdinetan (Ville-Evrard eta Montdevergues) egon zen eta bertatik idatzi zituen eskutitzetako baten zati bat da hau.

parte, baina isiltasunak/isiltasunek berak/eurek senideen arteko elkarriketak eta elkarlana mugatu egiten ditu(zte).

Zuk zer dakizu?

Zer pentsatzen duzu?

Nola bizi duzu?

Audre Lorde-k bere esperientzian oinarrituta emandako hitzaldi batean honela dio:

“Garai hartan esperimentatu nituen gauzek asko lagundu didate isiltasuna, lengoian eta ekintzan transformatzearen inguruan sentitzen dudana ulertzen [...] Nire burua bakarrik traizionatu nuen isiltasun txiki haietan, egunen batean hitz egingo nuela pentsatuz, edo besteek hitz egin zezaten itxoina” (1984).

Badago momentu bat, deserosoa egiten bada ere, leherketa bat egon daitekeena: “Jasanezina den egoerak eztanda egitea [...] gertatutakoa isilean mantentzeko sistema familiar edo instituzionalak ezarri duen akordioa hankaz gora jartzen ausartzea da” (González, 2007:26).

Zaila da isiltasunean mantentzen den hori azaleratzeko mugimendurik edo ekintzarik egitea. Neurri handi batean, sekretua sekretu bezala mantendu da ezkututzen duena jakitea kaltegarria izan daitekeela ulertaraziz. Mehatxu bat bezala da: hau ezagutuko bazenu, zeure bizitzak txarrera egingo luke. Taussig-en hitzak dira: “Isilarazteak ez du memoria gizabanakoaren gotorlekuaren barruan gordeta mantentzeko bakarrik balio, baita bizirik daudenen inguruan dabilzan arimen botere magikoaren antolaketa kolektiboa ekiditeko ere” (Taussig, 1995:45).

Familiatan sortzen diren dinamikak oso arriskutsuak izan daitezke:

“Senideek ikasi beharko dute baita ere bata bestearengandik defendatzen: etxeko espazioa akordio- eta aliantza-hitzarmen eta traizioez beteta dago. Indar eremu bat da, non bizirik jarraitzeko estrategia anitz zabaltzen diren. Ezaugarri bakoitza, batzuk eta besteak elkartzen dituen kapital sinboliko eta balioen parte da. Baina familia eta etxea botere totalaren espazio dira. Hor barruan denetik gerta daiteke

eta obedientzia, konplizitate eta isiltasunerako mekanismo konpultsiboek funtzionatu egiten dute” (Lagarde, 2011:745).

Senide bat erotzat kontsideratu izanak hurrengo belaunaldiak ere hori bizitzera eraman ditzake, erotzearen beldurrarekin bizitzera. Hori sekretu bihurtzeak eta aipatu gabeko zerbait bezala kudeatu behar izateak areagotu egiten du bakoitzak horri buruz duen imaginario propioa eta bere imaginario hori bakardadean bizitzeak indarra besterik ez dio ematen sekretu bihurtu zutenei.

Hain zuzen, sekretuaren atzean ezkututzen den beste elementu bat boterearena da. Sekretua botere ekintza bat izan daiteke, sekretu horren bazterretan aurkitzen diren pertsonen gaineko boterea, hain zuzen, eta sekretua eraiki duten pertsonen botere hori mantentzeko aukera bakarra sekretuak bere horretan jarraitzea da. Le Breton-en arabera, botere oro elikatzen da sekretuzko espazio batetatik (2001:53). Bide beretik doa José L. Ramírez González: “Isiltasuna botererako tresna bezala erabiltzea beldurraren eta konfiantza ezaren adierazlea da” (1992:30).

Ezkutatuta.

Baina agerian.

Isilduta.

Baina oihukatuta.

Sekretuaren beraren botereak eragina izan dezan ezkutatuta mantendu beharko da, baina sekretua hor dagoela jakiteko moduan egin behar da ageriko; sekretua isildu egin beharko da, baina oihukatua izateko aukera ere gorde beharko du. Horrek ematen die boterea sekretuari, eta tabuari¹⁶, esaten ez denari.

¹⁶ Ikerketa honetan *tabu* kontzeptua nola ulertzen dudana hurrengo atalean azalduko dut, baina oro har, esaten ez den hori bezala erabili dut.

Baina, gure kasuan, Veraren kasuan...

Sumendia lehertu egin zen...

Mugitzeko askeago gara orain...

“Ezin” dugu hitz egin: tabuak eta memoria-ondokoa

Aipatzen ez den horri buruz ari naiz *tabu* hitza erabiltzen dudanean. Belaunaldi batean, arrazoi batengatik edo beste batengatik tabu bihurtu denak eragina izango du hurrengo belaunaldietan, eta ziurrenik ezin aipatuzkoa den horri buruz hitz egiteko ere arazoak izango dituzte. Belaunaldien arteko eragina aztertzeko *memoria-ondokoa* kontzeptua proposatzen du Marianne Hirsch-ek. Eta, azkenik, formalki existitzen ez den zerbaiten atzetik ibiltzea, *mamuaren arkeologia*¹⁷ egiten aritzea bezala izenda daiteke.

Jatorriz, tabu hitza Polinesiako hizkuntzetatik hartutakoa da: “*Noaren* antonimoa da (profanoa, arrunta, denontzat iristen erraza), eginbehar bat izendatzen du, beto bat” (García Martínez, 2005:144). Aipatzen ez den zerbait da, eta askotan ez dakigu “betoa duen” hori eginez gero zer gertatuko litzatekeen, imaginario bat eraikitzen dugu eta horren arabera irudikatuko dugu betoa haustek ekarriko lituzkeen ondorioak. Tabu hitza askotan beste garai batekin edota urruneko gizataldeekin lotzen dugu, baina, tabuek rol erabakigarria betetzen du gure bizitzako arlo guztietan (Holden, 2001:4) eta oso presente dauden zerbait dira.

Tabuen inguruan aritzeak bi arazorekin topo egitera eramán nau. Alde batetik, zerbait ez aipatzeak existitzen dela ere zalantzan jar dezakeela eta, beraz, taburik dagoenik identifikatzea ere zaila egin daitekeela. Eta beste arazoetako bat da “izendatu gabekoen” munduan murgiltzeak hitzak erabiltzeko zailtasunak jar diezazkigukeela. Hau da, zerbait isilpean eduki izanak hitzekin azaltzeko dugun gaitasunetik kanpo utzi du neurri handi batean, edota ez ditugu horri buruz hitz egiteko hitzak ere sortu. Jordi Costa-k tabuari buruz egiten duen analisisan umoristak aipatzen ditu: “Politikoki zuzena ez den umoristaren betebeharra izenda ezin daitekeena izendatzean datza, tabua suntsitzean... ordaindu beharreko prezioa isiltasun bat sortzea bada ere... barrearekin bateraezina dena” (2005:22). Costaren arabera, *izenda ezin daitekeena* da tabua eta beraz, umoristak hitzak jarriko dizkio eta era horretan *izendatzea* lortuko du.

Zenbat aldiz ez dugu jakin nola azaldu sentitzen edo bizitzen ari garena?

¹⁷ *Memoria-ondokoa eta kamuaren arkeologia* zuen izena Soko Phay-Vakalis irakasleak Parisko EHESSEN (L'École des Hautes Études en Sciences Sociales) emandako seminarioak (2014-2015).

Eta... hitzik ez dagoenean ezinegonak jan gaitzake. Gertatzen ari zaiguna aipatzeko ezintasunak, “normaltzat” jotzen den “logika” eta “arrazoitik” kanpo sentitzera eramaten gaitu eta atera dezakegun ondorioa honakoa da: gertatzen ari zaidana ez da ona.

Tabu bat hautsi nahi izateak tabu horren kontzientzia edukitzea eskatzen du. Bestalde, tabu bat – ekintza eta mugimendua mugatzen duen zerbait izanik – hausteko, ezkututzen duen horri buruz hitz egin behar dugu – ekintza bat egin –; baina hitz egiteko hitzak behar ditugu eta izendatu ezin daitekeen horrentzat hitzik ez egotea gerta liteke kasu askotan. Beste bide bat hartu beharko dugu, beste era batera heldu beharko gara horra eta beste era batera helarazi beharko dugu.

Mary Douglas izan da antropologian tabuari buruz ikerketa egiten erreferentzia handietako bat, *Purity and Danger: An Analysis of Concepts of Pollution and Taboo* (1966). Douglas-en arabera, tabuek lagundu egiten digute gure esperientzia sailkatzen eta ordenatzen (Holden, 2001:14), eta “hainbat balio moral oinarritzen dira, eta hainbat arau sozial definitzen dira, kutsatze arriskutsuaren sinismenei esker” (Douglas, 1973:16). “Honek esan nahi du kutsatzeko arriskua batez ere beldur moral dela, desbideratze moralaren beldurra” (Holden, 2001:14). Beraz, tabuaren funtzioetako bat kontrol soziala edota morala izango litzateke. Tabuak lortzen du, oro har, kontzientzia pribatuak eta moralaren kode publikoak bat egitea, Douglas-en hitzetan gainera, bi alderdi horiek etengabe eragiten ari dira bata bestearengan.

Erotzat jotako emakumeen eremura mugatuz, gizartearentzat “kaltegarriak” ziren eta diren jarrera batzuk dituzten pertsonak bezala ikusteak, kasu askotan – eta familia askotan – tabu bihurtu ditu, eta *esaten* den horretatik kanpo mantendu ditu. Horretarako arrazoia – edo arrazoietako bat behintzat – eduki dezaketen edo zezaketen eragin kutsakorra ekiditea da. Baina, ez hori bakarrik, aurrerago ikusiko dugun moduan – Veraren kasuan, esaterako – emakume horien bizitzaren inguruan erabakiak hartu zituztenak edo dituztenak babesteko tresna bat ere bada gertatutakoa tabu bihurtzea. Baina, tabuak beldurra eta gaitzespenaz gain, erakarpena ere sortzen du: “Freud-ek eta Bataille-k sinisten zuten tabu bihurtutako objektuak desira eta gaitzespena, biak deitzen zituela”¹⁸ (Holden:2001:20). Derrigorrezko ditu tabuak bi elementu horiek; interes edota desio sortzaile izan gabe “debekuak” ez luke zentzurik eta, era berean, gaitzespena beharrezkoa da “debekuak” bere horretan jarraitu dezan. Honenbestez, zer edo zer ezkututzen duela edota “debekatuta” dagoela – ekintza bat edo horri buruz hitz egitea izan liteke – dakigunean bakarrik existitu daiteke tabua.

¹⁸ Sigmund Freud (1856-1939) eta Georges Bataille (1897-1962).

Bestalde, tabuak ez dira gizatalde handi baten parte izan behar derrigor, eremu txikiagoetan ere – baita geuk geure buruarekin osatzen dugun horretan – tabuak existitzen dira, “esan ezin daitekeen” edo “egin ezin daitekeen” horri buruz hitz egiten ari bagara behintzat. Hori dela eta, izendatu dut *tabu* bezala Vera eta Veraren istorioa, baita erotzat jotako beste emakume batzuen ere. Le Breton-en (2011) terminologia erabiliz, *sekretu* bezala ere izendatu genitzake, baina batean eta bestean errepikatzen den zerbait izanik, *tabu* bezala izendatzea hobetsi dut. Gainera, egoera askotarako hitzik ez aurkitzeak, hizkuntzak berak sortu ez dituelako askotan, *sekretuarekin* baino gehiago *tabuarekin* du lotura. Jakina, kontuan izan behar da *tabu* terminoaren barruan sartzeak ez duela esan nahi familia batean eta bestean isiltasun hori(ek) arrazoi berberak eragin dituztenik; baina, elkar elikatu daitezke, adibidez, gizarteak mugatzen digun zerbait moralki “txartzat” ikusiko dugu eta familiaren barruan ezarriko diren arauetan ere *tabu* horrekin jokatuko dugu. Baina, kontrako eragina ere izan dezake baldin eta desioak borroka irabazten badu, eta zerbaitekiko deseroso sentitzeak hori gehiago aztertzerantz eraman gaitzake; horrek *tabua* deuseztatzeke aukerak areagotzen ditu.

“Subjektuak ez dio bere bizitza txarrarekin berari ez dagokion zor bat ordaintzeari uzten, baina karanbola batek belaunaldi ezberdinak zeharkatzen ditu bete betean eman arte. Mamuak existentzia patu bihurtzen du, iraganeko gertakari batek baldintzatuta, inoiz formulatua izan ez den arren, dena hankaz gora jartzeko botere osoa mantentzen du” (Le Breton, 2001:87).

Belaunaldiak eta mamuak....

Mamuak eta belaunaldiak...

Paris-en egonaldia egiten ari nintzela izan zen. Bertako irakasleak, Anne Lovell-ek EHESS (L'École des Hautes Études en Sciences Sociales) egiten ari zen seminarioen berri eman zidan eta zerrenda luze bat nuen eskuartean. Izenburuak banan bana irakurri nituen eta atentzioa deitu zidan batekin egin nuen topo: *Memoria-ondokoa eta mamuaren arkeologia*. Soko Phay-Vakalis irakaslearen seminarioa zen eta nire ikerketan horrelako zerbait egiten ari nintzela sentitu nuen, Phay-Vakalis-en hitzak ezin hobeak ziren egiten ari nintzena deskribatzeko: mamuaren

arkeologia. Seminaria joateko aukera izan nuen. Phay-Vakalis-ek bere istorio propioan oinarrituta planteatu zituen bi kontzeptu horiek. Bera Camboya-n jaioa da eta bere gertuko senide batzuk genozidioan desagertu ziren. Phay-Vakalis-ek bere semeari senide haiei buruz hitz egin nahi zion eta “ezin azaldu” batekin egin zuen topo. Senideei buruz gehiago jakin nahi zuela erabaki eta inoiz existitu izan ez balira bezala izateak mamu batzuen atzetik ibiltzea zela sentitu zuen. Aurretik ere esan dut Vera mamu bat bezala ikusten nuela nik, gure bizitzetan etengabe zegoen presente, baina era berean inork ez zuen hari buruzko aipamenik egiten, eta okerragoa zena, geneukan informazioarekin ezinezkoa zen haren irudirik osatzea. Hori dela eta, Phay-Vakalis-ek aipatzen duen *mamuaren arkeologia* ezin aproposagoa deritzot horrelako kasuetan. Seminarioan aipatu ziren erreferentzia gehienak Bigarren Mundu Gerrako holokaustoaren ondoren egindako lanen ingurukoak ziren. Horri loturiko kasu gehienetan, hirugarren belaunaldia izan da gertatutakoari buruz hitz egin duena, gertatutakoari hitzak jartzera iritsi dena: “Horrorearen lekukotza emateko borondatea mututasunarekin lotuta joaten da, existentzia suntsitu duen munstrokeria eta hitzen gaitasun adierazkorra gainditu duen egoerari buruz hitz egiteko lengoaiak duen ezintasunagatik” (Le Breton, 2001:76).

Gertakari gogor bat zuzenean bizi izan duen belaunaldia, maiz, isilik geratzen da, ez du horri buruz hitz egin nahi edota ez dauka hitzik; eta hurrengo belaunaldiak dira horri buruz hitz egitea erabakiko dutenak eta hori egiteko gai izango direnak. Garrantzia handia ematen diote memoria eta memoria-ondokoari buruz idatzi duten autoreek familien belaunaldiei:

“Aleida Assmann-entzat¹⁹, familia memoriaren transmisiorako toki pribilegiatua da. “Memoria taldea”, bere eskemaren arabera, hurrengo belaunaldiei familian egiten den haragiztatutako²⁰ esperientziaren transferentzian oinarritzen da: belaunaldi-artekoa da. Memoria nazionala/politikoa eta kulturala/artxibokoa, berriz, ez dira belaunaldi-artekoak baizik eta belaunaldiak zeharkatzen dituztenak²¹; azken hauek ez daude haragiztatutako praktikek gidatuta baizik eta sistema sinbolikoek bakarrik” (Hirsch, 2008:110).

Beraz, funtsezkoa izango da belaunaldiz belaunaldi transmititzen den memoria, esperientzian oinarrituta egongo delako, ez sistema sinbolikoan bakarrik (biek ala biek euren artean

¹⁹ Aleida Assmann 2011. urtean hasi zen “The Past in the Present: Dimensions and Dynamics of Cultural Memory” ikerketa proiektuan lanean. Jan Assmann-ekin batera memoriari buruz egindako lanak batzen ditu ikerketa horrek.

²⁰ “Embodied” erabiltzen du autoreak.

²¹ “Inter-generational”, belaunaldi-arteko bezala itzuli dut; eta “trans-generational”, belaunaldiak zeharkatzen dituen bezala.

harremana izango duten arren). Jan Assmann-en arabera, dio Hirsch-ek, haragiztatutako memoria hau hiru edo lau belaunaldietan zehar transmititzen da, laurogei eta ehun urte artean (2008:110). Eva Hoffman-ek *After Such Knowledge: Memory, History, and the Legacy of the Holocaust* (2005) liburuan dioena jarraituz, familia edo gertuko taldeek osatzen duten espazioaren barruan, bizirik atera direnak, ez dituzte euren memoriak bakarrik adierazten baizik baita emozioen kaosean dauden emozioak ere (2005:9). Beraz, garrantzia handia emango diote memoria-ondokoa lantzen ari direnek familiaren barruan, belaunaldi artean, transmititzen den horri eta atentzio berezia jarri beharko litzaiokeela aldarrikatzen dute. Estatu espainiarraren kasuan, Maria Cinta Ramblado-k bereizgarritasun bat ikusten du frankismoaren iraupenari dagokionez: “Ekoizpen askotan hirugarren belaunaldia ikusten dugu lehenengoaren traumari erantzuten. Bigarren belaunaldia, frankismo garaian hezia, ez da indibiduo sozial bezala duen garapenean ondorio argiak dituen iragan horri aurre egiteko prest ikusten” (2013:163-164).

Erotzat jotako emakumeen eremura etorriz, Molinari-k Italiako eroetxe batean ingresatutako emakumezkoen eskutitzen inguruko ikerketa egin ondoren, familian jartzen du pisu handi bat: “Zentrala dirudi, testu guztietan, familiak «jazarpen toki» bezala duen rola, hor gertatzen baitira ingresatutako emakumeen kontrako era guztietako bortxa ekintzak” (2005:397).

Beraz, argi dago ezkutatzeko edo azaleratzeko bada ere familiak rol garrantzitsua betetzen duela memoriaren osaketan; honela, familian bertan transmititzen dira ezkutatzen direnak edo azaleratzen direnak, eta horiek guztiak haragiztatutako memoriaren bitartez pasako dira batetik bestera. Horri jarraiki, *memoria-ondokoaren* lengoaia, “gorputzaren lengoaia” (Hirsch, 2008:109) izango da hitzarena baino gehiago, eta kasu askotan “sintomak” bezala ezagutzen ditugun horien formapean agertuko dira (Ibidem:112). Hori dela eta, gerta daiteke urrunago dauden belaunaldiak izatea gertatutakora jotzeko erabakia hartzen dutenak, gertukoek era gordinagoan bizi izan dituztelako eta isiltasun(ar)en inposaketa askoz ere zorrotzagoa izan dutelako, jakina, baita jaso ditzaketen zigoren eragina ere. Zentzu honetan, “isiltasuna babesteko modu bat izan daiteke, indarrean dagoen indarkeriaren mehatxuen aurrean, edota istorio pertsonal baten bitartez lortutako baldintza psikiko, moral sozial batzuk mantentzeko beharraren aurrean” (Aranguren, 2008:25).

Onartu beharra dago, dena den, XXI. mendeko mendebaldeko gizartean, hitzik gabe transmititzen denak ez duela hitzez transmititzen denak bezainbesteko garrantzia eta, beraz, memoria-ondokoa transmititu denak gero hitzezko itzulpen bat izan beharra duela gehienetan, baldin eta errekonozimendu “ofizial” bat jaso nahi badu. Isiltasuna zigor bat ere izan daiteke, eta askotan hala da; neurri horrekin erruduntzat jotzen denaren kontra egiten da bazterketara

kondenatuz (Le Breton, 2001:62). Hanna Arendt-en hitzak gogoratu: “Gizatiarra den guztiak, Arendt-en arabera, existitzeko, kontatua izan behar du. Errelatorik gabe ez dago historiarik ez memoriarik, eta ez da posible kultura transmititzea” (Pérez Arias, 2004:124).

Dena den, ikerketa lan honetan, hitzezko lengoaiatz gaindi, transmititzeko beste modu batzuk ere baliagarri egiteko modu bat aurkeztu nahi denez, Arendt-ek dioena zabaldu nahiko nuke, eta kontakizuna edo errelatoa egiteko hitzak bakarrik ez, beste bide batzuk ere irekitzea interesgarria litzateke; bestela, hitz bihurtzeak berak duen karga kultural eta sozial guztia jartzen dugulako kontatu nahi dugun horretan – hitzaren arrazoiaren, logikaren eta oro har maskulinitasun eredu hegemonikoaren kargaz ari naiz.

Memoria-ondokoa, Marc Augé-k azpimarratzen duen beste gauzetako bati aurre egiteko erabili daiteke. Augé-ren arabera, gertakari bera bizi izan duten bi pertsonen antzeko oroitzapena izango dute baina baita ezberdina ere (1998:22). Eta, jakina, memoria instituzional bat eraikitzen denean, hori eskatzen da, denek onartu dezatela memoria horretan idatziko dena, honela, bakoitzak duen oroitzapena hitzartutako batengatik ordezkaturiko da. Baina, horri irtenbidea emateko modu bat litzateke memoria-ondokoa planteatzen dena:

“Memoria komunikatiboa, memoria ez-instituzionala da; ez dago inongo ikasketa, transmisio edota interpretazio instituzioengandik babestua; ez dute espezialistek landu eta ez da deialdirik egiten edo okasio berezietan ospatzen; ez dago formalizatuta ez eta materialki sinbolizatutako modu batean egonkortuta; eguneroko interakzio eta komunikazioan bizi da eta, arrazoi horregatik, denbora mugatua dauka bakarrik” (Assmann, 2008:111).

Memoria-ondokoak ez ditu gertakariak gizakien kanpoan gertatzen diren gauza objektiboak bezala ikusten. Gorpuztutako memoria bezala aurkeztua den heinean, gertakaria norberaren barruan dagoela esan genezake eta, beraz, ez dago gertakari bakarra eta gizaki asko, baizik eta gizaki haina gertakari. Memoria eraikitzerakoan, gizabanakoak transmititzen duen hori – era anitzetan transmititzen duena – kontutan hartzeak Assmann-ek memoria instituzionaltzat jotzeko ematen dituen ezaugarri horietatik kanpo kokaturiko gaitu eta bestelako errelato bat egiteko aukera emango digu; zentzu horretan askeago aritu gaitzke memoria-ondokoa delakoa eraikitzen.

Hau da nire Vera.

Beste hori zurea.

Beste hura haiena.

Denak dira Vera.

Atal hau amaitzeko, Augé-k *Las formas del olvido* (1998) liburuan egiten duen gogoeta bat ekarri nahiko nuke hona.

“Argi dago gure memoriak «gainezka» egingo lukeela geure haurtzaroko irudi guztiak gorde beharko balitu, batez ere gure lehen haurtzarokoak. Baina geratzen dena da interesa duena. Eta geratzen dena [...] ahanzturak eragindako higaduraren emaitza da. Ahanzturak oroitzapenak moldeatzen ditu itsasoak itsasertzak moldeatzen dituen bezala” (1998:27).

Vera bakarrik ez: esaten ez denaren eragina

“Dolor no tengo pero sí un gran sufrimiento”
(Vera, 1941)

Verari²² buruz hitz egin eta isiltasunezko harresia hausteko erabakia hartu nuenean ez nintzen kontziente urteen poderioz erabat finkatuta eta gogortuta zegoen zerbait hausteak izango zuen zailtasunaz. Hartzeko horma batean koilara batekin zulo bat irekitzea bezala zen, ireki asmo nituen bideak agortu egiten zitzaizkidan hasi bezain laster. Ustezko bidea, bidegurutze bihurtzen zen berehala, eta bidegurutzean bide bat hartzeko erabakia hartzen nuenean, kaminoa hasi eta berehala beste bidegurutze bat aurkitzen nuen.

Galduta.

Noraezean.

Nondik jo jakin ezinik.

Behin eta berriz.

Behin eta berriz.

Behin eta berriz.

Gertuko senideengandik ez nuen informaziorik lortzen – batzuek ez zutelako hitz egin nahi eta beste batzuek ez zekitelako ezer. Arrazoa bat edo beste izan, emaitza bera zen: inork ez zuen

²² Veraren istorioa *Frankismo garaiko isiltasune(t)an arakatuz* partean azalduko dut zehatzago, hemen familian haren inguruan bizi zen isiltasunak zuen eraginaz arituko naiz gehiago.

Verari buruz hitz egiten. Pixkanaka konturatu nintzen Verari buruz ez hitz egiteak zerbait esateak bezainbesteko garrantzia zeukala, edo gehiago. Isiltzen zenak familian sekulako pisua zuen, eta isiltzeagatik soilik zuen esangura areagotu egiten zen. “Sekretuarekin batera datorren isiltasunak taldea hierarkizatzen du” (Le Breton, 2001:85) eta nire familian hori bera gertatzen zela konturatu nintzen. Informazioa boterea da, besteak beste, eta informazio horren jabe dena, informazio hori kudeatzen duena da talde hierarkizatuan goreneko mailan dagoena. Baina boterea mantentzeko gainontzekoen konplizitatea behar beharrezkoa zen, guk ere isiltasuna(k) bere horretan iraun zeza(te)n lan egiten genuen; sekretua zegoela bagenekien, eta sekretu hori ez hausteko adierazi gabeko hitzarmena egin genuen.

Denak ginen isiltasun horren/horien konplize.

Partaide.

Eragile.

Biktima.

Bultzatzaile.

Veraren seme-alabek ez zuten hitz egin nahi, bere alabetako batek hamabost urte eman zituen etxetik atera gabe “depresio” diagnostikoarekin eta amaren irudia etortzen zitzaion burura bere egoeraz hitz egiten zuen bakoitzean. Isiltasunak/isiltasunek bi mundu banatzen zitu(zt)en, errealitatean gertatu zena eta isiltasune(t)an oinarrituta eraiki genuena. Irudia honela deskribatu daiteke: “Batzuk eta besteak, mahai beraren inguruan batuta, errealitatetik bananduta dauden bi dimentsio ezberdinetan biziko balira bezala da eta lengoaia ezberdina erabiliko balute bezala” (Le Breton, 2001:76). Baina, era berean, horrela bizitzen ikasi genuen eta egitura hura haustek aldaketa nabaria ekar zezakeen: “Isiltasuna erabiltzen da baita ere familia bezalako sistema itxi batean oreka mantentzeko” (Marco, 2001:147). Familiako interakzioak, neurri handi batean, informazio sistema zirkular eta itxi bat bezala funtzionatzen du; kideren batek aldaketaren bat eragiten badu, beste kideek ere antzeman egingo dute, eraikitako egiturak bakoitza “dagokion” tokian kokatu baitu. Honenbestez, sistemak bere horretan iraun dezan, denen parte hartzea eskatzen du, eta baten batek sistema horrek ezartzen dituen arauak hausten dituen jarrera bat hartuko balu, besteen jarrera ere baldintzatuko luke. Veraren kasuan, bi kontu horiek ukitzen

zituen zer bait gertatu zen: isiltasuna(k) hautsi egin z(ir)en – behintzat batzuk – eta bestalde, sistemaren oreka lortzeko erabiltzen ziren tresnetako batzuk azaleratzeak, egitura bera zalantzan jarri zuen.

Isiltasunak/isiltasunek egoera gogor bat estaltzen zuten – bakoitzak isiltasun hori(ek) gauza ezberdinetarako erabiltzen bagenituen ere –, Le Breton-en esaldia bera praktikan jartzen ari ginen: “Existenziaren mugetan, lengoia zalantzati dago” (2001:76). Gertaera gogorrek eragiten dute maiz mendebaldeko gizartean isiltasune(ta)ra jotzea, horren adibide: Victor Erice-k Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo egunetan bizi zen egoera islatu zuen *El espíritu de la colmena* (1973) filma. Isiltasuna(k) d(ir)a nagusi, Erice-k Espainiako nekazal herri batean kokatzen duen istorioan. Bertan ikusi daiteke baita ere, horrorea bizi izan duen belaunaldiak (kontzentrazio eremuak aipatzen dira askotan) hitz egiteko ezintasun izugarria duela eta belaunaldi batzuk igaro behar izaten direla hitz egiteko beharra eta gaitasuna orekatzera iristeko.

Verarekin gertatu zena ezkutatzeko, bere senarrak isiltasuna erabili zuen. Seme-alabak oso txikiak ziren ama Vera desagertu zenean eta Belgikara bidali zituen aitak gerrako ume bezala. Bueltakoan ez zuten amari buruz ezer galdetu. Aitak hartutako erabakiei errespetua zietela adierazi nahi zuen horrek besteak beste. Baina isiltasun hura/horiek ez z(ir)en seme-alabengan geratu, hurrengo belaunaldian ere isiltasun hori(ek) inposatu egin z(ir)en, Veraren senarraren presentziak indar handia izaten jarraitzen zuelako (hori da aitaren hitzetatik jaso dudana inpresioa, bederen). Beraz, senarrak Vera psikiatrikoan sartzeko hartutako erabakiak eta gerora izan zuen jarrerak zerikusi handia izan zuen isiltasuna(k) errespetatzeko gainontzekook hartu genuen erabakiarekin – kontzienteki edo inkontzienteki hartutako erabakia izan bazen ere.

Familiako emakumeren bat psikiatrikoan izan duten senideekin hainbat elkarrizketa egin ondoren konturatu naiz, Veraren kasua ez dela bakarra. Emakumezko bat erotzat jotzen zenean, maiz gizarteak markatzen zien rola ez betetzeagatik izaten zen – eta oraindik ere dela esango nuke –, eta horri eromenaz hitz egitea...

“*Gauza itsusia zen*”²³.

... eta da gaur egun ere...

²³ Luisaren (Veraren iloba) hitzak dira 2011. urtean nion elkarrizketan esandakoak.

Emakume “ero” horien inguruan eraikitako isiltasunezko harresiek ondorio batzuk dauzkate haien inguruan eta haiekin bizi direnengan; euren eraikuntzan parte hartu dutenentzat. Senide edo oso gertuko emakumezkoren bat psikiatrikoan izan dute hainbat pertsonekin elkarrizketak egin ditut. Elkarrizketak luzeak izan dira eta egituratu gabeak.

Elkarrizketa gogorak.

Deserosoak.

Zailak.

Hunkigarriak.

Isiltasunez beteak.

Kontuan hartu behar dugu, kasu gehienetan gaiari buruz hitz egiten zuten lehen aldia zela. Horren adierazle da zazpi elkarrizketa horietatik bat ez dudala ikerketa honetan erreproduzitzerik izango; elkarrizketa egin ondoren, hilabetera gutxi gorabehera, esandakoa ez erabiltzeko eskatu zidan elkarrizketatuak. Ez zituen esandakoak inon erregistratuak geratzea nahi, isiltasuna(k) haustea gauza bat izan zen baina nonbaiten idatziak geratzea oso bestelakoa zen berarentzat.

Elkarrizketen gogortasunaren eta mingarritasunaren isla, bi pertsonekin elkarrizketa egiteko eguna jarri ondoren, bezperan deitu eta ezin zutela esan zidatela. Bata, gaixo zegoen, ohean, lumbagoak jota; eta besteak esan zidan ama (hau da, kontatu behar zuen istorioaren protagonista) une txarra igarotzen ari zela eta ez zitzaiola momentu egokia iruditzen. Elkarrizketa atzeratzea eskatu zidatenean, biek ala biek oso kontzienteki azaldu zidaten urtean isilduta egon zenari buruz hitz egiteak eragin handia zuela eurengan eta bazekitela eguna gerturatu ahala atzera egiteko arriskua zegoela. Ez zen hala izan, egun batzuk beranduago batek eta hiru hilabetera besteak, deitu egin zidaten eta elkarrizketak egin genituen. Elkarrizketa egiteko zalantza nagusiak pizten zizkien arrazoia zera zen: une gogorak gogoratzeak kalte egingo ote zien.

“Pentsatu nun igual egun batzuk lehenago, ostia igual nerbioso...²⁴ ez baina ya está erabaki det, botako det eta ya está sin más”²⁵ (Mikel).

“Zergatik egiten zaizu mingarria horri buruz hitz egitea?²⁶ Ze atzera egin beharko det denboran eta jun beharko det beste garai batzutara non gauzak ez diran errexak izan eta guretzako izan da problema bat txikitatik orain arte jasan behar izan deuna ta ordun ba igual da atzera buelta bat ba mingarria dana baina beste alde batetikan iruditzen zait baita ere aberasgarria izan daitekeela ni bidaia honetan barrena sartzea eta helduleku batzuk aurkitzea edo... ba nere amaren gaixotasunarekin lotuta” (Ane).

“Orduan, zuk esan zenidanean... jo igual honi gauza gehiago kontatzeko ausardia eukiko det? Baina ez dakit kontatzia eukiko deten. Ta orain nentorrenean trenean pentsatuz esan det, ez dakit, ze oain ere dardarka, hotza bezala sentitzen det. Bai. Eta esaten dezu, ze kontatzeko gai izango naiz?” (Itziar).

Hainbesteko tentsioa, mina, beharra, nahia... nahasten ziren egoera horietan, hainbat gauza galdetzeko eskubiderik ba ote nuen ere planteatzen niola neure buruari. Oraintxe helduko diet elkarrizketa horietan interesgarri jo ditudanak aipatzeari, baina aurretik esan, psikiatrikoan lan egiten duten lau lagunei ere elkarrizketa egin niela, batez ere, familiaren kontua barrutik nola ikusten den jakin nahi nuelako. Bi ikuspegiak talka egiten dute hainbat momentutan, batzuen eta besteen bizipenak bi mundu ezberdinetan gertatutakoak izango balira bezala.

Hauek dira elkarrizketatutakoak²⁷:

Mikel: ama psikiatrikoan hil.

Jon: ama psikiatrikoetan egondakoa.

Itziar: ama psikiatrikoan hil.

Ane: ama psikiatrikoetan egondakoa.

²⁴ Hiru puntuak jartzen ditudanean, isilune bat, atsedean bat egiten dutela adierazi nahi dut.

²⁵ Elkarrizketetako zitak egin ziren hizkuntzan mantenduko ditut eta euskaraz egindakoak ahoskatu moduan, hau da, euskara batuan idatzi gabe.

²⁶ Kurtsiba gabe daudenak nire esaldiak dira.

²⁷ Metodologiaren atalean aipatu bezala, izen guztiak asmatuak dira.

Luisa: Veraren iloba.

Mari Carmen: Veraren laguna psikiatrikoan.

Psikiatra 1: 1960ko hamarkadaren bukaeran hasi zen psikiatriko batean lanean.

Psikiatra 2: 1960ko hamarkadan hasi zen psikiatriko batean lanean.

Erizaina 1: 1970eko hamarkadan hasi zen psikiatriko batean lanean.

Erizaina 2: 1970eko hamarkadan hasi zen psikiatriko batean lanean.

Lehenik eta behin senideei egindako elkarrizketen zatiak jarriko ditut. Denek ere inguruko emakumezkoren bat eduki dute ingresatuta psikiatrikoan. Sei horietatik bat bizi da oraindik ere; une honetan, bere etxean dago zaintzaile batekin eta medikatuta, baina bere bizitzan zehar psikiatriko bat baino gehiago ezagutu ditu. Asmoa senideek bizi d(it)u(z)ten isiltasune(ta)ra ahalik eta gehien hurbiltzea denez, ez dut psikiatrikoan ingresatutako pertsonaren inguruko deskribapen bat egin nahi izan.

Oro har, elkarrizketetan ikusten da bi gauza gertatzen direla tabu baten atzean: alde batetik zerbait ezkutatu nahi da baina, beste alde batetik, egoera gogor baten aurrean hitz egiteko ezintasunak ere sortzen d(it)u isiltasuna(k) eta azkenean tabua. Ziur asko, egoera guztietan bietatik egongo da zer edo zer, edota familiako kide batzuk batetik izango dute gehiago eta beste batzuek bestetik. Ezkutatu nahiaren adibide honako hauxe:

“Ella y otra hermana se casaron con dos Guardias Civiles. Ella se casó embarazada? Algo ya me contó mi madre. Cuando se casaron las dos hermanas, mi madre les tuvo que dar mucha ropa, porque no tenían nada. Yo a ella solamente, ya te he dicho por teléfono cómo la conocí... cuando la guerra, cuando estalló el movimiento, unos días antes le avisaron a la abuela que se fuera a Rentería que su hija estaba mala. Entonces mi abuela se fue a Rentería y cuando llegó a casa a la noche, se metió en el baño, en el retrete porque no había ni baño y se cerró la puerta de su lado, y claro la abuela empezó a chillar y tiraron la puerta y ya se estaba para tirar de la ventana, porque fue cuando se trastornó. ¿Y por qué se trastornó? Es que no sé que decían que le daba mala vida el marido, no sé por qué... a mí, eso es lo que yo tenía entendido, que le daba muy mala vida el marido y por eso se quería tirar. Tenía cinco hijos. Entonces cuando la

guerra, le cogieron a la tía y le llevaron a Santa Águeda²⁸ ... y allí le... le ingresaron allí. Y al momento, estalló el movimiento, y entonces mi abuela qué hizo... cogió los cinco nietos, y para adelante, la abuela no sabía ni para dónde los llevaba, y aparecieron en Barcelona. Mi abuela y los cinco nietos. Y claro allí estuvieron comiendo hasta cáscaras de naranja, todo lo que pillaban, pues no había nada para comer. Y allí no sé cómo mi abuela, a unas familias francesas les llevaron cuatro niños. El mayor no” (Luisa).

Luisak berak esan zidan bere izeba non zegoen bazekitela baserrian bizi zirenek, baina amak behin eta berriz esaten ziela sekretupean mantendu beharreko zerbait zela, «“gauza itsusia” zelako senideren bat psikiatrikoan edukitzea». Sentsazio bera jaso nuen Mari Carmen-i Verarekin psikiatrikoko itxialdiaren arrazoiari buruz hitz egiten ote zuten galdetu nionean.

“No, no, nunca. Nunca, nunca nos ha dicho nada. Nosotros nunca hemos oído nada, ni se le ha preguntado, porque eso no se puede. [...] Yo decía... pero por qué puede estar esa mujer, eso sí que lo preguntaba en casa... pero esta mujer por qué estará aquí con lo que vale. Porque valer ha valido... ha valido... ha sido un sol de mujer” (Mari Carmen).

Senide bat psikiatrikoan sartu eta ondoren ematen diren azalpenak zalantzan jartzen dira askotan. Esplikazio ofizialak ez dira sinesgarritzat jotzen.

“Ellos sabían que se había ido allí pero no sabían si vivía”²⁹ (Luisa).

“Hori zan gure esplikazioa, ofiziala. Nahiko nuke jakin...” (Mikel).

Azalpen ezak zalantzak besterik ez zituen sortzen, baina, bai alde batean eta baita bestean ere. Hau da, psikiatrikoan dagoenak ere askotan ez du azalpenik eman nahi, bi “munduen” arteko distantzia handitu besterik egiten ez duen egoera batera iritsiz.

²⁸ Santa Águeda Gipuzkoako psikiatriko handienetakoa da. 1898tik dago irekita.

²⁹ Luisa, Veraren seme-alabetaz ari da.

“Ella podía sufrir también eh! Ésa tonta no ha sido, ésa ha sido muy lista. Ésa igual ella habrá sufrido pero no ha dado a conocer nada eh! Nunca ha dicho nada” (Mari Carmen).

“¿El padre hablaba de su mujer, hablaba de Vera? Nunca le he oído hablar, nunca. ¿Nunca fue a visitarle? Ah sí, luego sí. Yo sé que luego sí. Una vez por lo menos. Porque fue a Bergara a casa de mi hermana. Le llevaron allí. Pero la tía, no quería ni por nada del mundo que fuera la familia. Ella sabía todo, se enteraba todo lo que pasaba en la familia. Sabía todo” (Luisa).

“Inoiz ailegatu zeanian eskarbatzen ze pasatu zaion amari, ailatzen zea seguruasko isiltasun batzutara berak ez dizkizunak kontatzen, ez dizkizu kontatzen, orduan esaten dizu, nei gertatu zaizkit gauza batzuk ezin dizkizutenak kontatu, hor badaude, oain ya aspaldi da ez deula hori entzun. Aspaldi da hori ez digula leporatu eh, baina, ze hoiiek gainea leporatu eiten dizkizu ez da beai gertatzen zitzaizkionak, baizik leporatu egiten dizu, badakizu, egiten zaitu kulparen parte baino hor daude, ez dakit, ez dakit, ez dakit” (Jon).

Eta honetan guztian dagoen hirugarren alderdia sartu beharko genuke hemen, psikiatrikoetako arduradunena. Hauen ikuspegia erabat ezberdina dela esan daiteke. Hauen hitzetan ere, informazio gutxi dago behin pertsona bat psikiatrikoan sartu eta berarekin jarraitzen zen bidearen inguruan. Instituzioak berak azaleratzen duen zerbait da, baina, era berean, aipatzen diren arazoak oso bestelakoak dira. Arduradunen esanetan, familiak dira maiz sartzen dituzten senideen inguruan ezer jakin nahi ez dutenak.

“Jende askok zeukan senideren bat eta ez daki zergatik? Eske zen beste garai bat. Han ingresatzeko errazagoa zen. Nahikoa zen agindua, nola zen autorizazioa, alkateak ematea, familiak ere eman zezakeen” (Psikiatra 2).

“Yo creo que hay gente que ha perdido el derecho de existir en el mundo y la familia se ha acomodado y bueno pues es un equilibrio entre los dos” (Psikiatra 1).

“Yo he presenciado encuentros así, de gente que hemos tenido allí muchos años. Gente que de repente se acuerdan de que tienen familia allí. Y bueno, la parte más dura es que yo he visto llegar a hombres así hechos y derechos, y ver a su hermana y emocionarse de una forma... pero dicen toda la vida aquí y para qué voy a salir ahora” (Psikiatra 1).

“Bazegoen bat X deitzen zena, [...] eta astebete pasa ondoren bueltatu zen eta esan zidan Don X, beti Don esaten zidan, beti: nunca más, yo quiero estar aquí y no volver a salir más. Hori jende askok egiten zuen. Gero bazeuden ezkutuko drama asko. De repente, han sartu eta erreferentzia galtzen zuten, bisitarik ez, eta gero ez zituzten etxera eraman nahi” (Psikiatra 2).

“Bisitak izaten zituzten? Oso gutxi. Han zeuden los desastres” (Psikiatra 2).

“Maniocodepresivas. Eta hori emakumiekin egixe da. Eta handik gerua be... familixek eruten dau ingresatzen, orduan zan maniocodepresivas, estaban en la fase maniaca, cuando estaban en la fase depresiva no. Cuando están en la depresiva como está medio tirada en casa... se le aguanta mejor. No habla mucho” (Erizaina 2).

“Adibidez, gogoratzen naiz andra... Bermeokoa zan uste dot: X. Gizona oso gitxi etortzen zan. Egoten zan irrikitan gizona juteko. La que manejaba el cotarro era la suegra. Esaten zeban suegrik sartu zebala. Ez dakit zenbat bider urten da sartu egin zeban, baina cada dos por tres, claro, mientras... amagiñarrebai amen amen egiten ez zebanien, egunen baten kontestaziño txar bat ematen zabenien... ya está. Ze behin ni akordatzten naiz amaginarrebarekin sartu... baina zer pasatzen da? “Ze pasatzen da? Ba ze pasatzen da, honek nahi dabena egingo dau? Gero ez dakize eta badakize...” (amaginarrebaren ahotsa imitatuz). Esaten dozu:uuuhhh” (Erizaina 1).

“X-k euki zuen ume bi, hirugarrenean... aurreko haurdunaldietan ere egia esan deskonpentsatu eiten zan. Eta gero hirugarrenakin, egin zuten gestioak sanatorixukin, gizonakin eta eman zuen adopziñoa hirugarrena. Bera be, para siempre jamás han geratu zen [...] berak euki eban obsesiñoa ba igual normal dan modun seme alabena eta ordun euken bat ertzainetan, ezagunen bat, eta haretik jun eiten zan bere seme-alaben bile. Eta ein zan berba, topau zan semie. Aitakin bizi zan eta gero aitta hoy como es normal beste andra batekin. Eta ein zun berba aittakin eta esan: ya me imaginaba que esta no era mi madre. Ze berak beti esaten eusten niri: alabia izan zan X eta X se tiene que acordar de mí porque aquella era una niña espabilada eta nik ez dakit bost, sei edo zazpi urte edo... la X se tiene que acordar de mí. Topau genun Galizian han bestian amamakin junde ilobie eta eotri zan eta ezagutu eban eta gero desagertu ein da. Ez da etorri gehixau. Eta gero esan genun: no teníamos que... eske ez dozu ulertzen barrutik, esaten dozu joder ba neskatue egixe esan hogeita... neskatotxue zan, neskatotxue bueno nobixuakin etorri zan oseake bueno digo osea hain umia ez da nobixuakin dau. Ezta? Y nunca más. Ta semie etorri zan itxurie parkera eta urrunetik porque le quería conocer pero no quería hablar” (Erizaina 1).

“Askotan ikusten dozu familixek ekartzen dabena, esaten dozu: JODER! Hemen ingresatu behar dabena argi dago! Eta hori pasau jata eske hainbat eta hainbatetan...” (Erizaina 2).

Baina instituzio barruan gertatzen zenaz ere hitz gutxi batzuen eta besteen aldetik:

“Si a mí me invitaron las monjas a que escribiera la historia porque he vivido allí 40 años. Y no se me hubiese dado mal la pluma. Y empecé un día y luego no seguí porque si no vamos a la cárcel todos (erdi barrez). No, en serio, yo he vivido cada cosa... 40 años en un sitio de esos...”³⁰ (Psikiatra 1).

“Zergatik uste duzu zeudela gizonezko gutxiago? Uste dut aztertze galdere bat dela. Emakumeak batzuetan bakarrik geratzen ziren... baina datu eskasak daude. Badakizu iritsi zirela eta ze tratamendu jartzen zitzaien baina ez dakizu zergatik iritsi ziren” (Psikiatra 2).

“Nik ez dakat... psikiatregandik jarrera... (isilunea)... beti positiboa baina informazio gehiegi ez. Hori da, hori da pixkat lehenao esan dizudana... informazioik nik ez nekan batez. Hori da, jarrera oso... beti nei oso arropauta bezela sentitu nintzan, lasai bezela, gustoa o... hitzeitan zenian... ez zala en plan txulo batzuk... ez, beti rollo nahiko ona [...] baina ya behin psikiatrikoan sartu zanian nik ez dakat rekuerdia gauza gehiegi kontatzen ziguenikan [...] Nik oain nahiko nuke gehio jakin” (Mikel).

“Ta gero beste rekuerdio bat badakat, ta hori... ta hori gainea enun konpondu. Ez det... ze jo psikia... uyyy... zea psikiatrara joaten zan beti. Ta ya psikiatrikoan geratu zanian, guk asistentia honekin harremana geneukan. Ta behin deitu zigun esateko, jo ba nere amakin ez zuela ikusten ya erremeyioik eta... deskarga batzuk o emateko hola... (isilunea) Ta ni hola neon: ¿de qué me estás hablando? No, pero no es como antes ¡eh! No es como antes. Ya, pero ¿de qué me estás hablando? O sea, ta nola deskargak? [...] Ya pero tú qué harías, es que me estás preguntando una cosa que no controlo nada. Ze in behar deu? Eta ez dakit zertan geratu zen hura. Akordatzen naiz galdetu ein zigula. Ta nik esaten nun, ba nik ez dakit ze esan, beai galdetu beharko diozue. O sea, gure baimena behar dezue hori egiteko? Eske ezin det ulertu nola behar dezuen gure

³⁰ Kontutan hartu behar dugu garaia, Psikiatra bat 1960.eko hamarkadaren bukaeran sartu zen psikiatra bezala instituzio batean eta 40 urtez aritu zen lanean bertan.

baimena horrelako gauza bat egiteko. Ezta leno bezala, porque iruditzen zaigu igual buelta emango diola horrekin. Baina hainbesteko konfiantza nekan nik asistenta honekin... eta oaindikan badakat eh! Ta hori beak galdetzia, flipauta geratu nintzan. Ta azkenian ez dakit ze in zioen, in zioten o ez. Ta hori badakat konpontzeko, ze klaro ez dakit jakin nahi deten, ez dakit jakin nahi deten” (Itziar).

Esan bezala, ezkutatu nahia eta hitz egiteko ezintasuna biak batu eta hortik ateratzen den nahasketa bat da ikergai dugun tabua. Hori da datozen lerroetan jarriko ditudan elkarriketa zatiek islatzen dutena: hitz egiteko ezintasuna eta hitz egitearen ukazioa. Hitzak falta zitzaizkiela antzematen da askotan, eta eurek ere hala adierazi zuten behin baino gehiagotan.

Mikelek kontatutakoa:

“Egia da ere bai, lehen, hasieran, ezin nuela hitz egin hontaz, ezin nun, ze neon... ta oain ya... (arnasa sakon hartzen du), osea ez da ez zaitela inporta, baina ya pixkat lasaio bezela”.

“Ez, kostau ez. Ez nuen hitz egiten. Ta baten hola gaia ateratzen zanen ez nuen hitz egiten asuntuaz. Kostatu, baina, nerbioso nerbioso jartzen nintzan, como una moto eh! Ezin nun hitz egin. Zergatik? Badakizu? Ba egoera guzti honek... (haizea botatzen du)... blokeatuta utzi zidalako denbora askoan. Zan... (haizea botatzen du)”.

“Aitak zeukan lagun bat... Psikologoa zana. Oso laguna zana aitana. Ta klaro ta ama hasi zan beakin tratamenduan edo... eta ama kejaru egiten zan, ze azkenian, ez dakit nola datorkidan hau, ez dakit, konbertsazioaz ez naiz akordatzan baina, badakit amak esaten zuela manipulatu egiten zuela bera. Psikologoak? Bai, osea aitakin zeola... konpintxauta, eta baina bueno, ez dakit nondik etorri zaiten hau, ez dakit arrazoirik esplikatzeke hau. Baina hori badakit, hor zeoze egon zela badakit. Zenbat urte eukiko nitun nik... hamar... en fin, ez dakit. Baina badakat hori buruan, oraintxe etorri zait eh! Urtiak ez nintzala hortaz akordatzan, horregatik nahi nun etorri honea, banekin zeoze akordatuko nintzala”.

“Ta beste arreba eta biok bakarrik geunden etxian. Ta klaro, (haizea botatzen du)... ez naiz akordatzan momento hontan zenbateaino esaten genion jendiai... ez, nik uste det ez geniola jendiai esaten, ze gu ere lotsauta geunden. Bueno, lotsauta, bildurtuta, ez dakit”.

“Zuen artean hitz egiten zenuten? Anai-arreben artean? Jo, hortaz ez, hortaz ez dakat rekuerdoik... (isilunea)... ez dakat rekuerdoik. Hola, gu beti, oain ere ya está, holako komentarioak, baina hola benetan jarri, eseri ta hitz ein ein behar deu... hori ez”.

“Etxetik kanpo ez nion inorri kontatu nahi izan behin ere ez, ezer ez. Zeatikan holakoa nai. Pena ematen jun po rahí... osea neretzako zan... etxia zan beste mundu bat bezela neretzako. Bi unibertso zian baina totalmente separados eh! Ni etxea juten nintzanian, osea etxetik ateratzen nintzanian, atea ixten zanian ya beste mundu bat zen netzako hura. Inorrek ez zekin etxean gertatzen zana, inorrei inoiz ez nion esaten etxian gertatzen zana... eta nik ez nun nahi inorrek jakin, ez nun nahi inorri kontatu, inorrek jakitea baina ez lotsa ematen zidalako ez, zalako berriro karga guzti hori kalera eramatia, osea askotan esaten da hitzeiteak deskargatu eiten dula, baina nik ez nekan sentrazio hori [...] Da basura eukitzea bezela eta ez dezula nahi basura kanpoa atera”.

“Dudik gabe [...] Dudik gabe beti eon da bildur bat rollo psikikoei buruz... ta igual nik ebai esan dizut ez nula nahi kanpoan kontatu... baina igual nik ere lotsa neukan barruan... eee... rollo psikikoak pixkat gehio tapatzen dialako. Nik esan dizut lehen ezetz baina igual inkonszienteki ez nun nahi esan ezerre baina enulako nahi jakitea guztiz, klaro nik ezin dizut esan hori... [...] Minbizia euki zunian inorri esateko problemik ez genun euki. Bestia zekala esateko bai euki genula problemak o problemak o... dudik gabe, dudik gabe. Problema psikikoak garai hortan... oain igual errexo esaten dia baina garai haietan... keba, tapatu eiten zian. Ta gu ere tapatu eiten ginan. Horregatikan aitai ere ez genion esan. Aitak bazekin erdi txungo zeola baina... ez dakit lotsa zan hitza... da tapatu beharra ez dakit nik zergatik, hor badago zeozer hor nebulosa bat eta tapatu ein behar zan. Ta tapatu eiten zan y punto. Kurioso da”.

Itziarrek esandakoa:

“Edozeini [...]gauza batzuk, ezin dizkiozu kontatu. Nik igual lagunartian eta kontatzen detenian, ja kontatzen hasten naizen momentuan berezia sentitzen naiz. Ze klaro, nik ja gurasok ez dauzkat, eta nere gurason istoriya istori bereziya da. Eta orduan, kontatzen detenian beldurra ematen dit beldurra emango diyoeten [...]”

“Baina honen inguruan ere oso argi anai-arrebek ez deu hitz egin (isilunea). Hitz egin deu gabon batzutan horrela, hirurok elkartu ginala eta horrela baino... gure sentsaziyoak eta gure pentsamenduak ez ditugu oso oso argi hitz egin, ez dia oso... ez, ez da errexat”.

“Baina, zeini kontatu behar diogu hau. Ez dakit. Ez genuen ikusten biharrik inori kontatzekua”.

“Zure seme-alabei hitz egiten diezu amonaz? Bai, bai. Ta argazkiyak erakusten dizkiet. Badaukagu argazki bat komedorean horrela. Hitzeiten diet. Gainea nere ama marrazten oso oso ona zan. Ta nere bi umiak oso oso onak dia marrazten [...] Hitzeiten diyoet. Gainea esaten diyoet: barkatu! Hori erua kontuz eh! Zuen amona psikiatrikoan hil zan oseake faborez a ver nola hitzeiten dezuen! Alde hortatik normaltasun hori eman bai [...] Bai, alde hortatik hitz egiten diet. Bai, hori ez da tabua, ez da gelditu... ez det nahi gelditzerik behintzat”.

Jonek kontatutakoa:

“Ordun e... momentu batean amak egin zuen klaska. Baina klaska oso heaviya. Osea oso oso oso heaviya. Gu X-n bizi ginenian, ba ama momentu batian e... eske ez dakit nola deskribatu, ez dakit nola deskribatu, porque era una locura total. Pero gainea locura total total total, osea ama garrasika esanez, ni itsua nao, itsua nao, itsua geatzen ai naiz ez dakit ze eta gero karraxika eta bueno zan, eske ez dakit nola deskribatu. Hori ez dakit nola deskribatu”.

“Zuek amarekin hitz egiten dezue honi buruz? Bai. Baino txarra da. Bai hitz egiten degu baino txarra da. Txarra da. [...] Txarra da korapilatzen zealako e... elkarriketa batian ez daukana, ez dihoana inoa. E... nik uste det momentu batian gauzak esan behar ditula distantzia daukan norbaitek, distantzia daukan norbaitek. Eta distantzia ez dagonian garbi e... gauzak juten dia korapilatzen. O sea, esaten dizut ni hasten banaiz aitai ez dakit zer esaten automatikoki etorriko zait zea bat, zu aita bezelakoa zea edo anaiai etorriko zaio, Xtarrak ez dakit ze badakit ze, gainea korapilatu eiten dia gauzak, ordun nik ustet hori iten degu, askotan ahalegintzen gea baino ez zea sekula inora ailatzen. Ailatzen zea minea. Ailatzen zea minea. Ailatzen zea oso oso

gaizki sentitzea. Ze da, da... eee... zulo bat bezala absorbitu egiten zaituena. O sea zenbat eta gehiago elkarriketan aritu, eta nola, gainera izango balitzake daukazula irudipena konponduko dezula zerbait baina eske 25 urteko esperientziak erakutsi dizu ez dezula ezer, sekula ezer konpontzen. Ordun daude parametro batzuk eramateko, baino hori da orain ikasi deguna. Eramaten dizkiozu rebista batzuk, nik eramaten dizkiot rebista batzuk, pelikula batzuk ematen dizkiote. Ondo dagoenean pelikula bat ikusten dezu berarekin... anaia joaten da bere seme, biloba txikiakin ordun asko poztutzen da eta ordun konprobatu deu que la cosa funciona baino cuando la cosa no funciona... por patas. Ez dago besterik”.

“Nik ez dakit zer gertatu zitzaion.[...] Nahiago det ez jakin gainera, nahiago det ez jakin. O sea esan nahi det ya irudi beltz asko daukazu persegitzen zaituztenak, nik ez det bat añaditu nahi. Eta e...ez [...] Nik nahiko nukeena da izan e... formula txiki bat aurrera ateratzeko kontu honetan, formula txiki bat zure burua gestionatzeko eta zure denborarekin ikasten dezuna egiten ez... baina nik ez nuke nahi. Eske gainera badakit ez litzakeela egia izango. Ez litzake egia izango. Agian izango litzake baina izango litzake filtro subjektibo batetik pasata... ez, ez det entzun nahi”.

“Eske ni ez naiz kapaza. A ver e... nik amarengandik urrundu, ihes egiten det. Nik momentu batean galdetzen badiot amari, ama zemuz? Zemuz sentitzen zea? Ba ni berarekin noa hondora, en el mismo pack, ez dakit distantzia hori markatzen esateko nik entzuten zaitut eta ni ez nihoa hondora. Nik ama entzuten dudanean ama bere gauzataz hizketan ni nihoa hondora. Hondora nihoa. Directamente hondora. Orduan ezin det bere gauzetaz hizketan egin. Ez da nahi... markatu nahi diodanik inkomunikazio bat ze gero oso goxuak gera gu amarekin osea gu oso oso goxuak gera amarekin... nik directamente besarkatu egiten det, ama emaiazu besarkada bat eta orduan besarkatu egiten det eta egoten gera pixkat besarkatuta baina ya berbalizatzen dituzunean gauza horiek, zoaz fum!, zoaz hondora”.

“Eta zure ingurutik kanpo, familiarik kanpo, honi buruz hitz egiten zenuen? Bai, asko. Bueno asko. Lagunekin. Lagunekin eta... bueno asko... ez, ke ba, ke ba, esaten ari naiz zerbait ez dena egia. Ba hitz egiten dezu neska lagunarekin, hitz egiten dezu zure lagun minen batekin, baina ez zera ailegatzen profundidadera, o sea ni oain neurri handi batean biluzten ari naiz eta gauza askotaz, gauza hauetaz hitz egiten dezunean zure anaiarekin edo zure arrebarekin edo norbait oso gertukoarekin nolabait ere parámetro sakon batzuk ematen dituzu baina gero, ez det uste asko hitz egiten genuenik”.

“Izebaren suizidioaz hitz egiten zenuten? *Gertatu zenean bai aipatu zan, noski aipatu zala baina hor badago corrido velo sobre ese tema. Es alucinante, pero es alucinante. O sea X nere lehengusuak, izebaren alabak lehengo egunean [...] esan zidan: aizu, baina gure ama suizidatu egin al zan? O sea, alabak ere, alabari inork ez dio ezer esan. Eta gehio esango dizut, lehengo egunian, beste lehengusuarekin, [...] beste ahizparen alabak: aizu, galdetu behar dizut, izeba X egia da suizidatu egin zala? O sea, berak ere ez zekien”.*

“Eta aitonaren depresioari buruz? *Bakarrik irudi hori, aitonak depresiyua hartu zula eta garai batetik aurrera amona Xekin ez zeukalako harreman onik e... izan zala ama arduratu zana ba beti ilunpetan zegon kuarto hartara ba janariyak ematen beti ilunpetan zegon kuarto bat, eske oso terrorifikoa da”.*

“*Gure amonarekin ez genuen sekula hitz egin hortaz, hitz bat bera ere. Gure amonak bazekien ama gaizki zegola. Baina...”*

“*Eta ezin esplikatatu bat. Ezin esplikatatu bat. O sea, ni gogoratzen naiz adibidez nire lehendabiziko neskarekin hasi nintzanean [...] E... ezin... nik uste det X hasieran por ejemplo oain hasi da entenditzen zer gertatu zen gure familiyan. E... igual badira hamar urte ez geala elkarrekin ibiltzen eta oain hasi da entenditzen. O sea bere garaian por ejemplo hori ez... eske oso zaila da esplikatzen... esan nahi det, gainera, bo bueno oain igual bai ez, badaukazu bide bat, badaukazu zerbait. Helduleku bat. Baina hemezortzikin zaudenean, esplikatzen ere ez dakizu. Ordun, bada mehatxu bat eta bada zerbait superatzen zaituna eta sozializatze oso zaila dena. Oso zaila da. Ama gaixki dago, jo ba esaiok lasai egoteko... eske ez da hori. Ez da hori, ez da hori”.*

Aneren hitzak:

“*Sentimenduez eta horrela ez degu asko hitz egiten ze ya relaziyua dago erabat kutsatuta gure familian, gaude kutsatuta. Eta ordun, ez dakit, sálvese quien pueda da pixka bat. Kutsatuta zer esan nahi dezu? Ba gu ere gaixo gaudela honekin guztiarekin, ez dakigulako gestionatzen hau dena”.*

“Uste dezu gutxi hitz egiten dela horri buruz, tabu bat izan dela? *Bai, bai, gure familian dena da... bai, bai, bai [...] da tapatzea, en un momento dado. Baina beldurra daukazu hori ateratzeko eta mina hartzeko*”.

“*Beti izan da, zulo batean geatu dan, ixkin batean geatu dan zerbait eta mingarria danez pues... ez dezu atera nahi eta esaten dezu... horregatik esan nun bueno... seguraski ondo etorriko zait baita ere hau egitea*”.

Hitz egiteko zailtasuna “blokeo” bat bezala deskribatzen du Mikelek: “*Egoera guzti honek... blokeatuta utzi zidalako*”. Jonek esaten du: “*Eske ez dakit nola deskribatu. Hori ez dakit nola deskribatu*”, bere amari gertatzen zitzaiona azaldu nahian sentitzen du deskribapena egiteko ezintasuna; horren ondorio izan daiteke, amarekin komunikatzeko beste era bat sortu izana: “*Nik directamente besarkatu egiten det [...] baina ya berbalizatzen dituzunean gauza horiek, zoaz fum! Zoaz hondora*”. Senideen artean ere gaia aipatzea zaila egiten zaie, oro har, sortutako dinamika dira horren eragile; Ane da horren adibide esaten duenean: “*Sentimenduz eta horrela ez degu asko hitz egiten ze ya relaziya dago erabat kutsatuta gure familian, gaude kutsatuta*”. Jon-ek ere zentzu horretan dio: “*Gure amonarekin ez genuen sekula hitz egin hortaz, hitz bat bera ere*”. Familiatik kanpo hitz egitea ere ez zaie erraza egiten: “*Edozeini gauza batzuk ezin dizkiozu kontatu [...] Kontatzen detenian beldurra ematen dit belarra emango diyoeten*” (Itziar). Mikel-ek deskribapen gogorra egiten du: “*Da basura eukitzea bezala eta ez dezula nahi basura kanpoa atera*” eta hori kontatzeak “*lotsatuta, bildurtuta, ez dakit*” sentiarazten zuen. Bere hitzetan, horri ematen dion azalpena zera da: “*Rollo psikikoak pixkat gehiago tapatzen ditalako*”. Berari gertatutakoa jartzen du adibidetzat: hasieran amaren egoeraren berri ez zuela etxetik kanpo kontatu eta gero, amak minbizia harrapatu zuenean, ez zuen inori kontatzeko arazorik izan. Bi arrazoi ikusi daitezke hitzik ez izatearen atzean: tapatu behar den zerbait bezala jaso izateak hitzen eremutik kanpo dagoen zerbait bezala ikustera eramaten gaitu, eta minarekin eta sentimendu gogorrekin lotuta dagoen zerbait da eta zaila da hori deskribatuko duten hitzak aurkitzea, gerturatu ere ez baitira egiten sentitu duzun edota sentitzen duzu horretara.

Dena dela, eta hasieran gogorra eta zaila izan den arren, batzuek hitz egitea lasaitasun bat lortzearekin lotu dute. Anek, adibidez, dio: “*Seguraski ondo etorriko zait baita ere hau egitea*”. Edota Mikelek: “*Urtiak ez nintzala hortaz akordatzan, horregatik nahi nun etorri honea,*

banekin zeoze akordatuko nintzala". Hain zuzen, isiltasun(ek) edota tabuek, belaunaldiz belaunaldi duten eragina azaltzen da datozen orrialdeetarako aukeratu ditudan hitzetan.

Mikelek antzeman duen eragina:

"Gabon batzutan oso gaixki egon zan ebai, ba dardarka eta ez dakit ze... baina dardarka ez ansiedadeakin, ez, dardarka hola zeon (dardararen keinua egiten du besoekin) eta egon zan mantakin eta ez dakit zer. Klaro ni hortik gabonak dazkat ordundikan ya... gabonero gaixo jartzen naiz, ez dezu sinistuko, beti gripea dakat gabonetan eta es increíble, nik badakit horregatik dala, ze seguru nao gainea, seguru nao, badakit".

"Egun batian ba [...] Etxea ailatu nintzan, ya hobeto zeola, horregatik ez dakit prozesu hortan nun zeon,... e esan ziala ba bere bizitzak ez zeukala sentiduik eta gu gabe, o gu hobeto ibiliko ginala, biziko ginala bera gabe ta ez dakit zer ta hola... sukaldian hola hitz egiten ta... beno, ohera joan zan, egunero siesta egiten zun, ondo edo gaixki egon eh, ta ni pentsatzen hasi nintzan, ostia ba hau despeditzen ai zan nitaz, de repente etorri zitzaiten. Ostia hau despeditzen ai zan... o sea ez zian esan agur... baina ai zan esaten... ni zuek gabe hobeto egongo naiz... bueno kuartora jun zan eta ailatu nintzan ohera eta pastillak hartu ein zitun eta nik ikusi nun... ez nion ikusi sartzen eh baina ya pastillak han zeuden eta hartu egin zitula, eta klaro, nik esan nion: ze, ze ein dezu? Eeee (amaren ahotsa imitatuz, ahots fina jartzen du)... pastillak hartu zitula eta ez dakit zer, eta neretzako fuertiena izan zena ez zan hori izan, neretzako fuertiena izan zan nere reazioa, ze ni jun nintzan kuart... komunea, ta eon nintzan minutu bat ispiluai beida pentsatuz (ispilua aurrean izango balu bezala)... lagako det hiltzen edo ez det lagako hiltzen... osea hori izan zan netzako krak ein zidana nire buruan. Oain dakit eh! Ze momentu hartan zan como... nik ze ostia ein behar det oain, klaro nik pentsatzen nun lagatzen badiot kriston faboria eiten diot, ze hola bizitzia, baina klaro ni ezin naiz izan responsable... de qué? Klaro orduan, imajinatu hori ein banu... egongo nintzan orain... ez dakit nun. Bueno rolloa zan hola, ni hablar, ta deitu nun, urjentzita deitu nun, etorri zan anbulantzia, eaman zuen eta abar eta abar. Baina klaro, neretzako hori zan... momentu hartan ez zan izan hain fuertia eh... ta de hecho bueno... hortaz ezin nun hitz ein oain dala... bi urte... beno bi urte igual ez gehixeago... ezin nun ezta hitz egin ere egin [...] Ni, 92an hasi nintzan gaixki jartzen baina nik ez nion inorri esan... (isilunea)... inorrei... (barre egiten du), klaro, rolloa zan, nik nekan buruan, klaro... esnatzen nintzan goizero takikardiakin, hecho polvo, egunero suizidatzen pentsatzen,

egunero, egunero, egunero, egunero, baina igual sei hilabetetan, baina egunero, sin ningún prejuicio hola... esaten nun esto no merece la pena... klaro aillatu zan egun bat... orduan ya terapian geunden, klaro baina nik ez nun nahi ezer esan, ze klaro nik pentsatzen nun: ah baina protagonista bera baldin bada, nik ze pintatzen det rollo hontan, ze joe nik bea jartzea nahi det ondo, ni... ya me buscaré la vida. [...] Ta klaro ni egunero... ta egun batian esan nun... bale paso! Ondo jarriko naiz! Ta hola izan zan eh! Ta esan nun bale, eee taki... arnasa nekan beno badakizu arnasa... bale ba arnasa hartuko det egun guztian... eta pasa nitun ez dakit hiru hilabete egunero, egunero, egunero arnasa hartzen bakarrikan, ni bakarrikan ze ez nuen ezer irakurri ez nuen egin ezer ez, esan non: de esta salgo o... eta atera ein nintzan. De repente ondo jartzen hasi nintzan, ondo jartzen eta inor ez da enteratu. Osea inor ez da enteatu, ezta... urtetan eh! Ezta psikiatrak ezta psikologoak ezta inorre. [...] Bueno rollo bat, hori dana pasa zala eta neretzako... ta detonantia... horrena izan zan beste hori, nik badakit. Osea badakit dakitelako. Inorrek ez dit esplikatu beharrikan... izan zan momentu hori. Momentu hortan gertau zitzaiten hori eta ordun hasi nintzen... baina urtebete pasa zan igual eh! Egon nintzan urtebete... pufff... viva la vida... baina gero hasi nintzanean segituan reaktionatu nun horrekin... izan zan momentu hori de... eta bueno ba... ondo jarri nintzan, bueno ondo... o behintzat... egia esan, bueno ordundikan ya el más feliz del mundo, porque... hau ta geo ya badakit nola da... ya sé cómo es el infierno... hemendik aurrera... el resto me da por culo... (barre egiten du)”.

Itziar:

“Lehen hitz ein deu ba muga hori... ba batzutan burumakur jeikitzen naizenian o sentsazio hori eukitzen detenian esaten det: ai ama, nire ama hemen egongo zan. Hori pentsatu det askotan. Hemen egongo zan eta ez det hor eon nai. Ez? Bildurra horrea aillatzeko? Bai. Nik ustet konszienteago zeala hori existitzen dala ta orduan bakizu hor daola. Ta esaten dezu, ba bai beldurra ematen dit horrea jutiak, badakitelako hor daola. Aillatuko naizela nire ama hor eon zalako? Bueno, hori ez dakit. Ez dakit aillatuko naizen o ez. Baina ez zait iruditzen nire ama hor eon zalako aillatuko naizenik. Ez zait iruditzen horreatik danik. Izango da ba beste gauza batzungatik, baino ez nire aman aurrekariya dakatelako. Ez... (isilunea). Eta juten nintzan masajista batena, pixkat hola, masajista alternatibo batena. Esan zian: zeri diozu zuk bildurra? Karo horrelako galderak eiten dizkizuten momentuan esaten dezu, jo ba momentu hontan ez

dakit baina pentsatuko det. Karo, pentsatuko det... orduan etxian bueltaka eta bueltaka. Ta esan nion: bai, nire bildurra da nire ama bezala bukatzea. Ba... baina ez nire ama hil zalako edo minbiziyakin hil zalako edo... ez. Bere gogo falta hori eukitzea, bizitzeko gogo falta hori eukitzea. Ze hori hiltzea da azkenian. Nik beti esaten det, nire ama hil zanian, pena enun hartu ze nire ama askoze lehenuo hil zan”.

“Ez, ez da errexa, ez da errexa hitzeitia [...] nik buruko gaixotasunei badiyot bildurra. Bai”.

Jon:

“Hor zerbait gertatu zan familia hortan porke aittona ere egondu zan kriston depresiyaikin eta ama izan zan nolabait ere guk entzuten deunaren arabera eta hori da irudiya nik dakatena, ze gauza hauetan, gauza hauetaz hizketan hasten zeanian, eee... nik ez dakit bestetan errepikatzen den, badaude gero gauza fisikoak eta nahi badezu hitz egingo deu hortaz, baino e... daude irudiak, zuk dauzkazu irudiak sartuta buruan. Zuk dauzkazu irudiak zuri, zuk ikusi dituzunak eta dauzkazu irudiak zuri kontatu dizkizutenak, bai? Ordun, irudiak... gure amak beti transmititu dun irudi bat, aitonarena, zan oso gizon ona zala, oso oso oso oso sensiblea zala, oso sensiblea gizona zala ikaragarri bihotz onekoa. Baino momentu batean depresiyo bat harrapatu zula eta ez dakit zenbat denboran ya bere habitaziyotik ez zala atera. Ez dakit zenbat urtetan edo ez dakit zenbat denbora, eske ya gauza hoyek... ez zala bere habitaziyotk atera. Eta ordun, bere habitaziyotik ez ateratze hortan, alaba bakarra joaten zana bere habitaziyora janariyak ematera eta beakin egotera eta beai... izan zan gure ama. Gure ama. Nahiz eta gero depresiyoa... izeba X-k izan zun depresioa, amak izan zun depresioa eta izeba X suizidatu zan”.

“Eta bueno gero ama nolakoa da. Eeee... oso sensiblea da, hipersensiblea da, daka problema bat seguru da arazo bat arazoa edo izaera bat daukaguna bi anaiok eta bi arrebak hobeto defendatzen dia hipersensibilidadade hortan”.

“Nik uste det beldurra badaukazula. Beldurra hor daukazu. Gainera are gehiago ikusi dezunean ba garai batzutan oso gaizki ibili zeala. O sea, ni gaizki ibili naiz, bere garaian gaizki ibili nintzan, nire anaia gaizki ibili da e... nire arrebak garai batean gaizki ibili zian (isilunea). Ematen dizu beldurra. Batzutan ematen dizu beldurra, egunen batian klaska bat egingo al dit neri buruak? Hainbeste entzun dezunean gainera, eske esto es un proceso químico, un día de

estos te viene el proceso químico y la has cagado y la ostia, eta ikusi dezunian gainera hori, ez?

Ama ohetik atera ezinda o sea, puf, hori dana ikusi dezunean hori hor dago. Baina bueno burukatu beharra dao, o sea esan nahi dizut, beldurra? Bai, beldurra hor dakazu, jakina nola ez dezu ba izango, baino gero aurkitzen dituzu bueno ez dakit... segi galderak egiten”.

“Baino esan nahi det... gauza batzuk errepikatu egiten dira. Zuk suizidiyoa entzuten dezunean zure buruan inoiz suizidio hitza atera da baino entzun dezulako. Zuk ikusi dezunean zure amak eskapo egiten duela jendearengandik eta hori txikitatik e... modu batera edo bestera zeren nik ez dakit ama noiz zegon ondo edo gaizki, zuk askotan bukatzen dezu jendearengandik ihes egiten”.

“Mehatxu bat bai. Bai. Noski. Mehatxu bat klaro. Baino ez mehatxu bezala esanda. Baino mehatxu bat zure bizitzan bai. Jakina”.

Ane:

“Bai, egon da gure familian beldurra zein izango ote zan hurrengo baina nik uste det hori ya aldendu egin dela pixkat beldur hori. Da gehiago zeren honek ere eragina daka zaintzaileengan, honek guztiak, eta ordun batzutan oso desesperantea da. Batzutan juten zea amaren etxea eta primeran dago eta primeran pasatzen dezu, baino gaixki baldin badago eske ateratzen zera handikan ba ez dakit nola esan, erabat minduta”.

“Eske bira, dira kontuk ere ez dituzunak nahi gehiago kanpora atera eta ez dezula ezer jakin nahi ze dena mingarria da. Igual dakat lan hori egin gabe. Ze por ejemplo nere lehengusuek egin dute lan hori eta egin dituzte, nola esaten da... constelaciones familiares³¹ eta holako kontuk, ez? Ta nik ikusten ditut poz-pozik. Eta bueno...ba igual...horixe”.

“Orain nere izeba dago gaizki. Da amaren ahizpa. Oain dago super deprimetuta. Beti laguntzen gaitu pila bat eta horrela eta oain dago burumakur burumakur. Eta lehengo egunen berarekin

³¹ 1980ko hamarkadaren erdialdean hasi zen zabaltzen eta teknika psikoterapeutikoen artean kokatzen da. “Taldean egiten da eta sesio bakar batean; bezeroaren jatorrizko familiaren eskemaren berregituraketa bat da, zeina estantziaren erdialdean dago kokatuta eta sesioko hainbat parte-hartzailek bere familiakideen ordezkari bezala jokatzeko dute; era horretan, zuhaitz genealogiko bizidun bat osatzen dute” (ALONSO, Yolanda (2005) “Las constelaciones familiares de Bert Hellinger: un procedimiento psicoterapéutico en busca de la identidad” in *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*, 5. bol, 1. zbk, 85-96. or.).

hizketan: ay, izeba baino ez dakit ze, baino animo... eta esan zian: zuk badakizu gure familian que tenemos tendencia a la depresión. Ez da guk pentsatu deula bakarrikan, da gure familin behin da berriz mahai gainean jarri den kontu bat porque amak ere bazeukan lehenagotikan lehengusu bat piromanoa zana. Eta ordun da pues familin hori eukiko bagendu, gen txar hoiek eukiko bagenitu bezala. Baina bueno, nik ya pentsatzen det hori ez dala horrela, nik eeee baliabide gehiago ditudala eeee, eeee, ez dakit aliantza gehiago ditut, jende gehiago dakat ni bezelakoa eta ordun ez det pentsatzen hori gerta litekee... o sea, bai gerta liteke baino edonori gerta dakioko hori. Ez guri bakarrik, ez?"

Mikelek gogoeta egin du orain arte bizitakoak berarengan era batera edo bestera, momentu puntaletan edo oro har izan duen eraginaren inguruan. Landu egin duela esan daiteke eta, beraz, identifikatu egiten ditu bizitako egoerek utzi dituzten arrastoak: “*Gabonero gaixo jartzen naiz, ez dezu sinistuko, beti gripea dakat gabonetan eta es increíble, nik badakit horregatik dala, ze seguru nao gainea, seguru nao, badakit*”. Jonek ere ondorioak edo arrastoak ikusten ditu, etxean ikusitakoak norberaren jarrera baldintzatzen duela irizten dio berak: “*Batzutan ematen dizu beldurra, egunen batian klaska bat egingo al dit neri buruak? Hainbeste entzun dezunean gainera, eske esto es un proceso químico, un día de estos te viene el proceso químico y la has cagado y la hostia, eta ikusi dezunian gainera hori, ez? Ama ohetik atera ezinda o sea, puf, hori dana ikusi dezunean hori hor dago*”. Jonek baldintzatzen zaituzten jarrerari buruz hitz egiten du, ez zuzenki eta derrigorrez genetikoak³² direnak: “*Zuk ikusi dezunean zure amak eskapo egiten duela jendearengandik eta hori txikitatik e... modu batera edo bestera zeren nik ez dakit ama noiz zegon ondo edo gaizki, zuk askotan bukatzen dezu jendearengandik ihes egiten*”. Baina, Aneren familian (Anek berak gauza bera ez pentsatu arren) kontu “genetikoa” aipatzen dela uler dezakegu bere izebari entzundako hitz hauek oinarritzat hartuta: “*ay, izeba baino ez dakit ze, baino animo... eta esan zian: zuk badakizu gure familian que tenemos tendencia a la depresión. Ez da guk pentsatu deula bakarrikan, da gure familin behin da berriz mahai gainean jarri den kontu bat porke amak ere bazeukan lehenagotikan lehengusu bat piromanoa zana*”. Itziarrek, bere aldetik, beldurra aipatzen du, beldurra ez amari gertatu izanak berari ere etor dakioken zerbait bezala ikustarazten duelako, baizik bere ama hainbat egoeratan ikusi ondoren, bera ere horrela sentitzeak – egun batean triste sentitzeak, esaterako – ama non

³² Arrazoi ezberdinak eman ditu mendebaldeko medikuntza hegemonikoak “buruko gaixotasunen” jatorriari buruz. Horietako bat eta gaur egun indar handia duena *geneetan* transmititzen dela da. Eskizofreniaren kasuan ikus: MARTÍNEZ HERNÁEZ, Ángel (1998) *¿Has visto cómo llora un cerezo?*, Universitat de Barcelona, Bartzelona.

egon zen erakusten diolako, eta hori da bere beldurrik handiena: “*Bai, nire bildurra da nire ama bezala bukatzea. Ba... baina ez nire ama hil zalako edo minbiziyakin hil zalako edo... ez. Bere gogo falta hori eukitzea, bizitzeko gogo falta hori eukitzea*”. “Irudi” hauek, Jonek izendatzen dituen bezala, mehatxu bezala identifikatzen dituzte neurri handi batean: “*Mehatxu bat bai. Bai. Noski. Mehatxu bat klaro. Baino ez mehatxu bezala esanda. Baino mehatxu bat zure bizitzan bai. Jakina*”.

Erotzat jotako hainbat emakumeren inguruan eraikitzen dira isiltasuna(k), hainbat egoera eta gertaera ezkutatzeko batzuetan, oso mingarriak diren egoerak ekiditeko bestetan: “*Ezarritakoa zalantzan jartzea pribilegio maskulinoa bihurtu zen, gizon bati prestigioa edota errebelde edo iraultzaile errekonozimendua jasotzeko aukera ematen ziona (baita delitugile bezala admirazioa lortu ere), baina emakumeentzat debekatua egoten jarraitzen zuen, euren naturarekin bat otzantasuna eta konformismoa egokitzen zitzaien*” (Juliano, 2006: 159).

“Ta nik ustet asko asko sufritu zula. Ze batez ere izan zan... kalimero ikusten zenun zuk? ¡Soy un incomprendido! Ba hori, nere ama izan zan una incomprendida, inork ez zion ulertzen ezta nere aitak” (Itziar).

“Terrible ha sido. De no olvidarnos de ella. Simpática, alegre... Y yo decía... esa qué puede tener para estar aquí. Qué puede tener esta mujer para estar aquí, porque era... con nosotros se ha portado desde luego... bueno... de enferma nada eh” (Mari Carmen).

“Zan alaba bakarra eta besteak zian mutilek. Izango zian lau edo bost. Orduen, X, nik ezautu dot, manikomixuen eta nik ezautu ozten. Tenía una mala ostia, baina es que mala ostia txintxatzen zutenian lógicamente. Aquí y aquí te voy a dar un makillazo. Baina arrazoiakin, arrazoiakin eta ordun zeattik? Nire istorixie da pues porque era una... izan zien ni vividoras... simplemente bandera de mujer... pues eitten dabela gura dabena gutxi gorabehera [...] O sea, bi emakume euren kontura bizi zianak, jiji jaja, haruntz, honuntz, ta klaro, ez zien kuadrila neskatxuek eskutik heldute. Euren bizikletiak eta hola. Acabó en el manicomio” (Erizaina 1).

“Oso independientia, oso askia, baina oso... bere egoeratgatik oso oso superatua bezala, ezin zun bere egoerakin, ze bera askeegia zan egoera hau aguantatzeko, ezin zun... o sea gizarte guztia zan berantzako... Berak jaio behar zun oain. Beste itxura bat... gainea jantzteko era... dana holakoa zan... Parisen gelditu bazan, nik uste det, askoz zoriontsuo izango zala. Ze egoera hori ya bazegon, modernidade gehio edo... baina hemen oaindikan... posguerra garaian

bezala. Orduan nola? Oso askia, eta harremanetako problema handiak zezkana, ikutzeko jendia, kontaktu fisikoa edukitzeko... baina nik uste det izan zala... ba bere gurasoekin euki zuen retxazoagatik. Edo...(isilunea)... hori da” (Mikel).

“Orduan ama izan zan ba, nik entzun dudanez pertsona bat osooo, X-en, bueno triunfatu egin zuna. O sea, esan nahi det, gure familiyan dirua zegon, bidali zuten Cannes-era ikasketak egitera, frantsesa... o sea esan nahi det una triunfadora” (Jon).

“Ba oso gizon autoritarioa eee emakumea nerea da, familia... ni ostiraletan ateratzen naiz lagunekin eta zu etxean geratzen zea. Eee, bueno horrela, beak asko bidaiatzen zun ere eeee oso atzerakoia. Eta gurekin ere bai. Eta ordun uste det ama estu lotu nahi izan zuela eta horrek ere amarengan eragina izan zuela. Gero ama oso moderna, garaitik kanpoko bai, amak atera zuen Xen lehendabiziko gidatzeko karneta, lehendabiziko emakumea, hemezortzi urtekin eta aitari erakutsi zion” (Ane).

Argi dagoena da, hiru aldeek – psikiatrikoan ingresatutako emakumeek, euren senideek eta psikiatrikoetako arduradunek – ikuspegi ezberdina dutela, eta elkarrizketetan – psikiatrikoan ingresatutako emakumeen eremua hurrengo atalean landuko dut – hori agerian geratu den beste gauza bat da batzuen ahotan. Aneren hitzak horren adibide:

“Beai esan diote beti dela bipolarra, baino nei iruditzen zait, bueno baino hori da nere irudipena, dala jartzen duten etiketa inoiz ez dakitelako zer gertatzen da buru baten barrun ta hori da diagnostikoa jende guztiari esaten diotena. Beste behin esan digute psikiatrikoan dala hori baino okerragoa... dala eeee...sindrome de cambio de personalidad ooo...nola esaten da? Trastorno de personalidad. Netzako hoiek dira erabiltzen diren etiketak ba zerbait jartzeko [...] Hemen da inpotentzia, ezjakintasuna. Mila gauza dira. Azken finean da, neretzako, gaixotasun, osea gai sozial bat, soziala edo kulturala edo ez dakit nola esan, den kontu bat, baaaa medikalizatu eta o sea hori konpondu beharrean oinarrietan, askotan gertatzen da, gai soziala, gaixotasunek daukate eeee konponente sozial bat eta ordun zuk konponente sozial horretan eragiten baldin badezu igual gaixotasuna saihes... saihestuko dezu baina hori ez da egiten gaur egun. O nere uste apalean” (Ane).

Atal hau amaitzeko Itziarrek elkarrizketa egin ondoren bidali zidan testu bat jarri nahiko nuke. Elkarrizketa amaituta, gertatutakoa gogoratzeko lana eta ahalegina egin nahi izan zuen eta hauxe bidali zidana³³:

³³ Testua bere horretan mantendu dut, ez dut nik idatzitakoaren formatu berera aldatu nahi izan.

“Iragana iragana da eta horrelako gauzak nahasten ibiltzeak ez dakit on egingo liokeen inori”.

Hori irakurri dizut. Hori esan zizuten. Hori esaten digute.

Iragana ezin dugu ahaztu, are gehiago, ez dugu ahaztu behar. Iraganak asko erakuts diezagukeelako. Iraganean ditugu gure orainaren urratsak. Galtzen ari naiz filosofia arraro horretan baina benetan uste dut iraganak zeresan handia duela gure bizitzan.

Gogoratu.

Nire amak iraganaz kontatzen zituen gauzak oso alaiak ez zirela dut gogoan. Familia giro atseginik ez zuen ezagutu. Baserri-giroan hazi eta hezitako gurasoek ez zioten haurtzaro zoriontsurik eskaini. Hala zioen behintzat. Bere amonari buruz hitz egiten zuen sarri. Asko eta kariño handiz. Bere aitaren ama maitasunez gogoratzen zuen. Eskuzabala izateaz gain besarkatu egiten baitzuen, besarkatzea gauza anormala balitz bezala. Gerora ere gu besarkatzeko gogoia izaten zuen tarteka, modu ez natural batean, nezesidadea sentituko balu bezala. Nik ez dakit zer sentitu behar duen maitasun gutxirekin hazi den haur batek, baina ziur nago nire amak sentitzen zuenaren oso urruneko sentsazioa ez dela izango. Bere bizitza osoa eman zuen maitasun eske. Maitasun eskalea zen. Eta berak eskatzen zuen hura eskainiko zion inor ez ote zuen ezagutu. Horixe da nire oraingo susmoa. Nola ez naiz iraganen murgilduko gauza horiek orain sentitzen baldin baditut?

Nire haurtzaroa gogoratu.

Ama ohean gogoratzen dut. Bere logelako ate hura itxita. Pasilloaren amaieran zegoen kristalezko ate zuri hura itxita. Hori zen seinalea. Ama bere munduan zegoen. Gu beste mundu batean. Eta zubi hori ezin pasatzeak asko sufriarazten zion amari.

Orain beste era batera ikusten ditut gauzak.

Egoera normalizatzeak alde ona du. Traumatizatzeiko arriskutik urruntzen ari zara, ez zaizu iruditzen zuk bizi duzun egoera anormala denik.

Pixkanaka iritsi zara egoera horretara eta zure buruak normala bihurtu den egoera anormal eta beldurgarri hori barneratu egin du, bereganatu. Ez dago beste esplikaziorik. Nola ulertu bestela egoera normaltzat genuela ama gau osoan pasilloan hara eta hona ibiltzea, zigarro pakete bat bestearen atzetik errez, burumakur, isil-isilik, bere pentsamenduan, bere munduan guztiz murgilduta?

Orain, urruntasunean, egoera hura aztertuz, zeharo surrealista eta kafkianoa zela deritzot. Eta gu, halako batean, ohetik jaiki eta eskolara joateko prestatzen ginen eta amari ia kasurik egin gabe alde egiten genuen, ama bera bakarrik moldatzeko gai zela sinetsita. Beldurgarria.

Hau idazteak min ematen dit. Irudikatzen ari naizelako nire amak bizi izan zezakeen mundua. Beltza eta iluna. Inoiz ezingo dudalako imajinatu non zegoen une hartan nire ama. Gu han geunden, bai, bera ez.

Nik ez dakit nola irten zen egoera hartatik. Bere buruaz beste egiten saiatu zen, serio, eta ez zuen lortu. Haren ondorioaz ezagutu zuen lehenengo aldiz psikiatrikoa. Guk ere bai. Han sartu aurretik ospitalean Zaintza Bereziko Unitatean eduki zuten egun batzuetan, koman egon baitzen ordu erdiz, hilzorian. Gogoan dut bisitatzera joan nintzela, ez zutela gelan sartzen uzten eta leiho batetik ikus genezakeela ama. Nik leihotik begiratu nuen eta ez nuen ama ikusi, aurrean zegoen mamu bat besterik ez. Segundo batzuk behar izan nituen, edo akaso minutu batzuk izan ziren, han aurrean, ezerezari begira zegoen hura ama zela ohartzeko. Kolpe latza jaso nuen. Baina ahaztu ere ahaztu zitzaidan. Gerora beste halako hainbeste ikusiko genituen...

Hura ere pasa zen. Eta etxera itzuli zen. Hiru nerabe eta gela handiak zituen etxe hartara.

Ez naiz gogoratzen egun haiek nolakoak izan ziren. Aita ere tartean zen, hark ere lagundu nahiko zuen, baina ordurako bananduta zeuden eta aitak egoera hura baliatu nahi izan zuen amarekin itzultzeko... nik ez dakit nola moldatu ginen egun haietan, edo hilabeteak izan ziren?

Buruak aukeraketa egiten du. Min egiten duen oro ezabatzen duela uste dut. Eta nik egun haiek laino artean nabari ditut, tarteka izpiren batek zerbait erakusten dit, baina oro har, dena lausotuta dago.

Denbora asko ez zen pasa eta berriz ere bere buruaz beste egiten saiatu zen. Guretzat gehiegi izan zen. Une hartan pentsatu nuena ez zait ahaztu: “hil nahi badu hil dadila, mesedez, baina ezin du horrela ibili”. Hori pentsatu nuenetik heriotza iritsi zitzaion arte urte mordoxka pasatu ziren. Eta orain buruan bueltaka darabilkit berak zer pentsatzen ote zuen horretaz guztiaz. Hil nahi, hiltzen saiatu, lortu ez, berriz mundu berdina zain, begirada galdua itzuli, beldurrak airean, nora eza noiz amaituko jakin ezin, hiru seme-alaba unibertsitatean... Nola ikusi irtenbidea?

Nik uste dut inoiz ez zuela irtenbiderik ikusi. Berak inork baino hobeto zekiela non zebilen, zer zeukan aurrean eta nola bizi behar zuen aurrerantzean. Triste.

Halaxe bizi izan zituen berak azken urteak. Triste.

Bost urte egin zituen psikiatrikoan.

Ondo ezagutzen zuen hango mundua, urte batzuk lehenago egona baitzegoen, baina oraingoan Gipuzkoako psikiatriak zituen hiru ospitaleak ezagutu zituen. Larrialdikoa, Donostiako ospitale atzean dagoen eraikin beldurgarri hura; egonaldi erdikoa deitzen ziotena, Usurbilen dagoena oraindik, eta itxuraz, behintzat, halako gaixoentzat egokiena; eta Arrasatekoa, Aita Menni, egonaldi luzekoak egoten ziren han, nire amak bizitza amaitu zuen toki hartan. Eta gu, berarekin batera, galdata.

Nire ama beti izan zen emakume prestua. Bere burua oso txukun izaten zuen, *estheticienne* zen, inork ez zuen herrian berak bezain ondo makillatzen, manikura egiten ere bazekien eta aholkuak ematen artista zen. Halaxe eramaten zuen denda, kremak salduz, Bartzelonatik ekartzen zituen pitxi zoragarri haiekin bezeroak erakarriz, aurpegia ondo zaintzeko aholku txukunaz emanez. Zorionsua zen. Bere mundua bihurtu zen hura. Tamalez, ez zuen beste mundurik ezagutu. Etxean zituen hiru seme-alabak euren bizitza egitera ohituegiak zeuden. Lagunarte zabalik ez zuen, dendan zeukan bazkidea baitzen bere lagunik handiena eta harekin ematen zituen nahasian kidetasuna eta negozioa, nahasketa hori eten, haserretu eta bakarrik gelditu zen arte. Kolpe hura gehiegi izan zen berarentzat. Dendan gelditu zen bera, alokairuan geneukan denda hartan, bera baitzen benetako profesionala. Baina halako gorabeherak dituen pertsona batek ezin du negozio bat berak bakarrik kudeatu. Eta hor sartu nintzen ni. Nire kirolari

plantarekin amari laguntzen. Inoiz makillatzen ez zen alaba zaharrena amaren perfumeria elegante hartan laguntzaile. Bion artean lotura berezia sortu zen egoera hartan. Amak niri konfiantza osoa eman zidan eta nahiz eta berak ondo jakin nik moda kontuak ez nituela jarraitzen, beti animatzen ninduen, beti goraiatzen zituen nik esandakoak, nik egindakoak. Hala ere ni neu bakarrik nahikoa nintzen hura nire tokia ez zela jakiteko. Eta ez zen, noski. Bestelako lana nuelako. Garai hartan irakasle egon nintzen, eta goizez eskolak eman ondoren arratsaldean dendan egiten nituen orduak amarekin. Gustura. Soldata baten truke esango nuke, baina hori ez zen guztiz egia. Alaba bati ematen zaion sari baten antzekoa adostu genuen bion artean, ordurako gastuak asko handitu baitziren, alokairua asko igo baitziguten eta nik neure irakasle-soldatarekin nahikoa nuen.

Gauzak, ordea, ez dira gertatzen norberak nahi bezala. Pixkanaka dendan bakarrik geratzen ari nintzela ohartu nintzen. Ama gaixotzen zen bakoitzean nik ireki behar izaten nuen denda, nik moldatu behar nituen moldatzeko gai ez nintzen hainbat kontu, nik egon behar nuen nire tokia ez zen leku hartan... eta niretzat askotxo zen. Amak ere ikusten zuen bere bakardade beldurgarri hura, inoiz ikusteari utzi bazion behintzat. Berak bazekien zein errepidetatik zebilen, eta biderik luzeena hartzea erabaki bazuen ere, tarteka patuari ihes egiteko aukera topatuko zuelakoan edo, bazirudien erabakia hartua zuela.

Zoriontsu izan nahi zuen.

Eta zoriontsu izateko beharrezkoak iruditzen zitzaizkion urrats guztiak emateko prest zegoen.

Baina zoriontasuna hain da irristakorra... Berari irrist egin zion ukitu bezain laster.

Ni haurdun gelditu nintzen. Nire lehentasuna beste bide batetik zihoan. Horretaz ohartu zenean nire ama... eta nire amaren psikiatra... plana aldatzen hasi zen.

Zurutuza izena zuen Osakidetzako psikiatrak. Nire amak estimu berezia zion, asko laguntzen ziola esaten zuen, eta konfiantza zuen berarengan. Guretzat, etxeko hizkuntzan, "camarada Zuru" zen. Egoera anormalak normalizatzeko modurik bitxiena aurkitu baikeuen gurean: txisteak egitea, umorea erabiltzea. Eta kamarada Zuruk esan zion nire amari kontuz ibiltzeko, alaba zaharrenaren haurdunaldiak faktura itzela pasako ziola eta prestatu beharra zeukala. Nire amak ez zion sinetsi: "Baina nola izango da

zuk esaten duzun bezala, ni ere poz-pezik nago-eta amona izateko!'. Zurutuzak bete-betea asmatu zuen.

Erditze egunera arte egon nintzen denda amari laguntzen (topikoak lagundu zidan, horretan bakarrik). Garaia baino lehenago jaio zen nire alaba, nire alaba bixi hori, munduari egun on esateko begi bat itxita eta bestea irekita jaio zen poxpolina. Niretzat, noski, beste mundu berri bat zabaldu zen.

Eta nire amarentzat ere bai.

Udan jaio zen alaba, uztailean, Santio egunean.

Irailerako amak erabakita zuen denda itxi egingo zuela.

Eta niri kakalarria sartu zitzaidan. Barneraino.

Larritasun hura nirekin eraman nuen amaren heriotza arte.

Oraindik ere batzuetan kakalarri hura sumatzen dut.

Ama izan ondoko hilabete haiek lausotuta ditut. Denda itxi, likidazio guztia egin, soberan zeuden produktu guztiak etxera eraman, ni telebistan hasi nintzen lanean bularreko haurra nuela, eguerdietan etxera etortzen nintzen lehertzeaz neuzkan titi haietatik alabari bularra ematera; gogoan dut Zarauzko zinegotzi Iruretagoiena hil zutela urtarril hartan, ama Donostiako psikiatrikotik Usurbilera eraman nuela nire lan egun batean, bazkal-ordua aprobeztatuz, alaba txikia 7 hilabeterekin ospitalean ingesatu behar izan genuela pneumonia zela-eta-... Gertaeren ordena ez dakit zehatz-mehatz baina horiek guztiak 8 hilabeteren bueltan izan zirela ziur.

Eta orain pentsatzen dut nola eraman nituen horiek guztiak buruan sartuta?

Dakidan eta oso ondo gogoratzen dudana gauza bakarra hau da: ama psikiatrikora joan zela eta ez genuela handik kanpora gehiago ezagutuko. Lau urte pasa ziren minbizia zeukala esan zioten arte, eta beste urte bete hil zen arte. Guztira bost urte. Amesgaiztozko bost urte. Orain ikusten dut amesgaiztoa behar zuela izan hark guztiak, baina garai hartan ez nuen nik hala bizi izan. Ama izan nintzen eta zoriontsu nintzen nire alabarekin. Hain zoriontsu, non beste ume bat ekarri nahi izan nuen axkar-axkar. Akaso

lotsagabekeria izango da, edo ezjakinaren ausardia: ama psikiatrikoan, eta ni bigarren haurraren zain. Baina garai ona izan zen hura niretzat.

Ama ikustera joaten ginen. Eta amak baketsu hartzen gintuen, irribarrez ere bai tarteka. Zoro-etxe hartan zer egiten zuen ezin nuen ulertu. Bera baino zoroago nengoelako ni. Hori orain ikusten dut nik.

Batzuetan ama etortzen zen gure etxera. Eta hortxe ikusten zuen berak lekurik ez zuela gurean.

Haurrak ez zitzaizkion inoiz gustatu eta bilobekin ere ez zuen lotura berezirik sentitzen. Berarentzat txikiegiak ziren. Haur txikiekin zer egin ez zekiela esaten zuen berak. “San Antonio con pistolas”. Halaxe definitzen zuen bere burua haurraren kotxea eramaten zuenean.

Beti txisteak egiten.

Beti argi.

Beti pausu bat aurrera.

59 urterekin hil zen, minbizia metastasi bihurtu eta gorputz guztia jan zionean.

Hamar urte pasa dira eta oraindik negar egiten dut. Min egiten dit zenbat sufritu zuen pentsatzeak.

Bakardadea zer den guztiok dakigu.

Baina bakardade batzuk besteak baino askoz ere bakartiagoak dira, zu bizi zaren mundu horretan beste guztiak arraroak iruditzen zaizkizunean sentitzen duzun bakardade beldurgarriagorik ba ote dago?

Isiltasuna(k) psikiatrikoan: komunikazioa “gehiegizkoa” denean

“En los confines de la existencia el lenguaje vacila”³⁴
(Le Breton, 2001:76).

Artxiboko analisisia egin nuenetik ezagutzen nuen psikiatrikoa. Baina artxiboa ingresatutakoak dauden eraikinetik kanpo dago, instituzioaren apartokalekuan, eta bertara joaten nintzenean ez nuen eraikin handitik pasa behar. Ikerketa lana hasi eta berehala egin nahi izan nuen behaketa parte-hartzailea. Zaila egiten zitzaidan oso, instituzio psikiatrikoak barne hartzen dituen ikerketa lan bat egitea, inoiz (bisitan joanda bakarrik) horietako baten barruan egon gabe. Banekien ez zela erraza izango, intimitatea babesteko neurriak zorrotzak baitira, baina instituzioko arduradunek bazuten egiten ari nintzen lanaren berri, eta hilabetetan zehar artxibora egin nituen joan etorriek sortutako harremanak behaketa parte-hartzailea egiteko aukera izaten lagundu zidaten.

Hasiera batean burokratikoak ziren zailtasunak, ondoren, beste era bateko zailtasun bihurtu ziren. Psikiatrikora sartzeak nire barne mamu eta beldurrak piztu zituen, eta konturatu nintzen, ikerketak bultzatuta bakarrik ez, nik neuk gainditu nahi nuen zerbaitek bultzatzen niduela erabaki hura hartzera. Gogorra izan zen lehen eguna. Gogorra oso.

Baita bigarrena.

Eta hirugarrena.

³⁴ Existentziaren mugetan, hizkuntza zalantzati dago.

Horrekin jarraitu nahi ote nuen edo, hobeto esanda, horrekin jarraitzeko gai ote nintzen zalantza egin nuen. Uztear egon nintzen, ikerketa lanak hori gabe ondo funtzionatuko zuela konbentziaraziz neure burua: “Itzulerari buruz, antzeko zirkuitulabur bat da, zentzumenen gorputza zeharkatzen duen neurrian banatutako bi garai kontaktuan jartzetik jaiotzen da, era honetan, berraurkitutakoa baino gehiago, erretenitutakoa denbora baten ebidentziara lotuz” (Augé, 1998:84).

Vera deskubritzera eraman ninduen krisi hartan, erotzea zen nire beldur nagusia, neure burua psikiatriko batean itxita ikustea. Behaketa parte hartzailearekin, nire beldur handienarekin jarri nintzen kontaktuan.

Aurrez aurre.

Dueluan.

Bata edo beste garaile aterako zen garaile.

Ingresatutako pertsonak dauden eraikina zaharberritutako etxe handi bat da. Iritsi bezain laster antzeman nuen garai batean garrantzitsua izan zela etxe hura. Era guztietako zuhaitzez beteta dagoen lorategi handi batek inguratzen du eraikina.

Behaketa parte hartzailea hasi nuen lehen egunean goiz joateko proposamena egin zidaten goizean goizetik egunak nola antolatzen zituzten ikusteko aukera izan nezan. Oroitzen naiz iritsi eta berehala zerbaitek deitu zuen nire atentzio guztia: bertan zegoen/zeuden isiltasuna(k).

Isiltasuna(k).

Pisutsua(k).

Berunezkoa(k).

Jasanezina(k).

Komunikazioz betea(k).

Deserosoa(k).

Seguru aski, psikiatrikoen inguruko nire imaginarioak eragin handia izan zuen sentitu nuen harridura hartan. Garrasiak espero nituen, bakar hizketa amaigabeak. Baina kontrakoa izan zen, isiltasuna izugarria zen. Apenas ez zen hitzik entzuten, eta oso noizbehinka esaten zuen baten batek zer edo zer. Beheko soilairuan zegoen telebista gelan denak isilik zeuden, batzuk erdi lo eta besteak telebistari edo beste zerbaiti begira, baina isilpean. Molinari-ri irakurritako esaldi bat etorri zitzaidan burura: “Instituzio psikiatrikoaren naturak ez dio komunikazioari espaziorik uzten” (2005:392). Baina, nik ezin n(it)uen isiltasun hura/haiek komunikazio ezarekin lotu; guztiz kontrakoa, komunikazioa etengabea eta gainezka egiten zuen horietakoa zela sentitzen nuen. Eta orduan, behin eta berriz errepikatu dudana Le Bretonen esaldiarekin egin nuen lotura: “Existenziaren mugetan, hizkuntza zalantzi dago”. Gogoratu nintzen baita ere Josep Maria Comelles Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitateko irakaslearekin ikerketa lan honi buruz hitz egin nuen lehen aldi hartan esan zidanaz: garrasi gutxi dago, isiltasuna handia da. Comelles-ek horrela deskribatzen du psikiatrikoa bere artikulu batean: “Beste mende bateko eroetxe handi, ilun, isil eta gristasun iztukudun haren pareten artean irudikatzen dut nire herbesteratzea” (2005:110).

Eromenaren eta isiltasun(ar)en artean dagoen harremanean sakondu nahi nuen gehiago, ikerketa lan hau bultzatu zu(t)ena(k) beste isiltasun bat(zuk) izan zirelako, eta horren atzean zegoen loturak garrantzia handia zuela pentsatzera eramanez ninduelako. Hori dela eta, behaketa parte-hartzailea begirada horrekin egitea erabaki nuen. Psikiatrikoetan eta, oro har, eromenaren inguruan idatzi duten autore askok isiltasuna(k) izan d(it)u(z)te hizpide hein handiagoan edo txikiagoan: “Ez dago zalantzarik, bai Sigman-ek eta bai Goffman-ek agerian uzten dutela horrelako instituzioetan gizabanakoengan kontrola eragiteko helburuarekin isiltasunak betetzen duen funtzio esanguratsua” (Marco, 2001:146).

Isiltasuna, kontrol sozialarekin lotzen da batzuetan, beste batzuetan, berriz, gizarteak instituzio hauetan ingresatuta dauden pertsonetara duen interes ezarekin: “Isiltasuna orduan fosilizatutako instituzio baten sintoma bihurtzen da, errutinaren edo pertsonalaren gabezien eraginez harreman sozialak indartzeko ahaleginean huts eginez” (Le Breton, 2001:23). Honenbestez, ondorioztatu daiteke, hitza psikiatriarekin izaten den elkarrizketa laburrera mugatzen dela ia beti. Isiltasuna(k) kontrolerako edota gizartearen interes ezaren isla izan, gehitu nahiko nuke eta

ikerketa honen ondorioz egin dudan lotura hauxe dela esango nuke: hitza ez da ingresatutako pertsoneri dagokien zerbait, “arrazionaltasuna” eta “egia” (lengoiaren bi ezaugarri nagusietako batzuk) ez baitira kontsideratzen euren une horretako gaitasun³⁵.

Baina, hitzik ezak ez du komunikazio eza esan nahi, eta beraz, beste era bateko komunikazioetan atentzioa jartzea erabaki nuen. Comelles-ek ere ingresatutako arteko harremanetan hitzik gabeko komunikazioa aipatzen du, azken finean hitza terapiaren formaltasunarekin lotzen baita, eta kontaktu fisikoa horren kontrako bezala (Comelles, 2006:265). Nekeak eta abaildurak ere lengoia ez erabiltzera eramaten ditzake, eta minak lengoia ezintasunera murrizten du, aukera bakarra isiltasuna izanik (Le Breton, 2001:168).

Emily Martin-ek bipolaritasuna diagnostikatuta zuten pertsonen zuten talde terapia batean egindako landa lanean zera aipatzen du: “Denbora asko pasa zen konturatu nintzen arte DSM³⁶-aren terminoak erabiltzeaz gain, inork ez zituela bere egoera emozionalak euren esperientzian oinarrituta deskribatzen” (2008:125). Ingresatutako pertsoneri instituzioan sartu eta euren “errekuperazioan” eskatzen zaien baldintzetako bat euren diagnostikoa onartzea eta hortaz kontziente egitea da. Eta, batzuetan, etiketa hori jarrita lasaitua hartzen dute, eta Martin-ek azaltzen duen bezala, etiketa horri buruz hitz egiteko, DSM eta bestelako gidaliburuen lengoia bera erabiltzen dute. Gizartearen parte eta partaide izateko baldintza nagusietako bat hitza erabiltzea da: “Ahots eta soinuaren gabezia zaila da jasaten [...] izaki sozialak gara ahotsarekin eta ahotsaren bitartez; badirudi ahotsa dela gure lotura sozialen ardatza, baita gure subjektibotasunaren muin intimoa” (Dolar, 2006:13-14).

Baina ez edolonako ahotsa, era konkretu batean erabili behar baita izaki sozialak izan nahi badugu. Argi dagoena da, hitzik gabeko komunikazioak, isiltasunak/isiltasunek kasu honetan, izaki sozial horretatik kanpo geratzeko arriskua dakar(tela). Antonin Artaud-ek berak, psikiatrikoetan hainbat urte eman ondoren idatzi zuen: “Orduan ulertuko dute zergatik ez dagoen nire burua guztiz hor; orduan ikusiko dute lengoia guztiak lehortzen direla, buruak, mingain guztiak erabat lehortzen direla” (1961:39).

³⁵ Hurrengo atalean, *Isiltasuna(k) errepresentatzeko moduaren bila* atalean gehiago landuko dut hau.

³⁶ DSM-a (*Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders*), gaixotasun mentalen diagnostiko eta estatistika gidaliburua da, *American Psychiatric Association*-ek egiten du. Azkena, DSM-V-a da, 2013-an plazaratutakoa.

Behaketa parte-hartzailea: egunerokoa

Behaketa parte hartzailea³⁷ egiten ari nintzen bitartean osatu nuen egunerokoaren pasarte batzuk azalduko ditut jarraian. Aukeraketa, isiltasun(ar)ekin zerikusia duten pasarteen artean egin dut³⁸. Egunerokoan idatzitakoaren erreprodukzioaren ondoren, horien gainean orain egiten dudan gogoeta azalduko dut; betiere isiltasuna edota hitzezko lengoia ardatz bezala hartuko ditudalarik. Pasarteotan ikusi ahal izango dira ikerketa lan honetan aipatzen ditudan gai asko eta asko; esaterako, isiltasuna(k) ez d(ir)ela komunikazio eza, erotzat jotzen direnei ez zaiela hitzen bidezko komunikazioa aurreikusten eta eurek ere beste batera hurbiltzen dira, eta hitz egiten ez duenari ulertzeko gaitasuna zalantzan ere jartzen zaiola.

2013-11-05, asteartea (sartu aurretik)

Urduri nago. Ez dakit nola aurkituko dudan nire burua han barruan. Beste mundu batera joango banintz bezala sentitzen naiz, baina ez bidaiatzen dudanean bezala, baizik eta kaxa itxi batera sartzera banindoa bezala.

Barruan aurkituko dudanaren beldur naiz edo, hobeto esanda, barruan aurkituko dudanak nigan izan dezakeen eraginaren beldur naiz. Hainbeste denboran ekidin dudana ikusiko du aurrez aurre. Ez dakit gai izango naizen.

Nire lanerako eurak erabiltzen ari ote naizen ere galdetzen diote neure buruari. Eta kezka sortzen dit nola hartuko nauten. Artxiboan, lasai nengoen, istorio gogorrek ziren baina

³⁷ Behaketa partehartzailearen barruan sartzen dira, hasieran ia egunero joanez egin nituen bi hilabeteak (2013ko urria, azaroa eta abendua) eta ondoren literatura tailerra ematen eman nituen beste zazpiak (2013ko abendutik, 2014ko uztailean bitartean). Literatura tailerraren edukia *Isiltasuna(k) errepresentatzeko moduaren bila* atalean landuko dut sakonago.

³⁸ Lehenengo egunetako oharrak zabalago azalduko ditut, psikiatrikoaren deskribapenak daudelako eta garrantzitsua iruditzen zaidalako espazioa nolakoa zen edo behintzat nik nola jaso nuen jakitea; era horretan, irakurlea gertuago sentituko delakoan.

gorputzik gabeak ia. Orain istorio horiek guztiak gorpuztu egingo dira. Ikutu ahal izango ditut ia.

Urduri eta beldurtuta nago.

Aurreiritziz beteta nago.

Orain konturatzen naiz, idatzitakoa berriro ere irakurtzerakoan, baina batez ere idatzitakoa egunerokotik pantailara kopiatzerakoan, ez nuela hitzik aurkitzen nola sentitzen nintzen azaltzeko. Nire barruko zurrumbilo guztia bi hitzetan laburbildu nuen eta motz, oso motz geratu nintzen. Autoa hartu eta psikiatrikorako bidean nindoala, eskuak izerdituta, bolantean irrist egiten zidaten. Dardara sentitzen nuen nire gorputzaren barruan, oso sakonean, eta gertatzen ari zitzaidan hori normala ote zen galdetzen nion neure buruari, behin eta berriz. Denborarekin, hilabete batzuk igaro ondoren eta esperientzia hura bizitzeko gai nintzela jakin ondoren bakarrik sentitzen naiz gai gertatutako hori azaltzeko. Baina, une hartan... une hartan, hitzak falta zitzaizkidan. Agian, hitz egiteko gogorik ere ez neukan. Edota ezin nuen. Ez dakit. Baina, kontua da, momentu horretan bizi izan nuela nire larruan hitzekiko ezintasuna...

Edota gorrotoa...

Edota urrundu nahia...

Edota bete ezin nuen beharra...

2013-11-05, asteartea (atera ondoren)

*Goizeko zortziak eta erdi ziren psikiatrikora iritsi naizenean. Erizain laguntzaile batekin ibili naiz batera eta bestera, hark azaldu dit ordu horretan psikiatrikoan dauden egitekoak eta joan-
etorria. Sarrerako atea giltzaz ireki eta erizaintza gelatik eraikin nagusiaren sarrerara sartu gara. Handia dela iruditu zait, dekorazioa iluna da, antzinakoa bezala, etxe baten itxura du, ez erresidentzia batena. Erdian lanpara handi bat dago sabaitik zintzilik. Hiru pisu daude, eta erdialdea irekita dagoenez argi ikusten dira beheko pisutik gainontzeko solairu guztiak. Pisu batetik bestera geratzen den espazio hutsean sare ezberdinak daude jarrita, bat solairu*

bakoitzean. Inork pasillotik bere burua bota ez dezan izango dela pentsatu dut. Agian nire imaginazioa da, eta ez naiz galdetzen ausartu.

Inpresioa egin dit.

Atzo iritsitako emakume baten gelan sartu gara. Bigarren solairuan. Bikoa da, beste emakume batekin dago, biak 60 urte ingurukoak dira. Denbora gehiago daraman emakumea ohea egiten hasi da eta berriak besoa beso-euskarri batekin darama. Erizain laguntzaileak aurkeztu egin dizkit, praktikak egitera etorri naizela esan die, denbora gehiago daramanak ez dit jaramonik egin eta berria niregana gerturatu da, bere burua aurkeztu dit, nik ere izena esan diot eta bi musu eman dizkiogu elkarri. Besoa dela eta apenas ezer ezin duela egin esan dio erizain laguntzaileari. Azken honek, ahal duena egiteko esan dio, horrek lagunduko diola hobetzen.

Jantokira jeisten ari ginen bitartean, erizan laguntzaileak azaldu dit binakakoak dira gela gehienak eta gizonezkoak eta emakumezkoak ez dira nahasten logeletan, baina gainontzeko espazioetan ez daude banatuta.

Goizetan bi txanda egiten dituzte gosaltzeko. Adinduagoak direnak bigarren txandan gosaltzen dute prestatzeko eta gela txukuntzeko denbora gehiago behar dutelako. Hala azaldu dit erizain laguntzaileak.

Eskaileretan behera goazela gizonezko bat gerturatu zait, gero jakin dut 29 urte dituela. Izena galdetu dit, berria ote naizen edota psikologoa. Ezetz esan diot, antropologoa naizela (sartzeko jarri zidaten baldintza egia esan behar nuela zen) eta berak irribarrez erantzun dit: zer da hori? Egiten ari naizena azaldu diot hala nola.

Jangelara iritsi gara. Bigarren txandakoak ari ziren gosaltzen. Bertan beste erizain laguntzaile batekin aritu naiz hizketan. Isiltasuna dagoela esan diot, eta berak esan dit lehen txandan emakume batek zalaparta gehiago sortu duela. Jende gehiago pilatzen hasi da jangelan.

Konturatu naiz bertan dagoela patiora ateratzeko atea eta denak zain daudela zigarroa erretzera atera nahi dutelako. Erizain laguntzaileari eskatu diote atea irekitzeko eta honek erantzun die denek gosaltzen amaitu arte ezin duela ireki. Erizain laguntzaileak esan dit orduan gehienek erre egiten dutela eta tabako pakete bat ematen dietela gehienez egunean.

Bat-batean, ilaran dagoen batek esan dit: ¿tú conoces nuestro lenguaje? Eta nik erantzun diot: creo que no. Aurretik ezagutu dudun 29 gizonezkoari begira jarri zaio eta asmatutako hizkuntza

batean hasi zaió hizketan. Mutil gazteak elkarrizketa jarraituko balu bezala erantzun dio. Hiru bat minutu iraun ditu elkarrizketak. Inork ez ditu moztu.

[...]

Ondoren, hasieran hartu nauen erizain laguntzaileak psikomotrizitate klasea eman behar zuela esan dit eta eurekin joateko gonbidapena egin dit. Erizain laguntzaileak esan dit asko kostatzen zaiela klaseetan etab. parte hartzea.

Klasea hasi zain nengoela, emakumezko bat jarri zait atzean, klaseari begira baina bertan parte hartzeko inolako asmorik gabe. Denak isilpean ari dira ariketak egiten, erizain laguntzailearen ahotsa bakarrik entzuten da egin behar dituzten ariketak azalduz; ozen, frontoiak egiten duen oihartzuna dela eta. Atzean jarri zaidan emakumeak galdetu dit ea berria ote naizen eta nire erantzunaren zain geratu gabe esan dit lasai egoteko, lehen egunak oso aspergarriak direla baina gero berak bikotea aurkitu duela eta oso pozik dagoela. Alde egin du.

Klaseak aurrera jarraitzen zuen bitartean 29 urteko gizona gerturatu zait eta berak konposatutako abestiren bat entzun nahi ote dudan esan dit. Rap abestiak dira eta psikiatrikoaren kontra hitz egiten dutela azaldu dit. Paper batzuk atera ditu poltsikotik eta bat zabaldu du. Papera azken zentimetroaraino zegoen beteta, hizki txiki-txikiekin.

Hasi da idatzitako abestia rap erritmoan abesten.

Psikomotrizitate klasea amaitu eta 29 urteko gizona erizain laguntzaileari esan dio agian asko hitz egin duela eta aspertu egingo ninduela. Nik ezetz esan dio.

Jangelatik sartu gara berriro eraikinean eta erizain laguntzaileak bertan zeuden pertsona batzuei keinuetara jolasteko gonbidapena egin die. Deigarria egin zait, hitzik gabeko jokoa zelako.

[...]

Erizainarekin batera logela batean sartu eta bi emakume zeuden bertan, erizainak azaltzen zidan dena, eurek ez zuten hitzik egiten eta aurkeztu zizkidanean ere “denbora gehiago daramanak ez dit jaramonik egin”. Batek ez zidan hitzik ere zuzendu; bere logelan eta, beraz, bere intimitatean sartzen ari nintzen, egoera ez zen oso eroso, norberaren intimitatean sartzeko baimena norberak eman beharko luke. Une hartan ez nuen horrelako gogoetarik egin, eta orain,

berriz, konturatzen naiz intimitaterik gabeko giro batean sartu nintzela, hori da azken finean psikiatriko batean gertatzen den gauzetako bat, intimitaterik ez dagoela. Dena agerian geratu behar da nola zauden jakin dezaten, zure bizitzan nola moldatzen zaren epai dezaten. Sartu berria zen emakumeak zer edo zer esan zuen, baina denbora gehiago zeramanak isilik hartu ninduen, eta aurrerantzean ere hala izan zen.

Jangelan, gosaltzen ari ziren bitartean, erizain-laguntzaile batekin ari nintzen hizketan. Plater, edalontzi eta tresnen zarata besterik ez zen entzuten, eta gure elkarrizketa jakina. Une hartan erizain-laguntzaileari nire inpresioa komentatu nion: *“Isiltasuna dagoela esan diot, eta berak esan dit lehen txandan emakume batek zalaparta gehiago sortu duela”*. Zalapartarekin, jakina, isiltasuna(k) hausten d(ir)a, baina, zalaparta ez da hitz egitea, edo behintzat ez dugu zalaparta eta hitz-egitea gauza bera bezala kontsideratzen. Beraz, bertan zegoena, isiltasuna edo zalaparta ziren, baina hizketarik ez.

Erizain-laguntzailearekin ari nintzela...: *“Bat-batean, ilaran dagoen batek esan dit: ¿tú conoces nuestro lenguaje? Eta nik erantzun diot: creo que no. Aurretik ezagutu dudan 29 gizonezkoari begira jarri zaio eta asmatutako hizkuntza batean hasi zaio hizketan. Mutil gazteak elkarrizketa jarraituko balu bezala erantzun dio. Hiru bat minutu iraun ditu elkarrizketak. Inork ez ditu moztu”*. Une hura gogoratzen dut, isiltasunarekiko joera, lengoaiari eskatzen diogun “arrazionaltasuna” eta erotzat jotzen direnei suposatzen zaien “arrazoi eza” lotu nituen unea bezala. “Gure lengoaia” esan zuen gizon hark, eta horrek talde bezala identifikatzen zituen, “eroen lengoaia” esan nahi ote zuen? Nik une hartan hala ulertu nuen. Ezetz esan eta bi gizonezkoen arteko hizketaldia hasi zen, inguruan, denak mutu geunden esaten ari zirenari adi. Erabat jokoz kanpo sentitu nintzen, adarra jotzen ariko balira bezala. Euren lengoaia edo kasu honetan hizkuntza propioa asmatzeko beharra ikusten dut orain. Ustez “arrazoia gidari” funtzionatzen dutenen lengoaia eurentzat arrotza dela edo arrotz eginarazi zaiela agerian utziz. Inongo itzulpenik ez duen, eta norberarena bakarrik den, lengoaia bat erabiltzen ari ziren. Epaitua izango ez zen lengoaia; botere puntu bat emango ziena; baina era berean, erotzat jotzeko arrisku handiagoan jartzen zituena.

Bi sorbazdun labana.

Psikomotrizitatea eraikinaren patioan dagoen frontoi estali batean egiten dute eta batzuetan palaz jokatzeko ere erabiltzen dute frontoi hau. Erizainak eman zien egun hartan klasea eta hauxe idatzi nuen: *“Denak isilpean ari dira ariketak egiten, erizainaren ahotsa bakarrik entzuten da egin behar dituzten ariketak azalduz”*. Erizainak agintzen zituen mugimendu

guztiak errepikatzen zituzten, baina ez zen hitzik entzuten. Une honetan konturatu nintzen, psikiatrikoen inguruan nuen imaginarioak ez zuela bertan gertatzen ari zenarekin zerikusi handirik. Erizainak esan zidan kostatzen egiten zitzaiela ekintzetan parte hartzea, nahiago zutela “ezer egin gabe” egon. Batzuen eta besteen atzetik ibiltzen ziren, ekintzak egiteko euren txanda iritsi zela esateko, eta hala zenean, euren jarrera ez zen protesta hitzez egitearena, baizik eta eserita edo zeuden tokian geratzearena. Han egon nintzen egunak gogoratu eta esan dezaket, uste nuena baino gutxiagotan entzun nuela hitz bidezko protesta³⁹.

Psikomotrizitatea egiten ari ziren bitartean, gizonezko bat gerturatu zitzaidan: *“Berak konposatutako abestiren bat entzun nahi ote dudan esan dit. Rap abestiak dira eta psikiatrikoaren kontra hitz egiten dutela azaldu dit. Paper batzuk atera ditu poltsikotik eta bat zabaldu du. Papera azken zentimetroaraino zegoen beteta, hizki txiki txikiekin”*. Artxiboan irakurri nituen eskutitz eta testuekin gogoratu nintzen; haietako askok orrialdearen zirrikitu guztiak aprobetxatzen zituzten. Psikiatrikoaren eta, oro har, pertsona honek bizi zuen egoeraren kontrako protesta, ustez “onartua” zegoen modu batean egiten zuen, rap abestiek izan ohi duten protesta edukiaz baliatuz eta lengoaia hautsi eta honekin jolastuz.

Psikomotrizitatea amaitu eta eraikin barrualdera sartzerakoan, hitzezko lengoaiaren erabilera urriari atentziora jartzeko nahia borobildu zuen beste zerbait gertatu zitzaidan: *“Jangelatik sartu bara berriro eraikinean eta erizain laguntzaileak bertan zeuden pertsona batzuei keinuetara jolasteko gonbidapena egin die”*.

2013-11-26, asteazkena

Asteazkenero ordubetez irratia tokatzen zaiela esan didate. Gaur, nola egiten duten ikusi nahi izan dut. Irrati saioak grabatzen dituzte eta ondoren internet bidez entzun daitezke. Ordubeteko grabaketak dira eta “Why not” izeneko fundazio batetik⁴⁰ pertsona bat dator grabaketa horiek egitera. Eraikin nagusitik kanpo egiten da, artxibo ondoan dagoen gela batean.

Irratian lanean ibilia naizenez, ikusteko gogoia neukan. Irratiak badu komunitate lotura bat egiteko gaitasuna. Hitza ematea, entzuna izatea eta nahi duzuna esan ahal izatea hori da irratia izan dezakeen indarra kasu honetan.

³⁹ Jakina, medikazioak ere badu zerikusirik kanpotik oso pasibotzat jotzen den jarrera horretan.

⁴⁰ Why Not Fundazioa 2010ean sortu zen. Euren esanetan, buruko gaixotasuna diagnostikatuta duten pertsonak “laguntzeko ari dira lanean, ez osasunaren eremuan, baizik eta aisialdian eta denbora librean” (<http://www.fundacionwhynot.org>).

Bost pertsona etorri dira irratiko grabazioa egitera. Lau gizonezko eta emakumezko bi. Gela batean geunden denak, baita erizain laguntzailea eta grabazioa egiten duen emakumea ere. Emakume honi azaldu diot egiten ari naizena eta denak mahai inguruan eserita geundenean nire burua aurkezteko eskatu dit. Nire izena esan dut, antropologoa naizela eta tesia egiten ari naizela. Grabazioan zehar horri buruz galdetuko didatela esan dit.

Parte hartzaileen artean badago gizon bat oso isila iruditu zaidana. Isilik eta bakarrik ikusi nuen atzo ere eta egia esan harritu egin nau gaur irratian ikusteak.

Grabazioa hasi da eta bakoitzak bere burua aurkeztu du. Ezizena erabili dute gehienek. Ni ere aurkeztu egin naute eta geroxeago galderak egingo dizkidatela iragarri. Grabazioaren lehen zatian futbolari buruz hitz egiten hasi dira, antza denez, denen artean erabakitzen dute zertaz hitz egin eta gehiengoak erabaki du gaur atzoko Real eta Manchester United-en arteko partidaz hitz egitea. Batez ere gizonezkoek hartu dute hitza. Gero gogoetak egin dituzte futbolak sortzen dituen fanatismoez.

Gero iritsi da galderak niri egiteko txanda. Egiten ari naizena kontatu diet eta Veraren gaiak luzerako eman du. Emakumeek matxismoaz hitz egin dute eta batek esan du iruditzen zaiola hori orain ere gertatzen dela.

[...]

Irratiko grabazioa amaitu eta grabazio hauek egiten toki batetik bestera dabilen emakumearekin geratu naiz hizketan. Esan dit zentroren batean arazoak izan dituela eta arduradunek ez dutela nahi izan irratia egiten jarraitzea. Ingresatutakoek mikrofonoa hartu eta askotan zentroaren kontrako gauzak esaten zituzten eta arduradunek ez zuten horrelakorik nahi.

[...]

Irratian urte asko lanean eman izanak jakin-nahi berezia piztu zidan asteazkenetan ingresatutako hainbat lagunek eta Why Not Fundaziotik zetorren pertsona batek egiten zuten ekintza honen inguruan: “Irratiak badu komunitate lotura bat egiteko gaitasuna. Hitza ematea, entzuna izatea eta nahi duzuna esan ahal izatea hori da irratia izan dezakeen indarra”⁴¹. Hitza da irratia tresna nagusietako bat, eta interesa nuen jakiteko, isiltasune(t)an (hitzik eza bezala ulertuta)

⁴¹ Ikus Bartzelonako Radio Nikosiaren “El revés del tapiz de la locura” (2007) dokumentala (<https://vimeo.com/62059140>); eta Buenos Aires-ko LT22 Radio La Colifatarena (2007).

denbora luzea ematen zuten ingresatutako pertsonak zer nolako harremana zuten irratiarekin: *“Parte hartzaileen artean badago gizon bat oso isila iruditu zaidana. Isilik eta bakarrik ikusi nuen atzo ere eta egia esan harritu egin nau gaur irratian ikusteak”*. Mikrofonoa hartzen zuen noizbehinka eta bere iritzia ematen zuen proposatzen ziren gaiei buruz. Oroitzen dut ez zuela batak bestea zapaltzen hitz egiterakoan eta oroitzen dut, horrek atentzioa eman zidalako. Txandak errespetatu egiten zituzten eta batzuetan mikrofonoa pasatzen zieten ordu arte gutxi hitz egin zutela iruditzen zitzaienei. Alde batetik, “babestutako” eremu batean sentitu zitezkeela pentsatzen dut, esan nahi zutena esateko erabili zezaketen eta eraikin nagusitik kanpo egiten zen ekintza bat zen, psikiatrikoaren barruan egotea ahaztarazi zezakeena. Beste alde batetik, irratiak hitza eskatzen zuen derrigor, eta beraz, bertan parte hartu nahi zutenek (borondatez egiten zuten) bazekiten zein zen irratiak erabiltzeko eskatuko zien tresna nagusia: hitza.

Grabazioa hasi eta bakoitzak bere burua aurkeztu zuen, *“ezizena erabili dute gehienek”*. Identifikatuak izatea ekidin nahi zuten, horrek ondoren dakarren estigmaren eraginez, ziur asko. Azken finean, beste identitate baten atzean hartzen zuten hitza, hau da, hitz egiterakoan, beste norbait izango balira bezala egiten zuten, eta esaten zutena (botatzen zituzten hitzak) eurenak izango ez balira bezala senti zitzaizketen. Beraz, esan daiteke, edo nik horrela interpretatzen dut, hitzen jabe beste norbait egiten zutela, ez ziren eurak botatzen zituzten hitzen jabe bezala aurkezten.

Beste alde batetik, idatzi nuen: *“Batez ere gizonezkoek hartu dute hitza. Gero gogoetak egin dituzte futbolak sortzen dituen fanatismoz”*. Gaiak denen artean erabakitzen zituzten, proposamenak eraman eta bertan adosten zuten zeri buruz hitz egingo zuten egun hartan. Irratian egon nintzen lehen egun hartan, gizonezko gehiago zeuden emakumezkoak baino, lau gizonezko eta emakumezko bi. Gizonezkoek erraztasun handiagoarekin hartzen zuten hitza. Horrek, “arrazionaltasunetik at” egoteak bakarrik ez, generoak ere hitza hartzerakoan duen garrantzia are gehiago azpimarratzera eraman ninduen. Carmen Sáez-en hitzak dira: *“Emakumea ez-aipatua edota giza emea bezala kontsideratuta den bitartean, gizonezkoa definitu egiten da, betidanik, animalia arrazional eta adimentsua bezala. Gure kultura eta zibilizazio guztia arrazoi eta adimen horren obra bezala iragartzen dira eta bere lengoaiarekin izendatzen dira. Hitza ere beraien esku dago”* (1979:10).

“Irratiko grabazioa amaitu eta grabazio hauek egiten toki batetik bestera dabilen emakumearekin geratu naiz hizketan. Esan dit zentroren batean arazoak izan dituela eta arduradunek ez dutela nahi izan irratia egiten jarraitzea. Ingresatutakoek mikrofonoa hartu eta askotan zentroaren kontrako gauzak esaten zituzten eta arduradunek ez zuten horrelakorik

nahi". Adibide honekin argi ikusi daiteke, ez dela hitza ez den beste komunikazio mota bat hartzeko erotzat joak direnen erabakia bakarrik, behartuta ere badaudela, neurri handi batean, eta gainera, esaten dutena neurtuta dagoela. Hori dela eta, esateko beste modu batzuk bilatuko dituzte, aurretik ikusi dugun rap-arena adibidez, edota asmatutako hizkuntzarena. Edota, gehienetan gertatzen dena: isiltasuna(k).

2013-11-07, osteguna

Gaur goizean lore zaintzan aritzea tokatzen zitzaien zortzi lagunekin eta lorezainarekin egon naiz. Bost gizonezko eta hiru emakumezko ziren. Lorezaintzan hasi baino lehen bakoitzak egingo duena zehazteko bilera txiki bat egiten dute eta bilera horretan azaldu die arduradunak zertan ari naizen.

Ondoren, mutil gazte batek esan du oso pozik dagoela hilabete honetan bertan alta emango diotela esan diotelako. Zoriondu egin dute denek. Zerbait lortu balute bezala da, sari bat emango baliete bezala: besteek uste dute ondo zaudela zure jarrera egokia delako eta beraz hemendik atera zaitezke. Edo horrelako zerbait.

Lorategia handia da, lorazainak esan didanez, 6 hektarea inguru ditu. Bakoitzak lan bat dauka gaur: adarrak jaso, hostoak bildu, landare txikiak ureztatu...

Bakoitza bere lanarekin hasi da. Bata bestearengandik urrun.

[...]

Lanean hasi direnean, bakoitza bere tokian, arduradunak galdetu dit ea nik zer egingo dudan. Ni beraiekin batera egongo naizela esan diot, batarengana eta bestearengana gerturatuko naizela.

Gertuen zegoena emakumerik helduena zen, 80 urte ingurukoa. Ilea zuri zuria dauka eta luzea, garondoan bilduta. Arduradunak esan dit emakumeak ez duela apenas hitz egiten baina joateko eta saiatzeko ea zerbait esaten didan. Gerturatu naizenean, loreontzi txikiak ureztatzen ari zen. Isilik egon naiz bost minutuz edo, eta landareak ureztatzen hasi naiz ni ere. Nire izena esan eta berea galdetu diot. Loreei buruz hasi gara hizketan. Mantso egiten zituen gauzak, presarik gabe. Elkarriketa bat izan dugu, berak egiten zuen lanari buruz hitz egin dit, hizkuntza ezberdinak zekizkiela baina dagoeneko ahaztuak dituela. Donostian idazkari lanak egiten

zituela esportazio enpresa batean. Lorezaina gerturatu da eta hizketan ikusi gaitu. Harrituta, esan dit hori ez dela ohikoa eta psikiatrari ere ez diola hainbeste hitz egiten.

Ondoren, adarrak jasotzen ari zirenengana gerturatu naiz. Emakume bat dago hemen ere, 70 urte ingurukoa. Apain jantzita, txaketa gorria darama, zapi gorria eta ile apaindegitik atera berria dirudi. Berak kontatu dit alkoholarekin arazoak dituelako dagoela zentroan. Bigarren aldia dela. Lehengo urtean ere egon zela. Baina hau azkeneko aldia dela.

[...]

Lorezaina etorri da eta zuhaitz batzuei buruzko azalpenak eman dizkigu. Une horretan, altaren berri eman duen mutil gaztea gerturatu da eta kontatu digu nahastu egin direla eta azkenean ez diotela alta emango hilabete honetan. Denek hartu dute pena handia.

Lorezaintzan bi orduz aritu ondoren barrura sartu gara eta lorezainarekin hitz egiten geratu naiz. Berak esan dit, uste duela ingesatuta daudenak gustura daudela berarekin, batez ere kanpoan egiten duelako haiekin lan, bera ez dela mugak jarri behar dizkiena.

[...]

Isiltasunarena, apenas hitz egitearena, ez da ingesatutakoen eta arduradunen artean ikusi nuen zerbait bakarrik. Nik, bertan eman nuen denboran, ingesatutakoen artean ere hitz bidezko elkarrizketa asko ez nituen ikusi. Eraikin nagusiaren barruan daudenean, elkarren ondoan daude askotan, ez dago oso urrutira joaterik. Lorategia berriz, handia da eta bertan lan egitea tokatzen zaienean ere (askotan proposatutako eginbeharrak bultzatuta bada ere) urrun ikusi nituen bata bestearengandik: “*Lorategia handia da, lorazainak esan didanez, 6 hektarea inguru ditu. Bakoitzak lan bat dauka gaur: adarrak jaso, hostoak bildu, landare txikiak ureztatu... Bakoitza bere lanarekin hasi da. Bata bestearengandik urrun*”.

Baziren, hitz egiteko aukera ia erabat baztertuta zuten pertsonak, psikiatrarekin elkarrizketa zeukatenean ere apenas hitzik esaten ez zutenak. Horietako bat zen lorezaintzan eman nuen lehen egun hartan aurkitu nuen lehen emakumea: “*Gertuen zegoena emakumerik helduena zen, 80 urte ingurukoa. Ilea zuri zuria dauka eta luzea, atzealdean bilduta. Arduradunak esan dit emakumeak ez duela apenas hitzik egite baina joateko eta saiatzeko ea zerbait esaten didan*”. Gogoan dut, hasieran isilik jarri nintzela bere ondoan, egiten ari zenari begira eta ni neu ere landareak ureztatzen hasi nintzela. Bost bat minutuz isilik egon ondoren, nire izena bota nion eta

berea galdetu. Orduan hasi zen elkarrizketa. Ez omen zen ohikoa, baina nik ez nuen uste ezer berezirik egin nuenik. Hala ere, poztu egin nintzen. Hitz egiteak, beste komunikatzeko modu guztien gainetik nigan duen balioaz ere konturatuz, eta nik neuk ere hori aztertu beharko nukeela pentsatuz.

“Lorezaintzan bi orduz aritu ondoren barrura sartu gara eta lorezainarekin hitz egiten geratu naiz. Berak esan dit uste duela ingresatuta daudenak gustura daudela berarekin, batez ere kanpoan egiten duelako haiekin lan, bera ez dela mugak jarri behar dizkiena”. Espazioak ere badu eraginik, baita bakoitzak psikiatrikoaren barruan duen rolaarekin. Eta, beraz, hitz egiteko erabakian ere elementu horiek guztiak kontuan hartu beharrekoak direla iruditzen zait: nor, norekin, non, nola, zertaz...

2013-11-08, ostirala

Gaur goizean herriko kiroldegira jaitsi gara. Ingresatutako zazpi lagun, erizain laguntzaile bat eta ni. Ordu erdiko bidea dago oinez zentrotik kiroldegira. Pozik jaisten direla iruditu zait.

Aurreko egunean rap-a abestu zuen gizonezkoa gerturatu zait eta konposatu berri duen abesti bati buruz hasi da hizketan. Abesten hasi da.

Trenbidea pasa dugu eta herrira iritsi gara. Kiroldegian sartu eta bertan izaten duten monitoreak berria ote naizen galdetu dit. Erizain laguntzaileak esan dio lanean ari naizela, ez nagoela ingresatua. Monitoreak berehala eman dizkit azalpenak: esaten nuen nik begiak oso irekita zenituela “empastillatuta” egoteko. Denen aurrean esan du, entzungo ez balute bezala.

[...]

Zentrora itzuli gara oinez. Euria ari du eta aterkipean sartzeko baimena eskatu dit rapa abesten duenak. Denak isilik goaz. Gimnasia gustura joaten ote den galdetu diot nirekin batera doanari. Baietz esan dit.

[...]

Gaur, ostirala izaki, baten batzuk baimena izango dute asteburuan ateratzeko. Isiltasuna are nabarmenagoa da, baina hustuagoa dago, ez da hain pisutsua.

Hitzik egiten ez duenari, askotan, ulertzeko gaitasuna ere zalantzan jartzen zaio. Hitzik egiten ez duenez, geuk egiten ditugunak ere ulertuko ez balitu bezala. Hori da gimnasia joan nintzen egun hartan gertatu zen pasartearen inguruan orain egiten dudan irakurketa: *“Monitorea berehala eman dizkit azalpenak: esaten nuen nik begiak oso irekita zenituela “empastillatuta” egoteko. Denen aurrean esan du, entzungo ez balute bezala”*.

Kirola egin ondoren, bueltako bidea hartu dugu, pausu mantsoagoarekin oroitzen dut itzulera. Euriaren zarata entzuten dut nire aterki gorrian, une hura gogoratzen dudanean: *“Zentrora itzuli gara oinez. Euria ari du eta aterkipean sartzeko baimena eskatu dit rapa abesten duen mutilak. Denak isilik goaz. Gimnasia gustura joaten ote den galdetu diot. Baietz esan dit”*. Momentu askotan, horrelako egoeretan aurkitzen nuenean nire burua. Isiltasuna(k) jasangaitza(k) egiten zitzai(zki)dan eta hitza erabiltzen nuen hura/haiek puskatzeko. Isiltasun(ar)en inguruan aztertu nahi nuen eta paradoxikoa bada ere, une askotan hura/haiek hausten nituen. Argi dago, hortaz gero egiten nintzela kontziente, ez unean bertan, eta argi dago baita ere, isiltasunak/isiltasunek nigan deserosotasuna sortzen zu(t)ela.

Geroz eta jende gutxiago psikiatrikoan are eta isiltasun handiagoa egoten zen, batez ere, asteburuetan baimena zutenek etxerako bidea hartzen zutenean. *“Gaur, ostirala izaki, baten batzuk baimena izango dute asteburuan ateratzeko. Isiltasuna are nabarmenagoa da, baina hustuagoa dago, ez da hain pisutsua”*. Honekin uler daiteke lehen atalean hitz egiten dudan isiltasun pisutsu hori(ek). Komunikazioz betea dagoen/dauden isiltasuna(k), ez d(ir)a ezereza, ez dago/daude hutsik. Bete beteta dago/daude, gainezka egiteraino betea(k).

2013-11-11, astelehena

Gaur, laborterapia deitzen dioten ekintza batean egon naiz. Arratsalde egiten dute, eta eskulanetan aritzen dira. Zerrenda jarraituz, gaur tokatzen zaienei deitu die erizain batek. Emakume gazte bat erdi lo zegoen telebista gelan eta altxarazi duenean haserretu egin da: “ya voy” esan du oso serio.

Gela berezi bat dute laborterapia egiteko prestatuta. Leiho handiak dituen gela bat da. Barruko paretak marrazkiz eta irudiz beteta daude eta apal handietan era guztietako eskulanak daude: saskiak, buztinezko eskulturak, txotxongiloak, artilez egindako gauzak...

Eseri egin dira denak, hamabi lagun denera. Bakoitza hasi da bere egitekoarekin eta konturatu naiz, emakumeek (5 daude) nahiago dutela artilea, josketa edo collage-a, marrazketa baino.

Adineko emakume bat dago. Puntua egin nahi duela dio, baina erizain laguntzaileak esan dit saiatzen direla marrazketa egin dezaten, era horretan sormena lantzen dutelako. Emakumea, isilik, pintatzen hasi da, folio zuri batean marrak egiten hasi da eta gero puntuak, horrelako zerbait:



Ingurura begiratu dut, marrazki asko daude eta batzuetan esaldiak ere irakur daitezke. Erizainak esan dit denboraren poderioz bakoitzak bere estilo propioa aurkitzen duela. Gure elkarrizketa da entzuten den bakarra.

[...]

Zutabe baten ondoan nengoen zutik eta pixkatxo bat mugitu naizenean, marrazkia egiten ari den gizonezko batek geldi egoteko esan dit keinuak eginez, hitzik gabe. Niri begiratu eta marrazten jarraitzen zuen. Saiatu naiz tokian gelditzen, ni marrazten ari ote zen pentsatuz.

Laborterapia amaitu denean, egin duen marrazkia begiratu dut: kotxe arrosa bat zen. Irribarrez hasi naiz. Ia ordu osoa zutik eman dut zutabearen ondoan, mugitu gabe apenas, eta auto arrosa zen marrazten ari zena.

[...]

Telebistaren soinua besterik ez zen entzuten telebista gela ondotik igarotzerakoan. Sentsazio hori daukat. Telebista gelako aulkietan eserita egoten ziren asko eta asko, isilik, erdi lo, eta telebistatik ez zetozen hitzak apenas entzuten ziren. Hitzen bat esateak, isiltasun hura/haiek hausteak, bake bat hausten ariko banintz bezala sentiarazten ninduen. Laborterapiaren egun honetan egunerokoan idatzi nuen honek ekarri dit gogora sentsazio hura: “Emakume gazte bat erdi lo zegoen telebista gela eta altxarazi duenean haserretu egin da: “ya voy” esan du oso serio”.

Laborterapia egiteko prestatuta duten gelan irudiak eta marrazkiak ez ezik, era askotako eskulanak daude. Hitza ez den beste adierazteko modu batzuen bitartez askeago sentitzen ote diren pentsatzera eraman nau horrek: *“Ingurura begiratu dut, marrazki asko daude eta batzuetan esaldiak ere irakur daitezke. Erizain laguntzaileak esan dit, denboraren poderioz bakoitzak bere estilo propioa aurkitzen duela. Gure elkarrizketa da entzuten den bakarra”*.

Hitzik gabeko komunikazioa, gaizki ulerturen baten atzean babesteko ere erabili daitekeela konturatu nintzen egun hartan. Hau da, ez dut hitzik erabiliko eta era horretan ez dut nahi ulertua izatea eta nire bidea egiteko aukera gehiago izan ditzaket ez baitut inolako konpromisorik hartuko: *“Zutabe baten ondoan nengoen zutik eta pixkatxo bat mugitu naizenean, marrazkia egiten ari den gizonezko batek geldi egoteko esan dit keinuak eginez, hitzik gabe. Niri begiratu eta marrazten jarraitzen zuen. Saiatu naiz tokian gelditzen, ni marrazten ari ote zen pentsatu”*. Kontua da, ordua amaitu ondoren, auto arrosa bat marraztu zuela, baina nik zer leporatu behar nion ordubetez zutabearen ondoan zutik egon nintzelako? Gaizki ulertu bat izan zitekeen ezta? Berak ez zuen inongo momentutan ni bertan geratzeko esan. Hitzak ez daudenean zailagoa egiten zaigun komunikatu diguten horri eustea eta horregatik hitzak ez erabiltzea izan daiteke inolako ardurarik hartu nahi edo jokoan sartu nahi ez duenarentzat aukera bat.

2013-11-12, asteartea

Gaur mediku, erizain eta oro har instituzioko arduradunen bilerara joan naiz. Astean behin egiten dutela esan didate. Ingresatu berriei, joateko daudenei eta errebisioa tokatzen zaienei buruz hitz egin dute.

[...]

Bileran zehar jakin dut ingresatutakoei helburu batzuk jartzen zaizkiela sartzen direnean. Denentzat ez dira berberak, baina badago bat denetan errepikatzen dena: “conciencia de la enfermedad”. Ingresatutakoak onartu edo errekonozitu egin behar du bere diagnostikoa, bestela, diote, ezin da inolako aurrerapausorik egin bere “egoeran”.

Bilera amaitzean pentsatu dut: hain ezberdina da hemen erabiltzen den lengoia eta ingresatutakoek erabiltzen dutena. Iritsiko lirarteke noizbait elkar ulertzera?

Inoiz ikutzera iristen ez diren bi marra paralelo bezala ikusten ditut psikiatrikoko arduradunek eta psikiatrikoan ingresatutakoek erabiltzen dituzten komunikatzeko moduak. Zalantza egiten dut helburua biek unerren batean bat egitea ote denik, ez dakit sistemak bera horretarako prestatua eta sortua izan ote den. *“Bilera amaitzean pentsatu dut: hain ezberdina da hemen erabiltzen den lengoaia eta ingresatutakoek erabiltzen dutena. Iritsiko lirateke noizbait elkar ulertzero?”*. Bat da komunikatzeko modu egokitzat hartua dena eta bestea berriz, pertsona irrazionaltzat kontsideratua izatera eraman zaituen “gaixotasun” bat duen pertsona batek erabiltzen duena, eta beraz, “gaixo” dagoena, “sendatu” beharrekoa, ustez osasuntsu daudenek erabiltzen duten horretara moldatu beharko dena.

Gainera, eurei “gertatzen” zaiena, diagnostikoa diseinatu dutenek erabiltzen duten hitzekin deskribatu beharko dute, gaixotasunaren kontzientzia dutela demostratzeko: *“Bileran zehar jakin dut, ingresatutakoei helburu batzuk jartzen zaizkiela sartzen direnean. Denentzat ez dira berberak, baina badago bat denetan errepikatzen dena: “conciencia de la enfermedad”. Ingresatutakoak onartu edo errekonozitu egin behar du bere diagnostikoa, bestela, diote, ezin da inolako aurrerapausorik egin bere “egoeran”*”.

2013-11-13, asteazkena.

Gaur goizean irratia zeukaten. Aurreko astean baino bat gutxiago etorri dira. Emakumea ez omen da ondo sentitzen eta irratia utzi egingo duela esan die arduradunei. Ez dauka hitz egiteko gogorik eta irratia hitza da.

Gaur ukituta daudela iruditu zait, inork ez du hitza hartu nahi. Isilik daude. Erizain laguntzaileak esan dit talde terapiatik datozela eta gogorra egin zaiela. Batek ezetz esan du, bera gorra dagoela eta ez dela ezertaz enteratzen. Besteek barre egin dute.

Emakume batek esan du azken egunotan ez dabilela oso ondo. Tristura handia sartu zaiola eta gogorra egiten ari zaiola. Horri buruz hitz egiteko proposamena egin die irratiko arduradunak. Bakoitzak bere egoera kontatu du eta amaieran tristura handia duela esan duen emakumeak askoz ere hobeto dagoela esan du. Irratian egon ondoren askotan gertatzen zaiola hori.

Aretotik ateratzean niregana hurbildu da eta esan dit gustatuko litzaiokeela negar egin ahal izatea, edo haserrea azaldu ahal izatea, edo behintzat larrua jotzea. Baina medikazioak mugatu egiten duela, ez diola barruan duena ateratzen uzten (esku bat itxita jartzen zuen sabel aldean

hau esaterakoan). Medikazioarekin gorputza lokartuta sentitzen duela esan dit, baina bere emozioak hor daudela. Dena gorde behar izateak min handia egiten diola azaldu dit.

[...]

Gaur ukituta atera naiz.

“Emakumea ez omen da ondo sentitzen eta irratia utzi egingo duela esan die arduradunei. Ez dauka hitz egiteko gogorik eta irratia hitza da”, gaizki daudenean, maiz esaten duten gauza bat dela antzeman dut, ez dutela hitz egin nahi, eta isilik ematen dituzte, orduak, egunak. Zailtasuna izan daiteke, gertatzen ari zaiena azaltzeko zailtasuna, edo gogo eza. Edo beldurra. Edota, hitza euren inguruko epaiarekin lotuta dagoen zerbait bezala ikusteak eragiten duen isiltzeko gogoia. “Gaur ukituta daudela iruditu zait, inork ez du hitza hartu nahi. Isilik daude. Erizain laguntzaileak esan dit talde terapiatik datozela eta gogorra egin zaiela”. Hitzak minarekin lotzen dira maiz, minaren kontzientzia hartzearekin, “batek ezetz esan du, bera gorra dagoela eta ez dela ezertaz enteratzen”. Hitzak ez entzuteak minetik babestuko balitu bezala da. Era berean, hitz egiteak min hori, kasu batzuetan behintzat, lasaitzen duela dirudi: “Bakoitzak bere egoera kontatu du eta amaieran tristura handia duela esan duen emakumeak askoz ere hobeto dagoela esan du. Irratian egon ondoren askotan gertatzen zaiola hori”. Kontutan hartu beharrekoa da, bestalde, hartzen duten medikazioak ere mugatu egiten dituela ekintzarako – hitza hartzea ekintza bat bezala ulertua izan daiteke: “Aretotik ateratzean niregana hurbildu da eta esan dit gustatuko litzaiokeela negar egin ahal izatea, edo haserrea azaldu ahal izatea, edo behintzat larrua jotzea. Baina medikazioak mugatu egiten duela, ez diola barruan duena ateratzen uzten (esku bat itxita jartzen zuen sabel aldean hau esaterakoan)”. Hau da, gauzak kanporatu beharrak, hitza oka egitea bezala, talka egiten du medikazioak sortzen dien efektu edo eraginarekin. Eta era honetan ikusita, medikamenduak, mugimendua mugatu egiten du, geldiarazita dagoen mundu bat eraikiz.

2013-11-25, astelehena.

[...]

Telebistaren gelan egon naiz gaur eserita. Batzuk begira ari dira, beste batzuk erdi lo...Isiltasuna da nagusi. Emakumezko bat gerturatu zait eta berria dela esan dit. Galdetu dit ia erlojua kendu behar ote duen. Nik ez nekiela esan diot.

[...]

Gaur sentitu dut arduradunak eta ingresatuta daudenak bi mundu paralelo direla, ukitzen ez direnak. Biek ala biek oso era ezberdinean ikusten dute gertatzen ari dena.

Gizarte laguntzaileak esan dit gehienek ez dutela bertan egon nahi. Bertan egon nahi dutenak kanpoan ezer ez dutelako dela. Baina eurek ezin dituztela 3 edo 6 hilabetez baino gehiago izan eta gehienekin ez dagoela egoera hobetzeko itxaropen edo aukera handirik.

[...]

Telebista gelan beste behin ere, isiltasuna nagusi. Eta emakumezko batek galdetu zidan ea erlojua kendu behar ote zuen. Horrelako instituzio batean inon eta inoiz kokatzea bezala dela pentsatu dut esaldi hau irakurtzerakoan: “*Galdetu dit ia erlojua kendu behar ote duen. Nik ez nekiela esan diot*”. Mugimenduak eteten diren toki batean bezala sentitzen nintzen, edota mugimenduak azkarregiak ziren nik antzemateko.

Ez dakit.

2013-11-27, asteazkena

Asteazkenero bezala, gaur ere irratia eduki dute. Bost lagun etorri dira.

[...]

Atentzinoa deitzen dit nola errespetatzen dituzten euren txandak. Hemendik kanpo egindako irratia saioak etorri zaizkit burura, gauetan ohean nagoenean entzuten ditudanak gogoratu ditut bereziki, elkar zapaltzen dute maiz eta irratian isiltasuna ekidin beharreko zerbait bezala ulertzen da. Baina, hemen, ez diete elkarri presiorik egiten eta ados ez egon arren, edo batek

hitza hartu eta segundo batzuetako isiltasunak egin arren, gainontzekoak isiltasunean geratzen dira eta hitz egiten jarraitzeko asmoa duela antzematen badute, itxoin egiten dute, amaitu arte.

[...]

Zaila da esatea zergatik gertatzen den hori psikiatrikoan egiten diren irratsaioetan eta ez psikiatrikotik kanpo egiten direnetan. Isiltasunarekin egunerokotasun bat edukitzeak lagunduko du agian. Isilik dagoenari, zer gertatzen zaizu? galdetzen diogu maiz. Hitzik ez esateko, zerbait baduela pentsatzen dugu, eta ziur aski ez ona. Isiltasunak /isiltasunek tentsioa ere sortzen digu(te) maiz. Beraz, hitz egin eta geure iritzia “arrazoidunena” dela erakutsi nahi dugulako izango dira horrela psikiatrikotik kanpo egiten diren tertuliak. Baina, “arrazoirik eza” diagnostikatuta, zer demostratu behar du pertsona batek? Edo hobeto esanda, zer demostratu dezake? Hitza ez da bere bidea, eta erabiltzen duen kasuetan, badaki zein hitz erabili “arrazoia berreskuratu” duela esan diezaioten.

2013-11-28, osteguna

Gaur, talde terapia batera joateko aukera izan dut. Bederatzi lagun zeuden bertan, psikologo bat eta ingresatutako 8. Emakume berri bat dago, lehen aldia du talde terapian eta psikologoan bertan jarraitu beharreko arauak azaldu dizkio: lau. Bertan esandakoa ezin da lau pareta horietatik atera, ezin da beste kideekiko errespeturik gabe hitz egin, ezin da gelan dagoen ezer hautsi, eta norbaitek atera behar badu, ez delako ondo sentitzen edo komunera joan nahi duelako, atera daiteke baina egun horretan ezin da berriro ere sartu.

Lau pareta horietan geratu dira nik bertan entzundakoak.

...

Isiltasun asko egon dira. Hitz egiterakoan hartzen duten denbora pausatua da, lasaia, presarik gabea eta diskurtsoan isilune asko daude.

[...]

Talde terapiaren ondoren yoga egitera joan den talde batekin egon naiz.

Esaldiak osatzerakoan hartutako denborak, segundotako isiluneen erabilera egin zitzaidan deigarri: *“Isiltasun asko egon dira. Hitz egiterakoan hartzen duten denbora pausatua da, lasaia, presarik gabea eta diskurtsoan isilune asko daude”*. Batek hitz egin eta besteek ez zuten ezer esaten, segundo batzuetan isilik geratu arren inork ez z(it)uen isiltasuna(k) hausten hitzak hartu zuenak amaitu zuela ziurtatuta geratzen zen arte. Psikologoak ere tempo bera erabiltzen zuen, giroa bera izango balitz bezala hitz egiteko modu hori eragiten zuena; hemen, testuinguruak hitz egiteko edo ez hitz egiteko moduetan duen eragina edo zerikusia agerian geratzeko modu bat zela iruditzen zait. Argi ikus zitekeen hor, testuinguruak zer nolako papera jokutzen duen gure hitz egiteko edo isiltzeko modu(et)an. Ia ezinezkoa litzateke, esaterako, partaideak berberak izan arren, taberna batean horrelako elkarriketa bat izatea.

2014-03-20, osteguna

Konturatu naiz literatura tailerrean, emakumezkoei gehiago kostatzen zaiela hitza hartzea edota idaztea. Emakume gazte batek esan dit, medikazioa dela eta listu asko sortzen duela eta kosta egiten zaiola ozenki irakurtzea edota hitz egitea. Medikazioak ere, isiltasunera bideratzen ditu.

[...]

Egunerokoan hartutako oharrean aurretik aipatutako gai bat, hau da, emakumeak kulturalki isiltasunera edo behintzat hitzaren jabe ez izatera bideratuak izan direla eta direla, agertzen da berriz ere: *“Emakumezkoei gehiago kostatzen zaiela hitza hartzea edota idaztea”*.

Eta beste alde batetik, berriz ere agertzen da, ingresatutakoek edota buruko gaixotasunen bat diagnostikatutakoek hartzen dituzten tratamenduek ere hitza hartzeko zailtasunak eragiten dizkietela. Beraz, hori ere hitzarekiko duten harreman horretan kontutan hartu beharreko zerbait da.

2014-04-02, asteazkena

Arduradunetako batek eskatu dit egiten ari naizen lanaren berri emateko gainontzeko langileei.

Gaur egin dut hori. Azalpenak eman ditut eta komunikatzeko moduetan eta isiltasunean jarri dut atentzioa.

[...]

Esan dute ingresatutakoak lasaiago dauden unean hasten direla hitz egiten, eta hain zuzen, hitz egiten hasten direnean maite dutela isiltasuna gehien, hitz egiteko “gai” direlako.

[...]

Kontraesana dirudien arren, garrantzitsua deritzot gaur arduradunek adierazitakoa. “*Ingresatutakoak lasaiago dauden unean hasten direla hitz egiten*”, hemen aipatu daiteke, nik neuk ere lehen egunean sentitu nuen hitzik eza. Hau da, pertsona bat egoera “zail” batean dagoenean, askotan ez du hitzik gertatzen ari zaiona azaltzeko, edo ez du azaldu nahi, hitzen bitartez azalduz gero, epaitua izateko arrisku handiagoa duelako.

Eta beste alde batetik, interesgarria deritzot baita ere egin zuten beste adierazpena: “*Hitz egiten hasten direnean maite dutela isiltasuna gehien, hitz egiteko “gai” direlako*”. Beraz, isiltasuna hitz egiten hasten direnean estimatzen dute gehien. Azkenean, zerbaitera halabeharrez jotzen dugunean, beste aukerarik ez dugulako, ez gaude guztiz eroso, baina aukera bat egiten dugulako jotzen dugunean lasaiago sentitu gaitezke. Isiltasuna(k) aukera bat edota derrigortuta egiten den zerbait izan daite(z)ke.

2014-04-10, osteguna

Gaur eurretako bakoitzak aukeratutako abesti bat jarri dugu. Ondoren abestiei buruz idazteko proposamena egin diet. Emakume batek, idatzi ordez, marrazkiak egin ditu, iratxoak zirela esan dit, bata bestearen atzetik, errepikatuz. Boligrafoa paperetik altxa gabe egiten zituen, kiribildutako marra bakarra ziren. Berak esan dit ez zeukala idazteko gogorik eta marrazkiak egin nahi zituela. Denbora bat eman du horrela eta gero idazten hasi da.

[...]

Hitzak bakarrik ez, beste era bateko komunikazio moduak ere kontuan hartuak izateko aukera zabaltzeko beharra azpimarratzen du pasarte honek. Emakume honek, adibidez, marrazkiak egiten zituen hitzak erabili ordez. Eta horrek pentsarazten dit, nik neuk ere literatura tailerraren bidez hitza erabiltzera bultzatzen nituela. Hitza beste era batera erabiltzeko aukera zabalik zuten baina, azken finean, hitza zen, eta zaila izaten da, aurretik egiten ditugun loturak, barneratuta ditugunak – hitza, arrazoia eta logika esaterako – apurtzea edota hortik ihes egitea.

Eromenaren isiltasuna(k) eta idazketa

Landa lana izan da ikerketan isiltasunari/isiltasunei hainbesteko pisua ematera eraman nauena, aurretik ere garrantzia handiko zerbait zen, familiako tabuen kasuan batik bat; baina, isiltasuna(k) han eta hemen topatzeak eromenaren eta isiltasun(ar)en arteko harremanean sakontzera eraman nau. Ikuspegi horretatik lan egiteak erakutsi dit, ni neu ere krisi garaia igaro nuenean isiltasune(ta)ra behartuta sentitzen nintzela askotan, ez nekielako edo ez nuelako aurkitzen – askotan existitzen ere ez zirelako – nola nengoen azaltzeko hitzik. Lengoiaren bitartez azaltzen dugu ingurua, horrela erakutsi digute, baina gauza askok ihes egiten diote hitzeko lengoiari. Hizkuntza ez dago bazterrean dagoenarentzat eraikia eta horrek, baztertuak direnak beste komunikatzeko modu batzuk erabiltzera bultzatuko ditu. Radio Colifata-n⁴², aritzen direnek dokumental bat egin zuten eta bertan Fernando Aquino-ren hitz hauek deigarriak egin zitzaizkidan:

“Une batean, ospitalean erortzen zarenean ahotsa galtzen duzu, hitz egitea kostatu egiten da, haloperidol⁴³ deitzen den medikamentu madarikatu baten eraginez. Egoera begetatiboan uzten zaituela esan daiteke baina ibili zaitezke, momia ibiltari bat zara. Eta bat-batean errekuperatzen hasi nintzen eta hitza itzultzen hasi zitzaidan” (LT22 *Radio La Colifata*).

Arrazoi ezberdinak aipatu daitezke psikiatrikoa bezalako instituzio batean dagoen hitzeko komunikazioa urria azaltzeko. Hori dela eta, ez da kasualitatea, irratia edo idazketa, hau da, hitza erabiltzea ia ezinbestekoa den bi medioetan errekuperazioaren parte handi bat ematea. Normalean, bi horiek instituzioak berak onartutako ekintzak izan arren, instituziotik kanpo ematen direnak gehienetan. Beraz, “ahotsa galtze” horretan instituzioaren barne-arauek ere zerikusia dutela esan dezakegu. Honela deskribatzen du Martínez Hernández-ek:

⁴² Buenos Aires-ko Tiburcio Borda ospitalean ingresatuta daudenek duten irratia da, hamabost urte baino gehiago daramatzate irratsaioak egiten.

⁴³ Medikuntza giden arabera, Haloperidol-a trastorno psikotikotikoetarako (gauza errealak eta irrealak desberdintzea oztopatzen duten buruko gaixotasunak), mugimendu-tikak, hitzeko tikak, jarrera arazo larriak edota hiperaktibitatea tratatzeko erabiltzen da. Antipsikotikoak deitzen diren medikamentuen artean sartzen da eta burmuinaren asaldura ez-normalen murrizketa eraginez funtzionatzen du. (<https://www.nlm.nih.gov/medlineplus/spanish/druginfo/meds/a682180-es.html>).

“Eromenaren susmoa nahasmenari eta akatsari lotuta dator era konpenezinean, botere harreman bat sortzen du zeinetan afektatuak gauza bat edo beste esan edo gauza bat edo beste egin, bere jarrera beti egongo da bere buruaren kontra. Bere eromenaren onarpenak edo ukazioak beti erantzungo dio terapeutak dituen aukerei. Izan ere, eroen katalogoan sartuz gero, zirkulua itxi egiten da edozein argumenturen aurrean” (1988:56).

Gure azalpenak eta gure bizitza azkenean “logikoa eta arrazoizkoa” dela erakusteko erabiltzen dugun froga nagusia hitzezko lengoia da, eta batez ere, hitzezko lengoia “zentsudunki” (arauek dioten bezala) erabiltzea. Beste era bateko erabilpenak, ezarritako gauzak hausten ditu eta Artaud-ek (1947) esaten zuen bezala, gizarteak entzun nahi ez dituen gauzak izan daitezke: “Alienatua, benetan, gizarteak entzun nahi ez duen gizakia da, eta toleraezinak diren hainbat egia esatea ekidin nahi du” (1947:3).

Baina, isiltasun(ar)en – nahita edota nahigabe – atzean beste aukera bat ere aipatu nahiko nuke, eta hau Martínez Hernández-ek esaten duen bidetik doa. Zertarako hitz egin esaten den guztia bere kontra badoa? Diagnostikoa onartzen badu, diagnostikoa onartu eta horren aurrean medikuek hartzen dituzten erabakiak jarraitu beharko dituelako, eta onartzen ez badu, ez delako bere egoeraz kontziente egiten. Beraz, zertarako hitz egin, esaten dena esanda ere beste batek hartuko baditu zure egoera eta bizitzaren inguruko erabakiak. Azken aukera honetan une batez geratu nahiko nuke. Ezberdintasun handiak antzematen baitira instituzioan ematen d(ir)en isiltasun horren/horien barruan, ingresatutakoek arduradunekin eta ingresatutakoek ingresatutako beste pertsonekin dituzten harremanetan. Bietan dago isiltasuna presente, baina behaketa parte-hartzailean antzeman dut ingresatutakoen artean dagoen harremanak ez duela hitzik behar une askotan, eta era horretan adierazkorragoa bihurtzen da; terapeutekin berriz, hitza da komunikatzeko modua eta beraz, askoz ere mugatuagoa dago. Esaterako, 2014ko apirilaren 3an egin genuen literatura tailerrean zera idatzi nuen: “*Gaur, tailerrera beti etortzen den batek esan dit triste dagoela, uste zuela hobeto zegoela baina medikuak ezetz esan diola eta medikamendu kopurua mantendu diola eta oraindik ere bertan jarraitu beharko duela esan diola. Nik galdetu diot, ez ote dion medikuari galdetu ea zergatik ikusten duen gaizki. Berak erantzun dit ezetz, ez diola galdetu. Zertarako?*” . Botere harremana argi dago, baina argi dago baita ere alde biek euren rola mantentzen dutela eta zaila dela rol horretatik ateratzea.

“Pazientearen barruko potentziala, baita pazienteen artekoa ere, eremu terapeutiko bat garatu ahal izateko, kolpez moztzen da. Beste pazienteekin dagoen harremana ia ‘adierazkor’ hutsa bihurtzen da, eta profesionalekikoa ia ‘instrumental’ hutsa.

Harreman hauek muturrera eramaterakoan, subjektibitate huts eta objektibitate huts bezala, autosuntsiketaren mehatxua bizi dute biek ere, edukirik gabeko adierazkortasunaren eta adierazkortasunik edo parte hartzerik gabeko instrumentazioaren artean ziraldoka ibiliz” (Taussig, 1995:125).

Era gordinenean bizi da instituzio psikiatrikoan, gure gizartean eta kulturaren bizi dugun subjektibotasunaren eta objektibotasunaren arteko dikotomia eta horrek dituen ondorioak. Juliano-k gizarte bazterketari buruz dio: “Gizarte bazterkeriaren ezaugarri nagusia izan daiteke, hori bizi duten pertsonen ez zaiela bere kabuz ekiteko, erabakitze edo ebaluatze gaitasunik onartzen. Ez dira solaskide baliodunak kontsideratzen” (2006:29). Esango nuke, batzuk eta besteek elikatzen duten jokoaren emaitza dela hori. Philippe Sollers-ek Artaud-en hitzak biltzen ditu *L'écriture et l'expérience des limites* liburuan: “Nire bizitzaren sakonenean, psikoanalitika ihes egiten dut, eta beti egingo diet ihes hitzezko antolaketa batean oinarritutako agindu edo formulatan nire kontzientzia eusteko saiakeri” (1976:103-104).

Zentzu honetan, Rafael Huertas-ek instituzio psikiatrikoen buruz egiten duen definizioan elementu garrantzitsu bat bezala sartzen du lengoia eta isiltasunarena: “Bazterketa-banaketa eremu bat bezala, pertenezia ezaren sentimenduari identitatearen ukazioarena, konpartitu gabeko lengoiaarena, bakardadea, isiltasuna gehitzen zaizkio, azken finean, Alienazioa” (Huertas, 2014). Eta jakina, baldintza horietan ezin Juliano-k aipatzen duen baliozko solaskide izan; Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak⁴⁴ (1948) pertsona bezala kontsideratua izatea “arrazoidun eta kontzientziadun” bezala kontsideratua bezala definitzen du bere lehenengo artikuluan; beraz, “arrazoia galduz” gero, ez zara definizio horren barruan sartuko eta beraz, ez zara baliozko solaskide izango. Hitzak, beraz, ez dira zure tresna bezala identifikatuak izango.

Artxiboan aurkitutako eskutitzek eta testuek, eta baita idazketa bera ere “terapia” bezala aurkeztu eta erabili izanak eraman ninduten, beste arrazoi batzuen artean – psikiatrikoan ingresatutakoek adierazteko erabiltzen dituzten moduak aztertu nahi izanak, esaterako – artxiboaren analisia eta behaketa parte-hartzailea egin nuen instituzioko arduradunei literatura tailerra egiteko proposamena luzatzera. Isiltasuna nagusi zen tokian eta ahotsez sortutako hitzak presentzia urria eta mugatua zuen tokian, gero nik idatziz transmititu asmo nuen ikerketari balio erantsia emango ziola iritzi nion une hartan.

⁴⁴ <http://www.un.org/es/documents/udhr/>

“XIX. mendearen erdialdean eta XX. mendeko lehen hamarkadetan, medikuek idazketaren erabilera klinikoa agintzen hasi ziren buruko gaixoak eta jarrera «desbideratuak» zituztenak tratatzerako orduan” (Castillo eta Sierra, 2005:12-13).

Baina kontutan hartu behar da, idazten zituzten gauzak medikuek edota instituzioetako arduradunek euren diagnostikoak egiteko erabiltzen zituztela, edota ingresatutako pertsonaren “garapenaren” berri izateko. Beraz, gehienetan, terapia hori ez zen “sendabidera” eramateko modua, baizik eta ahoz esaten ez zuten hori, ziur aski hori egiteko bizi zuten egoerak (medikua aurrez aurre zutela) baldintzatuta, beste era batera kontatu zezaten. Artxiboan eskutitz asko aurkitu ditut, bidali gabe irekiak zeudenak, senideei, lagunei edota medikuei eurei bidalitakoak. Eskutitz horiek ingresatutako pertsonaren berri jakiteko erabiltzen zituzten, arduradunek eurek irekitzen zituzten eta ez ziren euren jasotzailearenagana iristen.

“Orokorrean, solaskide konkretu eta ezagun baina atzemanekin bat (senideak, lagunak edota batzuetan instituzioko arduradunak eurak) bilatzen eta aurkitzen ez duten eskutitzak dira, idazten dituenaren bakardadea eta itxarotea islatzen duten norakorik eta erantzunik gabeko eskutitzak” (Huertas, 2014).

Aurkitu ditut baita ere ireki gabekoak, ingresatutakoak diona jakiteko interes (klinikoa bada ere) ezaren adierazgarri.

Psikiatrikoaren barruan idaztera bultzatzen dituen arrazoiak ezberdinak izan daitezke⁴⁵. Molinari-k, emakumeentzako psikiatriko italiar bateko artxiboan aurkitutako eskutitzen azterketa egin ondoren dio: “barruan egoteak euren pertsona identitatea ez duela suntsitu demostratzeko idazten dute” (2005:390). Eta azken finean, eurek bakarrik esan dezaketzen hori, euren istorioa kontatu nahi dute. “Bizitakoaren narrazio gehienak, orokorrean, defentsazkoak,

⁴⁵ Kartzelatan idazketa erresistentzia modu bat bezala interpretatu duten autore askoren lanak daude. “Testu batzuen eta besteen arteko ezberdintasunen gainetik, idazketa testu guztietan itxialdiarekiko erresistentzia bat bezala agertzen da, hau da, kanpokoarekiko espresio bide eta komunikazio bezala” (RUIZ TORRADO, 2014). Ikus baita ere: AL’SADAWI, N. (1995 [1988]). *Memorias de la cárcel de mujeres*. Madril: Horas y Horas; BEGUÁN, V. et al. (2006). *Nosotras, presas políticas*. Buenos Aires: Nuestra América; CABRERA, L. (2011). *Obligado tic tac*. Buenos Aires: Bancáme y punto; CUEVAS, T. (1985). *Cárcel de mujeres (1939-1945)*, Bartzelona: Sirocco; DOÑA, J. (2012 [1978]). *Desde la noche y la niebla. Mujeres en las cárceles franquistas*. Madril: Horas y Horas; FALCÓN, L. (1977). *En el infierno: ser mujer en las cárceles de España*. Bartzelona: Ediciones de Feminismo; FOREST, E. (1995 [1975]). *Diario y cartas desde la cárcel*. Hondarribia: Iru; HERAS, P. (2014). *Poeta muerta*. Bartzelona: Ediciones Capirore; KERMAN, P. (2014). *Orange is the New Black. Crónica de mi año en una prisión federal de mujeres*. Bartzelona: Círculo de Lectores; LÓPEZ RIAÑO, I. (2012). *El Umbral del Dolor*. Vitoria-Gasteiz: Autodefensa Taldea; PALOU, I. (1975). *Carne apaleada*. Bartzelona: Planeta; RETOLAZA, I. (2014). “Kartzela-kronikak eta kartografiak. Subjektu kartzelatutik kartzela-subjekturantz” in Ormazabal, M. *Hemen naiz, ez gelditzeko baina*. Tafalla: Txalaparta; SHAKUR, A. (2013 [2001]). *Una autobiografía*. Madril: Capitán Swing.

errepikakorrak, monotonoak eta zirkularrak diren arren, identitatezko erreferenteetan oinarrituz berezitasun islak daude” (Wadi, 2005:446). Eta zentzu honetan, Molinari-k aipatzen duena aurkitu dut nik ere artxiboko eskutitzetan: “Normalean agertzen dena itxialdi egoeraren hutsunea eta bakardadea da: amaiezinak diruditen egunen asperkeria, senideen inguruko berririk eza, medikuekin kontaktua edukitzeko zailtasuna. Isiltasunak dominatzen duen existentziaren dimentsioa” (2005:391-392). Idazten duenak, neurri handi batean, bere “egia” azaltzeko egiten du, baita eskutitza helarazi nahi dion horren aldetik errekonozimendua lortzeko ere. Azken finean, euren itxialdiari arrazoi bat bilatzeko modu bat dela esan daiteke; eta idazteak jarrera hori indartu egiten duela iruditzen zaie: “Idaztea, ber-izendatzea da” (Rich, 1983:57). Idazten duenak, bere istorioari beste izen bat eman nahi dio, bere azalpen propioa eman, eta kanpotik ematen dioten horri aurre egin.

Baina, instituzioaren aldetik jasotzen duten kontrol zorrotzak muga batzuk jartzen ditu euren idazketa egiterakoan, eta kontrol hori antzeman egiten da. Gogoan dut literatura tailerra egin genuen lehen egunetan idazketa “kostata” egiten zuten zerbait zela esan zidatela. Eta gogoan dut baita ere, bertan idatziko zutena, nahi bazuten bakarrik irakurriko zutela eta bertatik aterako ez zen zerbait izango zela esan nienean, askatasun gehiagorekin aritu zirela. Neurri handi batean, ohituta zeuden psikiatrikoaren barruan egiten zuten guztia arduradunen aldetik gainbegiratua izan zedin, eta kezka handia zeukaten bertan egin behar genuen hortatik zer atera nahi ote nuen. Erabiltzen zituzten hitz guztiak epaituak izatera ohituta zeuden eta nahi zutenean idatzitakoa txiki-txiki egin eta inori irakurri gabe botatzeko egindako aukerak lasaitu egiten zituela esaten zidaten.

2014-02-13

Gaur eurei buruz idazteko proposamena egin diet. Idazten hasi dira. Ondoren, orriari buelta emateko esan diet eta berriro ere idatzi dezatela eurei buruz baina jakinda ez duela inork irakurriko, paperak hautsi egingo dituztela. Batek esan dit berak gauza bera idatziko lukeela. Besteak isilik geratu dira. Orriari buelta eman diote eta idazten hasi dira. Amaitu dutenean galdetu diet ea berdin idazten duten jakinda inork ez duela irakurriko. Gauza bera idatziko lukeela esan duen pertsonak erantzun dit, ez zuela espero baina ez duela gauza bera idatzi.

Lengoiak dituen arauak gizarte eta kultur eredu konkretu batetik sortuak dira, eta horiek hausteak, gizarte eta kultur eredu hori haustea, edo behintzat zalantzan jartzea ekarriko du:

“Gramatikaren eta pentsamenduaren figurak, generoak, moduak edo estilo legitimoak, eta oro har, «autoritatea sortzera» eta «erabilpen onaren» adibide izatera bideratutako diskurtso guztiak, lengoiarekiko boterea ematen diote gauzatzen dituenari eta, horren bitartez, lengoiaren erabiltzaile sinpleekiko eta euren kapitalarekiko boterea” (Bourdieu, 2001:32).

Beraz, lengoia eraiki edota honen gaineko arauak jartzen dituenak botere harreman bat sortzen du lengoia horren erabiltzaile huts direnekiko, eta bide batez, bere mundua ikusteko modua inposatzen ari da. Bourdieu-k, elkartruke linguistikoak botere sinbolikoaren harremanak bezala identifikatzen zituen, esatarien eta euren taldeen arteko indar harremanak etengabe eguneratzen direlarik (Ibidem:11). Beraz, isiltasune(ta)tik (hitzik eza bezala ulertuta) komunikatzea, alde batetik, isiltasun hori(ek) praktikan jarri behar duten/pertsona horien gaineko boterearen adierazgarri da, baina beste alde batetik, botere horretatik kanpo komunikatzeko modua errazago zabalduko digu. Hau da, lengoia ez den beste modu batek, neurri handi batean, lengoiaren sortzaileek inposatzen dituzten gizarte eta kultur arau horietatik kanpo egoteko aukera emango dit. Jakina, bi sorbazdun labana da: mendebaldeko gizartean *esana izateak* duen garrantzia dago batetik; baina, bestetik, komunikatzeko modu ezberdinak aurkitu eta erabili behar izateak, pertsona horien gaineko jazarpena – isilduak dira, beraz, ez dira existitzen edo ez zaie existitzeko eskubiderik errekonozitzen – sustatzen duen lengoia horretatik kanpo komunikatzera – eta beraz, jazarpen hori lengoiaren bitartez ez erreproduzitzera – eramango ditu.

Isiltasunen bitartez komunikatzeak duen arrisku handietako bat hori da, isiltasunek indar izugarria duten arren, *logos*-aren gizartean eta kulturaren bizi gara mendebaldean eta hortik kanpo dagoen guztia ez da existitzen, edo existituko ez balitz bezala da. Existitzea nahiko bagenu, hitzezko azalpen bat eman beharko genioke, baina hor harrapatuta aurkitu gaitezke, hitzezko azalpenak egiteko eraikitako lengoiak erreproduzitu egiten duelako isiltasunera kondenatuak izan direnen jazarpena: “Eta jakina beldurra dudala, izan ere, isiltasuna lengoian eta ekintzan transformatzea norbera ezagutzera emateko ekintza bat da, eta hori beti dago arriskuez bete” (Lorde, 1984). Bere burua, poeta beltz eta lesbiana bezala definitzen du Lorde-k eta bizitzan zehar horren gainean mantendutako isiltasunen kontra egindako borrokari buruz aritutako hitzaldi batean esan zituen hitzok. Baina, askotan, ez dago hitzik ezkutuan dagoen hori eta zentzugabetzat jo den hori azaltzeko. Nola azaldu, ustez zentzu, logika eta arrazoitik eraikitako

lengoaia batekin, hortik kanpo kontsideratua dena? Nik esango nuke, indarrean dagoen *logos* horretatik adierazi-ezina izan daitekeela, baina komunikatzeko moduak badaudela. Hori bai, mezua iristeko zailtasun gehiago daude entzuleak ere prestatuta eta irekita egon behar dutelako beste modu horiek jasotzeko.

“Hutsaz jakiteko zeharkakoa den bide batetik bakarrik iritsi gaitezke, ikusgarria den errealitatean uzten dituen sintomen bitartez eta betiere jakintzarako mekanismoetan sartzen dituen tentsioak kontutan hartuz [...] eta beti egiten dute: gerturatzen bagara, bete egiten ditugu eta ihes egiten dute berriro ere. Nola pentsatu? “ (Gatti, 2006:32).

Hitzik gabe komunikatu behar izateak, baina, atek ireki ditzake.

Ateak, komunikatzeko beste era bati...

Ateak sormenari...

Ateak eraikita dagoen horretatik at aritzeari...

Hori dela eta, datozen orrialdeetan egingo dudana proposamena.

I. 2 ISILTASUNA(K), EROMENA ETA AZPIMEMORIA ERREPRESENTATZEKO MODUAREN BILA



(Literatura tailerra, 2014-04-10)

Etnografoa da testuaren eraikuntzarako narratiboa eta estetika aukeratzen duena. Gehienetan, eta are gehiago akademikoki baloratuko den zerbait denean ez dugu eraikuntza narratiboaren inguruko planteamendurik egiten, zuzenean akademikoki onartua dagoen forma erabiltzen dugu, gure ikerketaren “zientifikotasuna” frogatzeko modu bat gehiago izango balitz bezala. Baina narratiba guztiak dira eraikuntza...

Narratiba guztiak dira...

J

O

L

A

S⁴⁶

⁴⁶ Jolas, Olatz González Abrisketak (2005) *Pelota vasca: un ritual, una estética* liburuan ematen dion zentzuan uler daiteke hemen ere, bateratze osoa dagoen uneak dira beretzat, subjektua beretik at dago, gainditzen duen zerbaitekin kontaktuan dago eta une horretan horren parte sentitzen da (González Abrisketa, 2005:235).

Narratiba guztiak dira... baina guztiak ez dute errekonozimendu bera arlo guztietan. Esaterako, arlo akademikoan onartua izango denak ez du literatura deitzen diogun horretan balio bera izango eta alderantziz; garaian garaiko akademiaren oinarriak izango dira etnografiaren idazketa eta forma markatuko dutenak.

Atzera begirakoa eginez, eraikuntza etnografikoaren lehen urteetan, eboluzionismoaren garaian, eraikuntza narratiboak landa lanetik at zeuden; euren hipotesiei buruz hitz egiten zuten eta ez zegoen oinarri enpirikorik, datu asko batzen zituzten etnografiak ziren baina metodologia zehatzik ez izateak sinesgarritasuna galarazten zien, horren adibide da, James George Frazer-en *The Golden Bough* (1890). Aldaketa bat egon zen difusionista ingelesaren eta iparramerikako partikularisten aldetik eta landa lana euren ikerketen erdigune bihurtzen hasi ziren, Franz Boas esaterako. Informatzaileekin egingo dute lan eta horiek izango dira behar dituzten datuak emango dizkietenak. XX. mendearen bigarren hamarkadan, beste aldaketa bat egon zen, Bronislaw Malinowski-k (1884-1942) garrantzia handia eman zion behaketa partehartzaileari, eta maila handi batean informatzaileak alde batera utzi zituen eta antropologoak denbora luzea emango zuen ikertu nahi zuen komunitatearekin; Malinowski-k Trobiand Irletan egin zuen ikerketa, besteak beste, *Los argonautas del Pacífico occidental* (1922) idatziz. Funtzionalisten etnografia oso sinkronikoa da, ez dago diakroniarik, eta “errealismo etnografikotzat” jotzen dena da nagusi. Orainaldi etnografikoan daude idatzita lanak, zehaztasun handiko monografiak dira eta antropologiaren eredu klasikoetako bat osatzen dute. George E. Marcus eta Dick Chusman-en arabera, etnografia errealistaren sorrera bi gertakari historikoei lotuta dago: antropologia diziplina akademiko bezala sortu zenekoa eta landa lana etnografia egiteko beharrezko eskakizuntzat jo zenekoa (Marcus eta Cushman, 1982:29). Diziplina akademikoan sartzerakoan eredu batzuk gailentzen dira, baina eredu horietatik ateratzeak ez du esan nahi akademikoki baliagarria ez den zerbait egiten ari garenik; batez ere “objektibotasun zientifikoa” justifikatzeko aukeratutako ereduak, milaka ereduren artean aukeratutako proposamen bat denean. Judith Okely-k esaten duenari jarraiki, beharrezkoa litzateke etnografia objektibotasun zientifikoko baten nozio faltsura sakrifikatu baino, esperientzia personal bat bezala ikusteko errekonozimendu handiagoa egotea (1975:171). Landa lana esperientzia pertsonala da, eta hori horrela ikusten ez duen gutxi dago gaur egun, baina irudika dezagun baita ere esperientzia pertsonal bezala idazketa etnografikoa: “Azalera neutralak ez dira existitzen, ez eta diskurtso neutralak, gai neutralak edota forma neutralak ere” (Sontag, 1997:22), beraz, ustezko “objektibotasun” horren bila aritzea hutsala litzateke, eta idazketa akademikoaren “objektibotasun hutsal” hori bestelako testuak eraikiz utzi daiteke agerian, besteak beste. Mari Luz Estebanek, Donna Haraway (1995) aipatuz dio “analisi oro dago nonbaitetik egina,

partziala eta osatugabea da bere horretan; baina era berean, erreal, pribilegiatua eta beharrezkoa da” (Esteban, 2004:18).

Hain zuzen, XX. mendeko hirurogeita hamargarren hamarkadan, interpretatibismoa garrantzia handiagoa hartzen hasi zen. Antropologoa “beste mundu horren” eta irakurleen arteko bitartekari bihurtzen da eta itzultzaile bat edo interprete bat da. Clifford Geertz-ek *El antropólogo como autor* (1989) liburuan azaltzen duen bezala, antropologoaren trebetasuna esaten duten toki horretan bertan egon direla konbentzitzean datza “eta mirari ikusezin hori gertatu den pertsuasioan parte hartzen du idazketak” (1989:14). Testua⁴⁷, antropologoak bere lanaren berri emateko daukan tresna da eta tresna horrekin, pertsuasio joko batean, sinistarazi eta sentiarazi beharko dio irakurleari “bertan” egon dela, tresna hori *erabili* besterik ez dauka antropologoak hori lortu ahal izateko. John Van Maanen-ek *Tales of the Field. On Writing Ethnography* (1988) liburuan kontatzen duen bezala: “Etnografia batean kultura bat beste kultura baten terminoetan irudikatua da” (2011:IX). Modu iradokitzaileetan transmititzea edo irudikatzea, baita literariotzat jotzen diren moduetan ere, irakurleari antropologiak islatu asmo dituen “beste kultura” horietara joaten lagundu diezaioke.

James Clifford-ek (1991), Michel Foucault-ek (1973), Michel Certeau-k (1983) eta Terry Eagleton-ek (1983) literatura zientziatik kanpo utzi zen uneaz egiten duten gogoetak jasotzen ditu:

“Argudiatzen dute literatura, bere horretan, ikerketa zientifikoaren garrantzia handiko kategoria dela. Autoreek uste dute XVII. mendetik mendebaldeko zientziak esanahi handikoak eta erabakigarriak diren hainbat alderdi baztertu dituela: erretorika (azalpen argi eta gardenaren izenean), fikzioa (gertaeren euren balioaren izenean) eta subjektibitatea (objektibitatearen izenean). Zientziak baztertutako dohai hauek, kategoria literarioa, agian ilunera, pasa ziren” (Clifford, 1991:31).

1980ko hamarkadan dagoeneko ireki zen literaturaren eta antropologiaren arteko diskurtsuen bidegurutzea eta antropologian lan asko egin da zentzu horretan. 1984. urtean, Santa Fe-ko (Nuevo Mexiko) School of American Research-en egin zen seminarioaren ondoren, Marcus-ek eta Clifford-ek *Writing Culture: The Poetics and Politics of Ethnography* liburua editatu zuten; 1988. urtean Clifford Geertzek *Works and lives: The anthropologist as author* liburua kaleratu zuen. Bi lanek oihartzun handia izan zuten; etnografietan idazketa akademikoaren eta idazketa

⁴⁷ Testu etnografikoaz ari naizenean, “testu” hitza zentzu zabalean erabiltzen dut, ez idatzizkoa bakarrik.

literarioaren arteko mugak zalantzan jartzen ziren bietan ere. Antropologia dialogistikoa bezala ezagutzen da hau, antropologoaren eta informatzaileen arteko elkarrizketa azaltzeko arte literarioa izango litzatekeelarik. Ondoren, XX. mendearen azken urteetan antropologia esperimentalak beste adierazpen batzuk izan ditu, horietako bat etnografia erreflexiboa izanik. Antropologoak paper garrantzitsua hartzen du ikerketan, etnografia dialogistikoan baino agerikoagoa, eta hain zuzen, etnografia honen ezaugarri nagusiak idazketa literarioa eta antropologoaren protagonismoa dira.

Ibilbide historikoa lagin bezala hartuta, etnografiaren idazketaren eta artearen arteko elkartrukeraz hitz egin nahiko nuke orain. Izan ere, antropologiak artearekin izan duen enkontrutik lortu du islatu eta kontatu asmo zituen gauzen ordena era eraginkorragoan zalantzan jartzea:

“Norberarena desnaturalizatu eta erlatibizatzen duen bestearekiko enkontruaren bitartez lortzen da indarrean dagoen ordena dislokatu eta ezegonkortzea [...] Ohiko ukatze horrek ekarri zuen surrealisten eta antropologoaren artean testu-narratibaren inguruko praktika esperimentalak sortzea, formatu eta muga tradizionalak haustera bideratuak zeudenak, eguneroko lengoia dislokatzeko helburuarekin” (Orrego eta Serje, 2012:16-17).

Joseba Zulaika antropologoak dio surrealismoari ez zaiola interpretazio sistematiko eta gozatua interesatzen, “baizik objektuen, istorioen eta transgresio paradikoen muntaia probokatzailerak” (2000:232-233). Autore hauek esaten dutena doktorego tesi honen ikerketa gaian aplikatuz, esango nuke, idazketa akademiko-zientifikoetatik urrunago dauden testuak direla isildutako gertaera, egoera, pertsona, etabarren aurrean gehien erreakzionatu dutenak. Kasu honetan, errotzot jotako emakumeei buruz aritzeko, planteamendu ezin aproposagoa litzateke etnografiaren eraikuntza narratibo eta estetikoa “eredu akademikotik kanpo egotea”. Paul Stoller-ek, Michel Foucault aipatuz esaten duen bezala, “Foucault-ek (1966) frogatu zuen moduan, diskurtso guztiak onargarritasun estandarrek moldeatzen dituzte” (1984:100-101). Diskurtso bakoitzak lengoia bat proposatzen du eta lengoia horrek diskurtso hori indartuko du; era berean, lengoia diskurtsoa baino malguagoa da eta, beraz, lengoia aldatzeak diskurtsoan eragina izan dezake: “Bere burua idazle zientifikotzat bakarrik jotz gero, etnografoak, bere diskurtsoaren ekintzaren bitartez, ezarrita dagoen oro aldatzeko aukera ukatzen dio bere buruari” (Pratt, 1991:62). Sormena ikerketa antropologikoen parte ere badela agerian uztea garrantzitsua da:

“80ko hamarkadan, antropologia zientziatik urundu zuen berrikusketaren beharrezkoa izan zen ez bakarrik bere norabide propioetatik baizik eta baita ‘besteak’ bezala izendatuak zirenen eszeptentzia esplizituengatik, nahastu egin zuen baita ere, literaturarekiko (eta artearekiko) zuen gerturatzea, natura eta sormenaren helmena” (González Abrisketa, 2011:50).

Gauzak honela, testua, ustez amaierakoa iruditzen zaigun lana, etnografiaren parte bezala ikus dezakegu. Geertz-ek, Claude Lévi-Strauss (1908-2009) antropologoaren lanari buruz esaten zuen: “Ez du nahi irakurleak bere testuaren bitartez ikustea, baizik eta bere testuan bertan begiratzea” (Geertz, 1989:39). Testua ez da gardena, ez da errealitatea ikusteko ematen zaigun tresna neutro eta eraginik gabea; kontrakoa, testuak “beste mundu” horiekiko ate bat irekiko digu eta begiratzeko modu bat proposatuko digu: “Etnografiak, hiper-idazketa izan behar du, testu praktika: genero eta diziplina arteko etengabeko hartu-eman” (Clifford, 1991:60). Era berean, kontuan hartu behar dugu, irakurleak, etnografian islatzen den “beste mundu” hori ez dela antropologoak islatu duen intentzio berarekin jasoko (norberaren bizipen eta esperientziaren eragina tarteko), baina, Paul Rabinow-ek esaten duena jarraituz: “Estiloaren eta erretorikaren kontzientzia, testu antropologikoen ekoizpenaren dialektikan, informazio hobea eman diezaguke besteari buruz. Imaginazio eta aberastasun handiagoko txostena” (Rabinow, 1991:333). Michel Leiris-ek, adibidez, *L’Afrique fantôme* (1934) eguneroko moduan idatzita dagoen etnografian bere ametsak kontatzen ditu: “subjektibotasuna gorenera eramanda bakarrik lortzen da objektibotasuna ukitzea” (Leiris, 2007:341). Subjektibotasun eta objektibotasun dikotomia haustea besterik ez du lortzen Leirisek azaltzen duen asmo horrekin, eta bi kontzeptu horiei buruz hitz egiteak merezi ote duen zalantzan jartzera eramaten gaitu.

Clifford-ek, Marjorie Shostak (1945-1996) antropologoaren lana aipatzen du: *Nisa, the life and words of a !Kung woman* etnografia, eta zera dio: “Shostak-ek, jakina, bere transkripzioaren inguruan gogoeta sakona egin du, batek ezin badu ere argi eta garbi jakin non dagoen lekukotasuna eta non idazlearen dibagazioak, erraz ulertzen den istorio baten eraikuntzaren” (Clifford, 1991:163) aurrean gaude. Hauxe, Shostak-en etnografiaren zati bat (1981:25):

Nisa’s praise of Richard and Nancy reminded me of these painful adjustments. Had they really managed better? Had their relationship with Bo and Nisa been as easy as Nisa described it? Nisa’s talk whetted my curiosity. Fully awake now, I asked her to tell me more.

Galderak.

Kontraesanak.

Gogoetak.

Esandakoa behin eta berriz zalantzan jarriz, Shostak-ek bere presentzia eta eragina oso agerian uzten ditu etnografiaren zati txiki honetan. Shostak-ek bere egoeraren berri ematen du, antropologoa hor dago eta ikusi dezakegu; ez ditu “emaitzak” edo erantzunak bakarrik ematen, horietara iristeko egiten dituen galderak ere etnografian bertan ageri dira, bere gogoetaren ibilbidea(k) jarraitzen d(it)ugu.

Etnografiaren narratiban eta estetikan ustez garbi, garden eta objektibotzat jotzen den bidea ez hartzeak, ohiko emaitza akademikoek eskatzen duten orokortasunetik urundu egiten gaituela pentsatzen dugu. Baina,

“esperientzia partikularraren eta ebaluaketa hotz eta objektiboaren arteko kontraesana, biografikoa eta zientifikoaren artekoa, etnografoak bere burua autore gisa ikusten badu bakarrik gainditu daiteke. Ez da gauzen errealitatea kontatzen duen lekuko neutroa, baizik eta, bere esperientziatik, errealitate horien interpretazio bat eraikitzen duen norbait” (Díaz Viana, 1991:15).

Ikerketa lan honetarako aukeratu ditudan istorioek nirekin dute zerikusia, nik aukeratu ditut, horrek ez du esan nahi beste batek ez lituzkeenik istorio berberak aukeratuko, baina ez du esan nahi ezta ere horiek berak aukeratuko lituzkeenik. Nik istorio bat kontatzeko hainbat pasarteri eman diet garrantzia, horrek ez du esan nahi beste batek ez liekeenik garrantzia bera emango, baina ez du esan nahi ezta ere garrantzirik emango liekeenik.

Etab.

Etab.

Etab.

Etnografiaren idazketan Stephen A. Tyler-ek (1991) logotipo eta logografia berriak asmatzea proposatzen du, “gramatikak etengabe jartzen dizkigun arteak ekidin ahal izateko” (1991:193) irtenbide bat izan daitekeela esanez. Horrek testu etnografikoen narratiba eta estetika akademikotik urruntzea ekarriko luke. Itzulpen antropologikoa ez da esaldien borrokaz ari den arazo bat bakarrik, ezta ikasgai bat ere, baizik eta “*beste bizitza mota bat bizitzen ikastea eta beste lengoaia mota bat hitz egitea*”⁴⁸ (Asad, 1991:216).

Ikerketa lan honen gaien berkoatuz, eromena, isiltasuna(k) eta azpimemoria lantzeak, etnografiaren narratiba eta estetikan beste bide batzuk jorratzeko aukera ezin hobea ematen du. Nola hitz egin, hitz egiten ez den horri buruz? Aipatu dut lehenago ere, normalean narratiba alternatiboak izan direla isilduari, baztertuari... lekua eman diotenak. Eta zentzu honetan, zinean muntaia alternatiboek ikusezina agerian uzteko erakutsi duten indarrarekin alderatu nahiko nuke datozen orrietan planteatuko dudana.

Antropologian, ikus-entzunezko testua idatzia baino berriagoa izaki, eta askotan “zientifikotasunetik” at jo izan denez, beste bide batzuk jorratzeko askatasun handiago izan duela esan daiteke. Ikus-entzunezkoen muntaia eta idazketaren narratiba alderatu daitezkeen bi elementu dira eta muntaiari buruz idatzi da,

“teoria sozialari muntaiak eman dion ekarpen nagusietako bat analisiak eta anti-analisiak sortzeko gaitasuna da ikusezinari espazioa mantentzen diolarik [...] Muntaiaren elementuen justapozizioan ikusi dezakegu irekitzen den hutsunea edo zartadura, zeinetatik ikusezina azaleratzen den” (Willerslev & Suhr, 2013:2).

Ikusezina azaleratzea da doktorego tesi honen asmoa eta zartadura horiek, hutsune horiek agerian uztea: “Hutsuneak eta pasarteak erregistratuak geratzen badira muntaian, honek erraztu egin dezake irakurketa-idazketa ireki bat, zeinek ez duen jakintza guztiak aldarrikatzen ez eta ez du Bestea heltzen saiatzen” (Salamon, 2013:147).

Blokeatuta sentitu gaitzke maiz testu etnografikoa sortzen ari garenean, are gehiago, kasu honetan bezala hutsuneaz eta isiltasunaz/isiltasunez hitz egitea denean lanaren helburua eta

⁴⁸ Kurtsiba berea da.

asmoa. Zer egin, pentsatzen dugu momentu horietan, eskuartean dudan edo proposatzen zaidan lengoaiak, idazkerak, narratibak eta aurkezpenak ez didanean nahi dudana nahi dudan moduan azaltzen uzten?

Ba ote dago hitzik hori azaltzeko?

Egon beharko litzateke?

Lengoaia bat eraikitzeak azaldu nahi den hori aldatuko luke?

Martin antropologoak bere etnografia batean horrela kontatzen du esaten ari naizen horrekin alderatu genezakeen sententzia: “Frustratuta sentitzen nintzen lengoaiak blokeatu egiten ninduelako eta nik idatzi nahi nuena babesten zuelako” (2008:128). Martin-ek dioen bezala, badirudi momentu batzuetan lengoaia bera dela esan nahi duzun horretatik urundu egiten zaituena, ezarritako ordena errespetatzera eta, neurri handi batean aldarrikatzera, eramaten zaituena. Baina, lengoiaekin “jolastuz” beste bide batzuk hausnartu eta esperimintatu daitezke, eta bide batez ezarritakoa zalantzan jarri.

Etnografia eta subertsioa idazketa antropologiko feministatik

“We – you and me, she and he, we and they – we differ in the content of the words, in the construction and weaving of sentences but most of all, I feel, in the choice and mixing of utterances, the ethos, the tones, the paces, the cuts, the pauses”⁴⁹
(*Minh-ha*, 1989:2).

Era asko daude gizarteak emakumei gordeta dien rola subertitzeko, horietako bat hitza hartzea da, izan ahozkoa edota izan idatzizkoa. Hitza hartzerakoan, hitza erabiltzerakoan, emakumeak mendebaldeko gizarteak urteetan gorde dien rola hausten ari dira. Erlijio kristau-katolikoaren eraginak rol hau indartu du emakumeen papera isilik egotearekin lotuz, gizonezkoengandik bereizteko ezaugarri bezala kontsideratu du. Ortodoxia katolikoaren zurruntasunaren barruan,

“maskulinitasun printzipioari, zeinari buruz konnotazio positiboak dituela esaten da, boterea dagokio eta bere ezaugarri nagusia hitza da; eta printzipio femeninoari, zeinari buruz konnotazio negatiboak dituela esaten da, mendean egotea eta isiltasuna. Emakumearen isiltasuna gizarte patriarkal kristauan, bere ahots eta bozka eza izango da, eta beraz, gizarte ordezkari eza” (Marco, 2001:59).

Feminitatea, emozioei eta naturari lotuta, mutua izango da, ez dauka hitzik. Eta maskulinitatea da, arrazoiari, ekintzari eta beraz, hitzari lotuta, dena esateaz eta definitzeaz arduratuko dena. Femeninitasunaren faktikotasun mutua da kontrakotzat jotzen den horren aldetik, maskulinitatearen aldetik, iritsiko zaion esanahiaren zain egongo dena (Sáenz Herrero,

⁴⁹ “Gu – zuk eta nik, berak (femeninoa) eta berak (maskulinoa), guk eta haiek – ez gatoz bat hitzen edukian, esaldien eraikuntza eta ekintzan baina batez ere, sentitzen dut, hizketaren aukeraketa eta nahasketan, balioetan, tonuetan, erritmoan, mozketetan eta geldialdietan”.

2011:102). Besteak beste, isiltasunera, hitza ez hartzera edota erabiltzera, izan dira kondenatuak emakumeak:

“Garrantzitsua da aipatzea emakume batek idazteko ohitura zuenean laudorioen arrazoi izan zitekeela [...] Edota, trastorno psikiatrikoren baten frogatzat ere izan zitekeen⁵⁰. Maitalaren bati bidalitako poesia sutua, papera erabiliz egindako protesta errepikakorrak edota beharrezkotzat jotzen ez ziren fantasia eta ilusioez betetako idatzi zatiren bat, emakume bat – dagoeneko ahultzat jotzen zen – bere normaltasun parametroetatik kanpo zegoela ziurtatzeko beste froga bat izan zitezkeen” (Gutiérrez eta Lamas in Alanis, Gutiérrez Miranda eta Tapia, 2013:1379).

Kontutan hartuta idazketa akademiko-zientifikoa objektibotasunaren eta arrazionaltasunaren ikur dela, maskulinitasun hegemonikoaren eredia transmititzera joko du. Beraz, idazketa mota hori subertitzea tresna feminista bat izan daiteke.

Da.

Gainera, bi eratako subertsioa da: isildua izan den edo den zerbaiti buruz hitz eginez edo idatziz, alde batetik; eta planteatzen den egitura hautsiz, bestetik. Rabinow-ek, Marilyn Strathern antropologoari buruz esaten du, feminismoa eta honek dituen birtualtasunak antropologia den zientzia aurreratuari aplikatu nahi dizkiola, eta Strathern-entzat horretarako erretorika dialogiko berri bat behar da, elkarriketa oinarritzeko ekintzat hartuko duena (Rabinow, 1991:348). Zentzu honetan, Zulaikak zera proposatzen du: “Segurtasunik gabeko idazkera parodikoak zulatzen ditu binarismo esenzializatuak erreproduzitzen dituen diskurtsoa” (Zulaika, 2000:242). Trinh Minh-ha etnografo, feminista eta artista esperimentalarentzat idazketaren bitartez kontrakotzat jotzen diren binarismo horiek euren arteko diferentziak galdu eta elkar-trukagarri bihurtu daitezke (1989:48). Eta, jakina, esenzializatu binarismo horien artean daude:

Maskulinitasuna VS Femeninitasuna

Arrazionalitatea VS Eromena

⁵⁰ Charlotte Perkins Gilman-en eta Silvia Plath-en istorioak honen adibide, ikus: PERKINS, C. (2012 [1892]). *Hormako paper horia*. Donostia: Bartzelona; PLATH, S. (2012 [1963]) *La campana de cristal*. Bartzelona: Edhasa.

Hélène Cixous-entzat idazkeran dago preseski aldaketarako aukera, pentsamendu subertsiboaren jauzi-ohol izan daitekeen espazioa, gizarte eta kultur egituren aldaketarako mugimenduaren aintzindaria (1976:379). Beraz, “beste lengoaia” bat erabiltzearekin soilik, diskurtsoa subertitzeko aukera izango dugu. Hitza hartzea dagoeneko bada transgresioa; batik bat baztertuak edo ukatuak izan direnentzat, erotzat jotakoentzat, emakumeentzat eta, are gehiago, erotzat jotako emakumeentzat.

Antropologoak, lengoaia, ekintza bezala hartu behar du eta ez komunikatzeko bide bezala bakarrik. Ezarritako diskurtsoaren eraikuntzan ere jarri beharko du atenzioa eta diskurtso hori aldatu, irauli edo behintzat aztoratu nahi badu, diskurtso hori sortuta dagoen eran ere eragina izan beharko du. Zentzu honetan, *Y no fueron marujas*⁵¹ (2011) liburuan, Lourdes Bassols-ek, autoreetako batek, bere burua justifikatu egiten du erabiltzen duen lengoaia dela eta (ez baitu ez objektibo ez unibertsaltzat jotzen):

“Landuko dudan materiala pentsamenduak eta sentimenduak dira eta horretatik ezin da, argi dago, unibertsaltasun nahiak dituen analisi objektibo bat atera, baizik bakarrik, eta lortzea nahikoa litzateke, esperientzia txiki batzuen azalpena, gris koloreko ñabardura asko dituen paletak pintatutakoak, lainoak itxiak eta elkartzen diren horietakoak dituen egun horietan bezala, euria hasi baino lehen, erliebeari eta ingeradari argi horren efektuaren magiari ihes egitea zaila den potentzia ematen diete” (2011:18).

Zentzu honetan, Donna Haraway-ren hitzak ekar daitezke. Ikerketa feministaz ari denean: “Jendearen bizitzen gaineko pretentsioez ari naiz, gorputz batetik dugun bisioaz, beti ere gorputz konplexu, kontraesankor, egituratzaile eta egituratu batetik, goitik, inondik, sinpletasunetik datorren bisio baten kontra” (1995:335).

Honekin guztiarekin ez dut esan nahi emakumeek idazteko era konkretu bat dutenik, ezta idazteko era hori gizonezkoek duten idazkeratik ezberdina denik, baizik eta bizitza tokatu zaien testuinguruak, gizarteak eta kulturak, norberaren esperientziak... erabat baldintzatzen dutela batak eta besteek duten hitz egiteko, idazteko eta isiltzeko era⁵². Gainera, zehaztu nahiko nuke

⁵¹ Gizarteak markatutako rola betetzen ez zuten edota duten emakumezkoek idatzitako istorioak batzen dituen lana.

⁵² Idazketaren inguruan aipatu ditudan autore gehienak diferentziaren feministak dira, hori dela eta, azpimarratu nahiko nuke gizonen artean eta emakumeen artean ere ezberdintasunak egon daitezkeela

subertsioiko aukera ez dela bakarra, hau da, ordena iraultzeko aukera duen idazketak ez dituela ezaugarri itxi batzuk jarraitu behar, irekita egotea da bere ezaugarri eta balio erantsi handienetako bat.

Bide berriak eraikitzea.

Hitz berriak.

Aukera berriak.

Edo zaharrak.

Baina berriak.

“Astindu, sintaxia, mitoak hautsi, eta galtzen baduzu, irristatu, *lurpetik atera* bide linguistiko berriak. Harrituta zaude? Shokeatuta zaude? Aukerarik baduzu?”⁵³
(Minh-ha, 1989:20).

beste faktore batzuen arabera: klasea, etnia, adina... “Generoa analisi kategoriatan bat da zeinek klasea, jatorri etnikoa, adina, aukera sexuala... kategoriekin batera, kontutan hartua izan behar da talde baten antolaketa ulertu nahi badugu” (Diez Mintegui, 2003: 160).

⁵³ Kurtsiba berea da, Trinh Minh-ha-k *unearth* hitza erabiltzen du.

Lengoaia, arrazoa eta isiltasuna(k), emozioak

“The thinking of people like me is only taken seriously
if we learn your language”
(Amanda Baggs, 2007).

Idazketa subertsiboaren bilaketa bidean, zer nolako ezaugarriak izan edo helarazi nahi dituen zehaztea da lehenengo gauza. Horretarako, idazketa horren oinarrian dagoen ideia batean sakonduko dut lehendabizi. Nire abiapuntua hauxe da: Hitzezko lengoaia, Arrazoiaren zutoihai, jabe eta transmisore kontsideratzen da, beraz, norbaitek “arrazoa galtzen badu” – eta hori da erotzat jotzen diren pertsoez esaten dena – “hitza galduko” du baita ere.

Amanda Baggs, 1980. urtean Kalifornian jaio zen aktibista bat da. “Funtzionaltasun baxuko autismoa”⁵⁴ diagnostikatu zioten Baggs-i eta ordutik bere bizitzaren erdia instituzio ezberdinetan itxita eman du, minusbaliotasun-industria deitzen dion horretan. 2007. urtean Baggs-ek *In My Language*⁵⁵ izeneko bideo bat jarri zuen sarean. Bideoak bi zati dituela dio Baggs-ek berak, “lehenengoa nire berezko lengoia dago” (2007). Zati horretan Baggs ageri da inguruan duenarekin interakzioan: atarekin, urarekin, eta gelan dauden beste hainbat elementurekin. Bideoaren bigarren zatian bere “hitzak” entzun ditzakegu, berak ordenagailuan idazten duena makina batek irakurtzen du “nire lengoaia ez da jendeak interpretatuko dituen hitzak edota sinbolo bisualak diseinatzea. Nire inguruaren alderdi guztiekin elkarrizketa etengabea da. Nire inguruaren parte guztiekiko fisikoki erreakzionatzea” (Ibidem, 2007). Baggs-ek aldarrikatzen du berea “beste lengoaia” bat dela baina horrek ez duela esan nahi baliagarria ez denik:

“Naturalki pentsatzeko eta gauzei erantzuteko dudan modua kontzeptu estandarrekiko edo bistaratzearekiko hain ezberdin ikusi eta sentitzen da, ze hainbat pertsonak ez dute pentsamendua denik ere uste, baina pentsatzeko modu bat da bere horretan. Ni bezalako pertsonen pentsatzeko modua zuen lengoaia ikasten dugunean bakarrik hartzen da serioa, ez du axola nola pentsatu edo elkar

⁵⁴ Larriagotzat jotzen diren sintomak dituztenak dira funtzionaltasun baxukoak bezala izendatzen direnak: ezin dute hitz egin, esaterako.

⁵⁵ <<https://www.youtube.com/watch?v=JnylM1hI2jc>>

eragin dugun aurretik. Entzun dezakezuen nire inguruan dagoenarekin abestu dezaket. Zuen lengoaian, makinan zerbait idazten dudanean bakarrik uste duzue komunikatzen ari naizela” (Ibidem, 2007).

“Bideo horrek erreakzio nahasia eragin zuen Amerikako Estatu Batuetako ‘minusbaliotasunaren’ industrian. Mediku talde batek esango du Amanda Baggs-ek ezin izan duela bideoa egin, inoiz autista batek ezingo lukeela Amanda Baggs esaten ari dena esan” (Preciado, 2013). Bide honetatik, Martin-ek *Experiencia interior y trabajo de campo etnográfico* (2008) artikuluan, “buruko gaixotasun” baten diagnostikoa egin ondoren bere esperientziaz propioaz hitz egiten du eta zuzenean hizkuntza eta arrazionaltasunaren arteko lotura egiten du, eta hainbat unetan horrek idazketa blokeatzera eraman duela dio (2088:121). Honek guztiak beste ondorio bat dakar, eta zera da, erotzat jotzen direnek esaten duten guztia bere “gaixotasunaren” ondorio bezala ikusia izango dela eta, beraz, ez dela kontutan hartua izango:

“Berdin dago bere etxeaz esaten duena berretsi eta sinisten du gaixotasuna dela esaten diogu eta ezetz erantzuten du esaten ari dena egia dela”⁵⁶.

Azpimarratu behar da gainera, lengoia erabiltzeko modu bat gailenduko dela eta modu hori erabiltzea izango da “arrazoidunak” garela demostratzeko bidea.

Baina zer gertatzen da gizartearen erdia isiltasune(ta)ra kondenatua bada ez delako gizaki arrazoidun bezala kontsideratua izaten? Aristoteles-ek berak, *Poetika*-n, esaten zuen “isiltasuna emakumearen loria da” eta, beraz, Antzinaroan zabalduko zerbait da, eta ondoren liturgia-sistema kristauak finkatu egin zuen, hitza, eta beraz boterea, *gizonezkoari* emanaz, eta *emakumezkoari*⁵⁷ isiltasuna egokituz (Marco, 2001:58-59). Baina, ez da bakoitzari ezaugarri edo elementu bat ezarriko zaiola bakarrik, elementu horietako bakoitzari balio bat emango zaio eta balio positiboa hitz(ar)entzat izango da eta negatiboa berriz, isiltasun(ar)entzat eta honekin batera ulertzen den menpekotasunarentzat. Beraz, alde positiboan *gizonezkoa* izango dugu

⁵⁶ 1948ko azaroaren 10ean ingresatutako emakume baten egunerokoan mojek idatzitako oharra.

⁵⁷ Kurtsiban jarri ditut biak ere singularrean erabili ditudalako, kristautasunaren ideologia jarraituz.

hitzarekin eta alde negatiboan, berriz, *emakumea* isiltasunarekin⁵⁸. Mendebaldeko gizartean eta kulturaren hitz egiteak eta *logos*-ak duten garrantzia kontutan hartuta, emakumezkook jokoz kanpo geratzen gara horretan. Boudieu eta Le Breton-en hitzetan ikusi dezakegu hitzezko lengoaiak duen garrantzia:

“Lengoaiak naturalki komunitate oso bat sortzen du zeinetan [...] euren kontserbazioan parte hartzen duten espontaneoki” (Bourdieu, 2001:17).

“Isiltasunaren etendurak bakarrik ematen dizkio sujetuari bere bizitzeko gogoak neutralizatzen dituzten indarren kontra, jakinaren gainean, egiteko tresnak” (Le Breton, 2001:87).

⁵⁸ Bakoitzari egokitutako rola eta horren ondorioei buruz gehiago azalduko dut *Frankismo garaiko isiltasune(t)an arakatu*: *eroetxeetan sartutako emakumeen istorioak* atalean.

“Obra-etnografiko totala”: proposamen teoriko-metodologiko bat

“I expected this to be an easy book to write. To portray the life story of one woman – why should that pose any serious writing problems? I also expected this to be a short book. The life story of one woman – why should that require a very long book?”⁵⁹
(Behar, 1993:XI).

Tim Ingold-ek honela deskribatzen du etnografiaren helburua: “Gu ez garen beste pertsona batzuen bizitzak deskribatzea da, behaketa xehe eta lehen eskuko esperientzia luzearekin findutako zehaztasun eta sentsibilitatearekin egindakoa” (Ingold, 2008:69). Ingold-en ideia hau jarraituz ondorioztatu dezakegu etnografiaren indargune handienetako bat deskribapena dela; baina deskribapena egiteko erabiltzen dugun lengoaiak urrundu egin gaitzake etnografiaren protagonista diren “beste mundu” horietatik. Hori dela eta, deskribapena eraikitzerakoan kontutan hartu daitezkeen elementu guztiak birplanteatzera edo behintzat agerian uztea da jarraian egin asmo dudana proposamen teoriko-metodologikoaren asmoa eta helburua.

Richard Wagner (1813-1883) konpositorearen “arte-lan totala” (*Gesamtkunstwerk*, alemanieraz) kontzeptuan oinarrituko naiz eta, hain zuzen ere, kontzeptu horretatik eratorri dut “obra-etnografiko totala”. Wagner-ek “arte-lan totala” adierazpena erabiltzen zuen musika, antzerkia eta arte bisualak barneratzen zituzten obrei buruz hitz egiteko. Wagner-entzat opera bat konposatzerakoan garrantzia bera eman behar zitzaion obrak izan zitzakeen alderdi guztiei: musikari, ahotsari, argiztapenari, soinu efektuei edota eserlekuen kokapenari esaterako. Konpositoreak pentsatzen zuen elementu horien guztien bitartez ikuslea (agian beste hitzen bat erabili beharko genuke, Wagner-ek berak zentzumen guztiak kontuan hartzen zituelako) obran gehiago edo gutxiago sartzea lortzen zuela.

⁵⁹ “Idazteko liburu erraza izatea espero nuen. Emakume baten bizitzaren historia eramango zuena – zergatik ekarriko zituen horrek idazteko arazoak? Liburu motza izatea espero nuen baita ere. Emakume baten bizitza istorioa – zergatik eskatuko du horrek liburu luze bat?”

Antropologoek egiten ditugun ikerketak elementu anitzez daude osatuta eta lan honetan horiek guztiak kontutan hartzea izan da asmo eta gidetako bat: “Irakurleei gauza etnografikoen zaporea emango dien literatura etnografikoa sortzea” (Stoller, 1984:11) Uste dut, era horretan, hartzailea gure etnografiara gehiago gerturatu daitekeela eta antropologoak bere perspektiba propioetik ikusi duen hori dastatzeko aukera gehiago ematen dizkiogula.

Isiltasuna(k) eta eromena barru barrutik sentitzeko aukera eman nahi zaio etnografia honetan irakurleari eta horretarako testuaren eraikuntzan erabiltzen dugun eredu narratiboa eta eraikuntza estetikoa kontuan hartzen dira. Esan beharra daukat, ikerketa objektuek eurek (eromenak, isiltasunak/isiltasunek, azpimemoriak) eragin handia izan dutela proposamen honen bidean. Eurei buruz idazteko zailtasunak eta idazten nuenak eurengandik urruntzen ninduela sentitzea erabakigarriak izan dira “beste” alternatiba bat hartzera eraman nauen bidean sartzeko. Eraikuntza “berri” hau egiteko elementu guztiak kontuan hartu eta kohesionatu nahi izan didut. Eta horretarako etnografiatutakoak izan ditut gidari: etnografiatutakoek erabiltzen dituzten komunikatzeko moduek, esaterako, pista asko eman dizkirate eraikuntza narratiboa eta estetikoa egiterakoan.

Honenbestez, isiltasunaz/isiltasunez aritzean hitzak ez diren beste elementu batzuk aurkitzea ezinbestekoa izan zait, eta eromenaz aritzerakoan psikiatrikoan topatu ditudan komunikatzeko modu ezberdinak aplikatu ditut. Prosamen honekin ikerketa lan batean dauden hiru puntu asko gerturatzea lortu dudala esango nuke: etnografiatua, antropologoa eta hartzailea. González Abrisketak aipatzen duen bezala, “metodo antropologikoa, ‘hor egotea’ oso sortzailea da berez, posizio ezin hobean kokatzen gaitu, gauzak gertatzen diren tokian. Murgiltzeko premisa hutsak ulermenera iristeko beharrezkoa den izaera enpatikoa garatzera behartzen gaitu, ezkutuan mantentzen diren harreman horiek lokalizatzeko” (2011:53).

Nire iritziz, beharrezkoa da intentsitate eta enpatia hori antropologoak idazten duen testuan ere agerian egotea. Laurel Richardson-ek ikerketa soziologikoetan asko esperimentatu du idazketa eta errepresentazio modu ezberdinekin. Ezkondu gabeko ama bati, “Louisa Mary-ri” egindako 36 orrialdeko elkarrizketa bat, 3 orrialdeko poema bihurtu zuen. Bere hitzetan, nahasketa egin zuen ustez zientifikoak diren elementuen – elkarrizketatuaren hitzak, dikzioa eta tonua – eta ustez elementu poetikoak – metrika, erritmoa, etenak, imajinagintza – direnen artean. Zera dio Richardson-ek:

“Emaitza bezala, eta eztabaidatu daiteke, poesia, bizitako esperientzetatik gertuago dago eta aukera gehiago ditu irakurleengan eta entzuleengan eragina izateko.

Poesia bisuala eta ahozkoa da, esan daiteke eta irakur daiteke. Errepresentazio poetikoa, prosa konbentzionala ez bezala, irekita dago irakurketa anitz eta irekietara; irakurleak lan interpretatibo egiazkoak egitera bultzatzen ditu. Soziopoetikak, irakurle ez profesionalak teoria sozialera gerturatzen ditu, eta soziologoak euren praktiken balio-osagarriekin alderatze kritiko bat egitera” (Richardson, 1991:177).

Richardson-ek dio, “isolamendua, alienazioa eta askatasuna, kitzikapena esperimendu ditut. Esaten ari direna erregistratu nahi dut; beraiengan egin nahi dut landa lana. Eurak zientzia bihurtu” (1992:136). Hauxe Richardson-ek elkarrizketa batetik egindako poemen adibide bat:

NINE POEMS

Marriage and the Family

LAUREL RICHARDSON

Legacy

To comfort the mother
of the third born daughter
her father names her
after his own mother.

The third born becomes a mother.

She learns her namesake died
of pleurisy or suicide.
Her father doesn't remember.
Says it doesn't matter.

Marriage

I used
to think it was
cute to have a lit-
tle shadow go in and out
with me.

The Good Doctor Said

Your son has inoperable
brain tumors. At puberty
he'll get progressively
weaker on his left side
until he takes to bed
catches cold and dies.

Treat him as normal.

JOURNAL OF CONTEMPORARY ETHNOGRAPHY, Vol. 23 No. 1, April 1994 3-13
© 1994 Sage Publications, Inc.

3

Ikerketa lan hau egiterakoan, askotan sentitu dut erabili “beharreko” narratibak eta estetikak mugak jartzen zizkidala. Hasiera edo bukaera, kontua da, isiltasun batetik abiatzeak eta beste hainbat isiltasunekin topo egiteak, isiltasun(ar)en eta gero eromenaren “mundu” horiek komunikatu ahal izateko beste aukera batzuen espektro zabal baten aurrean aurkitu dudala neure burua. Datozen lerroetan “beste komunikatzeko modu” horri tokia eman behar niola erabaki nuen unea deskribatuko dut⁶⁰:

2013-11-05, asteartea

[...]

Jangelara iritsi gara. Bigarren txandakoak ari ziren gosaltzen. Bertan beste erizain laguntzaile batekin aritu naiz hizketan. Isiltasuna dagoela esan diot, eta berak esan dit lehen txandan emakume batek zalaparta gehiago sortu duela. Jende gehiago pilatzen hasi da jangelan. Konturatu naiz bertan dagoela patiora ateratzeko atea eta denak zain daudela zigarroa erretzera atera nahi dutelako. Erizain laguntzaileari eskatu diote atea irekitzeko eta honek erantzun die denek gosaltzen amaitu arte ezin duela ireki. Erizain laguntzaileak esan dit orduan gehienek erre egiten dutela eta tabako pakete bat ematen dietela gehienez egunean.

Bat-batean, ilaran dagoen batek esan dit: ¿tú conoces nuestro lenguaje? Eta nik erantzun diot: creo que no. Aurretik ezagutu dudan 29 gizonaikoari begira jarri zaio eta asmatutako hizkuntza batean hasi zaio hizketan. Mutil gazteak elkarrizketa jarraituko balu bezala erantzun dio. Hiru bat minutu iraun ditu elkarrizketak. Inork ez ditu moztu.

Deskribatu berri dudan une hartan, ni sentitu nintzen baztertuta, ezagutzen ez nuen eta ezagutzerik ez nuen lengoaia batetik at.

- Ezagutzen duzu gure lengoaia?

- Uste dut ezetz.

⁶⁰ Behaketa parte-hartzailea egiten nuen lehen eguna zen eta egunerokoan idatzi nuenaren zati bat da.

Uste dut?

Jakina ezetz.

Jakina ez nuela euren lengoaia ezagutzen. Edozein momentutan aldatu zitekeen, malgua zen, eta une ezberdinetara egokitu zitekeen, ulertzea nahi ez zutenentzako ulertezina izan zedin. Landa lana egiten dugunean, protagonista direnek era batera erabiltzen badute lengoaia, gero lengoaia hori gure etnografiaren narratibatik kanpo uzteak, ikerketa landatik eta etnografiatuetatik urruntzea dakar:

“Nire kezka, ikertutako objektutik hau aurkezteko modura pasa zen, izan ere, hor da gizarte teoria eta kultur-praktika gurutzatzen diren tokia, eta hor sortzen da objektua “libratzeko” aukera ñimiñoa, lotuta daukaten kontzeptuak gainditu eta bizitzan bertan eragina izateko aukera ematen da” (Taussig, 1995:19).

Trinh Minh-ha-ren hitzak dira:

“Idaztea, nolabait, besteen lengoaia entzutea da eta besteen begiekin irakurtzea. Zenbat eta belarri gehiagorekin entzuteko gai izan, gehiago ikusiko dut esanahien aniztasuna eta gutxiago utziko dut neure buruari mezu bakarraren ilusioan” (1989:30).

Eromena...

Ezin nuen lengoaia akademiko hutsa erabili. Azken finean, mendebaldeko medikuntza hegemonikoak “buruko gaixotasunak” sailkatzeko eta haiei buruz hitz egiteko erabiltzen duen lengoaia berbera proposatzen du ohiko idazketa akademikoak, eta deserosoa da oso – beste mila ezaugarri jarri ditzaket – lehenengoari kritika bere jarraibide eta esateko-era berberetatik egitea:

“Historiako ahaztuei, zapalduiei eta baztertutakoei ahotsa ematearen hitzontzikeria guztia gora behera, mingarriki agerikoa da ahots hauek proiektatzen diren pantaila aurretik finkatuta dagoela, eta pantaila horretan dela, ez ahotsetan, erresistentzia handiena aurkitzen den tokia, beraz, goitik behera edo behetik gora ikerktzeko agindua baino zerbait gehiago behar da” (Taussig, 1995:74).

Edota Derridaren hitzak: “Eroen desgrazia, euren isiltasunaren desgrazia amaiezina, euren bozeramaile onenak hoberen traizionatzen dituzten horiek direla da; izan ere, isiltasuna *bera* esan nahi denean, etsaiaren aldera pasa da bat”⁶¹ (1989:54).

Eromena...

Urtetan nire beldur bezala agertu denari ezin nion “arrazoia” jotzen den horretatik eutsi. Beste zerbaitetaz ariko banintz bezala sentitzen nintzen. “Esateko modua esatearen *gakoa* da”⁶² (1989:78) zioen Geertz-ek. Erabiltzen dugun lengoaia mota mezuaren parte ere bada eta beraz, ikerketaren norabidea era batera egiteak edo beste batera egiteak duen garrantzia bere neurrian ulertu behar da. Errepresentatzeko modu berak, ikerketa bat edo beste bat ulertzeko moduak, pantaila finkoak, diskurtso berberetara eramán gaitzakete. Zentzu honetan hitz egiten dute David Carrol-ek eta Jaques Derridak. Carrol-ek dio, hitzekin margotzea lengoiaren ezaugarri kritikoen metaforak egitea dela, eta era horretan, norabide eza, anbiguitasuna, iradokitzea eta ziurtasun eza agerian geratzen direla (1989:33). Eta Derrida-ren ustez, eromenari buruz hitz egiteko lengoaia historikoa alde batera utzi beharko genuke, izan ere, hori da:

“Eromenaren erbesteratzea ekarri duena, berarengandik askatu isiltasunaren arkeologia bat idazteko, eta hori bi era erabiliz bakarrik egiten saiatu daiteke: edo isiltasun batzuekin isilduz [...] edo eroa bere erbesteratze bidean jarraituz” (Derrida, 1989:54).

Hurrengo orrialdeetan, eromenera, isiltasune(ta)ra eta azpimemoriara gerturatzeko aukeratu ditudan elementuak (testu etnografikoaren eraikuntzan oinarri hartu ditudanak) azalduko ditut: *Ni*, *Vera* nobela, artxiboan aurkitutako testuak eta literatura tailerlean idatzitakoak hurrenez hurren.

⁶¹ Kurtsiba berea da.

⁶² Kurtsiba berea da.

Ni, Vera

Nik neuk krisi garai bat bizi izan nuen, neurri handi batean ikerketa lan hau egitera bultzatu ninduen (askotan baita urrundu ere), eta garai hartan asko idazten nuen. Egunero, ordenagailu aurrean aurkitzen nuen nire burua, teklak astinduz, baina gero ez nituen idatzitakoak irakurtzen, behar bat asetzeko besterik ez nuen egiten.

Bota.

Bota.

Eta bota.

Teklak eraginez hitzak osatzen nituen eta esaldi “borobilak” egin “behar” izateak blokeatu egiten ninduen.

Paralizatu.

Geldiarazi.

Kieto demonio.

Garai hartako idatzi gutxi ditut gordeta, gehienak ezabatu egiten nituen. Baina 2012. urtean kaleratu nuen *Ni, Vera* nobela idazteko baliagarriak izan zitzaizkidan oso. Beldurrez beteta dagoen pertsona batek idatzi dezakeen modu batera gerturatzen ninduen idazketa mota hark. Jarraian eleberriaren 12. eta 13. orrialdeak.

Zulo bat.

Hutsunea.

Inbaditura sentitzen duzun puntu horretara bideratzen dituzu zentzumen guztiak eta berehala ohartzen da atzetik zabiltzala, harrapatu egin nahi duzula. Eztarrira igotzen da salto batez. Eta zu segika, gora baita ere, lepo aldera.

Milioika zati txikitan lehertuko zarela pentsatzen duzu batzuetan. Gezurra, ia egunero. Lasaituko zaituen heldulekurik aurkitu ez eta gorputzaren muga fisikoak gaindituta, eztanda egingo duzula iruditzen zaizu. *Blaaassst!*

...baina ez zara inoiz lehertu, ez zara inoiz puntu horretaraino iritsi; *batzuetan ezinegona baretzeko bederen horrelako zerbait gertatzea desiratzen dut... indarrez... milioka zatitxotan lehertu... apur txiki-txikietan... ikusezinak diren partikuletan. Zure arrastorik utziko ez duten froga antzemanazinetan.*

Etor daitekeenari begira egon gabe unean unekoa bizi nahi dut. Iragana basoa da, basamortua etorkizuna, baina oraina ezereza. Ez bata, ez bestea. Etorkizunetik iraganera igarotzen den momentua.

Hau.

Eta hau.

Baita hau ere... baina joan da.

Eta orain hau.

Eta hau...

Orainaz kontziente egiten garenerako ihes egiten digu, Martina. *...baina orainean sentitzen dut nik mina... gorputz guztia zeharkatzen didaten milisegundo horietan guztietan... honetan... eta honetan... baita oraingo honetan ere.*

Itsasoak bakarrik lasaitzen zaitu orainaren iheskortasunak arduratuta zauzkanean. Olatu bat bestearen atzetik, jarraikortasun infinituan ikusteak, horrek baretzen zaitu. Etengabeko mugimendu errepikakorrak orainaren une mikroskopiko ia antzemanezina luzatzen duela dirudi.

...olatu bat...

bi olatu...

hirugarrena...

lau olatu...

bosgarrena...

Baina nork eramango zaitu itsasoa ikustera?

Zure arnasaren burrunba. Kanpotik da entzungarri. Barrutik, jasanezin. Teklatua utzi duzu eta belarriak eskuekin estali. Ahoa zabalduz eztarritik jaisten eta igotzen zaizun aireari ahalik eta oztopo gutxien jarri nahi diozu. Hutsala, itxita duzu pasabidea. Alde bietako haragi bigun lehorrek elkar ukitzen dute. Ez dago tantarik txikienarentzako zirrikiturik.

Itotzera noa... ezin dut arnasa hartu... zorabiatzen ari naiz... aulkitik lurrera eroriko naiz... itotzera noa...

Esaldi motzak, errepikapenak, kontraesanak, letra ezberdinak eta zurian geratzen diren zati zabalak. Amaitu gabeko esaldiak edota erantzunik gabeko galderak. Sentitzen nuen idazketa mota horrek krisian dagoen pertsona batek bizi duenera oso ondo gerturatzen ninduela. Hain zuzen ere, lengoiaia malgutzat hartuta harekin ezinegona, urduritasuna, beldurra, nahia, eta hitza duten eta hitzik ez duten beste emozio anitz transmititzea zen nire asmoa.

Zerbait esan nahi eta ez nekien nola egin.

Hiztegia motz geratzen zitzaidan.

Mutu nengoen.

...

Sentitzen nuena ezin azaltzeak beldurra areagotzen zuen, ustez lasaitasuna ematen digun “normaltasun” psikiko horretatik at nengoela pentsatzera eramaten ninduen. Kausa eta ondorio soka luzea osatzen saiatzen nintzen gertatzen ari zitzaidanari arrazoi bat bilatu nahian. Baina ezinezkoa zitzaidan. Eta ezinezkoagoa zen ikasita nituen hitzak erabiltzen banituen. Horregatik iruditzen zitzaidan lengoiaia muga handi bat zela eta “normaltasunean” gaudenean bakarrik dela baliagarri. Kausa eta ondorio soka luzea osatzeko lengoaiak ere ezaugarri konkretu batzuk izan behar ditu, baina maiz ez gara ohartzen proposatzen digutena lengoiaia osatzeko aukera bat besterik ez dela, garaian garaiko eta tokian tokiko “normaltasunaren” izenean ezarritakoa.

Honenbestez, nobelan egindako ariketa narratiboa ikerketa lan honetan ezinbestekoa izan da. Stoller-en hitzetan idazleek denbora eskaini behar izaten diote euren ahotsa aurkitzeari, kontatu nahi dutena kontatzeko modua aurkitzeari; eta antropologoek ere gauza bera egin beharko genukeela proposatzen du (Stoller, 1989:54).

Artxiboko testuak


Lehenago esan bezala, artxiboaren analisisian eman nituen hilabeteetan 458 pertsonen txostenak irakurri nituen. Txosten horietan era ezberdinetako materiala aurkitu nuen eta hori zehatzago “*Frankismo garaiko isiltasun(et)an arakatu: eroetxeetan sartutako emakumeen istorioak*” atalean azalduko dut. Atal honetan, eta testu etnografikoaren idazketarako baliagarri izan zaizkidanak azaltzen ari naizelarik, 1937. urtetik 1950. urtera ingresatutako hainbat emakumeren testuak eta euren “esandakoak”⁶³ izango ditut hizpide.

Deigarria da oso, medikuek, erizainek eta mojek idazten dituzten testuen eta ingresatutakoek idazten dituzten testuen artean dagoen desberdintasuna lengoaiaren erabilerari dagokionez. Medikuek, aurrez finkatutako sailkapenak dituzten orriak betetzen dituzte, gehienetan lumaz edo bestela idazteko makinaz. Erizainek eta mojek ingresatutakoek egunerokoak idazten dituzte, egunean zehar egin dituzten eta “esan” dituztenekin, hauek lumaz idatzita daude gehienak, baita boligrafoz ere. Hiru kasu hauetan erabiltzen den lengoaia akademiko-zientifikoa bezala definituko nuke. Erizain edo mojek ingresatutakoek ahotan jarritakoak (beti ere kakotx artean) dira lengoaia horretatik aldentzen direnak.

Ingresatutakoek eskutitzetan eta testuetan, berriz, beste era bateko lengoaia aurkitu dut, beste idazkera bat, askotan arkatzez idatzitakoak dira, baita orrialde oso ezberdinetan ere (marradunak, marrarik gabeak, txikiak, handiak, finak, lodiak...). Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasun handi bat zera da, gizonezkoek eskutitzak ez diren testuak idazten dituztela gehiago eta emakumezkoen idatzien artean, berriz, gehiengoa senideei (kasu batzuetan lagunei) zuzendutako eskutitzak dira. Emakumeen hitzak, beraz, giro pribatuan geratzen ziren (emakume izateari gainera, psikiatriko batean ingresatuta egotea gehitu behar zaio) eta gizonezkoek, berriz, giro publikora jotzeko aukera eta joera gehiago zeukaten (kontuan hartuta betiere psikiatriko batean zeuden gizonezkoek ere bazituztela publikoki aritzeko euren mugak).

⁶³ Kakotx artean jarri dut “esan”, izan ere, ingresatutakoek ahotan jarritako esaldiak direlako baina zaila izango zelako zehatz mehatz esan zutena gogoratu eta idaztea. Beraz, pentsa daiteke gerora gogoratzen zutena idazten zutela, baina gerturatze bat bezala hartu dut.

Emakumeek idatzitako testuen artean bi aipatu nahiko nituzke. Lehenengoa, 1950. urtean idatzitako 26 urteko emakumezko batena da. Horitutako orrialde bat da, hezetasunak eragindako puntuz beteta eta testua arkatzez dago idatzita.




Eskutitz moduko bat dela esan dezakegu, medikuari zuzendutako galderak egiten ditu eta bere nahia adierazten dio: “¿Qué es la neurastenia? A mí me pica todo el cuerpo ¿por qué es? ¿Me

*perdona la insulina? Porque no me hace falta. Porque me quiero ir de aqui*⁶⁴. Insulina eta elektroshock-a jartzen zizkieten emakume honi eta galderak egiten ditu jarritako tratamenduari eta diagnostikoari buruz. Hori da idatzi batzuen eta besteen artean (mediku, erizain eta mojenak batetik eta ingresatutakoenak bestetik) dagoen beste desberdintasun bat: ingresatutakoen testu eta eskutizetan galdera anitz daude.

Hurrengo irudian ikus dezakegu, 1949. urtean ingresatutako beste emakume batek, hemendik aurrera Tomasa⁶⁵ bezala izendatuko dudana, amari idatzitako eskutitza. Arkatzez idatzi zuen Tomasak ere eta orrialde guztia bete zuen, ez dago apenas espazio zuririk. Lerroek ere, elkar ikutzen dute. Askotan etenik gabeko esaldiak dira eta puntua edo kakotxa jarri ordez marratxo bat jartzen du. Eskutitz honetatik jasotzen dudana sentazioa da oso arin eta erraz idazten ari den norbaiten jarioa dela. Esaldi batzuk banatu egiten ditu baina beste batzuk ez eta datorkion moduan idazten ari denaren inpresioa ematen dit.

⁶⁴ Hemendik aurrera, artxihoan aurkitutako idatziak zeuden bezala, literalki kopiatuko ditut. Irudietan izen propioen bat azalduz gero ere ezabatu egin dut.

⁶⁵ Izena asmatua da.



Mama: - uste crei nunca vai
morstuo - tu me encerraste aqui
dónde sabes p mi pobre
exhibi' por mi - nada
sine acordarme Dios di cap no infini
& a mi & padre mate no meulle
con credes. la mepli' tu pasaporte
ahora me dejis aqui donde jo to
pobre escribir a [redacted] & a
tu ilas a buscar sus cartas & por
fue sabias f. de ellas de perdue
te recompense de dolor infinito
& Dios me dio en 11 años con un
morstuo - fu me dijiste madre
p antes fueras mas verme
muerte p con un ex. marido -
& tu p. erestau religioso como
hiciste esto - jo no vivi mas f.
para el sacrificio vuestro & de un
hombre p como sabes todo ante Dios
no es un marido -) & g. creera

Aurrerago ezagutuko dugu Carole⁶⁶ ere, 1949. urtean ingesatutako emakumezkoa. Carole Europako beste herrialde batekoa zen eta artxihoan aurkitu ditudan eskutitz gehienak ingelesez idatzita daude. Carolek, Tomasaren antzera orrialdearen eskuin-ezkerrean eta goian-behean ez du inolako margen zuririk uzten; are gehiago, bere eskutitz gehienak psikiatrikoaren izena, helbidea eta telefonoa dituzten orri “ofizialetan” idatzita daude⁶⁷. Carolek horien gainean marra bat egiten du:


clínica de reposo

⁶⁶ Izena asmatua da.

⁶⁷ Aurrerago aipatuko dut zehatzago, baina badira paper faltaz kexu direnak edota familiari papera bidaltzeko eskatzen dietenak, beraz, paperak horrela betetzearen atzean azalpen hori ere egon liteke.


Horrelako marra egiten dio baita ere telefono zenbakiari, bere horretan uzten du herriaren izena. Beste eskutitz batzuetan, esaldiak idazten ditu informazio horren berri ematen duten idatzien gainean. Carolek hitz batzuk azpimarratu egiten ditu bere eskutitzetan. Pentsa daiteke indarra eman asmo dien hitzak direla azpimarratzen dituenak, adibidez: “*I ask you to let me free*”.

Gregoria, 1944. urtean eta 1947. urtean ingesatutako emakumezkoa zen. Ihes egiteko saiakera egin zuen baina ez zuen lortu. Bere idatziak tolestutako orrialdeetan daude, horizontalean eta gero gainetik bertikalean. Orrialdeek toledura egiten duten tokian ere idazten du. Lehen begiradan ez nintzen jartzen zuena ulertzeko gai izan, gainera luma beltzez idatzita dagoela dirudi, eta zati batzuetan tinta zabaldu egin da. Gertutik tentuz begiratu ondoren konturatu nintzen, orri marradun bat izaki, lehenengo marra horiek jarraitu zituela eta gero gainetik beste zentzuan idatzi zuela. Eskutitz bat baino gehiago daude horrela idatzita, ez da bakarra.



Ez dago tarterik, ez dago margenik, tarteka esaldiren bat irakurri daiteke: “*La misma naturaleza que me dice cosas miedosas de el sanatorio*”. Baina, gerta liteke irakurleak berak jarraitzen duen ustezko lerro bat izatea, askotan lerroak ere ez daudelako linea jarrai batean.

Beste testu batzuk, ingresatutako en egunerokoa idazteko mojek eta erizainek erabiltzen zituzten orrialde “ofizialetan” daude idatzita. 1948. urtean ingresatutako emakume batek arkatzez eta letra handiz idazten duena esaterako. Bere izena jartzen du ingresatutakoaren izenarentzako gordeta dagoen atalean ere eta data ere zehaztu egiten du “*Fecha*” dioen hutsunean: “8-8-1948”. Hori bai, ez ditu paperean marra bidez “ezartzen” diren mugak errespetatzen, hau da, data jartzerakoan, adibidez, data jartzeko tartea mugatzen duen marra gainditu egiten du eta ondoren, idazten duen letra marren arteko tartea baino handiagoa da, batzuetan gorago eta bestetan beherago dagoena.



* Eskutitzean ezabatutakoak izen propioak eta psikiatrikoko datuak dira.

Testu honetan ikusi dezakegu mojek eta erizainek orrialde hauek betetzeko erabiltzen duten modua eta emakume honek erabiltzen duena zeharo ezberdinak direla. Mojen eta erizainen idatzietan, orriak berak dituen marren barruan idazten dute, marrak dira idaztera doazena mugatuko dutenak eta nola egituratu “aginduko” dietenak. Kasu honetan, berriz, idazketa marra horiek inolako mugarik jarriko ez balute bezala egiten dute. Lengoaiari dagokionez, ez da etenik egiten, dena jarraian dago idatzita, agurraren ondoren jarraian hasten da idazten, ez du “eskutitz egitura” jarraitzen. Baina baita aurrerago ere, dena esaldi bakar bat dela esan daiteke.

Esan bezala, idazteko moduak, idazteko erabiltzen duten materialak eta idazten duten tokiak atentzioa merezi dute. Azken honi buruz, idazteko erabiltzen zuten tokiari buruz gehitu nahiko nuke, emakume bat baino gehiago daudela – eta ez dut gizonezkoetan horrelako adibiderik aurkitu moja eta erizainen egunerokoetan – paretetan eta maindireetan idazten dutenak. Idazketarena mugatutako ekintza bat izan zitekeen, aurretik esan bezala, emakumearentzat subertsioa zen hitza hartzea eta horregatik horretarako aukera mugatuagoak izango zituztela pentsa daiteke. Horrek eraman zitzakeen paretetan eta maindireetan idaztera; edota euren ahotsa entzun zezaten aldarrikapena izan zitekeen; egunerokoetan ez da zehazten zer zen idazten zutena, baina egiteko erak soilik esanahi handia du.

Badago kontutan hartzeko beste elementu bat idazteko moduei, idazteko materialei eta idazten duten tokiei dagokienez. Badira eskutitzak idazteko material falta dutela adierazten dutenak. Agian orrialdea hainbeste probestu behar horrek idazkera ere baldintzatzen zien:

“Me mandas papel, pluma y tinta, porque no tengo una mala hoja de nada”.

“Ahora no entro en más detalles, lo primero porque quizá resulte pesada, y lo segundo porque el lápiz que tengo se va gastando la piedra y temo tenga que suspender la carta”⁶⁸.

Idatzitako testuez gain, esan bezala, mojek eta erizainek osatutako egunerokoetan jasotakoak ere interesgarriak dira ingesatutako emakumeek zuten komunikatzeko modua ikusi ahal izateko.

⁶⁸ 1943. urtean ingesatutako 26 urteko emakume batek senideei zuzendutako eskutitza batetik hartutako idatziak dira, amaierako antibiografietan Luisa bezala agertzen dena.

Eguneroko hauetan idazten zituztenak, ondoren, medikuek irakurtzen zituztela pentsa daiteke, oharrak (*regular, bien, muy bien*) daudelako idatzita gorriz eta urdinez⁶⁹.

Moja eta erizainek, kakotx artean jartzen zituzten ingresatutakoak esaten zituen gauzak; ziur aski deigarriak egiten zitzaizkien esaldiak idatziko zituzten. Azpimarragarria da mojek esaldi hauek idazterakoan hiru puntuak (...) oso maiz erabiltzen zituztela, ingresatutakoak hartzen zuen tarte izan zitekeen edota esaldi bakoitzetik ideia bat hartzen zutela, edota ahaztutako zati bat dagoela tartean. Aurrerago ikusiko dugun Teresaren⁷⁰ kasuan haxe idatzi zuten 1944ean ingresatu eta hurrengo egunean:

“... No quiero estar aquí... meses como otras... Que me lleven a un manicomio... No me he de levantar por mucho que se empeñen... Romperé cristales y me escaparé... mataré alguien...”⁷¹.

Gramatika “zuzenean” amaitu gabeko esaldiak direla esango genuke. Batetik bestera lotura egiten duten hitzak falta dira, baina era berean, ingresatutako pertsonak esaten zuena ulergarria da oso eta agian horrela esanda indar gehiago daukala dirudi. Hurrengo ohar hau ere era horretan ikusi dezakegu:

“«...y mi marido en sus ocupaciones... el pobre muy atareado... en sus ratos libres ¡qué felices éramos! Eso que tiene mucho carácter... cuando decía una cosa, quería y tenía que ser aquello que él dijera... sí... muy feliz»⁷².

Beste kasu batzuetan galderak eta erantzunak denak batera datoz jario berean:

⁶⁹ Medikuek ez zeuden etengabe ingresatutakoekin, mojak eta erizainak ziren bertan ordu gehien ematen zituztenak, beraz, medikuek, ingresatutakoek egiten zutena jakiteko erabiltzen zituzten moja eta erizainek osatzen zituzten egunerokoak.

⁷⁰ Izena asmatua da.

⁷¹ 1944ko apirilaren 23ko oharra.

⁷² Hauek, erizain eta mojen oharren arabera, 1947. urtean ingresatutako 63 urteko emakumezko batek esandakoak dira. Emakume honek Durangoko bonbardaketan bi alaba galdu zituen eta semea fusilatuta egin zuten, denak 1937. urtean.

“¿Que soy una niña tonta? Ya lo sé. Yo no tengo la culpa ¿Que estoy educada mejor que mi hermano? También lo sé ¿Que voy a los bailes de noche ¿ Que importa todo eso?”.

“Yo me casaré, pero con quien quiero. No me importa que sea pobre, yo al fin y al cabo soy una casera. Ya lo sé. Mi padre se ha casado dos veces. Que importancia tiene eso... yo no he querido faltar si lo han tomado por ese lado mal hecho”⁷³.

Bakarrizketa bat, pentsa zezakeenaren eta egin nahi zuenaren artean zegoen borroka agerian uzten zuen hitz egiteko modua. Bide honetatik ikusten ditut baita ere Carole-en hitzak:

“¿Que aria usted? Lo que yo he hecho ¿No es cierto? Doblearme y esperar a que llegue el día que usted pueda hablar ¿Verdad? Pues eso me pasa a mi. Que adelantaria si yo me opusiera y me volviera rebelde a todo esto. Creo que no adelantaria nada con esa aptitud. Es mejor esperar”⁷⁴.

Badirudi mojek eta erizainek ez zutela elkarrizketa jarraitzen eta ingresatutakoek esaten zutena bakarrizketa moduan islatzen zuten.

“Todos han muerto, que ha pasado, Dios mio?, han matado a todos mis hermanos; pero, esto qué es?, matarme de una vez ¡, Teresa, Teresa... el marido mato a todos los hijos; ¡ay Dios mio que horror!, que es esto Dr.?”⁷⁵.

Badira ustez momentuko testuinguruarekin zerikusirik ez duten azken hau bezalako hizketaldiak ere. Testuinguruarekin zerikusirik ez dutenak diot medikuek “*alucinaciones óptico-auditivas*” bezala definitzen zituelako euren txostenean. Une horretan, emakumeak, amaitu gabeko esaldiak erabiltzen zituen, etenda zeudenak eta ustez edo entzulearentzako testuingururik gabe

⁷³ Bi ohar hauek 1949ko ekainaren 14ean idatzitakoak dira, 21 urteko emakumea da hizketan ari dena.

⁷⁴ 1949ko uztailaren 28-29an idatzitako oharra da, 46 urteko emakumezko batek esandakoa.

⁷⁵ 1944ko abuztuaren 14ko oharra, 30 urteko emakume baten ahotan jarritako hitzak.

ulertezinak egiten zaizkigunak. Baina, era berean, emakume hau bere sentimenduen eta bere iritziz gertatu zenaren berri ematen ari zen.

Ingresatutako emakumeek erabiltzen zituzten hitzen egokitasuna ere ikusi daiteke, maiz daudelako moja eta erizainen oharretan hutsune zuriak.

“Ande Ud por ay” “Es Ud una marchese de aquí”⁷⁶.

Beraz, subertsioa ere hitz egiterakoan erabiltzen dituzten hitzekin lotu genezake, biraoak, beraiei ez zegokien hitzak (emakumeei gizarteak are gehiago debekatzen zien hauen erabilera) erabiltzea aldarrikapen bat zen, beste hitz egiteko modu bat praktikan jarritz.

Errepikapenak eta gainontzekoentzat loturarik ez zuten esaldiak daude idatzita 1940. urtean ingresatu zuten 24 urteko emakumezko baten egunerokoan:

“Condenada si, juramento falso, oye tu Paquita que te tengo aquí en el corazón, cerdos, si muchos cerdos, muerta ya, mierda, que te crees tu eso, calla, calla, mi padre que está en el cielo, ¡oh! Lo que veo, chitón, chitón que viene el sereno, reniego si ya está, estoy contigo, ¡vestia! ¡mas que vestia!, reniego de toda la familia, basta, basta, qué tantos cerdos, que asco, juramento, si blasfemia grande, la justicia es esta monja, reniego, que no ¡he dicho que no!, bueno si lo que tu quieras, la justicia divina, Regina celi, letare aleluya, confesión sincera, te condenas eh, ya sabes que viene el Padre José, cerdos, que te veo, marcha, marcha.”⁷⁷.

Batzuetan, egoeraz uste baino kontzienteago zirela eta lengoaiaren erabilera egiten zutela ondorioztatu daitekeen esaldiak irakur daitezke:

⁷⁶ 1944ko azaroaren 4ko oharra, moja eta erizainek 33 urteko emakume baten ahotan jartzen dutena.

⁷⁷ 1940ko apirilaren 12ko oharra.

“*«Me ha tocado la lotería ¿es verdad?» - ¿Que piensa? - «Me parece que estamos haciendo teatro»*”⁷⁸.

“*Hermanita, hoy voy a pedirle perdón al Dtor pero por dentro me voy a quedar con lo mío, diré: maldita sea tu estampa y la hora en que te conocí*”⁷⁹.

“*Figurese estoy así de contenta siendo mentira. Con que como estaría si fuera verdad*”⁸⁰.

“*No... sé... pero todo es un cuento*”⁸¹.

Hizkuntza ere muga bat izan zitekeen. Hizkuntzaren arabera gertatzen zitzaiena ulertzeko gai izango zirela esaten duenik ere badago:

“*Tengo mal de todos los sitios. Si Ud entienden vascuence ya me comprenderán*”⁸².

Asmatutako hizkuntza ere erabiltzen du, adibidez, 1944. urtean ingresatu zuten 38 urteko emakume honek, medikuak familiak esandakoak kontutan hartuta hauxe idazten du sarreratxostenean:

“*Emplea un lenguaje “toco-teca tica lelo lala lilo” [...] pleno de asociaciones, con series de palabras*”⁸³.

“*Yo culoqui, yo culoca, yo culoqui... Que la bruja, bruja si... Ay que pena se cayó y si cola cola ca yo colaqui y ofrecer para na pero que tu a mi pues yo teatro porque le mela mela mocos...*”⁸⁴.

⁷⁸ 1944ko irailaren 26ko oharra.

⁷⁹ 1949ko ekaineko oharra.

⁸⁰ 1945eko urriaren 23an idatzitako oharra.

⁸¹ 1945eko apirilaren 16ko oharra.

⁸² 1944ko irailaren 26ko oharra.

⁸³ 1944eko irailaren 4ko oharra.

⁸⁴ 1944ko irailaren 5eko oharra.

Lengoiak berak, “ulergarri” izateko jartzen dituen mugak, nabariagoak egiten dira ustez “ulergarritzat”, “arrazoizkotzat” eta “logikotzat” jotzen ez dugun egoera batean aurkitzen garenean. Egoera horietan lengoia erabiltzerakoan ohiko egituretatik ihes egiten saiatzen gara, ez dira nahikoa nahi duguna azaltzeko, baldintzatu egiten gaitu eta, beraz, hortik ihes egin nahian beste bide batzuk hartzen saiatzen gara.

“¿Qué me pasa? ¿Dónde estoy? ¿Qué horror?... No puedo decir lo que me pasa”⁸⁵.

Edo isiltzen...


...mutu geratzen...

...hitzak itotzen...

⁸⁵ 1946-1947 urteetan idatzitako oharra, data zehatzik gabea, 24 urteko emakume batek esandakoa.

Literatura tailerra

Metodologiaren atalean azaldu bezala, doktorego tesi honetan egindako behaketa parte-hartzaileak bi zati izan ditu. Alde batetik, psikiatrikoko behaketa parte-hartzailea eta bestetik, bertan ingresatutako hainbat pertsonekin antolatutako literatura tailerra. Ikerketa lan honetan idazketak hartutako garrantziak eraman ninduen tailer hau egiteko proposamena luzatzera. Psikiatriko barruko gela batean egiten genuen tailerra, kristalezko leiho handi batek jangelara ematen zuen eta bertatik pasatzen ziren atarira atera nahi zutenak. Ia gela guztia hartzen zuen mahai bat zegoen aulkiz inguratuta, eta eskulanak egiteko eta medikuen goizetako bilera egiteko erabiltzen zen gela hura; psikiatrikoko ekintzez arduratzen zen pertsonaren lantokia ere bazen.



Bertan gertatzen ziren edo gertatzen ez zirenekin egunerokoa idazten hasi nintzen; hasieran, deigarria egiten zitzaidanak zein bide hartzen zuen jakite aldera. Eta konturatu naiz hasieran atentziorik jartzen ez nionak garrantzia handia hartu duela gero.

2013-12-12, osteguna

Lehen eguna. Psikiatrikoko eraikinaren barruan dagoen gela batean izan da tailerra. Zazpi pertsona etorri dira. Psikiatrikoko arduradunek eta, batez ere, euren terapiaz arduratzen direnek aukeratu dituzte etorri daitezkeenak. Aukera ez zaie denei zabaldu. Tailerra nolakoa izango den azaldu diet. Isilik entzun dituzte azalpen guztiak. Euren proposamenak gustura entzungo nituzkeela esan diet eta txandaka hitz egin dute. Nik esan diet, ez daudela ezer egitera behartuta eta nik proposatutakoa, hori dela, proposamena besterik ez. Baten batek ez badu hitz egin, irakurri, idatzi edota idatzitakoa irakurri nahi, ez dagoela behartuta. “El principito” irakurtzeko proposamena egin diet eta kopia batzuk eramane ditut; gustura hartu dutela iruditzen zait.

Konturatu naiz batzuetan tailerra ordez klasea esaten dudala eta neure burua behartzen dut tailerra dela esatera, nik ez dudalako irakasle rol-a hartu nahi, denen arteko elkarlana izatea nahiko nuke. Baina zaila izango dela konturatu naiz, eurak nik zer esan zain daude, nik zer egin agindu zain, eta era berean, ni neu naiz jarrera hori hartzen duena. Zaila egiten zait dinamika horretatik ateratzea.

2013-12-26, osteguna

Eraikinean sartu eta berehala antzeman dut zerbait berezia. Giro berezia, agian. Gabon garaia, pentsatu dut. Emakume bat garrasika eta kolpeka ari zen mahai baten kontra. Konturatzen naiz lehen nire atentzioa deitu eta deseroso sentiarazten ninduenak orain ez didala sentsazio bera eragiten. Aurrera jarraitu dut, nor den ere begiratu gabe. Zaila egiten zait jarrera bat edo beste hartzea. Begiratzen ez badut, kontuan hartuko ez banu bezala da eta agian horren bila dabil, norbaiten atentzioa deitu nahian. Baina begiratzen badut “normala” ez den zerbait egiten ari delako begiratzen dudala iruditzen zait. Honek erakusten dit nire jarrera guztiak neurtzen ditudala, aurreiritziz beteta nagoela.

Tailerra ondo joan dela uste dut. Idazten hasi gara. Deigarria egin zait, hasiera batean, bertan sartu nintzen lehen egunean, apenas hitzik egiten ez zuen neska batek izan duen aldaketa. Lasai hitz egin du, irribarrez. Beste lagun bat ere sartu da hasi eta ordu erdira. Filosofoa dela esan didate. Ordubete egon da baina gero ezer esan gabe alde egin du.

2014-01-09, osteguna

Gaur jende gehiago agertu da. Beste hiru lagun. Batek ez du hitzik esan eta lurrera begira pasa du tailer osoa. Ez nekien zer egin, galdetu edo ez. konturatzen naiz askotan aurreiritziekin jokatzeko dudala.

Tailerrera geroz eta gehiago etortzen dira eta horrek poztu egiten nau. Batzuk hasi dira tailerretik kanpo ere idazten.

“El Principito” irakurtzen jarraitu dugu eta gero autoreari buruz hitz egin dugu. Konturatu dira euren aurreko astean idatzitakoa horretan euren bizitzatik asko dagoela.

2014-02-05, osteguna

Gaur eskutitz bat idazteko proposamena egin diet. Edonori idatzi diezaioketen, fikziozko pertsona ere izan zitekeen, baina gehienek euren inguruko bat aukeratu dute. Konturatu naiz eurretako bat negarrez hasi dela eta nahi bazuen uzteko esan diot. Hor utziko zuela esan dit, baina azkenean jarraitu egin du.

2014-02-27, osteguna

Gaur esperimentu bat egingo genuela esan diet. Bi minutuz isiltasunean egon gara. Bat urduri zegoela iruditu zait, hanka mugitzen zuen etengabe. Bi minutuak iragan ondoren zer moduz egon diren galdetu diet eta gehienak oso eroso egon direla esan didate. Ondoren, isiltasunari buruz idazteko proposamena egin diet. Eta berehala, inoiz baino azkarrago hasi dira denak idazten.

Idazten hasi eta berehala batek galdetu dit: “Bakardadeari buruz idatzi behar dugu ezta?”. Nik esan diot, isiltasuna zela proposamena baina nahi duena egin dezakeela. Atentzioa eman dit, isiltasuna eta bakardadearen artean egin duen lotura hori.

Askok esan dute isiltasuna gustuko dutela. Gehienek aitortu dute psikiatrikoan sartu aurretik ez zutela isiltasuna gustuko.

2014-05-22, osteguna

Aurreko astean ez genuen tailerrik izan Londresen kongresu batean nengoelako. Londrestik gozokiak ekartzeko eskatu zidaten eta nik bonboiak ekarri dizkiet. Mahai gainean jarri ditut eta segituan hartu dituzte. “Gerorako” esan didate eta patrikan sartu dituzte. Batek esan du “¿no serán de licor?” eta kezkatu egin naiz. Dena kontrolatzen diete han eta beraz agian horrek eraginik izan dezakeela pentsatu dut. Bueltak eman dizkiot arratsalde osoan, nik bat jan dut eta likorea zuela iruditu zait.

Bi berri etorri dira gaur, 20 urte ingurukoak biak. Batek gramatika esplikatzea nahi zuen. Besteak isilik pasa du tailer guztia. Lehenengoak irakurri egin nahi zuela esan dit, eta ozenki hasi da baina berehala joan zaio ahotsa, dardarka zituen eskuak. Gelditu egin da eta inork ez diogu ezer esan, beste batek jarraitu du. Pentsatu dut bakoitzari berean uztea dela hemen hartzen den ohitura. Eta konturatu naiz emakumezkoei gehiago kostatzen zaiela ozenki irakurtzea. Hitza hartzea, oro har.

2014-05-29, osteguna

Taldea aldatzen ari da, pixkanaka batzuk badoaz eta berriak datoz. Gaur bi mutil gazte etorri dira. Gehienak 30 urtetik beherakoak dira orain eta 8tik 2 dira emakumezkoak. Zergatik ez dituzte emakume gehiago ekartzen? Hori galdetzen diot neure buruari, izan ere, psikiatrikoko arduradunek erabakitzen dute nori proposatu tailerrera etortzeko aukera eta nori ez. Agian neurri berean proposatzen diete baina emakumezkoek ezezkoa esaten dute. Baina, kontua da, tailerrean emakume gutxiago daudela; ez zaizkielako aproposak iruditzen edota eurek ez dutelako euren burua han ikusten.

2014-06-05, osteguna

Erloju bat dago paretatik zintzilik eta tik-tak-a nahiko ozen entzuten da. Gazteetako batek asko entzuten dela esan du, erlojuari begiratu diogu denek eta konturatu gara ez dabilela ondo, segundoen orratza "harrapatuta" gelditzen da 2 zenbakira iristean eta gero seigarrenera jaisten da azkar batean. Baina erlojua ez dago atzeratuta ez aurreratuta, dagokion ordua ematen du.

Irribarre egin dugu eta erlojuaren kontua esan duen lagunak esan du, erlojuaren erdialdean (propagandazko erloju bat da) idatzita dagoen medikamendua dela berari gauetan ematen diotena eta erdi lo uzten duena, denbora geldituta egongo balitz bezala sentiarazten duela.

Irakurketa ezberdinak egin genituen, baina azkenean idazketa gehiago nahi zutela esan zidaten. Hasieran, gehiago kostatzen zitzaiena izan arren, gero praktikan jarri nahi izan zuten alderdia izan zen. Egunerokotik hartutako pasarteetan ikusi daiteke, esaterako, 2014. urteko otsailaren 27an, isiltasunean bi minutuz egon ondoren, isiltasunari buruz idazteko proposamena egin niela. Hauxe izan zen tailer hartan idatzi zutena⁸⁶:

⁸⁶ Euren idatzietako batzuk erreproduzitzeko baimena eskatu nien eta batzuek eman egin zidaten.

El silencio se puede interpretar de muchas formas. Por ejemplo puede significar: relajación, meditación, concentración, reflexión. También puede representar a múltiples facetas como puede ser: el respeto.

También guardamos silencio por razones emocionales por ejemplo cuando nos enfadamos guardamos silencio.

El silencio también es una forma de comunicar, pues hay veces en las que ~~hay~~ ^{es mejor} que estar callado. Se puede aprovechar para múltiples ocasiones como pensar en ti mismo, ^{relajarse} etc.

Además con siempre las personas que están en silencio aprecian y se fijan más en las cosas que los que siempre están hablando.



El silencio es hermoso y a la vez terrible. Cuando lo buscas no lo encuentras pero él te encuentra a ti en el momento mas inesperado. Entonces siempre, estes preparado o no, te sorprende con su ruidosa calma. En mi mente no suele haber silencio aunque ultimamente lo busco cada vez más y mi relación de amor-odio con él es cada vez mas calmada, mas pausada. Es mas, creo que ya no odio el silencio, quizás este aprendiendo a amarlo.

Gracias por este silencio,
gracias por este momento,
gracias por este encuentro,
gracias por este recuerdo
gracias por ser "mi" silencio.

EL SILENCIO

27/02/2014

2' DE SILENCIO, NO HAY COMUNICACION, TIEMPO PERDIDO O GANADO,
AUSENCIA DE RUIDO, CLAMOR SILENCIOSO. ¡JO QUE PROFUNDO ME
HA QUEDADO!



¿Dónde estaré aquel pienso? Es el silencio lo que mata.

Nelson Mandela silencio a su país,
y me duele saberme callar a tiempo.

El silencio tan necesario como el comer.

Un amigo que está acompañandote tanto en el silencio como en la ~~palabra~~
~~palabra~~ palabra,

El silencio como la misma palabra lo dice es paz. Una paz que te tranquiliza y te hace reflexionar. Te hace poner todas las cosas en su sitio, es por lo tanto lo contrario del caos, del ruido, de los coches y de la ciudad. A veces necesitas meditar las cosas y eso te lleva a que necesites un poco de silencio para conectar con la realidad.

Testuak irakurri ondoren, isiltasunari buruz idatzi zuten egun hartan gertatutako pasarteak ekarri nahiko nuke berriro hona. Isiltasunari buruz idatzi baino lehen isilik eman genituen bi minutu.

Inork ez genuen hitzik egin.

Batzuk besteei begira geunden.

Lurrari so beste batzuk.

Irribarrez noizbehinka.

Eta dena, lagun baten hankaren mugimendu errepikakor eta azkarrez ohartu nintzen arte. Orduan, ez nuen besterik entzuten. Bere hanka gora eta behera.

Gora.

Behera.

Gora.

Behera.

Egunerokoan azaldu bezala, bi minutuak igaro ondoren isiltasunari buruz idazteko proposamena egin nien. Hain zuzen, bakardadea aipatu zuen partaideak idatzi zuen testua laugarrena jarri dudana da⁸⁷. Isiltasunean emandako bi minutuak “*irabazitako edo galdutako*” denbora direla esaten du. Bata edo bestea. Komunikazio eza, baina era berean “*aldarri isila*”. Testu guztietan ematen zaio isiltasunari anbigutasun eta “kontraesankortasun” hori: “*el silencio es hermoso y a la vez terrible*” esaten du hirugarren testuak. Edota “*es el silencio lo que mata [...] el silencio tan necesario como el comer*” dio bosgarrenak. Azken testuan, “isiltasuna” hitzak berak “*bakea*” esaten duela dio: “*es por lo tanto lo contrario del caos, del ruido, de los coches y de la ciudad*”. Bigarren testuak dio, “*el silencio también es una forma de comunicar*” eta ondoren

⁸⁷ Esan, testuen ordena erabat ausazkoa dela.

azpimarratzea gustatuko litzaidakeen gauza bat: “*hay veces en las que hay que es mejor estar callado*”. Derrigortutako zerbait bezala ulertu daiteke lehenengo osatzen duen esaldian “*hay que*” horrekin, eta gero “*es mejor*” idazten du. Hobe zergatik? Bien arteko lotura eginda, “ondorioak jaso nahi ez badituzu” izan zen bururatu zitzaidan lehenengo gauza. Baina argi eta garbi, hasieratik esan bezala, nik egindako irakurketa batetik ateratako zerbait da. Laburbilduz, testuetan oro har isiltasunaren alderdi eta ikuspegi ezberdinak ematen dituzte eta horrek eman zidan isiltasuna, isiltasuna(k) bihurtzeko bidea.

Beste tailer batean, orri zuri bat hartu genuen eta idatzi baino lehen esan nien nahi zuten bezala erabili zezaketela orria. Zein aukera egiten zuten jakin nahi nuen, izan ere, ni ere planteatzen ari nintzen orrialdea beste era batera erabiltzeko aukera. Hauxe izan zen batzuek egin zutena:

Un rayo de sol acaricia mi rostro y me levanto
de la cama, Entonces oigo los pajarillos como cantan
~~que me alegan al día~~

Deseo ser feliz, no voy a dejar que me humillen
como lo han hecho.

El ruido, no oporto el ruido y que la gente
te ignore.

aquí aunque estas bien siempre te acuerdas del marido
y de los hijos pues se hace largo

Deseo que me valga bien cuando salga y no
tenga que venir más

Algunos dicen que cuando se ve
algunos dicen que cuando se ve

Comer besugo el domingo.

Me he quedado sin tabaco.


Da Real sigue en Europa.

Ultimamente las llamadas a mi familia acaban todas mal.

El Athletic va a jugar la Champions League.
Encontrar pronto trabajo, para poder salir de aquí.




Batez ere bazterretara jo zuten. Inork ez zuen erdigunea hitzez bete. Bestalde, aipatu nahiko nuke, gutxitan idazten genituen jarraitasuna zuten istorioak, nahiago izaten zuten hiruzpalau esaldi idatzi eta beste gai batera pasatzea. Adibidez, abestiak proposatzen genituen, bertan entzun eta gero haiei buruz idazten zuten. Hitz bat, esaldi bat idazten zuten gehienera jota. Hitzik ez zitzaiea ateratzen esaten zuten behin eta berriz, edota egun horretan ez zutela idazteko gogorik. Partaideetako batek marrazkiak egiten zituen hitzak ateratzen ez zitzaizkionean, erraztasun handia zuen:



Hable de un amor no correspondido.

Estoy con mi novio de topeo por el
vario, vamos a echarla siesta y des-
pues una ducha y a la playa



Azken idatzi hau egin zuen emakumeak iratxoak egiten zituen, bata bestearen atzetik, mugimendu errepikakorra jarraitzen zuen boligrafoarekin, marra kiribildu bat zen paperetik altxa gabe iratxo forma ematen ziona.

Honela, literatura tailerrean agertutako aukera hauek guztiak ere erreferentzia gisa hartu ditut ikerketa lan honen testu eraikuntzan.

Isiltasun aktiboa, lengoia alternatiboa eta hutsuneen agentzia⁸⁸

Hona helduta, aurreko atalean planteatu dudana eta ikerketa lan honen ardatz nagusietako bat den proposamen teoriko-metodologikoa doktorego tesian nola aplikatu dudana, hau da, zein eraikuntza narratibo eta estetiko aukeratu dudana azalduko dut. John Van Maanen-ek etnografiei buruz dio, harreman estua dagoela itxuraren eta egiantzaren artean (1988:XI). Ados nago testu bat sinesgarria izan dadin, edukiaz gain, itxura bat ere ezarrita dagoela; esan bezala, beste eredu batzuk fikziora eta, beraz, literaturara gerturatu gaituzte. Lanaren egituraz gain (eskerrak, indizea, sarrera, ikerketaren edukia eta ondorioak), sinesgarri egingo duen forma bat edo estetika zehatz bat ere “adostuta” dago: orrialdeak bertikalean daude, goitik behera idatziko da testua eta lerro paraleloetan, hutsunerik gabe apenas; orrialde guztiek izango dute itxura berbera, inguruko margenak goikoak, behekoak, eskuinekoak eta ezkerrekoak zurian utziko ditugu eta erdialdea hitzek osatzen duten lerro paraleloez beteko dugu.

Isiltasuna(k), eromena, azpimemoria... landa lanean aurkitu dudana, nik neuk izandako krisia, hau da, ikerketa lanean zehar aurrez aurre aurkitu ditudan elementuek beste idazketa batera eramaten ninduten etengabe. Beste idazketa bat aurkitu nahi nuen, hala eskatzen zidan egiten ari nintzenak. Idazketa bat zeinarekin eroso sentituko nintzen. Egitura, narratiba eta estetikari buruz gogoeta sakonagoa egin behar izan dut, nire bidea aurkitu, beste hainbatek egin dutena ikusi, nire proposamena osatu eta amaitzeko, azaldu.

Idazketaren aukera anitzak direla eta, Cixous-en testuak aipatzen dira askotan bere idazkera testu akademikotik haratago baitoa. Kontraesan asko daude, hitz asko jarraian batzuetan bata bestearen atzetik, kontrakzioak egiten ditu, hitz-jokoak, hitz asmatuak erabiltzen ditu. Susan Sellers-ek dio oso zaila dela Cixous-en testuen itzulpena egitea (Sellers, 1994:3); batzuetan ez

⁸⁸ Serry Beth Ortner-ek (2006) planteatzen duen zentzuan erabiltzen dut ikerketa lan honetan *agentzia* kontzeptua. Sujetuek testuinguruarekin elkar-eragiteko, boterea negoziatzeko eta baita egoerak aldatzeko ere duten gaitasuna. Ortner-en arabera, gakoa intenzionaltasuna da (kontzientzia maila handia edo txikia izan), horren bitartez aktore sozialek euren proiektuen (helburu, desio, behar, sinismen eta kulturalki eraikitako ezagutzak) erdiespena bilatzen dute. Ortner-ek ez ditu, dena den, muga errealak ahazten eta ekintza aukera eta baldintza zehatz batzuen barruan ematen direla zehazten du.

ditu bukaerako puntuak jartzen, lerro batetik bestera pasatzen da koma batekin edo ezertxo ere jarri gabe eta hitz bakar bateko esaldiak osatzen ditu maiz. Egoera bakoitzak,

gai bakoitzak,

momentu bakoitzak,

sentsazio bakoitzak...

... testua era batera edo bestera osatzera eraman zaitzake eta lengoia eta egitura zerbait malgua bezala ikusteak bide hori egiten lagunduko digu.

Narratiba etnografikoaren garrantzia kontutan hartuta, eta une honetan nik aukeratu dudanari buruz hitz egin eta hura azaldu aldera, bi izan dira eraikuntza horretan gida bezala aukeratu ditudan elementuak. Alde batetik isiltasuna(k) eta beste alde batetik lengoia bera. Isiltasuna(k) presente dago/daude gizarteak berak isilarazi eta baztertzan dituen pertsonengan, ikerketa lan honen protagonistak kasu. Eta lengoiairekin, "buruko gaixo" bezala tratatuak eta diagnostikatuak izan diren eta diren pertsonak erabiltzen duten ahozko edo idatzizko hitza(k) esan nahi dut. Psikiatrikoko artxiboan aurkitu ditudan eskutitzetan eta psikiatrikoan bertan egindako literatura tailerrean aurkitutako komunikazio moduak hartu ditut oinarritzat, eta horrek eraman nau, lengoia zientifiko-logiko eta arrazionalistatik at dagoen batera, edo behintzat biak konbinatzera. Izan ere, badira doktorego tesi honetan teorikoagoak diren zatiak eta horietan lengoia akademiko-zientifikoa erabili dut, nik neuk erabat barneratuta baitaukat hainbat gai ukitzen ditudanean lengoia mota hori erabiliko dudala eta erosoago sentitu naiz; baina beste hainbat gauza, lanaren abiapuntua eta landa lana esaterako, ezin nituen nahi bezala azaldu idazketa mota horrekin, beste bide bat hartu dut.

Ordenagailuko pantaila zuria ikusten nuen...

...hitzez bete behar nuen orri zuria...

...baina nondik hasi?

Nola egin?

Eskuarte nuen ikergaiak malgutasuna eskatzen zidala sentitzen nuen, kontraesanetarako tartea behar nuen, ondorio eta arrazoi garbietara iritsi beharra izan gabe, askeago sentitu nahi nuen orri zuriaren aurrean, pantaila mihisea balitz bezala ikusi eta landu...

P
a
n
t
a
i
l
a
h
i
t
z
e
z
marraztu

Honenbestez, joan gaitezen elementuz elementu. Isiltasunari/isiltasunei dagokionez, nola transmititu isiltasuna(k) testuaren eraikuntzaren bitartez? Aukerak anitzak dira, eta nirea esaldi motzak, errepikapenak, onomatopeiak eta elipsiak erabiltzea izan da. Esango nuke era horretan pentsamendu, emozio eta sentsazio etenak eta zeharo ezberdinak transmititzea lortzen dudala. Errekurtso hauek erabilia, errotzat jotako pertsonak eta kasu honetan emakumeek gizartearentzat osatzen duten isiltasuna, hutsunea, absentsia transmititzen da eta era berean, hitza ez den beste bide batez komunikatzeko duten joera irudikatuta geratzen da. Esaten denak esaten ez denak

bezainbesteko garrantzia duela transmititzea da helburua; haikuen⁸⁹ antzera, esaten ez den hori lehen mailara ekartzeko modu bat da. Onomatopeien erabilerak, bestetik, egoera eta sententzioetara esaldi luze eta korapilatsuek baino gehiago eta zuzenago gerturatzen gaituztela irizten diot.

Aukeratu dudan eta aipatu berri dudan idazketa motak testu etnografikoaren eraikuntzan beste elementu bat sartzeko aukera ematen dit: hutsunea edo espazio zuria. Esaldi motzak egiterakoan eta lerro batetik bestera hitz bakar batekin igarotzerakoan, orrialdean espazio zuriak presentzia handia hartzen du. Asko izan dira isiltasuna orrialdearen zuriarekin identifikatu duten autoreak. Honela, Laurence Sterne (1713-1768) idazleak *Tristram Shandy*⁹⁰ liburuan espazio zuria erabiltzen du hainbat gai jorratzeari uko egiteko eta irakurlea espazio hori betetzera gonbidatzeko (Marco, 2001:129). Antonin Artaud-ek hori bera lortu nahi zuen, alde bisualak ere transmititu egiten zuela agerian utziz.


“Artaud-ek bere poesiaren bitartez zabaltzen ari zela sentitzen zuen absentsia liburuaren beraren itxura bisualarekin zegoen estuki lotuta, orri zuriak erabiliz”
(Barber, 1993:26-27).

John Cage konpositore, filosofo eta artistak *Silence: lectures and writings* (1961) liburuan isiltasunak zurian utzitako hutsuneen bitartez idatzi⁹¹ zituen. Azken finean, testuak zuria(k) behar d(it)u ahozko hitzak isiltasuna(k) behar d(it)uen bezala.

⁸⁹ Haikuak japoniar poesiak duen formatu bat dira, isiltasunari espazio handia uzten zaio, honen bitartez eta honek berak transmititzen baitu gehien.

⁹⁰ Bederatzi bolumentan argitaratu zen, lehen biak 1759. urtean.

⁹¹ Idatzi jarri dut Cage-n ustez isiltasun absolutua ez delako existitzen eta zerbait zurian uzteak ere komunikatzen duelako.



**Silence: lectures and writings* (1961:109) liburuaren zati bat.

Hau kontuan hartuta, isiltasun(ar)en eta batez ere hutsuneen errepresentazioa egiteko zuriuneak jo ditut aukera onena bezala. Gainera, “obra-etnografiko-totalaren” proposamenaren barruan kokatu daitekeen erabaki bat da, orrialdearen erabilpen horrek testu etnografikoaren estetikari ere garrantzia ematera eramaten baikaitu.

Dena den, zuriuneak direla-eta aurkitu dudak kontraesan bat azaldu nahiko nuke. Artxiboaren analisisan irakurritako testu asko (ingresatutakoak) orrialdean apenas zuriunerik gabe idatzita zeuden. Orrien betetze maila hain zen handia, batzuetan horizontalean idatzita zeudela eta gero gainetik bertikalean. Honen adibidea jarri dut aurretik, *Artxiboko testuak* atalean: 1944 eta 1947 urteetan ingresatu zuten Gregoriaren eskutitzak, hain zuzen. Gregoriak erabiltzen duen idazteko modu horrek ireki zidan orrialdearen erabilera ere hautaz egiten den zerbait bezala ikusteko bidea. Eta bide hori hartuz gero, orrialdea bete-bete egitea bezala egin dezaket hutsik utzi, azken finean, biak ala biak lirerateke orria mihise bat bezala erabiltzeko nahia edo beharra⁹².

Sontag-ek, André Breton (1896-1966) idazle eta teoriko surrealistaren obra aipatzen du esanez: “isiltasunaren, hutsunearen eta murrizketaren nozioak, begiratzeko, entzuteko, etab. formula

⁹² Kontuan hartu behar da lehen esan bezala ingresatutako hainbat pertsona paper faltaz kexu zirela eta beraz, horrek ere bultzatu zitzaizkien orrialdeak oso osorik probestera.

berriak zirriborratzen ditu” (1997:26). Hain zuzen, Breton-ek artistak bete beharreko espazio zuria beste era batera erabiltzeko proposamena egin zuen: «bazter betea». Espazio artistikoaren kanpoaldean aritu eta barrualdea zurian uztea proposatu zion artistari. «Bazter betearen» ideia egokitu eta neure egin nahi izan dut tarteka beteta egon “beharko” liratekeen orrialdearen espazioak zurian utziz. Hori erabiliz adierazi nahi dudana zera da: bazterrak hutsik daudela iruditu arren, bazterrak beteta daudela – eta horretarako ez dira hitzez bete behar, euren ezaugarri nagusia (inposatutako edota aukeratutako hitzik ez) galduko luketeelako – eta gainera erdigunea (hau da, hitzez azaltzen duguna) egituratu eta baldintzatu egiten dutela – bazterreko zuriune horiek orrialdearen erdigunean presentzia handia hartuko dute. Bazterren eta erdialdearen, bata eta bestearen, arteko mugak hautsi eta bata eta bestearen arteko elkarreragina agerian utzi nahi dut orrialdearen erabilera honekin.

Obra baten lengoiaren egitura, aurkezpena eta forma kulturalki eta sozialki baldintzatuta daude. Beraz, “ez arrazionaltzat” diagnostikatzen diren pertsonekin lan egitea testu etnografikoaren eraikuntzarekin esperimentatzeko aukera tentagarria da. Foucault-en arabera, eromena esaten ez den zerbait da, «obraren absentsia» izango balitz bezala da (in Derrida, 1989:63). Baina, «obraren absentsia» baino gehiago nik esango nuke, esperimentazioa dela, subertsioa.

Beste adibide bat Mikel Laboa (1934-2008) kantautorea da. Laboak, neuropsikiatra bezala egin zuen lan ia 20 urtez. Bere “*Lekeitioak*”, abesti esperimentalak izan ziren, soinu onomatopeikoz, oihuz eta alarauez beteak. Egiten zuenari buruz galdetzen ziotenean, Laboak erantzuten zuen psikiatrian lan egiteak beste mundu bat existitzen zela erakutsi ziola.

Beste mundu batzuk.

Beste lengoia batzuk.

Beste egitura batzuk.

Beste forma batzuk.

Beste batzuk...

Zuriunek eta orrialdearen erabilera beste era batera egiteak, ikerketa lan honetan berebiziko garrantzia duten kontraesanak azaltzen lagundu dit. Esan nahi da, kontraesanak bisualki adierazteak, indar gehiago ematen diela, eta ezkututzen saiatu ordez, euren presentzia azpimarratzen duela. Batez ere, esaldi motzekin erabili dut idazteko modu hori, hainbat lerro ezker aldean daude kokatuta, besteak eskuinaldean.

Azken batean, aukeratu dudan errepresentazioa, isiltasun(ar)ren aktibotasuna, lengoia alternatiboak eta hutsuneen agentzia idazkeran bertan transmititzeko ahalegin baten emaitza izan da.

II. FRANKISMO GARAIKO ISILTASUNE(T)AN ARAKATUZ: EROETXEETAN SARTUTAKO EMAKUMEEN ISTORIOAK

time-bomb...
No more, I will accept no more
 be sorry no more
be quiet no more
They will have to hear my story
and they will not dare to say it
 made me mad
Of course it made me mad
After all they pathologised
 my history
No more, no more
my shouts today will be
 so loud
My tears drops of pure fire
you will no longer take away
 my past
for today I take my life
into these two hands
I am a time-bomb
and I have started thicking
(Walkerdine, in Ussher, 1992:288)⁹³.

Ikerketa lan honen bigarren zati honetan hutsune bezala identifikatu ditudan 8 emakume eroen istorioak izango dira protagonista. Hutsune direla diot emakume hauen inguruan sortu z(ir)en isiltasunagatik/isiltasunengatik eta memoria ofizialetik kanpo daudelako. Zortziak 1937 eta 1950 urte bitartean ingresatu zituzten Gipuzkoako hainbat psikiatrikotan. Atal honetan, hutsuneak uste baino beteagoak daudela eta testuinguruaren eraikuntzan ezinbestekoak direla frogatzea da nire asmoa. Hau egin ahal izateko artxiboaren analisia izan dut oinarri.

Ustez historiagileen eremu izan den artxiboa, geroz eta gehiago erabiltzen ari da psikiatriarekin zerikusia duten ikerketetan, CSIC-eko Zientziaren Historia departamenduko Huertas-ek dio kasu klinikoekin lan egiteak baduela abantaila bat: “Argi dago, historia klinikoak, lantzen ari

⁹³ Ez gehiago, ez dut gehiago onartuko; berriro atsekabetu ez; isilik egon berriro ez; Nire istorioa entzun beharko dute; eta ez dira ausartuko horrek erotu egin nauela esatera; Eta noski erotu egin nauela; Azken finean, nire istorioa patologizatu egin dute; Ez gehiago, ez gehiago; nire garrasiak gaur oso indartsuak izango dira; Nire suzko malkoak; ezingo duzu denroa luzeagoan nire iragana ezabatu; gaur nire bizitzaren jabe egingo naiz; bi esku hauekin; Denbora-lehergailua naiz; eta tik-tak egiten hasi naiz.

garen garaia bat edo beste izan, ikerketa mediko-historikoetarako lehen mailako iturria direla” (2001a:8). Aipatu behar da, dena den, psikiatrikoetako artxiboak azken hamarkadetan ireki direla ikertzaileentzat, eta ez denak. Beraz, orain arteko psikiatriaren historiak psikiatreek eurek idatzi zutena izan du oinarritzat.

Hirugarren zati hau, hiru zatitan banatu dut. Lehen zatian, artxiboaren analisiaren esperientziak nigan izan duen garrantzia eta ikuspegi aldaketa aztertzen du artxiboa bera ikuspuntu antropologiko batetik begiratu nahi izan dudalarik. Bigarren zatian, artxiboan aurkitutako emakumezkoen txostenak erabiliz euren *antibiografiak*⁹⁴ osatu ditut. Eta azkenik, hirugarren zatian, 8 emakume hauen istorioetatik abiatuz testuinguru historikoaren birplanteamendu bat egin dut eta horretarako, istorio horietan guztietan esaten dena eta esaten ez dena hartu ditut kontuan.

⁹⁴ Dagokion atalean emango ditu *antibiografiari* buruzko azalpenak.

II. 1 ARTXIBOAN EMANDAKO EGUN HAI EK...

“The world’s earliest archives of libraries were the memories of women”

(Minh-Ha, T. T., 1989:121)

Arxtiboaren analisisian lau hilabete eman nituen, 2012. urteko azaroan hasi eta 2013. urteko otsaila bitartean. Lauzprobost ordu ematen nituen egunean artxiboko mediku- txostenak irakurtzen. 1937. urtetik 1950. urtera bitartean⁹⁵ psikiatriko hartan ingesatutako 458 pertsonen txostenak irakurri nituen: horietatik 232 gizona ziren eta 226 emakumezkoenak. Orohar, txostenen barruan aurkitu zitezkeen:

- Medikuen – psikiatraren – oharak (eredu itxia zuten orrialdeetan).
 - Instituziokoak ez ziren beste psikiatra batzuen txostenak.
- Mojek edota erizainek ingesatutako bakoitzari buruz osatutako egunerokoak.
 - Ingesatutakoak idatzitako eskutitzak eta testuak.
- Ingesatutako senideek psikiatrikoko arduradunei edota ingesatuei idatzitako eskutitzak.

Ahoz aho kontatutakoak, istorioak bezala jasotzen ditugu, esperientzien kontakizun subjektibo bezala, memoriaren eraikuntzan baliagarri izan daitezkeenak baina akademian zientzia egiteko askotan baliagarritzat jotzen ez ditugunak. Orain arte, ikerketa lan honetan eraiki dudana

⁹⁵ Aurrerago azalduko dut urte hauen aukeraketaren zergatia.

unibertsoa ahoz aho kontatutako – edo hobeto esanda ez kontatutako – istorioetan oinarritu dut. Bai, ikerketa lan honek badu historikotik, baina beti ere perspektiba antropologiko batetik. Horregatik, artxiboko lanari ere horrela begiratu nahiko nioke. Artxiboan aurkitutakoa lantzeaz gain, eta horretan sakonki sartu aurretik, artxiboan bizi izan nuen esperientziaz arituko naiz. Izan ere, esperientzia horrek artxiboaren agentzia bizitzera eraman nau.

Artxiboa, dokumentu idatzia, ahozotasunaren gainetik jarri izan da, eta nik neuk ere esango nuke ikerketa lan honetan artxibora sartzeko baimena lortzea nire helburu edo indarguneetako bat bezala ikusten nuela. “Hori gabe ez daukat ezer”... pentsatzen nuen hasieran. Elkarrizketak, ahozko istorioak, ez ziren nahikoa, edo ez nituen nahikoa bezala kontsideratzen. Idatzita zegoena ikusi nahi nuen, kontatzen zutena frogatu nahian bezala. Laura Benadibak esaten duen moduan objektibotasunaren izenean,

“ahozko transmisioa ahaztua eta gutxietsia izan da historiagile profesionalen aldetik, XIX. mendean “historia zientifikoa” kontsideratzen zenaren oinarriak ezarri zituztelarik. Garai hartan hasi zen Historiaren profesionalizazioa eta, disziplina bezala eraikitzerakoan, historiagileek idatzizko dokumentua erdigunean duen metodoa bereganatzen dute” (2007:17).

Archivo hitzaren etimologiari dagokionez, grekeraz “eraikin publikoa” eta “erregistroak gordetzen diren tokia” esan nahi du: “*Arkhe*-tik hasita, hasiera, lehen tokia, gobernua ere esan nahi du [...] ondorioztatu dezakegu artxiboak, hasieratik, boterea sostengatzen duela” (Taylor, 2003:19).

Eta horra hor kontraesan handi bat: memoria ofizialetik kanpo dauden emakumeen istorioak memoria ofiziala osatzen dutenak bezain garrantzitsuak direla frogatu nahi nuen (besteak beste) eta horretarako memoria ofizialak erabiltzen duen metodoa ezinbestekoa zela iruditzen zitzaidan.

Bai.

Baina...

Azken urteotan, geroz eta gehiago dira ahozko kontakizunak ikerketetan balioagarriak direla diotenak. *Historia* egiteko ahozko istorioak erabiltzea ikerketa askoren ondoren ondo – oso ondo – justifikatu eta frogatu nahi izan da eta ikertzaile askok ateratako ondorioa da ahoz aho kontatutako lekukotasunek, garaiko paper ofizialek bezainbesteko garrantzia dutela. Miren Llona-k dio:

“Memoriak historiaren aurrean izan duen suspertzea, subjektibotasunak, orainak eta interpretazioak, iraganaren, objektibotasunaren eta egiaren gainetik lortu duten nagusitasunaren adierazgarria da” (2012:3).

Honen aurrean nire galderak dira:

Benetako banaketa egiten al dugu herraminta metodologiko subjektiboak eta objektiboak daudela esaten dugunean?

Gure indar guztia subjektiboak diren herramintak objektiboak bezain baliagarriak direla frogatzean jarri dugu, baina existitzen al dira objektiboak diren herramintak?

Nik ezetz esango nuke. Antropologian, oro har, ez dago subjektibotasunarekin arazorik, baina metodologia batzuk besteak baino subjektiboagoak direla aipatzen dute antropologo askok gaur egun ere. Adibidez, Sebastiá Trias-ek, James L. Peacock-en hitza jasotzen du, esanez, landalana egiten duen antropologiak ikertzailearen eta komunitatearen arteko “konpromezu iraunkorra” eskatzen duela, eta artxibo-antropologia, berriz, antropologoaren eta ikergai dituen objektuen arteko “urruntasunean” oinarritzen dela (Trias, 2005:76). Nik artxiboan egindako lanean, urruntasuna baino gehiago gertutasuna sentitu dudala esango nuke. Egia da, ikertzen ari zarena beste momentu batean gertatu zela, eta agian Peacock-ek horri egiten dio erreferentzia, baina artxibo lanak asko du gertutasunetik. Claude Lèvi-Strauss-ek zioen “artxiboak ‘gertatutakoaren’ izaki haragitua direla⁹⁶” (1997:352).

Ez hemen, ez han.

Ez orain, ez garai hartan.

Erdibidean.

Erdibide horren atmosfera propioan.

⁹⁶ Gaztelera erabiltzen den esaldia: “Los archivos son el ser encarnado de lo “acontecimentado”.”

Artxibo historikoak XIX. mendean sortu ziren eta euren helburua gordailu dokumental zaharrak ordenatuz eta sailkatuz, historiari funtsezko oinarri bat ematea zen (Mercant, 2005:80). Baina, zentzu horretan, artxiboak, “esan daitekeenearen legea dira” (Foucault, 2002:219).

“Artxibo historikoek denboran kokatzen laguntzen digute; atzerabegirako kontzientzia historikoaren gogoeta eta alderaketa egiteko aukera ematen digute. Baina, jakin behar dugu, era berean, artxiboak selektiboak direla klase, arraza eta generoari dagokionez” (Assmann, 2008:106).

Artxibo batean aurkitzen ditugun dokumentuei, subjektibotasunera eramango gaituzten hiru alderdi – edo gehiago, baina nik hiru azpimarratuko ditut – ikusi ahal diezazkiekegu: alde batetik, idatzi zituenarena, bestetik ikertzailearena eta hirugarrenik (aurrerago azalduko dudana) dokumentuak berak duen agentzia:

“Artxiboaren analisiak alde pribilegiatua edukitzea dakar: guregandik gertu dagoena, baina gure egunerokotik ezberdina dena, gure oraina inguratzen duen denboraren orla da, gure orainaren gainean dagoena eta bere alteritatean kokatzen duena; guregandik at, mugatzen gaituena da. Artxiboaren deskribapenak bere aukerak (eta bere aukeren nagusitasunak) zabaltzen ditu gureak izateari utzi dioten diskurtso horietatik abiatuta; bere existentziaren ataria dagoeneko esan ezin dugun horretatik banatzen gaituen mozketan dago, gure praktika diskurtsibotik at erortzen den horretan; gure lengoaiaren kanpoaldearekin hasten da; bere tokia gure praktika diskurtsibo propioen marjina da” (Foucault, 2002:222).

Azken finean, artxiboan gorde behar dena zer den norbaitek – bere testuinguruak eraginda – erabaki du; medikuen txostenetan idazten zena dokumentu horiek idazten zituenak – bere testuinguruak eraginda – erabakitzen zuen; artxiboko lana egiten duen ikerlariak – bere testuinguruak eraginda – txosten konkretu batzuk aukeratu ditu; eta horrela jarraitu genezake, doktorego tesi honetan eragina duten alderdi guztiak aipatuz. Alexandre Surrallés-ek J.J Gibsonen (1979) hitzak gogoraraziz dio “objektu eta sustantzien iraunkortasun erlatiboa duen baina gertaerek dinamizatzen duten inguru batean, gauzak ez dira era pasiboan antzematen, baizik eta antzematen dituen subjektuari eskaintzen dioten garrantziaren arabera” (Surrallés, 2005:3). Subjektibotasunaren eta objektibotasunaren artean eraikitako dikotomia bertan behera geratzen da era honetan, Gibson-en teoriaren arabera sentsazioaren eta intelektuaren arteko dualtasun kartesianoa baztertzen da; ezagutza, zuzeneko pertzepzioaren bitartez lortzen den

sentsazioaren kontinuitatean dago, eta zentzua, beraz, afektibotasunean errotuta dago (Ibidem:4).

Honek guztiak bidea irekitzen dit artxiboaren agentziaz hitz egiteko. Ikerketa lan honetan artxiboa espazio konkretu bat eta dokumentu mordoa baino gehiago izan da. Artxiboak bere bizitza propioa izan duela esango nuke, bere bizitza propioa eta ikertzaileak berak emandakoa, bien arteko elkarreragina. Nik nire esperientziaren araberrako interpretazio bat egin dut, baina artxiboak ere muga batzuk eta baldintza batzuk jarri dizkit: “dokumentuak ez du historia bat bakarrik kontatzen, baizik eta historia bat dauka, eta baldintza hori ere aztertua izan beharko litzateke” (Mercant, 2005:81). Ez dugu dokumentuek esaten dutenarekin bakarrik lan egiten, eurak ere badira eurekin izaten ari garen harreman horren partaide eta sortzaile. Honenbestez, irristakorrak diren mugak onartzera iritsi gaitzke:

“Historiagileek euren ikerketa eta galderak artxiboen hedadura eta mugetara egokitu behar dituzte, literatura idazleek hutsuneak betetzeko askatasuna daukate” (Assmann, 2008:106).

Hain zuzen, artxibo-analisisa egiten ari nintzela konturatu nintzen ez nuela haren gaineko erabateko kontrolik; ez zen nik nahi nuena lortzeko objektu edo bitarteko hutsa. Toki hark eta dokumentu haiek bazuten nigan eraginik, agentzia bat zuten, bere araua propioak jartzen zituzten eurek ere: “Mundu materialak gizakiengan eragina duenaren nozioa *materiaren agentzia*⁹⁷ bezala deskribatu da” (Jones, 2004:330). Eta zentzu horretan Lambros Malafourisek egiten duen gonbidapena jarraitu nahi izan dut: “Pausu bat urrunago joan gure fokua oraingo honetan esplizituki kognizioak eta materialtasunak bat egin, elkar katalizatu eta eraikitzen duten eremuan jarritz” (2004:53). Gonbidapenari helduz, artxiboan, kognizioak eta materialtasunak bat egiten zuten eta ez du batek bestea gainditzen – kognizioak materialtasuna –, baizik elkar eragiten dute eta elkar eragite horretan elkar eraikitzen dira.

Dokumentu haiek esku artean edukitzeak sortzen zidan sentsazioa...

... paper horixka...

... hezetasunez betea...

⁹⁷ Jatorrizko esamoldea: *material agency*.

... paper zaharraren usaina...

... izkinak higituta zituena...

... eskuzko idazketa, batzuetan ulertezina...

... lumaz, boligrafoz, urdinez, beltzez...

... kartoi txikietan zeuden elektroshock-en taulak...

... urdinez, gorritz eta beltzez beteak...

... puntutxoak eta gurutzetxoak...

... hasieran ulertezin egiten zitzaizkidanak...

... eskutitzak...

...ingresatutakoek idatzitakoak...

... euren senideenak...

... medikuen artean bidalitakoak...

Tim Ingoldek dio “materialen mundu batean ezer ez dagoela inoiz amaituta: “Dena izan daiteke zerbait, baina zerbait izaten beti dago beste zerbaitetan bihurtzeko bidean” (2012:435). Eta zentzu horretan, materialen propietateak ezaugarritzat baino gehiago mugimenduan dauden istoriotzat hartzeko proposamena luzatzen du. Artxiboa ez da amaitutako zerbait, eta bertan irakurritako eta eskuartearen edukitako dokumentuak – horiak, hezeak, usain gazi-gozodunak – ez dira amaitutako zerbait, ihesak dituzte, filtrazioak, bukatutako zerbait baino gehiago istorioak dira, etengabe mugimenduan dauden istorioak.

Elkarreragina.

Elkarreraikuntza.

Artxibo eta antropologia, antropologia eta artxiboa

Egun haietaz oroitzen naizenean isiltasuna, hotza eta isolamendua sentitzen ditut.

(Isiltasuna...)

Hotz...

Hotz...

Hotz...

Hotz...

Hotzaaaa.....

Isolamendua...

Gogoan dut artxibora sartzeko baimena eman zidaten eguna, ez nuen arazo handirik izan. Aurretik beste instituzio batean jaso nuen ezezkoa zela eta, zailagoa izango zela pentsatu nuen. Baina kasualitatez edota kausalitatez, artxiboan interesa zuen psikiatra batekin egin nuen topo.

Gogoan dut ez nekiela egin nahi nuena nola azaldu. Batzuetan pentsatzen nuen egitera nindoanak mugak jarriko zizkidala eta agian ni neu nintzen helburu zehatza ez nekiena.

Gogoan ditut hasieran eman nituen azalpenak, oso zabalak eta zehaztapenik gabeak izan ziren. Urrun kokatzen nuen gaia, gaur egun egiten ari direnari buruzko hausnarketa edo ikerketarik ez nuela egin nahi azpimarratuz. Banekien, ondo jakin ere, horrek arazoak eta zailtasunak ekar diezazkida keela.

Gogoan dut psikiatrikoko arduradun nagusiak bere bulegora deitu eta dokumentu batzuk sinatzeko eskatu zidala. Egitera nindoanaren inguruan mugak zeintzuk ziren zehazten zen dokumentuetan, eta bertan agertzen ziren pertsonen intimitatea babesteko konpromisoa hartu behar nuen.

Gogoan dut neure buruari galdetzen niola ea eskubiderik ote nuen beste pertsona batzuen bizitza intimoan sartzeko. Ikerketa baten izenean... nire doktore-tesia lortzeko asmoz... edota nire burua lasaitzeko... baina zein eskubide nuen nik haien bizitzen pasarterik gogorrenetan muturra sartzeko? Akaso nonbaitetik askatuko nituela pentsatzen nuen?

Eta euren nahia?

Euren gogoa?

Euren mugak?

Gogoan dut kontraesanak eta kontzientzia nituela etengabe ate joka. Etengabe. Artxibora sartzeko baimena lortu eta bertan eman nituen egun haietan guztietan. Baita oraindik ere.


...oraindik ere.

Gogoan dut lehen egunean bertara sartu eta ikusi nuenarekin izan nuen sentrazioa. Erizain batek lagundu zidan artxibora. Txosten zaharrenak hartu nituen, Veraren garaian bertan ingresatutakoen istorioak ikusi eta aztertu ahal izateko, testuinguruari buruzko datuak lortzeko. Psikiatriko hau, 1937an ireki zuten eta, beraz, txosten zaharrenak garai hartakoak ziren. 1937. urtetik 1950. urtera bitarteko txostenak irakurtzeko erabakia hartu nuen.

458.

458 txosten.

* Duela urtebete baino gehiago ez naizela artxiboan sartu eta irudi hau buruan geratu zaidan irudian oinarrituta egin nahi izan dut, beraz, ziurrenik errealitatea ezberdina izango da.



Egunak eman nituen artxiboan sartuta, bakarrik eta isilpean. Eraikin nagusitik kanpo dagoen edifizio txikiago batean dago. Bi gela ditu. Irudian 1 eta 2 bezala izendatu ditudanak. 1 gelara sartzeko – handiagoa eta garrantzitsuena txosten guztiak gordeta dauden armairuak bertan baitaude –, 2 gelatik pasa beharra dago. Hau da, 1 gelak ez du leihorik ez eta kalera ematen duen aterik. Izan ere, 1 gelak segurtasun neurri batzuk bete behar ditu txostenak seguru eta ez

hondatzeko baldintza egokietan egon daitezten. Beraz, kaletik 2 gelara sartzen zara. Gela txikiagoa da 2 gela, mahai bat, aulki bat, apalak, bergoailua eta erratza gogoratzen ditut bertan. Marrazkia egiten ari nintzela konturatu naiz, aulkian eskubialdean ikusten den paretari begira esertzen nintzenez ez dudala nire atzean geratzen zen ezkerreko paretan zegoena gogoratzen.

2 gelan eman nituen orduak, egunak eta hilabeteak. Hiru hilabete. Hara iristen nintzenean, erizain batek atea irekitzen zidan, 2 gelan sartzen ginen eta ondoren 1 gelako atea irekitzen zidan. Nik irakurri nahi nituen txostenak zeuden armairua ireki eta mordo bat hartzen genituen – hasieran asko eta gero gutxiago, egin ahala konturatu bainintzen txosten askori orduak eskeini behar izaten nizkiela. Txostenak 2 gelako mahai gainean jarri eta erizainak alde egiten zuen. Hasieran irekita uzten zuen 1 gelako atea, gehiago behar banituen nik neuk hartu nitzan, baina bi asteren ondoren txostenak hartu eta 1 gelako atea ixten hasi zen.

Esan bezala, psikiatrikora iritsi, autoa utzi eta erizain bati deitu behar izaten nion artxiboko atea ireki ziezadan. Erizainak alde egiten zuenean, hantxe gelditzen nintzen, bakarrik, gela txiki hartan eta berogailua martxan (neguan egin nuen artxiboko lana). Berogailua gorria eta beltza zen, aire beroa botatzen duten horietakoa, zaratatsua oso. Lehen txostenak berokia eta bufanda soinean irakurtzen nituen, gela berotu arte itxoin behar izaten nuen haiek gainetik kentzeko.

Zarata.

Hotza.

Bakardadea.

Eta istorio haiek...

Istorio haiek... zarata txiki bat nahikoa izaten zen aulkitik mugiarazten ninduen susto bat sentitzeko.

Baina, zarata.

Hotza bakardadea.

Eta istorio haiek...

“Ingresa el día 9 de marzo por la tarde, pone mucha resistencia para bajar del coche, repite muchas veces ‘que no bajará del coche porque la han traído engañada’ es necesario bajarla del coche por violencia, la suben a la habitación, esta muy agitada, habla insultando a su madre, a sus hermanas, y esposo dice “La maldigo a mi madre, es una mala madre esto no se hace con una hija, despreciarme, abandonarme de esta manera, no busco mas que cariño y ni siquiera esto me quieren dar, son unos ingratos, tanto como yo he hecho por ellos y me lo pagan encerrándome en un sanatorio”⁹⁸.

“Hermana deme algo que me calme este sufrimiento, algo que me haga dormir, que me haga olvidar mi tragedia, no quiero ver más a ese hombre, ni oír hablar de él, cuando habla de su esposo dice ‘mi exmarido’”.

“La oigo llorar con mucho desconsuelo, entro en la habitación y la encuentro, con el crucifijo que hay en el cuarto, en las manos repitiendo. ‘Jesus! Tu que eres Dios no me dejes olvidar que soy cristiana, que soy católica, que tengo que salvar mi alma, estoy enloquecida, esta noche haré un disparate’⁹⁹.

Baziren luzeak ziren txostenak, oso luzeak; orduak ematen nituen pertsona haien istorioarekin. Gehienetan barruraino sartuz. Eguneko lana amaitutzat ematen nuenean, bertan zegoen telefonotik erizainari deitu behar izaten nion agertu arte itxoin, txostenak eman, hark gorde, eta autoa hartzen nuen, irakurritakoak zeharo ikututa. Istorio haiek nire buruan bueltaka nituela.

Bueltaka.

Autoan.

Bueltaka.

⁹⁸ Artxiboan jasotako idatziak literalki kopiatu ikerketa lan guztian zehar.

⁹⁹ Moja baten idatziak 1940ko martxoaren 9koak.

Askotan istorio haietatik urruntzea kosta egiten zitzaidan, eta badira, urtebete baino gehiago pasa arren, nire gorputzean grabatuta geratu diren pertsonak. Zergatik ziren istorio batzuk garrantzitsuagoak besteak baino?

“Continua igual para evitar se haga daño se le atan los pies y las manos, echa mucha saliva, tiene angustia”¹⁰⁰.

Zergatik aukeratzen nituen zita batzuk eta ez besteak?

“Está más tranquila que ayer mañana «Es que ya he relinchado esta mañana. Me salía de dentro, tenía necesidad...» Ella llama relinchar a una especie de mugidos que ha hecho varias veces seguidas”¹⁰¹.

Zergatik kopiazen nuen txosten bat eta ez beste bat?

“Tratamiento de Electro Shok con ataque al 3º tiempo, Que le hace reaccionar muy bien. Muy callada y preocupada porque «No sé que me ha pasado a mí para estar así...» Lloro desconsolada. Muy obediente come sin titubeo lo que le sirvo...está triste y cada vez que nos acercamos a ella se echa a llorar”¹⁰².

Argi dago ikerketa egin aurretik ditugun aurreiritziek, ikerketa egitera bultzatu gaituen ideiak eta helburuak eragin handia dutela egiten dugun aukeraketan. Bilatzen ari garena aurkitzen dugu askotan. Ikusi nahi duguna ikusi. Txosten berberak bi pertsona ezberdinek irakurrita ere, bakoitzak berea aterako du, berea jasoko du, eta jakina berea aurkituko du. Kontziente naiz, artxihoan utzi dudanak, hemen jasoko ez dudanak, nire koadernoan apuntatu gabe gelditu denak

¹⁰⁰ 1944-02-06ko oharra, 26 urteko emakumezkoa, bere nagusiaren baimenarekin ingresatua.

¹⁰¹ 1944-12-21eko oharra, 42 urteko emakumezkoa.

¹⁰² 1945-04-21eko oharra, 55 urteko emakumezkoa.

hemen jasotakoak bezainbesteko garrantzia eduki dezake. Begiradan dago sekretua. Begiratzen duen horrek sentitzen, ikusten, ulertzen, asmatzen, idazten... duen horretan guztian eta baita artxiboak ematen dionean.

“Habla por teléfono con su madre en los mismos términos de siempre. «Haré todo lo que me digas pero llévame a casa...»”¹⁰³.

¹⁰³ 1945-07-13ko oharra, 17 urteko emakumezkoa, aitaren baimenarekin ingesatua, helburua: *“Enviada para reeducación”*, aitak lehengusuarekin duen harremana uztea nahi du, medikuaren oharraren arabera: *“En Navidades el primo le pidió relaciones, ella consultó con sus padres que se negaron radicalmente. Desde entonces ha estado reñida con sus padres: no hablaba con ellos, se encerraba en la habitación, no comía y hacia toda clase de groserías a su familia y servicio”* (1945-06-27).

Papera

Batzuetan hauskorra eta bestetan sendoa, horixka, hezetasun puntutxo ilunekin gehienak, izkinak higatuta. Kartoizko karpeta marroi baten barruan, historio zenbakia eta izen-abizenak, askotan diagnostikoarekin batera.

“*Historia n°58*

*Elisa Goikoetxea Altuna*¹⁰⁴

Psicosis Sintomática”.

Karpeta ireki eta besteak baino lodiagoa zen paper bikoitz batean (medikuak betetzen zuena): familiako aurrekariak...

“*padre de 72 años – reservado – egoísta apenas mantiene relaciones con la familia. No se llevaba bien con su mujer. Madre: murió hace mes y medio, hernia estrangulada. De carácter afable. 5 hermanos 1 T¹⁰⁵ tuberculosis 17 años. 1 hermano mayor alcoholico. La enferma la mayor de las hermanas. Otra de tipo lepsomático¹⁰⁶ – Otra separada del marido*”¹⁰⁷.

Familiak emandako datuak...

¹⁰⁴ Historia zenbakia eta izena ez dira benetakoak, diagnostikoa bai, 1944. urtea, 42 urteko emakumezkoa.

¹⁰⁵ Zeinu hori idazten zen zendu egin zela adierazteko.

¹⁰⁶ Ernst Kretschmer (1888-1964) psikiatra eta neurologo alemaniarrek egindako tipologia morfopsicologikoen tipoetako bat da *lepsomatikoa* (grekeraz: leptos (argala) eta soma (gorputza). Kretschmerren arabera pertsona lepsomatikoak argalak dira, muskulo gutxiak, gantz panikulu murrizta dutenak, eskuak hezurtxuak eta finak, perimetro toraziko gutxi, sorbalda estuak eta txikiak. Euren izaera, Kretschmerren ustez hoztasunaren eta sentsibilitatearen artean mugitzen da eta izaera eskizoidearekin lotzen zuen, horrelako tipologiako pertsonak psikosi eskizofrenikoak izateko joera zutela zehaztuz. (<http://www.psychiatry.es/ta-tj-seccionesglosario-94/420-tipologa-de-kretschmer.html>) [Kontsulta data: 2015-01-16].

¹⁰⁷ Elisa Goikoetxea Altuna (aurreko emakumezko berberari buruz medikuak idatzi duena). Zita literalki erreproduzitura dago.

“Hace 4 meses esguince de articulación de tobillo que se repitió, y quedó con dolor y contractura antálgica sobre borde externo de pie derecho. Hace 15 días inyección intraarticular de ...¹⁰⁸ y enyesado. Al día siguiente comenzó a quejarse de dolor en el pie enyesado y tuvo fiebre con escalofríos internos. A los 2 días le quitaron el yeso y había una intensa reacción articular y dolor. La fiebre con escalofríos le duró una semana, aunque algunas tardes ha debido tener algo de fiebre. El 2º día de la fiebre el médico (Dr. Zubizarreta) le notó nerviosa, habladora. Después aumentó su excitación y tuvo ideas delirantes: era la representante de Dios y la dueña de la Casa Orbea. Desde hace 5 días más tranquila. Estos 3 últimos días más nerviosa hablando constantemente. Ayer la traen a la Clínica de San Ignacio (la veía el Doctor Elozegui) donde el doctor Bueno la envía hoy al Psiquiátrico. Allí la enferma y los familiares no quieren que esté por esto sus familiares la traen aquí”¹⁰⁹.

Ingresatua izatera doanak emandakoak...

“Hace mes y medio murió su madre, después de una intervención de hernia estrangulada que duró 3 horas. La enferma presenció la operación. No se alteró ni lloró. Desde entonces angustia, que aumentaba cuando alguien le recordaba la muerte de su madre. Ella tomaba café puro y una copa de anís, (que no tenía costumbre) le animaba y le ponía más ‘bizi’. Con la fiebre (le producía insomnio) tuvo unos dolores horribles y recuerda ahora lo que pensaba y lo critica bien “Yo creía enviada por Dios y que nadie me comprendía” “Oía cosas raras, algunas veces voces, otras veía monigotes. Cosas de la fiebre!” “Cuando bajo la fiebre me encontraba mejor. Ahora no quiero acordarme de ello”. “Todos me hablaban y me estorbaban, me daban cherrijana me daban demasiada luz. “Ahora me encuentro bien” “Solo un poco de dolor de cabeza”¹¹⁰.

Medikuaren datuak...

¹⁰⁸ Ez nuen idatzitakoa ulertu.

¹⁰⁹ Elisa Goikoetxea Altuna (aurreko emakumezko berberari buruz familiak esan duena). Zita literalki erreproduzitura dago.

¹¹⁰ Elisa Goikoetxea Altunak berari buruz esaten duena medikuaren arabera.

“Expl: Mujer gruesa, bien conformada, con inquietud motora, ojos brillantes, vivos, habla rápidamente, fuerte, con gestos decididos. Bien orientada temporal y espacialmente. Tendencia a los falsos reconocimientos. ‘A Ud. le conozco, de la Clínica San Antonio?’ Habla constantemente, con rapidez. Cuenta prolijamente pero sin desviarse del tema y sin asociaciones secundarias episodios de sus actuaciones con médicos. Todo le han hecho a ella ‘adrede’ sus familiares, las monjas y las enfermeras y recela y sospecha de todo. Sin interpretar delirantemente, pero sobrevalorandolo todo lo que le han hecho. Observadora, cualquier movimiento le llama la atención, pero no desvia de su tema. Labilidad afectiva... tono eufórico. A veces llora. Se queja de frío en el vientre ‘tendre las tripas envenenadas’ también ‘frío’ en la cadera. ‘me van a hacer los sesos agua...’ Influencias. Algunas ideas te tipo mágico ‘le cojo la mano porque así me entenderá’”¹¹¹.

¹¹¹ Elisa Goikoetxea Altuna (aurreko emakumezko berberari buruz medikuak esaten duena). Zita literalki erreproduzituta dago.

Ulertzeko zailtasunak

Askotan minutuak ematen nituen esaldi bat ulertu nahian. Gehiena eskuz idatzita zegoen, arraroa zen makinaz idatzitako dokumentuak aurkitzea. Kaligrafia mota batzuk ulertzea, hitz batzuk deszifratzea bezala zen. Adibidez:

“Queda durante un año en su casas refugiándose en la angustia y en las interpretaciones hipocondriacas y (¿?) Hace una vida retraida y no puede estudiar ni trabajar. Sus manifestaciones patológicas se caracterizan por la iteración e insulsez. No se observan síntomas primarios”¹¹².

Batez ere mojak eta erizainak ziren bertan ingresatutakoen egunerokoak idazten zituztenak. Ia egunero idazten zuten oharren bat, ingresatutakoak goizetik gauera egiten eta esaten zuena kontatuz. Egunerokoek zuzenketak ere izaten zituzten, medikuenak ziurrenik, “muy bien”, “bien”, “regular” eta horrelako notatxoak irakurri daitezke mojek eta erizainek idatzitakoaren ondoan, normalean gorriz eta batzuetan urdinez. Badira kasuak non zuzenketek dioten egunerokoaren oharra objektiboak izan behar zutela eta ez zutela idazten zuenaren iritzirik islatu behar.

Mojek eta erizainek komatxo artean erreproduzitzen zituzten ingresatutakoek esandakoak. Hasiera batean, ingresatutako pertsonen hitza entzuten ariko banintz bezala zen niretzat.

Sentimendua.

Desioa.

¹¹² 1949-04-20an medikuak idatzitakoa familiak emandako datuak oinarritzat hartuta, parentesi artean dagoena ulertzea ezinezkoa egin zitzaidan.

Beldurra.

Mina.

Nahia...

Baina mojek ingresatutako pertsonak esandakoa hitzez hitz gogoratzea ia ezinezkoa da, beraz, hitz horiek ere beste filtro batetik pasata bezala hartuko nituela erabaki nuen. Behintzat zuhurtziaz hartuko nituela.

Denborarekin, eta txosten asko irakurri ondoren, kaligrafia bakoitza bereiztera iritsi nintzen, baita bakoitzaren idazkera ere. Txostenen edukia gogorra zen, eta gainera hitz bakoitza deszifratzen denbora eman behar banuen, irakurtzen ari nintzena are gehiago iltzatzen zitzaidan barruan. Testu ulerterrazak iristen zirenean, lasaitua hartzen nuen.

Eskutitzak

Bazegoen modu bat ingresatutako pertsonen ahotsa entzuteko, hainbat txostenetan jasotako eskutitzak. Askotan, euren txostenetan geratzen ziren eskutitz haiek, hartzailearengana iritsi gabe. Eskutitz gehienak irekita zeuden, medikuek edota psikiatrikoko arduradunek irekitzen zituzten (zabalduko gutunazalen barruan mantentzen dira batzuk oraindik ere) eta eskutitza euren irakurtzen zuten. Bazeuden ireki gabeko eskutitzak ere, baina bere horretan mantendu nituen artxibora sartu aurretik sinatu nuen konpromisoan artxiboan aldaketarik ez nuela egingo ziurtatu bainuen.

Eskutitzen artean bi eratakoak ezberdintzen ziren, ingresatutakoek idatzitakoak eta ingresatutakoei idatzitakoak. Ingresatutakoek idazten zituztenak txostenetan mantentzen direnez, ondorioztatu daiteke kasu askotan ez zirela bidaliak izan; ingresatutakoei bidalitakoekin zer gertatzen zen ez dakit. Txostenetan sartuta egoteak interpretazio ezberdinak izan ditzake, irakurtzen utzi eta gero txostenean jasotzen zituztela, edota instituzioko arduradunek ireki irakurri eta ez zirela ingresatutakoei haien berri ematen. Dena den, badago kasuren bat egunerokoan familiaren eskutitza irakurri duela aipatzen dena, beraz, imaginatzen dut kasu eta egoera ezberdinak gertatuko zirela.

“Carta de su madre. Parece que la enferma ha dicho que le han pegado. La madre dice que ve mal que le peguen. ‘Mari no creas que tu padre te quiere menos que yo, aunque alguna vez te aya reñido pues ya sabes que tiene mal genio...’”¹¹³.

Ohar honetan argi ikusten da, amak Mari 17 urteko alabari idatzitako eskutitza arduradunek ere irakurri zutela. Telefono bidezko elkarrizketak ere jarraitzen zituzten, hainbat aldiz elkarrizketa horietan esandakoa aipatzen zutelako oharretan. Eskutitzekin gertatzen zena instituzioak berak kudeatzen zuen. Hauxe bidali gabeko eskutitz baten zati bat:

¹¹³ 1944-09-02ko oharra, mojek idatzia, Mari ez da benetako izena.

“Amadísimo papá: estos días mi pensamiento, ha vivido para ti, mi cariñosísimo papá; desmintiendo cosillas que X ha querido no las participes de ellas. No te molestarán por causa de que ya conoces mi carácter mentiroso y fantasioso [...]

Papá solo mi ideal sería que aparte de ir a Misa, confesaras y comulgaras como mamá lo hace. Los dos juntos como siempre vais de paseo, juntos y contentos frecuentar la Religión mas. Créeme papá, eso, te elevaría mas.

¡Con lo bueno que eres papá! ¡Cuanto hablaremos de ese tema papá, mas con el ejemplo que con la locutoria!

A mamá, que ya soy buena [...]

Un fuerte beso de tu hija”¹¹⁴.

Eskutitzak, azken finean, ingesatutakoen ahotsak entzuteko modu bat izan dira. Eta maiz pentsatu dut, bidaliak izan balira ezin izango genukeela ahots haien berri jaso. Baina, era berean, gogorra egiten da pentsatzea ustez bidali den zerbait ez zela inoiz iritsi bidali zuenak bidali nahi zuen tokira edo hartzailearengana.

¹¹⁴ 1944-09-20an idatzitako eskutitza, 17 urteko emakumezkoak aitari idazten dio, kontraste adierazgarria adierazten du eskutitzetako jarrerak eta psikiatrikoko arduradunek eta bere familiak deskribatzen dutena. Medikuaren txostenean familiaren aurrekarietan jartzen du: “*Enfermedades mentales, padre rígido y afectivamente congelado. madre muy afectiva un hermano grande y otro más pequeño de 10 años*”. Ondoren, “*Ha sido vista por diversos médicos y ultimamente por el Dr. Figuerido quien la envía con consentimiento de la enferma para hacer reeducación*”.

Inplikazioa

Batzuetan egun bat behar izaten nuen txosten bat osorik irakurtzeko. Istorio haietan tentsioa egoten zen maiz; beldurra, mina, zorigaitza, ezintasuna... eta emozio eta sentimendu nahasketa horrek artxibotik ezinegonarekin, buruko minarekin, urduritasunarekin, tentsioarekin eta tristurarekin ateratzerarazi ninduen behin baino gehiagotan.

Badira istorio eta esaldi brillanteak, irribarrea atera eta barre egitera eraman nindutenak, baina berehala egoeraz kontziente egitera behartzen nuen nire burua eta horrek nengoen tokira ekartzen ninduen berriro ere.

Lau pareta artera.

Psikiatriko baten artxibora.

Istorio haietara.

Berogailuaren zarata entzutera.

Bakardadera.

Idatzien eragina

Nolako eragina izango zuen ingesatutakoentzat idatzitakoak?

Ez jartzen zutenak, baizik eta norbait beraiei buruz idazten ikusteak?

Sylvia Plath-ek bere psikiatrikoko esperientziari buruz *The Bell Jar* nobelan kontatzen du:

“Después de haberse presentado, todos los médicos se mantenían a una distancia desde la cual pudieran escuchar, solamente que no podía decir a mi madre que estaban anotando cada una de las palabras que decíamos sin que ellos me oyeran, así que decidí inclinarme hacia ella y murmurarle al oído”¹¹⁵ (2013:280).

Idatziak ez dira idatzi bakarrik, boterea adierazteko modu bat ere badira. Idatzi haiek ez ziren idatzi bakarrik, han jartzen zuenak pertsona baten etorkizuna baldintzatu zezakeen. Han idazten zenaren arabera erabaki bat edo beste hartzen zen. Eskuarlean nuenak ez zuen informazioa izateko (haiek eta nik neuk) bakarrik balio, baizik eta han idazten zenaren arabera pertsona baten eta bestearen etorkizuna erabakitzen zen. Hori pentsatzeak paper haiei beste entitate bat ematera bultzatu ninduen.

¹¹⁵ Nobela baten zita izanik bere horretan mantentzea erabaki dut.

II. 2 AZPIMEMORIA ETA MEMORIA: *HUTSUNE* BIHURTUTAKO EMAKUME EROEN ANTIBIOGRAFIAK

“Entonces vi que algunas de las personas en realidad se movían poco,
pero con gestos tan pequeños como de pájaro,
que al principio no los había percibido”
(Plath, 2013:222).

Ikerketa-lan honen abiapuntua istorio kontretu bat izan zen – Vera –, puntu txiki batetik hasi zen eta pixkanaka zabalduz joan da; ibilbidea mikrotik makrora joan da: emakume baten kasu psikiatriko batetik, eromenaren eta psikiatriaren irakurketa feminista bat egitera.

Vera batetik...

Beste *bera* batzuetara...

Honela, istorio inbididualak izango dira kontestuaren berri emango digutenak. Inbutuaren punta estuenetik abiatzeak bere abantailak ditu; besteak beste, argiago geratuko zaigu testuingurua kasu konkretuz osatuta dagoela. Indibidua ez da kontestuan *disolbatuta* geratuko eta horrek orokortasunean galtzea ekidingo du eta jakina, indibiduo bakoitzaren agentzia ere azaleratuko da. Gainera, aztertu ditudan kasuen testuingurua, gizarte konkretu bat izateaz gain, giro konkretu bat ere bada: psikiatrikoena edo eroetxeena. Horri buruz infomazio gutxi eta mugatua dagoenez, ikerketa hau kasu partikularretatik abiatzea lagungarria izan da oso. Ikergai honi buruzko datu eskasia arrazoi ezberdinek eragindakoa da: alde batetik, emakumezkoak dira protagonista eta emazkumezkoak ez dira inondik inora gizartearen adibide, adierazle eta eredu

bezala erabiliak izan¹¹⁶; beste alde batetik, emakumezko hauek erotzat jo eta eroetxean sartu zituzten eta eroei eta eroetxeei – gizarteko bazterretako bat – buruzko informazio oso gutxi dago.

Dena den, azaldu nahiko nuke abantaila hauetaz guztietaz ikerketa egiteko beste modurik ez eta bide hori egiten hasia nengoenean konturatu nintzela. Nolabait behartuta hartutako bidea izan da.

Ikerketa lan honen zati honek Gipuzkoan kokatuta dagoen psikiatriko bateko¹¹⁷ artxiboan egindako analisia du oinarri. Erotzat jotako emakumeen – *hutsune* bihurtutako emakumeen – mediku-txostenak irakurri eta aztertu ditut, eta horiek dira eurak isiltasune(ta)tik ateratzeko eta hutsuneak beteta daudela adierazteko erabiliko dudana materiala. Itxura batera mugatua den informazioa da, baina haiei buruz daukagun bakarra izanik hortik abiatuta egin beharko dugu lan. Historia klinikoek oso argi utziko digute, testuinguru historiko batean idatzitakoak izan direla. Gainera, zientifikotasun barruan sartu nahiak eta atemporalak eta unibertsalak den zerbait idazten ari zirela pentsatzeak, nabarmenago uzten ditu garaiko eta tokiko jendartearen moralaren eta kulturaren ezaugarriak.

Hutsune bezala identifikatu ditudan emakumeak *azpimemoriaren* parte bezala ulertu ditut eta horrek memoriari buruzko gogoeta egitera eramanez. Zer kontsideratzen dugu memoria eta zer ez? Zerk osatzen du talde, kolektibo, herrialde edota oro har munduaren memoria eta zerk ez?

Eraikitzen dugun memoria sozial edo publiko horren harira, memoria eta azpimemoria kontzeptuak planteatu ditut. Bi termino hauek aipatzen ditudanean, memoria “ofizialaz” – memoria – eta “ez ofizialaz” – azpimemoria – ari naiz. Hau da, iraganaren errelatoa sortzen denean, errelato horretan agertzen dena memoria ofiziala litzateke, ikasten, zabaltzen eta irakur daitekeen hori. Azpimemoria, berriz, ez dira ahaztutako gauzak, baizik eta memoria “ofizialaren” parte izateko baldintzak betetzen ez dituztenak. Azpimemoria behetik egindako historia baten oinarria dela esan daiteke:

¹¹⁶ Erotzat jotzen zituzten emakumezkoek jasan zuten isiltasuna izugarria izan zen eta gizonezkoena baino konplexuagoa: “Euren hitza isiltzen zen baina baita euren emozioa ere; sintomak euren gorputzak gorputz bezala, “naturalki” ulertezinak, isolatu eta kontrolatuz ezartzen ziren. Baliteke, emakumezkoen eromenaren isiltasuna, eguneroko bizitzan emakumezkoek sufritzen duten bazterketaren *continuum*-a besterik ez izatea” (Ospina, 2006:313).

¹¹⁷ Veraren istorioa beste artxibo bati dagokio baina bere istorioa irakurtzeko aukera izan nuen.

“Behetik egindako historia”¹¹⁸ baten ikuspuntua ohiko historia positibistarekin aurrez aurre jartzen da. Azken honek ikerketa objektu bezala urte-liburu ofizialetan ageri direnak pribilegiatu ditu, besteak berriz, falta direnen esperientzia ikusgarri egin nahi du” (Hernández Holgado, 2003:23).

Azpimemoriarekin azpimarratu nahi dena zera da: memoria eraikitzerakoan erabiltzen ditugun parametroek kode kultural eta sozial batzuk jarraitzen dituztela eta kode horien arabera eraikiko dugula “iraganaren”¹¹⁹ historia edo “memoria”. Beraz, memoria “ofizialaren” parte izango dira unean uneko eta tokian tokiko – horregatik diot orainaldiarekin lotura gehiago duela errelatoak iraganarekin baino – kode kultural eta sozialak betetzen dituztenak; eta, beraz, azpimemoriaren parte izango dira kode horiek betetzen ez dituztenak. Uste dut, garrantzitsua dela azpimemoriaren parte diren hainbat pertsona azaleratzea, ikusgarri egitea, baina ez dut uste memoria “ofizialaren” parte egitea denik irtenbidea, memoria ofiziala izateko aipatu kodeak bete behar direlako eta kode horiek betetzea azpimemorian dauden horiek hartutako jarreraren edo bizipenen kontra joatea litzatekeelako.

Artxiboa izan da urtetan memoria “ofiziala” eraikitzeke erabili den tresnetako bat. Artxiboan “gorde” den hori, memoria “ofiziala” osatzeko onartua izan da ezbairik gabe, zalantzarik gabe eta zuzenean¹²⁰. Atal honetan, memoria “ofiziala” eraikitzeke erabili den tresna garrantzitsuenetako bat erabiliko dut, artxiboa, baina nire asmoa ez da tresna hori azpimemoria memoria “ofizial” bihurtzeko baliatzea. Hain zuzen ere, artxiboa Le Breton-ek planteatzen duen era honetan erabiliko dut:

“Garrasia eta ezkutuko sufrimendua adierazi ahal izateak, memoria lasaiago baten existentziara irekitzen gaitu, ahanztura pentsaezina izanda ere. Talde edo hitz-tokietaz hitz egiteak isiltasuna existentzian zein puntutaraino errotuta dagoen errekonozitzea dakar. Hitza ematea zentzua ematea bezala da” (2001:189).

Genero perspektibatik begiratuta, azpimemoria horretan mantentzeak kode kultural eta sozial hegemonikoetatik kanpo egoteko aukera ematen digu, eta beraz, tresna feminista aproposa da:

¹¹⁸ Kurtsiba berea da.

¹¹⁹ Iragana komatxo artean jarri dut, memoriarekin iragana eraiki baino gehiago oraina eraikitzen ari garelako, orainarekin zerikusi handiagoa dauka askotan memoriak, orainaren arabera eta orainera egokituta egindako errelatoa delako.

¹²⁰ Dena den, psikiatrikoko artxiboak urte luzez egon dira ikerlariarentzat itxita, eta beraz, artxiboak ere ezin da esan Historia egiteko denak erabili direnik.

“Talde dominanteen ereduak gainditzeko ezintasuna dela eta, estalita geratu diren eredu horien bilaketarekin lotuta teoria antropologiko feministak duen kezka jasotzen dut, baita talde mutuek eredu alternatiboak transmititzeko duten zailtasuna ere” (Del Valle, 1999:9).

Isiltasuna eta estalitako transkripzioa salaketa zorrotzak dira (Llona, 2012). Eta isildu direnak azaleratuz errealitate anitz ezagutzeko aukera dugu. Ahozko iturriak erabiliz egin dute historialari feminista askok lan eta metodo hori aldarrikatu dute *ahotsik-gabekoen* esperientziak azaleratzeko: “Ahozko iturriek eskainitako dokumentazio berriari esker iraganaren narratiba berriak eraiki dira, gertakarien beste bertsio batzuk helarazi dira eta ikerketa eremu berriak ireki dira, eguneroko bizitza, sexualitatea eta identitateen eraikuntza esaterako” (Llona, 2012). Kontua ez da nire ustez ahozko iturriak memoria ofizialaren parte egitea baizik eta hauek ere baliagarriak direla eta beste errealitate batzuk ikustarazten dizkigutela erakustea: “Erakutsi dute euren gaitasun espezifikoak identitatearen autoerrepresentazioen eta dinamika politiko orokorren arteko loturak argira ateratzeko eta, bereziki, emakumeen historiari dagokionez, subjektibitatearen, instantzia kolektiboen eta generoaren artean” (Di Febo, 2006:154).

Gainera frogatu da azpimemoria sartzen garenean Historiak – letra larriz eta hatzez – aldaketak jasaten dituela: “eskenatoki historikoan emakumeen esperientzia eta protagonismoa azaltzen zen neurrian, agerian jartzen zen menperatze patriarkalaren aurrean emakumeek egiten zuten erresistentzia eta baita gizarteari forma emateko zeukaten botere sortzailearen errekonozimenduaren beharra” (Lagunas, 1996:29). Erresistentziak azaleratzeko modu bat ere izan daiteke, beraz, azpimemoria horretara jotzea. Erresistentziek duten garrantzia dela-eta, amaieran atal bat eskainiko diot.

Ikerketa honetan, emakumeak eta eroak, bi alderdik egingo dute – nagusiki, ez bakarrik – ikerketaren protagonista direnak azpimemoriaren parte izatea. Hori horrela, esaten ez denari erreparatzeak, berebiziko garrantzia dauka, isiltasuna(k) abiapuntutzat eta erreferentzia nagusitzat dituen ikerketa planteatuta ezin ahaztu baitaiteke artxiboa ere isiltasunez betetako zerbait dela: idatzita dagoenak bezainbesteko garrantzia dauka idatzita ez dagoenak. Azpimemoria isilduta mantendu den hori bada, existentzia eza bezala planteatzen badut, hutsune horien kontziente (edo behintzat begitankor) egon beharko dugu ikerketan zehar.

Azpimemorian kasu konkretuen bitartez sartu naiz ikerketa honetan. Asmoa da kasu partikularrak oinarritzat hartuz emakumezkoek XX. mendearen lehen erdian Hego Euskal Herrian bizi zuten egoera ezagutzea. Horretarako, emakumezkoek psikiatriko eta eromenarekin

bizi zuten lotura aztertuko dut. Atal honetan, 8 emakumeren kasuak aztertuko ditut; Esteban-ek antropologiarako teknika bezala gorputz ibilbideak proposatzen ditu:

“(Scheper-Hughes eta Lock jarraituz, 1987) subjektibitatearen eta gizabanakoaren azterketan sakontzea, gizarte zientzientzat eta baita antropologiarentzat ere erronka bat izan da, izan ere, salbuespenak kenduta, taldean jarri dute beti enfasia, kulturean, gizabanakoan baino gehiago; gorputz sozial eta politikoan indibidualean baino gehiago” (2008:140).

Baina zer gertatzen da indibiduora iristeko arazoak aurkitzen baditugu? Izan ere, hori da ikerketa honen berezitasunetako bat, ezin dugula aztertu nahi ditugun emakume horietara jo – zenduta daude – eta gainera, gizartean eta familietan tabu bat, isilpean mantendu den gai bat izan dira askotan. Orohar, kasu konkretuetara gerturatzeko erabiltzen den teknika biografia edo bizitza istorioena da. Honela Juan José Pujadas Muñoz-ek *El método biográfico: El uso de las historias de vida en Ciencias Sociales* (1992) liburuan, biografiaren interesa ni punturen arteko konbergentzian jarri du: “1 bere bizitzaren ibilbidearen, esperientzien eta bere ikuspegi partikularraren barruan gizabanakoak ematen duen ikuspuntu subjektiboa, eta 2 sujetua bizi den komunitatearen baloreen, arau sozialen eta garai konkretu baten isla izango den bizitzaren irudikapena” (1992:44). Biografia oinarritzat hartu duten ikerketa lan askotan – gizarte zientzietan eta, beraz, baita antropologian ere – gizabanakoa objektu bezala erabilia izan da eta era horretan: “Batez ere, gizarte zientzien ikuspegi «komunitario» honen azpian dagoen helburua, gizakia objektu bilakatzearen kontra borrokatzea da, «isiltasuna hausteko» ahotsa itzultzea da” (Ibidem:44).

Biografiaren teknika Rufus Anderson-ek (1796-1880) – Ameriketako Estatu Batuetako gobernuaren atzerriko misioen ministro izan zenak – erabili zuen lehen aldiz ikerketa lan batean 1825. urtean. Anderson-ek, Catharine Brown emakumezko *cherokee*-aren memoriak idatzi zituen eta teknika hau, kristau bihurtu zen Brown-en akulturazioaren berri emateko erabili zuen. Hain zuzen, emakumezko izateari buruz planteatzen den arazoari dagokionez, L.L Langness-ek (1977) biografiaren aldeko planteamendua egingo du: “Beste bitarteko batzuekin iristea oso zaila den kulturaren *emic* dimentsioak erakusteko errekurtsioa da, adibidez, hainbat gizarte prozesuren *ikuspegi femeninoa*”¹²¹ (in Pujadas, 1992:23).

¹²¹ Kurtsibak bereak dira.

Biografiak, ezagutzen ditugun moduan, pertsona bakar bati buruz izaten dira eta pertsona horren inguruko informazio ahalik eta ugariena eta zehatzena biltzen saiatzen dira. Pertsona bakarrari buruz aritzearen “desabantaila”, pertsona horri buruzko datu ugari batuz eta kontatuz orekatzen dela dirudi. Ikerketa lan honetan, berriz, ezinezkoa da era horretako biografia bat eraikitzea. Datu gutxi lortu daitezke protagonista diren emakumezkoen buruz eta, beraz, oso zaila litzateke biografia bere zentzu hertsian aplikatzea. Gainera, arazo bikoitzarekin egiten dugu topo: emakumezkoak eta erotzat joak izatea. Emakumezkoen istorioak Langness-ek dioen bezala biografiak eginez jaso daitezke, eta psikiatriaren eremuari dagokionez ere Lisa Appignasnesi psikiatriaren ikerketa feminista egin duen autoreak bide beretik jotzea eskatzen du. Bere ikerketen ardatza kasu konkrituak dira horietatik abiatuta egiten du psikiatriaren eta eromenaren azterketa feminista:

“Kasuek argia ematen dute. Horiek laguntzen digute momentu historiko konkritu baten kulturaren, praktika psikiatrikoaren eta gaixotasunen bidegurutze eta elkarrekintzak ateratzen” (2008:9).

Biografiak egitearen abantailak ikusita, biografia klasikoa eraikitzeko arazoari galdera batekin egingo diot aurre: Zerbaiti buruz ez hitz egiteak ez al du uste baino gehiago esan nahi isiltzen denari buruz, isilarazia denari buruz?

Honi erantzuteko Ignasi Terradas-en *Eliza Kendall: Reflexiones sobre una antibiografia* (1992) liburua aipatuko dut. Terradas-ek oso bestelako ideiak proposatzen ditu datu eskasiari buruz eta bere esanetan esanguratsua da oso pertsona bati buruzko datu gutxi batzuk besterik ez izatea. Horri aurre egiteko Terradasek *antibiografiaren* teknika jarri zuen praktikan Eliza Kendall-en (1825-1844) kasuarekin. Kendall-i buruzko informaziorik apenas izan gabe Kendall bere ikerketaren erdigune bilakatzen du Terradas-ek.

Kendall-ek Ingalaterrako industrializazioaren eta kapitalismoaren garai gogorak bizi izan zituen eta 19 urte zituela bere burua ibaira bota zuen bertan zenduz. Mendebaldeko zibilizazioaren idatzizko historian dagoen Kendall-i buruzko informazio bakarra, Henderson-ek eta Chaloner-ek Engels-en *La condición de la clase obrera en Inglaterra* liburuari egindako edizioan agertzen den oin-ohar bat da. Engels-ek anonimoki aipatu zuen bere edizioan (1845) Eliza Kendall-en kasua eta Henderson-ek eta Chaloner-ek egin zuten edizioan (1968) izen-abizenak jarri zizkioetan emakumezkoari. Baina, izen-abizenak jarri arren, bi historiagileek ez zitoten Kendall-i gizabanako maila eman, gizarteari buruz hitz egin zuten eta Kendall indarrean

zegoen sistemaren ondorio bezala¹²². Horren aurrean Terradas-ek gizabanakoa aurretik jarri eta ordena hori *antibiografiaren* bitartez iraultzea proposatzen du.

Baina, *antibiografiaren* proposamenean, gizabanakoari garrantzia emateaz gain, badago beste elementu bat eta ikerketa lan honetarako funtsezkoa izan da: pertsona bati buruzko datu gutxirekin osatzen den zerbait da. Hain zuzen, hau da Terradas-entzat *antibiografia* bat egiteko arrazoietakoa bat:

“Benetako *bizitza*¹²³ konkretu bat ezagutzeko, arrazoi biografiko konbentzionala gainditu behar da. Ez da nahikoa biografia alternatibo batekin orekatzen saiatzea. Konbentzio nagusiak ikusten uzten ez diguna ikusteko, arrazoiak eta ilusio biografikoa nagusi ez diren ikuspuntura jo behar dugu” (1992:13).

Beraz, Terradas-ek hutsuneari edota ukazio biografikoari deitzen dio *antibiografia*. Bere esanetan, hutsune edo ukazio horien bitartez jakingo dugu, haiek adieraziko digute, zibilizazio konkretu batek zer nolako tratua eman dien edota ematen dien ukatuak izan diren edo diren pertsoneri. Batez ere bazterkeria jasaten duten pertsonekin gertatuko da hau, gizartearen bazterretan daudenei buruzko informazioa baita normalean urriena: emakumezkoena, pobreena, etorkinena, eroena, eta abar luze bat. Beraz, *antibiografia* ikusgarritasun gutxien duten bizitzei buruz gehiago jakiteko erabiliko du: “Ibilbidea alderantzizko norabidean egiten badugu, konturatu gaitezke zibilizazio batek zenbat egin behar izan duen pertsona baten bazterketa maila hori lortzeko [...] Bizitza sozialaren bazterren boterea da” (Ibidem:13).

Ikerketa lan honetan aztertzen ari garen kasuek primeran islatzen dute euren inguruan sortu zen – den – hutsunea eta dagoen informazio eza. *Antibiografiak*, pertsona horren bizitzaren aurka egiten ari denari edo egin denari buruz hitz egingo digu. Zentzu honetan, *kultura antibiografikoan* pertsona goraiatu egiten da baina baita alboratu ere, biak egiten dira neurri berean; pertsona hartuko da kontuan, baina, era berean, pertsona kontuan hartu ez izanari emango zaio garrantzia. Ez da pertsona horri buruzko datu bilaketa proposatzen, baizik datu ezak ematen duena.

Gainera, *antibiografiaren* bitartez gizarte konkretu batean bazterrean dagoenaren beharra agerian geratzen da, eta ikusiko dugu nola bazterrean dagoen hori oinarritzat hartuz osatuko diren muga barruetan daudenen ezaugarriak:

¹²² Makrotik mikrorako bidea egingo dute Henderson-ek eta Chaloner-ek.

¹²³ Kurtsiba berea da.

“Honela, baztertutako hainbat pertsonak eta marjinalki erabilitako beste hainbatek, zibilizazio baten muturreko oinarrien giltzarria daukate: osatzen duten pertsonak lagunduz edota kaltetuz noraino iritsi daitezkeen ezagutzeko. Pertsona bat, gizarte baten garai eta toki konkretu batean *tratatua izan daitekeen*¹²⁴ era, gainontzeko guztientzat gordetako era da” (Terradas, 1992:41).

Bazterrean dagoena beharrezkoa da, ez bakarrik bizi den gizarte horren mekanismoek bere horretan jarraitu dezaten, baita gizartea osatzen duten gainontzeko indibiduoentzat ere, bazterrean dagoen horrek adibide bezala funtzionatuko baitu: ez baduzu esandakoa egiten, hor eta horrela amaituko duzu. Horregatik, baztertutako gizabanakoak kode kultural garrantzitsuen gordetzaille ere badira. Hau horrela ikusten badugu, *hutsuneari* merezi duen garrantzia eman beharko diogu; *hutsunea* egoteak – informazio eza adibidez – ez du ezereza esan nahi. *Hutsune* baten inguruan eraikitzen dira sistema asko, eta erdian *hutsunea* egonda, eraikuntza guztia horren araberakoa izango da.

Kendall-i buruzko informazioa lortzeko batez ere egunkarietara jo zuen Terradas-ek eta jaso zituenak ez dira Kendall-en beraren hitzak baizik eta ingurukoek berari buruz esandakoak edota susmatutakoak. Jarraian egingo ditudan *antibiografiaren* kasuan elementu ezberdinak daudela esango nuke. Lehen *antibiografiaren* kasuan eta neure familiako kasua izaki, artxiboko txostenak ikusteko aukeraz gain, elkarrizketak ere egin ditut eta beraz, informazioa bi era ezberdinetara jaso dut. Beste *antibiografiaren* kasuan, artxiboko txostenen erreferentzia hartu dut, eta kasu honetan, badira eurek euren eskuz idatzitako eskutitzak, beraz, neurri batean euren “ahotsa” jaso ahal izan dudala esan dezaket.

¹²⁴ Kurtsiba berea da.

8 emakume, 8 antibiografia

Ikerketa lan honen abiapuntua, Vera, nire birramona izan da. Vera, 1935. urtetik 1986. urtera Gipuzkoako psikiatriko batean egon zen ingresatuta eta artxiboaren analisisa egiterakoan atal honetan azalduko ditudan kasuen aukeraketa garai hori kontuan hartuta egin nahi izan dut, testuingurua eraikitzearren. Gipuzkoako beste psikiatriko bateko artxiboan lehen mediku txostenetara jo behar izan dut, izan ere, 1937. urtekoak dira lehenak. Ondorioz, aukeratutako epea Espainiako Gerra Zibila eta gerraondoko hamaika urteak izan dira (1935-1950). Denera 458 txosten irakurri ditut, 226 emakumezkoenak izan dira eta 232 gizonezkoenak. Ikerketa objektua dela-eta emakumezkoen txostenetan jarri dut atentzio berezia. Horietatik 8 aukeratu ditut: Vera, Teresa, Rosa, Carole, Josefa, Gregoria, Tomasa eta Luisa¹²⁵. Datozen orrialdeetan 8 emakumeei buruzko *antibiografiak* osatuko ditut.

Aukeraketa nola egin dudana justifikatzea zaila egiten zait. Nire atentzioa bereziki deitu duten kasuak izan direla esango nuke. Vera nuen erreferentziatza eta agian horrek baldintzatu egin nau, edota nik neuk bizitakoak. Bizpahiru esaldi bakarrik zeuden txosten batzuetan, eta kasu horietan beste inora jotzeko aukerarik gabe (ez hemeroteka, ez familia¹²⁶) txosten horiek baztertu egin nituen.

Aztertutako txosten gehienek eredu bat jarraitzen dute – baina ez denek. Gehienak kartoizko karpeta baten barruan sartuta daude, bertan ingresatutakoaren izen abizenak, mediku-historiaren zenbakia eta data dute jarrita. Batzuetan, ingresoak errepikatzen zirenean data ezberdinak daude ingresoaldiek iraun dutena zehaztuz. Karpeta baten barruan dokumentu ezberdinak aurkitu daitezke:

- Medikuek, ingresatuta geratuko denaren inguruan betetzen duen fitxa (folio bikoitza).
Eredu finko bat da eta denera 114 galdera dauzkate, kasu gehienetan ez daude denak

¹²⁵ Izen guztiak asmatuak dira.

¹²⁶ Artxibora sartzeko baimena lortu ahal izateko jarri zidaten baldintzetako bat izan zen nik ezin nituela bertan zeuden datu pertsonalak erabili ingresatutakoarekin edota bere inguruko norbaitekin harremanetan jartzeko.

erantzunda. Besteak beste zera azaltzen da: familiaren grafiko bat, azterketa kognitibo bat eta “exploración” dioen atala, buruezurraren itxura zehazteko eskatzen duena (López Velasco, 2010:98):

EXPLORACIÓN



FORMA DE LA CABEZA: Alta, pícnica, redonda, pequeña, cráneo en torre, en vejiga, indeterminada

Extremidades: Largas, cortas

Tronco: deformidades

NEUROLÓGICA.—Tono muscular

Reflejos

Motilidad activa

Pupilas

Deigarria da adibidez harreman sexualen atala gizonezkoen txostenetan betetzen zutela bereziki; emakumezkoengan hiru aldiz bakarrik ikusi ditut beteta eta hiruetan ere ingresoak zerikusi zuzena zuen bizitza sexualarekin¹²⁷.


- Elektroshocka edota koma insulinikoa jartzen zietenean fitxa batzuk betetzen zituzten.

ELECTRO-CHOQUE

Nombre	Edad																															Diagnóstico	Comienzo de la cura	
																																	1949	
Mes: <i>Octubre</i>	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31				
Número de Choque:		10			11				12				13						14				15						16					
Resist. ohms:																																		
Tensión volts:		120			120				120				120						120				120							120				
Duración 1/100°:		3			2				2				2						2				2						2					
Resultados:		(NV)			-				(NV)				-						-				(NV)						(NV)					
Resist. ohms:																																		
Tensión volts:					140								140						140				140											
Duración 1/100°:					3								3						3				3											
Resultados:					(NV)								(NV)						(NV)				(NV)											
Resist. ohms:																																		
Tensión volts:																																		
Duración 1/100°:																																		

¹²⁷ Carole da horietako bat eta aurrerago egingo dut hari buruzko antibiografia.

*Elektroshock-a ematen zenean betetzen zen orria (López Velasco, 2010:97).



*Koma-intsulinkoarekin betetzen zen orria (López Velasco, 2010:105).

- Ingresatutako pertsonaren eguneroko bat, erizainek edota monjek idatzia. Egunean zehar egin dituen gauzak eta esan dituenak aipatzen dira.
- Eskutitzak: medikuen artean ingresatutakoari buruz idatzitakoak, senideenak edota ingresatutako pertsonarenak.
- Ingresatutako pertsonen idatziak¹²⁸.

¹²⁸ Erresistentziaren atalean zehaztuko dut gehiago, baina aurreratu nahiko nuke aurkitu ditudan emakumeen idatzietan oso ondo idazten zutela antzeman daiteke. Hori euren klase sozialaren adierazgarri zen neurri handi batean, izan ere, garai hartan ikasketak izateko aukera klase sozial altukoek zeukaten.

Vera¹²⁹

“Triste nengoelako eraman ninduten ospitalera”
(Vera, 1941-04-08).

- Zergatik zegoen han?
- Ez dakit.

Hainbat aldiz errepikatutako galdera hark, hasieran nire buruari bakarrik egiten nionak, ez zuen inoiz erantzun zehatzik izaten. Urteak eman zituen Verak psikiatrikoan, baina inork ez zekien zergatik. Bere istorioa – letra txikiz eta hatxerik gabe – osatzeko hainbat tokitara jo behar izan nuen. Hasi nintzen gertuko senideetatik, urrunagoak zirenetara jo nuen gero eta ingresatuta egon zen psikiatrikoko txostena irakurtzen amaitu nuen. 92 urtez bizi izan zen emakume bati buruz hamar orrialde baino gehiago idaztea zaila egiten denean, hutsune bati buruz aritzea da. Desagerrarazi nahi izan den norbaiti buruz hitz egitea. Txiki bihurtu nahi izan den zerbaiti buruz.

Estutuz.

Murritzuz.

Baina azkenean...

¹²⁹ Verarena ez da artxiboko analisisian aurkitutako kasua. Vera ikerketa lan honen abiapuntua izan zen. Ez zen aztertu dudak artxiboari dagokion psikiatrikoan egon, baina uste dut hemen egon beharreko istorioa dela eta gainera, bere mediku-txostenak ikusteko aukera ere izan nuen; beraz, antibiografia egiteko baliagarri zaidan informazioa badut. Aipatu, Verari buruz, mediku-txostenez gain, elkarrizketak ere egin ditudala, beste istorioetan ezinezkoa izan dena. Beraz, antibiografia hau, mediku-txostenetan eta elkarrizketetan oinarrituta dago.

PUUUUMMMM!...

... DENA ESTALI DU.

Aurkitu ditudan dokumentu eta egin ditudan elkarrizketekin osaturiko istorioa da jarraian datorrena.

Nafarroako Lesaka herrian jaio zen Vera 1893. urteko abuztuaren zortzian. Baserrian bizi zen gurasoekin eta neba-arrebekin; ez dago garbi zenbat neba-arreba ziren denera baina hamahiru bat izan zitezkeela esan zidan Veraren iloba batek. Vera zen alabetan zaharrena eta bera izango zen gurasoen ardura hartuko zuena. Hogeita bederatzire urte zituela, gizonezko batekin ezkondu zen. Karabineroa zen gizonezko hura, Vera baino zazpi urte gazteagoa eta Lesakara Nafarroako beste herri batetik iritsitakoa. Lesakan ezagutu zuten elkar. Vera haurdun geratu zen eta zortzi hilabeteko zegoela ia ezkutuan ezkondu ziren Beran. Senideak ez ziren izan ezkontzako lekuko, ezkontza dokumentuetan ageri diren abizenek ez baitute ezkontideenekin antzekotasunik. Verak baserria utzi zuen eta Berara joan ziren bitzitzera. Hamar urteko epean bost seme-alaba izan zituzten, hiru neska eta bi mutil. Bi zaharrenak mutikoak ziren eta hiru gazteenak neskak. Vera, etxeko lanetan aritzen zen eta bere ilobak esan zidanez senideen artean esaten zen zerbait zen:

“Se trastornó y a nosotros... yo entonces tenía... era muy niña y yo sé lo que dijeron y lo que dijo mi madre también, lo que le dijeron a mi madre que cuando esto que era porque le daba mala vida el marido”(Luisa Etxeberria¹³⁰).

Seme zaharrenak hamabi urte eta alaba txikienak bi zituztela, Vera haurdun geratu zen berriro. Une hartan, 1935. urtea zen, Pasai Donibanen bizi ziren, karabineroen kuartelean. Abortu bat probokatu zioten eta, Veraren hitzetan, horren ondorioz eraman zuten eroetxera:

¹³⁰Luisa Etxeberriari (ordurarte ezagutzen ez nuen Veraren iloba) elkarrizketa (2011-03-15).

“Autoana”¹³¹ *“Dice tenía 42 años, _casada y había tenido cinco hijos (3 hijos y 3 hijas) cuando vino aquí el mayor tenía 12 años. Vivía antes de venir aquí en Pasajes de San Juan. Al principio de ponerme mala me llevaron al hospital allí estuve unos 15 días y después me trajeron aquí. ‘Me llevaron al hospital porque me encontraba triste’. ‘Eso me pasó a consecuencia de un aborto provocado y aquel pecado me trajo este estado de ánimo’. ‘Me encuentro como siempre’. ‘Dolor no tengo pero sí un gran sufrimiento’.*

42 urte zituen Verak psikiatrikora sartu zutenean. Luisa Etxeberriak, bere ilobak, kontaktu zidan oraindik gogoan zuela Veraren amari alaba gaizki zegoela esatera joan zitzaizkion eguna:

“Cuando la guerra, cuando estalló el movimiento unos días antes le avisaron a la abuela que se fuera a Rentería que su hija estaba mala. Entonces mi abuela se fue a Rentería y cuando llegó a casa a la noche, se metió en el baño, en el retrete porque no había ni baño y se cerró la puerta por su lado, y claro la abuela empezó a chillar y tiraron la puerta y estaba para tirar de la ventana, porque fue cuando se transtornó”.

Luisa Etxeberriaren hitzetan, gonatik helduta bere burua leihotik behera botatzea ekidin zuen Veraren amak. Gertakari honen ondoren kokatu beharko genuke Veraren psikiatrikoko itxialdia. 1935. urtea amaitzear zen. Espainiako Gerra Zibila hasi zen berehala eta Veraren senarra gerrara joan zen¹³², seme-alabak bakarrik geratu zirenez, Veraren amak Bartzelonara eramán zituen itsasontzia hartu eta, zaharrena ez beste guztiak, gerrako ume gisa Belgikara bidaliak izan zirelarik (2 urte egon ziren bertan).

Veraren psikiatrikoko egonaldiaren lehen urteetan ez zegoen familiaren eta Veraren arteko kontakturik. Senarraren eskutitz bat dago mediku txostenean, Vera psikiatrikoan sartu eta sei urtera idatzitakoa:

¹³¹ Hemendik aurrera, psikiatrikoko txostenen erreprodukzioa egiten dudanean azpiko marrak ulertzerik izan ez dudán hitzak ordezkatzeko erabiliko dut. Horrez gain, zita guztiak literalki kopiatuko ditut, hizkuntzan eta ortografian inolako aldaketarik egin gabe.

¹³² Honen inguruan bertsio ezberdinak daude, senide batzuk diote Errepublikako karabineroa izaki atxilotu egin zutela eta behartu egin zutela Frankoren alde borrokatzera, beste batzuk diote atxilotuta egin zela.

“Pasajes 13 de Julio 1941

Señor Director:

Muy señor mio. Despues de saludarle detenidamente me dirijo a Ud. Para harcer una pregunta respecto a la enferma X¹³³ natural de Lesaca Navarra que entro en ese lugar en Octubre del año 1935 desearia de Ud sino le sirve de molestia tendria la vondad de decirme que tal se encuentra de su padecimiento.

Pregunta su esposo.

Se despide de Ud. [...]”.

Eskutitz horretan jartzen duen helbidearen arabera, 1941. urtean Veraren senarrak karabinero postuan jarraitzen zuen – urte horretan Frankoren erregimenaren alde.

Verari, eroetxera sartu zutenean egin zioten diagnostikoa *malenkoliaren inboluzioa*¹³⁴ izan zen. 1935. urteko – sartu eta berehala izango zela pentsa liteke, bertan zeudenen artxiboa egiteko argazkia ateratzen zietelako – data duen argazkia batean eserita ageri da Vera, egurrezko aulki ilun batean dago, paretaren kontra; eskuak belaunen gainean, bata eta bestea gurutzaturik, beroki ilun eta luze bat soinean eta ilea garondoan lotuta; kameraren objektiboari zuzenduriko begirada, bekainak eta ezpainak beherantz.

¹³³ Hemendik aurrera, X jartzen dudanean, intimitatea babestearren daturen bat ekidin nahi izan dudalako da.

¹³⁴ Garai hartan asko erabiltzen zen inboluzioaren kontzeptua diagnostiko psikiatrikoetan. Inboluzioarekin esan nahi zuten gizabanakoak eboluzioan atzera pausuak ematen zituela eta gizakiaren eboluzioaren lehen faseetara jotzen zuela, ia animalia jarrerak hartuz. Gaur egun, depresioa deituko genioke malenkoniari eta ez litzateke inboluzio kontzeptua erabiliko.



*Vera ingresatu zuten urtean (1935) eta 38 urteren ondoren (1973) psikiatrikoan ateratako argazkietan.

Ingresatu zuten egunetik aurrera idatzitako oharrek ez dira asko, honako hauek horietako batzuk:

“194_: Es una enferma que ingresó con un síndrome melancólico muy acentuado, con ideas angustiosas de culpabilidad y ruina; estuvo con fuerte agitación psicomotiva, con negativismo y con alucinaciones de tipo visual y auditivo.

Se le puso un _ de _ sin que obtuviese una mejoría apreciable; se le dieron también opiáceos y sedantes logrando al cabo del tiempo una pequeña remisión, trasladándosele al departamento de Santa Isabel. Aquí no se relacionaba con ninguna enferma y se pasaba horas en completa soledad, siendo poco abordable

para entablar conversación con ella. De nuevo volvió a recaer con el mismo cuadro clínico que a su ingreso, diciendo que han matado a todos sus niños y que pronto vendrán a matarla también a ella; que nosotros (los médicos) bien sabemos para qué la hemos traído aquí. Es una psicosis en depresión. Se encuentra bastante flaca.

7 de Abril de 1941: Autoana_ “Dice tenía 42 años, _casada y había tenido cinco hijos (3 hijos y 3 hijas) cuando vino aquí el mayor tenía 12 años. Vivía antes de venir aquí en Pasajes de San Juan. Al principio de ponerme mala me llevaron al hospital allí estuve unos 15 días y después me trajeron aquí.’ Me llevaron al hospital porque me encontraba triste’. ‘Eso me pasó a consecuencia de un aborto provocado y aquel pecado me trajo este estado de ánimo’. ‘Me encuentro como siempre’. ‘Dolor no tengo pero sí un gran sufrimiento’. Domina en ella el colorido triste (paranoide?). No se ocupa en nada, ‘no me deja ocuparme en nada esta tristeza’.

6 de Junio de 1942: La enferma suele estar generalmente ocupada. Hoy sin embargo cuando hemos preguntado por ella nos han dicho que se encontraba en la sala de estar de su respectivo departamento y en efecto allá la hemos encontrado, sentada, inactiva, en estado de aflicción y de llanto, pero sin que al acercarnos nos haya _ aun cuando la hemos preguntado por la causa de su angustia y tristeza.

1949: viene su hija a buscarla para hacer su _ pero la madre no quiere salir ‘estoy muy triste y no me siento con fuerza para salir’.

9 de diciembre de 1950: sigue triste y aislada. Se dedica a alguna labor, pero en general su estado depresivo no le deja poner atención a lo que sucede a su alrededor.

19 de Septiembre de 1961: Está encantada aquí. Ayuda a las hermanas con eficiencia y gusto. Bastante habladora _ con respeto. Razonable. No quiere ir a casa. La dejamos aquí por que _ dado su _ sufriría el conflicto con _ causa.

5 de Octubre de 1962: si me hacen hallar un remedio me -. +hipomaníaca y eficientísima. Verborreica en exceso como manifestación más reciente de su _ . Pone de relieve lo contenta que está aquí.

Deigarria da oso, 1956. urtetik 1961. urtera ez dagoela inolako oharrik. Bost urtez ez zen inolako baloraziorik egin edota galduta daude? Psikiatrikoetako artxiboetan lan egin duten Huertas bezalako historiagileek diote ohikoa dela hori, askotan urtetan ezer idatzi gabe zeudela eta idazten zutenean bi lerro besterik ez zituztela idazten¹³⁵. Baina, deigarriena da, urte horretan, 1961ean Veraren aldartea erabat aldatzen dela. Une horretan, 68 urte zituen eta 32 zeramatzan ingresatuta. 1961. urteko irailaren 19ko oharra irakurtzen badugu “oso pozik” dagoela dio. “Ahizpak gustu eta eraginkortasunez laguntzen dituela” eta “asko hitz egiten” duela. Aurrerago dio “ez du etxera joan nahi”. “Hemen utziko dugu, zeren ... bere ... ikusita ... gatazka bat izango luke ... arrazoiagatik”.

Zer gertatu zen?

Zer dela eta horrelako aldaketa?

1969. urtetik aurrera Vera egunero joaten zen psikiatriko ondoan zegoen apaizaren etxera apaizaren gela txukuntzera eta ohea egitera. Hori jarri zioten zeregin bezala berarekin laguntasun handia zuen apaizaren ahizpak, Karmen Goikoetxeak, kontatu zidanaren arabera:

“Nire anaia joan zen eta bera jarri zuten atenditu zezan, zure birramona, primerísima. Primerísima deitzen zioten. Eta berari eman zioten giltza logela egin zezan, nire anaia atenditu zezan” (Karmen Goikoetxea)¹³⁶.

¹³⁵ Honek ez dauka zerikusirik nik aztertu dudan artxiboan ikusi dudanarekin, hemen egunerokoak ziren notak eta luzeak eta mojek eta erizainek idazten zituzten. Ur sakonagoetan sartu gabe, ez delako une honetan aztertzen ari naizena, baina ziur asko psikiatrikoa publikoa edota pribatua izateak, edota gaixoak pribatuak edota publikoak izateak zerikusirik izango zuen horretan.

¹³⁶ Karmen Goikoetxeari elkarrizketa 2011-02-20an egin nion.

Karmen Goikoetxeak berak esan zidanez, lan horretaz gain, giltzen sekzioan egiten zuen lan Verak, izan ere, psikiatriko inguruko enpresek eskulanean parte hartzen zuten ingresatutakoek, horrek euren egoerari onura egiten ziela esaten baitzuten medikuek.

Senarra 1983. urtean zendu zen eta garai hartan nire amonarekin (Veraren hirugarren alabarekin) bizi zen. Veraren bilobetako batek kontatutakoa da, bere senarraren heriotzaren berri ematera joan zirenean, albistearen berri bazuela (goizero begiratzen¹³⁷ baitzuen egunkaria) eta zera erantzun ziela: “Nik dagoeneko barkatu diot”. 1985. urtean bere egoerari buruzko laburpen bat egin zuten psikiatrikoko arduradunek:

*“Diagnóstico de ingreso y motivo del mismo: “Peligrosidad de origen psíquico”.
Angustiada. Buena orientación. Distráida. Estado de ánimo angustiado. Inquieta.
No come. Intento de suicidio. Ideas de contenido depresivo. No puede dormir.
Expansiva. No existen enfermedades anteriores.*

Estado al ingreso: En la nota de ingreso de esa época se indica que la paciente ingresó con un síndrome melancólico muy acentuado, con ideas angustiosas y de culpabilidad y ruina. Estuvo con fuerte agitación psicomotriz, con agotamiento y alucinaciones de tipo visual y auditivo.

Diagnóstico: En el momento de su ingreso posible depresión reactiva (a aborto provocado). Actualmente, psíquicamente asintomática”.

Vera bihotzeko arazoak izaten hasi zen 1986. urtean eta ospitalera eraman behar izan zuten, han eman zituen bere azken egunak. Amonari entzundakoa da, egun batean hanketan krema ematen ari zitzaiola eta hankak politak zituela esan ziola. Hauxe Veraren erantzuna: “Bai, inork ukitzen ez dizkidalako da”¹³⁸. Gure aitak (Veraren bilobak) kontatzen duenaren arabera, psikiatrikoan sartu zutenetik behin bakarrik ikusi zuten elkar senarrak eta Verak. 1975. urtea zen gutxi gora behera eta Verak psikiatrikotik ateratzeko baimena zuen. Donostian agertu zen bere alabaren (gure amonaren) etxean eta bere senarra bertan bizi zen. Une horretan ez zegoen etxean baina

¹³⁷ Begiratzen diot, gehienek uste dutelako ez zekiela irakurtzen.

¹³⁸ Karmen Goikoetxearen arabera Verak beti esaten zuen alarguna zela: “Ez, ez, senarrataz hitz egiten ez diogu inoiz entzun” (Goikoetxea, 2011).

senarra iritsi zenean Vera ohean zegoen dagoeneko. Gure aitak kontaktzen du, amonak ia ahapeka eta errespetu handiz esan ziola aitari: “Está madre”. Senarra, logelan sartu zen eta agur bat besterik ez zioten esan elkarri. Gure aitak ez du beste ezer gogoratzen.

Inork ez daki nola, baina Verak bazuen kanpoan gertatzen zenaren berri. Bazekien bere alabarik txikiena eta semerik zaharrena tuberkulosiak jota hil zirela 18 eta 8 urte zituztenean.

Vera non zegoen jakin gabe urte asko eman zituen familiak. Senarrak bakarrik zuen horren berri. Etxeberriatarrek bazekiten ez zegoela ondo, baina ez zekiten zehazki nora eraman zuten ez eta bizirik ote zegoen. Luisa Etxeberriak esan zidan (aurreko atalean ere aipatu dut) euren amak beti esaten ziela sekretuan mantendu beharreko zerbait zela, “gauza itsusia” zelako senideren bat eroetxean edukitzea. Esan daiteke sekretua gordetzeko hitzarmen inplizitua zegoela familian. Hutsune bat sortzeko asmoa.

Vera, bera izatekoa.

bera letra txikiz eta bez.

Bera.

Bat gehiago.

Bat gutxiago.

Hutsunea Vera.

Teresa

“Lo que no quiero pensar...”
(Teresa, 1944ko apirila)

Teresa, 19 urteko emakume bilbotarra. Zortzi hilabetez egon zen ingresatuta artxiboko analisisa egin dudan Gipuzkoako psikiatrikoan¹³⁹, 1944ko apirilaren 22tik 1944ko abenduaren 18ra bitartean. Beraz, emakume honen bizitzaren 8 hilabetetako erreferentzia izango dugu, besterik ez. Emakume honen kartoi koloreko karpeta barruan dauden dokumentuak ikusita, ez dago inolako paper ofizialik, hau da, ingresatzen zutenari buruz idazteko erabiltzen zituzten plantilla fijo horietakorik. Bertara sartzeko baimena bakarrik dago paper ofizial batean sinatuta. Gainontzeko dokumentu guztiak eskuz idatzita daude. Baimena 36 urte dituen Teresaren ahizpak sinatu zuen¹⁴⁰. Kontutan hartu behar dugu, bi emakumeek adin aldetik desberdintasun handia zutela. Ahizpak Teresak baino 17 urte gehiago zituen. Horrek pentsarazten digu Teresaren gurasoak ez zirela gazteak. Baimenaren paperean irakurri daiteke, Teresa emakume ezkongabea dela eta Bilbon bizi zela. Garai hartan, Bilbo inguruan bazegoen psikiatrikorik, baina ohiko praktika omen zen lurralde batean bizi eta beste batean egitea itxialdia. Batez ere, inguruak egoeraren berri jakin ez zezan, gertatzen ari zena ezkutatzeko modu bat zen.

Teresaren kasuan, hiru eratako idatziak daude. Alde batetik, medikuek eta erizainek¹⁴¹ idatzitakoak, bere tratamenduari, jarrerari eta garapenari buruz. Beste alde batetik, berak idatzitako eskutitzak (familiar, medikuari eta erizain bati). Eta azkenik, familiak Teresari idatzitakoak. Eskutitz hauek guztiak mediku-txostenaren barruan egoteak, eskutitzekin egin zutenaren inguruan zalantza sortzen du.

¹³⁹ Nik lan egin dudan psikiatrikoak eraikin bat baino gehiago zituen 1935etik 1950 urte bitartean (nik aztertu ditudan urteak). Teresaren txostenak dio eraikin horietako batean egon zela, txikiagoa zen batean. Bertako giroa ere ezberdina zen, hemen ez zegoen mojarik, hiru erizain zeuden (denak emakumezkoak), 1952. urtean ingresatu zuten azken pertsona eraikin honetan.

¹⁴⁰ Kontuan hartzekoa da baimena nork sinatzen duen. Emakumezkoen kasuetan, gehienetan gizonetzkoak baitziren sinatzaileak: aitak, senarrak edota nagusiak. Kasu honetan Teresaren ahizpak egiten du eta horrek adierazten ditu, ziurrenik, aita ez zela psikiatrikora joan ingresatu zuten egunean.

¹⁴¹ Teresaren kasuan erizainak direla esaten du berak, beraz, bera egon zen unean psikiatriko honetan erizainak zeuden, mojak ere bertan aritu baziren ere.

Senideen eskutitzak irakurtzen zituzten ingresatutakoek?

Nork irekitzen zituen lehenago?

Teresak bi eskutiz behintzat, amak bidalitakoak biak, irakurri egin zituen, mediku txostenean eskutitza irakurri ondorengo jarrerari buruz hitz egiten baitute:

“Ha recibido carta de su madre y no parece que le altere nada. «Mi madre está chiflada...» es todo comentario que hace”¹⁴².

Eta ingresatutakoen eskutitzak?

Zer gertatzen zen?

Txostenetan baldin bazeuden, bidaliak izan ez zirenaren seinale. Gainera, aurkitu ditudanak irekita zeuden, beraz, erizainek edota medikuek irakurtzen zituzten. Aurreko atalean zehaztu bezala, ingresatutakoek zentzu horretan ez zeukaten inolako intimitaterik.

Teresaren mediku txostenean dauden idatziak irakurtzerakoan, atentzioa ematen duen gauzetako bat zera da: jarrera zeharo ezberdina dauka erizainek idazten duten egunerokoaren eta Teresak berak idazten dituen eskutitzen arabera. Lasaia eta otzana ageri da eskutitzetan, errebeldea eta apetatsua instituzioko arduradunen oharretan. Lehenik eta behin, berak lagun bati idatzitako eskutitz bati erreparatuko diogu. Gainera, idatzi honetatik datu asko atera daitezke psikiatrikoko bizitzari buruz:

“Aquí de no permanecer en cama salimos a X, respecto los días vulgares poseemos nuestro horario o reglamento como en los Colegios. A la mañana tenemos tratamiento y a la tarde después de pasada la siesta hacemos alfombra y los caballeros”¹⁴³

¹⁴² 1944-10-16eko oharra.

No nos vigilan monjas, sino enfermeras muy simpáticas y dignas de todas las cosas y que procuran pese curarnos físicamente, educar nuestro carácter, aguantándome y soportándome el pésimo mio.

Por poder, me estendería mas, y te referiría muchos detalles, no obstante quiero escribir a mi familia y por ello hasta pronto me despido.

Un fuerte apretón de manos y un abrazo cariñoso para cuantas amigas mias veas.

No te olvida quien siempre te tienen presente. Tu amiga:”

Teresaren kasuan, deigarria da medikuak egiten duen sarrera-txostenean sexualitateari buruzko aipamena egiten duela. Deigarria dela diot, gehienetan, emakumezkoen kasuan aipatzen edota betetzen ez zen atal bat delako, gizonezkoen kasuan, berriz, bai. Baina, Teresaren txostenean, sexualitateari buruzko oharra dago, eta beraz, bere ingresoak horrekin zerikusi zuzena duela pentsa dezakegu. Zera dio:

“Masturbación: épocas en que la ejecutaba intensamente, desde hace un mes nada. Cree que le habrá perjudicado.

Relaciones sexuales: Nunca ha alternado con hombres por los que demuestra cierta hostilidad”.

Kezka handia agertzen dute medikuek eta senideek Teresak gizonekiko azaltzen duen jarrerarengatik. Ingreso baina hamabost egun lehenago, Figuerido medikuak (psikiatriko honetatik kanpo lan egiten duenak eta Teresa psikiatrikora bidaltzeko aholkua eman zuenak) honako hau idazten dio psikiatrikoko medikuari:

¹⁴³ Badirudi esaldia amaitu gabe utzi zuela, zer egiten zuten gizonezkoek?

“Una chica de 19 años, retraída, rara y hosca, que huye de los hombres; Hace unos años consultó con compañeros por motivo de falta de concentración, dificultad del recuerdo, cefaleas, insomnio, una especie de ataques motrices pasajeros, sensaciones como de electricidad o flechas que le pasaban por la cabeza”¹⁴⁴.

Teresak emakumeekiko zuen jarrera azpimarratuta ikusi daiteke erizainen hainbat oharretan.

“«Llama a la Srta X preguntándole con insistencia si tiene novio, no se marcha le dice varias veces Ud es muy guapa... que ojos... porque no se acuesta Ud conmigo?» al decir esto dice la Srta X, se le ve con una mano dentro de las mantas y la otra encima y se le ve en la cara un gesto muy sensual”¹⁴⁵.

Egun horretan bertan, erizainek hitz hauek jartzen dituzte Teresaren ahotan.

“«Quiero bailar con Palacios... quiero bailar sensualmente... » « ¡Qué hermoso tiene que ser amar a un hombre!»”.

Medikuaren oharretan, behin baino gehiagotan aipatzen da, esan bezala, gizonezkoekiko hotza dela eta ez duela eurekin harremanik izan nahi. Jarrera honekin lotutako beste ohar bat, 1944ko azaroaren 17an deskribatzen dena da:

“Sigue después refunfuñando porque no se le lleva al cine que ella quiere «No quiero películas de amores... » En el cine se pone en plan amoroso con la enfermera. A pesar de que se le reprende y afea su conducta sigue igual lloriqueando: «es que Ud no sabe como le

¹⁴⁴ 1944-04-04an idatzitako eskutitza. Eskutitz honetan agertzen zen Teresa psikiatrikoan onartua izateko gomendioa.

¹⁴⁵ 1944-06-01ean idatzitako oharra.

quiero... desde que vine... ¿Ud no ha amado nunca a una persona?... Dejeme que le agarre... es que yo siento este amor... ¿porqué no corresponde?» Está excitada moviendo continuamente la mano sobre el brazo de la butaca. Cuando ya la enfermera le amenaza con decirle al D. y no _ más con ella cambia ya de actitud y pone atención a la película”

Erizainek diotenaren arabera, erizain bati eskutitzak idatzi zizkion. Baina badirudi gero erizain hori “desagertu” egin zela eta Teresak berarengatik galdetuta ere, inork ez zion esaten non zegoen, gaixo zegoela besterik ez.

Teresak sexu-gogoarekin bizi duen harremana etengabeko gaia da txostenetan, ez da lesbianotasunari buruzko aipamenik egiten, baina oharrak kontuan hartuta ikusi daiteke hori izan zitekeela psikiatrikoan sartzeko arrazoietakoa bat. Asko dira erizainek sexu-gogoari buruz idatzi zituzten pasarteak eta horien arabera badirudi batzuetan Teresak nahi horien aldarrikapena egiten zuela eta praktikan jartzen dituela; beste momentu batzuetan, berriz, erruduntasun sentimendua azaltzen du desio horiek sentitu eta praktikara eramateagatik. Honen adibide Teresak berak 1944ko maiatzaren 15ean instituzioko psikiatrari idatzitako eskutitza:

“Muy estimado doctor: quisiera manifestarle que el pensamiento como el eco continua repercutiéndome y que estos dias por haber proseguido con mis apetitos sensuales me aquejo mucho de dolor de cabeza. Me sorprende mucho pensar no voy en busca de revistas ni jamás he tenido amigas que parezcan atrevidas en esa materia. Todo se lo he manifestado al doctor pero pese a ello quisiera que Ud lo supiera. Hoy he tenido pensamientos puestos en practica. Me molestaría muchísimo juzgase que quizá esto de escribirle sea por otro motivo que nunca he motivado, o si bien he pensado nunca he reparado en ello. Esta mañana pese al tratamiento he continuado con los mismos pensamientos sexuales. Quisiera quitar estos placeres mas por mucho que en quitarlos deseo no lo consigo. Muchas cosas anhelo manifestarle respecto a esta materia sexual mas cuando tenga tiempo le agradeceré referírsele. Suya su enferma”.

Bere burua dominatzeko nahia aipatzen du Teresak. Jarrera “egokiaren” eta nahiaren arteko borroka. Medikuekin sentitzen eta pentsatzen duen guztia konpartitzeko beharra daukala dirudi, “gaixotasun” baten ondorioa balitz bezala ulertzen du batzuetan. Bekatua du hizpide:

“« ¿He pecado?» «Me van a poner cruces...» por los signos que se ponen en el papel del E.”¹⁴⁶.

Teresari jartzen dioten tratamendua elektroshock-a eta koma insulinikoa¹⁴⁷ da. 1944ko apirilaren 22tik, maiatzaren 23ra (hau da, hilabete batean) 16 koma intsuliniko eragin zizkioten, bi egunetik behin. Teresak behin baino gehaigotan aipatzen du tratamenduei dien beldurra. Ez du insularik ez eta intsulina osteko sondarik nahi eta elektroshock-ak beldurtu egiten du:

“Ha quedado con pánico a la terapéutica”¹⁴⁸.

Teresak, berak, elektroshock-ari buruz honako gogoeta idatzi zuen:

¹⁴⁶ Elektroshock-a jartzen zietenean fitxa batzuk betetzen zituzten, koadro txikiz betetako fitxak ziren eta koadroak gurutze txikiekin betetzen zituzten, gurutze horiek bekatuarekin lotzen ditu Teresak.

¹⁴⁷ Intsulinarekin bitartez koma hipogluzemikoak eragiten zituzten, 1927an asmatu zuen Sakelek, psikiatriko honetan hasieratik erabili zuten teknika hau 1967. urterarte. “Goizean, pazienteak bere logelara zegoela, baraurik, intsulina injektatzen zitzaion besoan edo hankan; pazienteak uneoro kontrolatzen zuten, eta koma hipogluzemikoan sartzen zenean (intsulina sartu eta 2 edo 3 ordura), zunda nasogastriko bat sartzen zioten. Horren ostean, urina xurgatzen zuten birikan halakorik ez zegoela jakiteko, eta ezta edo 200 g azukreko soluzio batean maten zioten uretan edo esnetan nahastuta. [...] Pazienteak ordu 1 edo 2 behar izaten zituen berriz ere guztiz kontziente egoteko. [...] Batzuetan elektroshocka ere erabiltzen zuten pazienteak konorterik gabe zegoenean.” (López Velasco, 2010:103).



*Irudi honetan, 1960an koma intsuliniko bat, argazkiko moja baten arabera: “Ez genion ezer eman, pazienteak lo itxurak egin zituen argazkirako” (López Velasco, 2010:102).

¹⁴⁸ 1944ko maiatzaren 23ko oharra.

“Muy preocupada con el electro. Quisiera saber como perdemos el conocimiento y porqué. Es decir la causa y el efecto. Tardo en perder el conocimiento con el electro cosa que antes no me sucedía. Si el ideal o fúe es llamar la atención, al saber de antes que no consigo lo que pretendo y no solo no consigo sino que pierdo mucho por lo [...]”¹⁴⁹ un signo + antes y que después no es = sino -2 porqué me dejo llevar de mis impulsos? Al poder dominarme durante un espacio de tiempo ilimitado ¿porqué no me refreno en un tiempo perpetuo? Las tres partes del carácter, una heredada del temperamento de mis papás, otra por ~~causa de que me han~~ haberme consentido mis caprichos, la tercera porque ~~de la causa~~ no soy causa sino efecto. ¿Con electro diario no podían dominar la voluntad?”¹⁵⁰.



*Hau zen psikiatrikoko elektroshock- gailua (López Velasco, 2010:101).

Elektroshock-ak inolako eraginik ez duela azpimarratzen zuen Teresak:

¹⁴⁹ Ez dut jartzen duena ulertzea lortu.

¹⁵⁰ Marra batez “ezabatutakoak” Teresak horrela idatzi zituelako errespetatu ditut.

“Siento me repercuten las ideas, como me repercutían antes. Pienso en cosas como pensaba antes de ponerme enferma. Dolores de cabeza. Siento transformaciones en todo el cuerpo; como si fueran cosquillas es como si fuera otra sangre y otra voluntad. Nerviosismo sin (causa) motivo alguno de ser el del cine de anoche. Me vino la regla antes de ponerme el electro-sock y se me ha marchado. Me duele la nuca. Me duele el estomago. Tengo cansada la vista. Me tambalea el pie. Pierdo por momentos _ de memoria. Carezco de la poca que tenía antes. Quisiera dormir bien y conseguir lo poco que me falta para las ocho horas”.

Hauek dira elektroshock-aren ondorioak tratamendu hau jaso duen pertsona baten hitzetan. Nola sentitzen den adierazten du Teresak argi eta garbi. Memoria pixkanaka galtzen ari dela dio, baina era berean ez direla bere ideiak aldatu. Tratamenduarekin hori espero du Teresak, txartzat eta kaltegarritzat – bekatutzat – jotzen diren ideiak burutik kenduko dizkiola. Baina, zentzu horretan, berak ez du inolako aldaketarik sentitzen.

Gauza berberak datozkio burura.

Berberak.

Berberak.

Berberak.

Teresaren hitzetatik atera dezakegun beste datu bat da hilerokoarekin zeudenean ez zietela elektroshock-ik jartzen, behintzat bi egunez, eta bi egunetara jartzen zientenean, kasu honetan behintzat eten egiten zitzaien. Agian, horregatik uzten zuten tratamendua bertan behera hilerokoaren lehen egunetan.

Teresak etengabe aipatzen dituen hitzak dira: “bekatua”, “dominazioa” eta “barkamena”. Jarrera bat hartzen zuen, “desegokitzat” jotzen zena eta gero barkamena eskatzen zuen, bekatu-rik egin ote duen galdetzen zuen eta hurrengo batean bere burua dominatuko zuela esan. 1944ko irailaren 9an, dontzeila bati bere kezka eta kexak azaldu zizkion eta honela azaltzen dituzte erizainek Teresaren egunerokoan:

“«Habré pecado yo con contar estas cosas... »... Tiene esta cosa de pecar después de que esta tarde me decía que no creía en Dios”.

Dontzeilak kontatu zien Teresarekin hitz egindakoa?

Erizainak beti zaintzan ari ziren?

Teresak maiz esaten du bera ez dela katolikoa, ez duela Jainkoan sinisten, baina bekatuaren kontua etengabe errepikatzen du. Zeinen begietarako dira egiten dituen gauzak bekatu? Ez du erlijio katolikoaren ideologiarekin lotzen, baizik eta bekatua gaizki dagoen zerbait bezala, unibertsalki eta atenporalki eta ez ideologia konkretu baten arabera edo horren menpe.

“A la enfermera de vela le dice que por la noche comete actos de impureza a ver si no le ha observado”¹⁵¹.

Teresak hasieratik agertu zuen bertan ez egoteko nahia. Honela deskribatzen dute erizainek bere ingresoaren biharamuna:

“1944-04-22: No quiero estar aquí... meses como otras... Que me lleven a un manicomio... No me he de levantar por mucho que se empeñen... Romperé cristales y me escaparé... mataré alguien» No sea [...]”¹⁵² y razone un poco. - «No quiero razonar porque estoy loca... »”¹⁵³.

¹⁵¹ 1944-10-11ko oharra.

¹⁵² Ez dut jartzen duena ulertzerik izan.

¹⁵³ 1944-04-22-ko oharra.

Zortzi egunetara, burdin-barrak zituen gelara pasa zuten Teresa 1944ko apirilaren 28an izan zuen krisi baten ondorioz. Hilabete eman zuen han, eta ziega batean bezala sentitzen zela esaten zuen, logela aldatzeko eskatzen zien.

Erizainek Teresak “nahi dut” esaldia etengabe aipatzen zuela esaten dute:

“Le molesta adaptarse al gusto de los demás”.

Teresak berak dio ezin dela egin batek nahi duena, baina bizitza horrelakoa dela:

*“«En esta vida nunca se consigue lo que se quiere. No se realiza nunca el ideal... »
Entremezcla así, sin más, de vez en cuando en la conversación corriente, frases casi abstractas
y que no responden a la conversación pero las dice después de estar unos segundos
pensativa”¹⁵⁴.*

Adibidez, egun batean Teresak zigarroa erre nahi du eta ez diote ematen. Gizonezko baten bitartez zigarro bat lortzen du, zeren gizonezkoek erre zezaketen, eta debekatu egiten diote erretzea. Jarrera errebeldetzat jotzen dute erizainek, hauxe da esaterako 1944ko apirilaren 26an idatzi zuten oharretako bat:

*“Obedece bastante bien aunque siempre ha de pedir lo contrario de lo que
hace. Si está en casa quiere salir y cuando sale quiere volver. Siempre la palabra “quiero” o
“no quiero” a de regir sus actos”.*

Instituzio honetan Teresak egiten zituen hainbat gauzaren berri ere jakin dezakegu mediku txostenean dagoen informazioaren bitartez. Polizia-nobelak irakurtzen zituen,

¹⁵⁴ 1944-06-01ko oharra.

lerian ibiltzen zen,

pianoa jotzen zuen,

alfonbra bat egiten zuen beste emakumezkoekin batera,

kroquetean,

partxisean aritzen zen...

baita koadernatzen ere.

¿Habré pecado yo con contar estas cosas?

¿Habré pecado yo con contar...?

¿Habré pecado...?

Familiarekin telefonoz hitz egiteko Teresak baimena eskatu behar izaten zuen:

“Quiere poner conferencia a su casa y pide permiso al D. Este le concede pero le aconseja que lea primero la carta que ha recibido. La coge y no la lee, prefiere jugar y hacer que no le interesan noticias de su casa; la conferencia la quiere poner para pedir ropa”.

Teresak adierazten du gertatzen zaiona azaltzeko arazoak dituela: *“No sé que me pasa a mí”, “Esto es horroroso”, “Es muy raro, no lo puedo explicar”, “Miedo a volverse loca”, “Come bien con ansia de que desaparezca eso que ella siente y no sabe explica”.* Eta beste une batzuetan hitz egiteko arazoak jartzen zizkiotelako kexu da:

“«No hay derecho...no le dejan ni hablar a una»”.

Eta agian horregatik, azaltzeko ezintasunagatik eta hitz egiteko mugengatik, 1944ko uztailean¹⁵⁵ maindireetan idazten hasi zen.

“Escribe en las sábanas.”

Ingresoaren amaiera aldera oharrak aldatu egiten dira, Teresaren jarrera otzana azpimarratzen da eta zerbait positiboa bezala hartu. Honelako esaldiak askotan errepikatzen dira:

“Durante el día se porta bien”.

“Por la noche se acuesta y no da nada de guerra”.

“Muy buena todo el día sumisa y obediente”.

“Se le ve con empeño de ser buena y servicial a los demás”.

1944. urteko abenduaren 18an, zortzi hilabeteren ondoren eman zioten alta Teresari. Irten aurretik etxera joateko gogoia zuela esan omen zuen, urte bereko abenduaren 10ean erizain batek ohar hau idatzi baitzuen:

“Da la impresión de no ser muy sinceros sus deseos de ir a casa”.

¹⁵⁵ Ez dago eguna zehaztuta.

Rosa

“Haré todo lo que me digas pero llévame a casa”

(Rosa, 1945-07-13).

Rosak 17 urte zituen psikiatrikoan sartu zutenean. Bilbotarra zen, Teresa bezala. Hilabete eta sei egun eman zituen ingresatuta, 1945eko ekainaren 27tik, 1945eko abuztuaren 3rarte. Bere fitxan, ezkongabea zela zehaztu zuten. Eta kasu honetan, Teresarenean ez bezala, ingresatutakoekin erabiltzen zen fitxa-eredua bete zuen psikiatrak. Lehenik eta behin, medikuak familian dituen aurrekariet buruzko atala:

“Enfermedades mentales. padre rígido y afectivamente congelado. madre muy afectiva y hermano grande y otro más pequeño 10 años”.

Datu horiekin Rosaren senideen argazki bat egin dezakegu aitarekin eta amarekin zuen harremanaren inguruko ideia bat osatuz. Gero ikusiko dugu aitarekin duen harreman hori zehatzago, Rosak berak eskutitz bat idazten diolako. Familiako aurrekarien ondoren, Rosak psikiatrikora iritsi aurretik “izandako gaixotasunen” atala dago beteta:

“Desde pequeña hasta los 8 años vómitos alimenticios sin hayar alteraciones orgánicas. Desde los 8 años inapetencia y molestias digestivas: retardo de la digestión y frecuentes eructos con gusto a comida. Solo ha tenido una época de buen apetito el verano pasado que hacía ejercicio físico y estaba contenta”.

Ondorioztatu daiteke psikiatrak Rosaren jateko gogoen eta bere egoera psikologikoaren arteko lotura egin zuela, “pozik zegoenean” jateko arazorik ez zuela zehazten baitu. “Gaixoak emandako datuak” atalean honako hau idatzi zuen:

“Hasta hace un año y medio estuvo interna en Haro donde se encontraba bien, hacia lo que queria y todas las alumnas giraban a su alrededor. Después la enviaron interna a Fuenterrabia, para aprender francés ‘allí las monjas eran frias, habia más disciplina’ ‘era una cualquiera’ como más importante figuraba Madame X que era ‘fingida diplomática, tenia que adularle y me molestaba’. Todas las chicas le hacian caso a ella y a mi me hacían el vacío’. Respondio a ese cambio de situación con tristeza decaimiento y anorexia. En Navidades acabó su educación y fué a su casa. Durante toda su vida había tratado más intimamente a un primo suyo, hijo de un hermano de su madre que está reñido con su padre. En Navidades el primo le pidió relaciones, ella consultó con sus padres que se negaron radicalmente. Desde entonces ha estado reñida con sus padres: no hablaba con ellos, se encerraba en la habitación, no comia y hacia toda clase de groserias a su familia y servicio”.

Rosaren familiaren klase soziala altua dela esan daiteke: alabak frantsesa ikasteko Hondarribiko eskola interno batera bidaltzeko aukera zuten eta testuaren amaieran zerbitzua zutela zehazten da¹⁵⁶: *“Hacia toda clase de groserias a su familia y servicio”*. Mojek Hondarribin zuten jarrera hotza eta zorrotza zela dio, eta aurretik ez bezala (Haron egon zen garaian) “edonor” bezala tratatzen zutela, beste neska bat omen zen garrantzitsuena eta Rosari ez zitzaion gustatzen neska horren atzetik ibiltzea. Beste alde batetik, jakin dezakegu, aita eta amaren neba bat (Rosaren osaba) haserre zeudela, eta baita ere Rosaren lehengusu batek berarekin bikote harremana izateko eskatu ziola. Idatzietan aurrera eginaz ohartuko gara Rosa psikiatrikoan egoteko arrazoi nagusia azken hau izan zela: lehengusuarekin zuen harreman. Zentzu honetan doaz medikuak egin zituen dituen lehen oharrak:

¹⁵⁶ Artxiboaren analisisa egin dudan psikiatrikoa, 1937-1950 bitartean, psikiatriko pribatua zen, eta aurrerago emango ditut instituzioaren inguruko datu gehiago, baina bertan ingresatzen zituzten pertsonen testuingurua eta psikiatrikoa bera antolatzeko moduan klase eta egoera ekonomikoak eragin handia zuela aurreratu nahi dut.

“Ha sido vista por diversos médicos y ultimamente por el Dr Figuerido¹⁵⁷ quien la deriva con consentimiento de la enferma para hacer reeducación”.

Argi esaten da zein asmorekin sartu zuten psikiatrikoan: “Reeducación”. Rosak lehengusuarekin zuen harremanarekin ados ez eta beste jarrera bat hartzea lortu nahi zuen familiak. Eta zalantzan jarriko nuke “gaixoaren oniritziarekin” ingesatu zutela dioen oharra, Rosaren idatziak guztiz bestelako jokabidea erakusten dute. Psikiatrak berak, 1945eko uztailaren 5ean idatzi zuen:

“Adaptada, escribe carta a sus familiares pidiendo que la saque de aquí ‘por aburrimiento’, su ilusión es ir a Bilbao para ir a las verbenas y regatas”.

Ohar honetan argi geratzen da Rosak ez zuela psikiatrikoan egon nahi, beraz, aurretik irakurri dugun oniritziarena, gutxienez, zalantzan jarri beharko genuke. Egun batzuk beranduago idatzi zituen eskutizetan are garbiago geratzen da bere nahiaren kontra zihoan zerbait zela. Rosaren mediku-txostenari buruz aipagarria da ez dagoela tratamenduaren inguruko daturik; inon ez da zehazten tratamendurik jasotzen ote duen edo ez. Ikusten dena da, egin ziotena eginda, esan ziotena esanda edota gertatu zena gertatuta, Rosaren jarrera pixkanaka aldatzen joan zela. Hauxe da, sartu eta hemezortzi egunera medikuak berari buruz idatzi zuena:

“En conversaciones admite que ha sido ‘insoportable’ que ella es culpable de la situación en su casa. el acto de pedir perdon le horroriza y no se encuentra con fuerzas”.

Hamabi egunetara psikiatrak idatzitako azken oharrak emango digu gertatzen ari zenaren inguruko argia:

¹⁵⁷ Rosak, Teresaren mediku bera zeukan, Figuerido doktorea. Beraz, Bilboko medikua izango zenak ohitura zuen kontsultara joaten zitzaizkionak Gipuzkoako psikiatriko honetara bidaltzeko.

“Sobre el papel ha sido arreglado el conflicto con una dura carta del padre en que impone condiciones aceptadas por la enferma”.

Honen arabera, badirudi Rosarekin zuten helburua bete zela: aitak jarritako baldintzak onartzea eta bere lehengusuarekin zuen harremanari (hasi bazen) uko egitea. Hain zuzen ere, erizainek Rosari buruz idatzi zuten:

“A la vuelta habla con el Dr., le cuenta toda su tragedia que es la de unos amores incomprensidos. Habla como gran experimentada en ese asunto y dice «Yo no puedo resistir... me siento sin fuerzas... es horrible... Ud no sabe lo que sufro... no quieren que trate con mi primo, y sin embargo se empeñan en que trate con un íntimo amigo de casa que a mí no me gusta nada. Luego estoy vigilada, no puedo salir de casa porque tengo espías por todas las esquinas... es horrible... yo no resisto... y el principal motivo de las hostilidades que hemos creado entre mamá y yo es éste... me traen aquí creyendo que estoy enferma y yo no tengo nada...»”¹⁵⁸.

Aurretik esan dugu lehengusuarekin zuen harremana zela arazo nagusia, aitarekin ez ezik horrek amarekin ere problemak sortu zizkion. Jakin dezakegu etxekoen lagun estua den gizonezko batekin elkartu nahi zutela eta alde guztietatik zelatatua sentitzen zela: etxera atera eta berehala egiten zuenaren berri izaten zuten gurasoek. Rosak ez du uste gaixo dagoenik eta psikiatrikoan egoteagatik lotsatu egiten zen:

“Por la tarde sale al teatro. Allí se encuentra con una amiga habla con ella pero no quiere decirle donde está”¹⁵⁹.

¹⁵⁸ Oharraren data: 1945-06-24. Deigarria da ohar honetan dagoen data, txostenean 1945-06-27an ingresatu zutela jartzen duelako.

¹⁵⁹ 1945-06-27ko oharra.

Noizbehinka antzerkira edo zinemara eramaten zituzten ingesatutakoak, eta ez zen Rosa antzerkira joan zen egun bakarra, 1945eko uztailaren 20ean ere inpresio handia eragin zion obra bat ikusi zuen:

“Sale al teatro, pareciendole la obra demasiado fuerte pues dice a la enfermera que la acompaña si al salir no habrá una Iglesia abierta para confesarse”.

Rosa erlijioso zen, beraz. Ez dakigu zein antzerki obra ikusi zuten baina hura ikusi ondoren aitortza egin behar zuela sentitu zuen. Gurasoekiko jarrera, itxuraz behintzat, uztailaren erdialdetik aurrera aldatu zen, 1945eko uztailaren 17an:

“Habla por teléfono con su mamá y dice que en vista de que la mayor alegría y la prueba mejor de su cambio, es terminar con su primo escribe a su padre tomando esa determinación”.

Aitari idatzitako eskutitz bat dago mediku txostenean baina data bost egun lehenagokoa da. Rosak barkamena eskatu zion aitari eta honek nahi zuena egiteko prest zegoela adierazi. Aipagarria deritzot jarraian erreproduzituko dudan eskutitzaren kopia bat egoteari; kopia bat dela jartzen du eta, beraz, aitaren eskutitza bidali egin zutela ondorioztatu dezakegu. Zergatik? Rosaren kasuan, bere “sendaketaren” froga zen eskutitz hori. Hauxe 1945ko uztailaren 11ean Rosak aitari idatzitakoa:

“Queridísimo papá: ya hace varios días que pensaba escribirte pero he dejado pasar un poco de tiempo a fin de reflexionar bien lo que voy a decirte.

Ante todo quiero pedirte perdón: lo necesito pues comprendo que hay razones de sobra para que estes enfadado conmigo te he faltado al respeto lo que nunca hubiera debido hacer; tú eres tan bueno y que tanto has hecho por nosotras; te lo he pagado bien mal, lo comprendo y esa es mi mayor pena; creeme papá me doy perfecta cuenta de lo mal de mi comportamiento tú

mereces que te quiera con toda mi alma y que te pague de algun modo cuanto has hecho por mi y eso es lo que estoy dispuesta a hacer. Quiero borrarlo cuanto de mal he hecho y ahora quiero demostrarte la verdad de mis palabras. Estoy dispuesta a hacer todo lo que quieras solo te pido que me lleves a tu lado que me perdones y que me quieras mucho, mucho, es lo único que me importa.

Papá a veces pienso que has podido imaginar que no te quiero, no lo creas nunca, te quiero más de lo que supones y te quiero porque te lo mereces tú eres bueno tan bueno que creo que nunca podre pagarte ni con mucho un poco de lo que tu has hecho por mi.

Papá quiero ser ahora tú hijita de siempre; tú nena que te adora y sobre todo la mujercita seria y cariñosa que has buscado siempre en mí.

Te suplico de nuevo que me perdones; llevame contigo quiero ser tu cariño y tu alegría.

Un fortisimo abrazo”.

Hori da Rosak aitari esan ziona, baina...

Zergatik egin zuen?

Aitak entzun nahi zuena zelako?

Psikiatrikotik ateratzeko aukera bakarra zelako?

Amore eman zuelako?

Galderak zilegi dira izan ere, egun bat lehenago, 1945eko uztailaren 10ean, hain zuzen, eskutitz hau idatzi zion Rosak osabari¹⁶⁰:

¹⁶⁰ Rosaren aitarekin haserre dagoen osaba (amaren neba) izan zitekeen, edota ustez harremana izan nahi duen lehengusuaren aita; agian pertsona bera ziren.

*“Tio haz comprender a mamá que ni el Dr [...] ni nadie pinta nada esto es entre ellos tú y yo.
Tio si me ayudas si de verdad vienes a buscarme haras sin duda lo que mas puedo anhelar mas
que pedirtelo te lo suplico (donde esta mi orgullo).*

*No puedo seguir no tengo fuerzas para hacerlo, lo dejo todo en ti y de nuevo confio en que me
ayudaras y me sacaras de aquí esta semana si no tio pensare que no represento nada para ti y
creo que actualmente seria romper la única ilusión que me queda “tu cariño”.*

Adios ¡ronpe esta carta en cuanto la leas!

Te abraza muy fuerte.

[...]

No me dejan ni llamarte por teléfono la carcel es mil veces mejor que esto.

El Dr X es un “BOBO” y tiene una calma para desesperar...”

Rosak ez zekien psikiatrikoko arduradunek eurek idatzitako eskutitzak ireki eta irakurtzen zituztela.

Ala agian bai?

Osabari zuzendutako hitz hauek irakurri ondoren, zer pentsatu behar dugu aitari helarazi zion eskutitzari buruz? Osabari behin eta berriro eskatzen zion psikiatrikotik ateratzeko, bere bila joateko, daukaten “kontuan” medikuek ez zutela inolako zerikusirik. Eskutitz horretan idatzitakoak izan zezakeen eraginaren jabe zen Rosa, eskutitza hausteko eskatu baitzion osabari. Mugatuta zituen telefono deiak ere, amarekin hitz egin zuen gutxienez bi aldiz, baina ez zioten osabari deitzen uzten. Ziur aski, gurasoek jarritako mugak ziren.

1945eko abuztuaren 3an...

Rosak 17 urte zituen...

Psikiatrikotik atera zen...

Gertuko senideak joan zitzaizkion bila...

Gurasoekin bueltatu zen etxera...

Carole

“No tengo ilusión de vivir una vida indiferente”

(Carole, 1949-08-8/9/10).

Carolek 46 urte zituen psikiatrikoan sartu zutenean, belgikarra zen. Bederatzi hilabete eman zituen instituzioan, 1949ko ekainaren 24tik, 1950eko martxoaren 31arte. Bere mediku-txostenean, medikuen, erizainen, mojen eta tratamenduaren inguruko oharrez gain, Carolek berak idatzitako eskutitz asko daude, batzuk ingelesez. Hain zuzen, erizain eta mojak kexu ziren ingelesez aritzen zenean ez zutelako ezer ulertzen.

Fitxa finkoan hiru atal daude beteta: aurretik izandako gaixotasunena, senideek emandako datuak – ez da zehazten datu horiek nork emanak ziren – eta sexu harremanena. Esan dut aurretik aipagarria dela emakumezkoen kasuan sexu-harremanen atal beteta egotea. Carolenean zera jartzen du:

“Algunas extramatrimoniales”.

Aurreko gaixotasunei dagokionez, bere ezkontz bizitzari buruz idatzi zuen psikiatrak:

“Casó muy joven con su primer marido del que tuvo un hijo. Pronto el matrimonio fue mal. Después enseguida casa con su segundo marido del que tiene 2 hijas. También pronto disensiones intermatrimoniales originadas por la tendencia al gasto, incapacidad de administración y carácter de la enferma”¹⁶¹.

¹⁶¹ Aurkitutako idatzi guztiak literalki kopiatzen ari naiz.

Carole bi aldiz ezkondu zen. Lehenengo ezkontzan oso gaztea zela dio medikuak baina ez du adina zehazten. Hiru seme alaba zituen, Carole-k berak hitz egingo du beraiei buruz aurrerago. Psikiatraren arabera ezkontz-bizitza Carole-n jarrera eta izaeragatik okertu zen. Senideen arabera:

“Hace 7 años estaba en Estados Unidos y le hicieron venir diciendo que su marido estaba enfermo para reintegrarle en su familia y evitar el tipo de vida que hacia. Hace 4 años, estando en Biarritz con sus hijos hubo que dar la administración al tutor por desastre. Comenzó con un delirio de persecución a base de falsas interpretaciones por las que le acusaban de mala madre, mala esposa, y que consiguieron con estas calumnias apartarle de sus hijos, deshacer su hogar y robarle su dinero. Hace 7 meses estaba sola en Paris y fue internada por orden policiaca a causa de los escritos, protestas y escandalos. Estuvo ingresada en Surenes¹⁶² donde no le han hecho ningun tratamiento. A su ingreso se nota el amaneramiento en gestos y expresión, la tendencia a la grandilocuencia. Su delirio es florido y en construcción. Aparecen menos elementos debido a pseudomemorias. Su personalidad es [...]”¹⁶³ cultivada. Hace una vida retraida por completo. No sale del cuarto. Ha incluido en su delirio a todas las de alrededor la casa es una casa de criminales y el personal está en su favor o en su contra.”

Senideek ez zuten Carole-k zeraman bizitza gustuko: *“Evitar el tipo de vida que llevaba”*.

Nolakoa zen bizitza mota hori?

Zer esan nahi zuten horrekin?

Jakintzat bezala ematen da.

¹⁶² Surenes, Suresnes izango da ziurrenik, Paris mendebaldean dagoen hiria da, hospital psikiatriko pribatua zen eta Jacques Joseph Valentin Magnanek (1835-1916) psikiatra frantsesak sortu zuen. (<http://psychiatrie.histoire.free.fr/pers/bio/magnan.htm>).

¹⁶³ Ez dut jartzen duena ulertzea lortu.

Seme-alaben tutore beste pertsona bat izendatu zuten eta senideek esaten zuten horren ondoren pertsekuzio-delirioa izaten hasi zela eta delirio horietan ama eta emazte “txarra” izatea leporatzen ziotela.

Asmakuntza soila zen?

Seme-alaben tutoretza benetan kendu zioten...

Delirioaren parte ba omen zen baita ere: bere etxea desegin zutela eta bere dirua lapurtu ziotela. Pentsa dezakegu horren ondoren eta ondorioz Parisera joan zela, han poliziaren aginduz Suresnesen ingresatu zuten¹⁶⁴ eta bertan, zehazten du medikuak, ez zioten tratamendurik jarri. Gipuzkoako psikiatriko honetan, berriz, tratamendua eduki zuen: elektroshock-ak eta intsulina bidezko komak. Carolek pozoitua izateko beldurra zuen eta ematen zioten guztiarekiko mesfidatia zen.

Mesfidati zegoen...

...eta ez zioten sinisten...

Psikiatrak sasi-memoriatzat jotzen zituen Carolek esandakoak. Erizainek hau idatzi zuten 1949ko ekainaren 25ean:

“Mi vida oscura comenzó en el año cuarenta y uno. Canto para no recordar nada de lo malo que hay en mi vida. Canturrea canciones asomada a la ventana y de vez en cuando hace movimientos como si iría a comenzar a bailar. «Tengo dos hijas guapísimas, pero lo que más vale de ellas es la bondad, son muy buenas. Son españolas. Yo soy primera esposa de un Barón,

¹⁶⁴ Carole-n arabera: “Yo he estado en Paris seis meses encerrada que no podía ver nada porque no se habría la ventana mas que un poquito y tenía rejas” (1949ko azaroaren 4/5/6/7/8/9/10eko erizainen oharra).

con él tuve un hijo, que ya es todo un caballero, tendrá veintiocho años, y tendrá esposa, yo creo. Cuando la guerra se marchó América y no he vuelto a saber más de él. Casada en segundas nupcias con el Sr [...] ¹⁶⁵ con él tuve dos hijas, dos verdaderas hijas, pero estoy tristísima porque no sé si viven (llora cuando habla de ellas)”.

Canto para no recordar...

Hace movimientos como si iría a comenzar a bailar...

Carole-k hemen esaten duen guztia, medikuak senideen hitzak jarraituta idatzi zuenaren antzekoa da. Gehitu dezakegun datua, klase sozial altuko giroan mugitzen zela, eta lehen semea hemezortzi urterekin izan zuela. Eta ondoren, bigarren senarrarekin, bi alaba izan zituela esaten du, eta azpimarratzen du benetako bi alaba zirela.

Benetakoak?

Zer esan nahi zuen horrekin?

Carole-k askotan ingelesez eta frantsesez hitz egiten zuen eta, beraz, erizainek ezin zituzten une horretan esaten zituenak idatzi, ez baitzuten esaten ari zena ulertzen:

“No hace ningun gesto unicamente que me habla en Inglés. Como yo no comprendo lo que me quiere decir se hecha una carcajada muy fuerte yo salgo de la habitación no he terminado de cerrar la puerta y sale con mal humor y tira al suelo la mesa y desayuno. Le digo que eso no

¹⁶⁵ Konfidentzialtasuna dela eta ezin dut izen errealik jarri.

*debe hacer que está feo. Me contesta muy fuerte y amenazando con el quitamoscas. Como habla
Ingles no sé lo que dice”¹⁶⁶.*

No sé lo que dice...

Pentsa dezakegu Carole-k bazekiela ingelesez hitz eginez gero ez zutela esaten ari zena ulertuko. 1945eko uztailaren 28/29an bere istorioa kontatzen jarraitu zuen, erizain edo baten oharretan jasota dago honako hau:

“Yo vivía muy feliz con ellas pero una mano negra, ese nombre solamente se le puede dar a esa persona, me las arrancó de mi lado cuando todavía eran unas niñas que necesitaban mucho de su madre. Si a usted que es una persona buena y bondadosa le obligan un día a que le deje todo esto y quien manda hacer esto es nada menos que todo un Consul de cierto país. ¿Que aria? Lo que yo he hecho ¿No es cierto? Doblearme y esperar a que llegue el día que usted pueda hablar ¿Verdad? Pues eso me pasa a mi. Que adelantaria si yo me opusiera y me volviera rebelde a todo esto. Creo que no adelantaria nada con esa aptitud. Es mejor esperar. ‘Ese día estoy dispuesta a pegarme incluso con ese vil que ha destrozado estos años de mi vida’”.

Carole-k etengabe aipatzen zuen pertsona konkretu bat zegoela bera psikiatrikoan sartzeko erabakiaren atzean. Egoeraren irtebide bakarra, edo berak lortu nahi zuena lortzeko era bakarra, “men egitea” zela uste zuen, “hitz egin dezakezun eguna iritsi arte itxoin”.

Itxoin...

...itxoin...

...itxoin...

¹⁶⁶ 1949-0724/25eko oharra. Urte hauetan, egunerokoa ez zen eguneroko. Hau da, egun bat baino gehiagokoa laburtzen zuten.

...itxoin...

Beraz, psikiatrikoan zegoen bitartean, hitzik ez duen pertsona bat bezala kontsideratzen zuen bere burua. Eskubide hori gizonezko batek kendu zioen, bere senarra izan zitekeen, edota bere inguruan boterea duen gizonezkoren bat:

“Sabes quien me ha traído a esta casa desconocida... te diré un español... un aviador que esta en el extranjero el sabra porque ha abandonado su país”.

Carole-k badaki zein jarrera hartu behar duen egoera horretatik ateratzeko, eta beraz, badaki berak duen jarrerak ez duela alabak berarekin izatera eramango, badaki bere jarrera ez dagoela ondo ikusita eta gaixotasuntzat hartua dela.

Badaki.

Medikuak bisita bat egiten dio eta Carolek zera esaten du:

“Estoy dispuesta hacer todo lo que el me diga. Porque me doy cuenta de que es inteligente y aunque pueda equivocarse, él me manda hacer lo que a él le parece bien”¹⁶⁷.

Esan bezala, Carole-n tratamendua elektroshock-a eta intsulina bidezko komak izan ziren, 1949ko abuztuaren 31an, tratamendua bertan behera utzi zuten, eta medikuaren eskutitz batean ikusiko dugu alaba batek eskatu zuela tratamendua bertan behera uztea. Ziurrenik amak kontatutakoengatik egingo zuen hori alabak, izan ere, Carolek tratamenduari beldur handia zion:

¹⁶⁷ 1949ko abuztuaren 3/4/5/6/7a.

“Se le suspende el tratamiento. «Si supieras el terror que le tengo a la inyección y se quien es el malvado que deja que me atropellen a una Sra belga como yo soy fuera de mi país algún día te lo dire, es un hombre a quien yo quiero mucho aunque el conmigo es un traidor tiene muchas mujeres ahora no se con quien vivirá me gustaria olvidarlo; pero a pesar de su mal comportamiento le perdono por ser una persona muy inteligente»”.

Berriro ere gizonezkoaren aipamena; Carole-k bere egoeraren arduradun egiten du behin eta berriz:

“Yo a mis hijas las quiero mucho aunque me las han quitado hace cuatro años yo las educado muy bien aunque ellas se han dejado engañar por un hombre vulgar que no se lo que habra hecho con mi dinero...”¹⁶⁸.

Ekainaren 24ean ingresatu zutenetik, irailean dago lehen bisitaren berri. 1949ko irailaren 7tik 15era bitartean gertatu zen, ezin da eguna zehaztu egunerokoan egun horiek guztiak jartzen dituelako ohar honen aurretik:

“Tiene visita. «Estoy muy contenta me ha venido a visitar Don X¹⁶⁹ me ha prometido sacarme de esta casa y como no espero que este Sr me va a decir mentira tengo mi equipaje todo preparado... » Como pasa mas tiempo de lo que esperaba de que vendrian a buscarla está de mal humor.”

Kontutan hartu behar dugu, beraz, Carole-k harremana zuela garai hartan Espainiako diktadore zen Francisco Francoren senide batekin. Atzerrian ere ezagun asko zituen laguntza eske eskutitz ugari bidaltzen baitzizkien.

¹⁶⁸ 1949ko irailaren 1-2-3-4-5-6a.

¹⁶⁹ Francisco Francoren senide bat aipatzen du, Francorekin zuen senide-harremana zehaztuz.

“Llama a voces asesinos, traidores al ver a una mujer sola me han querido matar con inyecciones han destrozado el cuerpo de una mujer extranjera cobardes, canallas cuando sepan mis amigos chinos obraran con justicia y mataran a todas”¹⁷⁰.

Carole-i buruz erizainek idatzi zuten egunerokoaren azken oharretan, etengabe bakarrik hitz egiten zuela aipatzen da, hasieran ez zuten horrelakorik esaten, bere egoerak okerrera egin ote zuen? Bertan itxita egoteak eragin zion jarrera hori?

“Habla sola constantemente y por las noches cuando despierta llama a personas imaginarias pidiendo que le saquen cuanto antes de la prisión en que le tienen encerrada. Habla frances e ingles”¹⁷¹.

“Dice que en su país es costumbre acostarse temprano se duerme para las 8,30 despierta de madrugada dice que tienen escalofríos en el estómago pide bolsa de agua caliente habla un rato con personas imaginarias y vuelve a dormirse”¹⁷².

“Alegiazko pertsonak” direla esaten dute erizainek, baina zergatik?

Beraiekin hizketan ari zela uste zuen Carole-k?

Edo deitu egiten zituen eta erizainek alegiazkoak zirela esan?

Carole-i buruzko egunerokoan antzeman daiteke denborak aurrera egin ahala geroz eta behar gehiago zuela psikiatrikotik ateratzeko. 1949ko azaroaren 3an, Carolek lau hilabete baino gehiago zeramatzan ingresatuta, eta honela kontatzen du erizain batek gertatutakoa:

¹⁷⁰ 1949ko urriaren 6/7/8/9/10/11/12ko oharra.

¹⁷¹ 1949ko azaroaren 11/12/13/14/15/16ko oharra.

¹⁷² 1949ko abenduaren 8/9/10/11/12/13/14/15eko oharra.

“Por la tarde a la hora del reposo baja al entresuelo al parecer con la intención de escaparse cierran todas las puertas cuando las Srtas [...] e [...] le ordenan suba a la habitación se niega y como le obligan a meterse en la cama y le quitan toda la ropa les insulta y le pega a la Srta [...] como esta excitada por orden del Dr se le inyectan 2cc de Brom-Hioscin¹⁷³”.

Abenduaren erdialdean aldaketa bat dago, erizainek idazten dituzten oharretan diote oso ondo egiten duela lo eta oharrak ere geroz eta gutxiago dira: hiru abenduan, bat otsailean eta bi martxoan. Abenduko ohar batean irakurri daiteke:

“Sigue igual durmiendo muy bien y comiendo poco. Sigue con la obsesión de la lectura y todos los días dedica un rato en leer un libro que le regalo el General”.

Alde batetik, irakurketarekin “obsesio” bat daukala esaten da eta beste alde batetik “egunero tarte bat eskeintzen diola”, beraz, ez dakit bi ikuspegi horiek ez ote diren kontraesankorrak, edota pentsa daiteke emakumezko batek egunero irakurri nahi izateak obsesio bat bezala ikusten zela. Abenduan bertan (22/23/24/25/26), bere alabaren eskutitza jaso zuen eta hauxe aipatzen da egunerokoan horri buruz:

“Recibe carta de su hija le entrego y sin mirar de quien es la rompe hace un gesto despreciativo y me la entrega sin mediar palabra”.

Gabon garaia zen eta agian horregatik jaso zuen eskutitza, aurretik, esan bezala, ez dago beste eskutitzik jaso ote zuen esaten duen oharrik.

Martxoan:

¹⁷³ Butilbromuro Hioscina, espasmoen kontra erabiltzen zen medikamendua.

“A los días de recibir la noticia de que le van a venir a buscar cambia completamente de carácter esta contentísima pensando van a llevarle a su país”¹⁷⁴.

Hauxe egunerokoan erizainek idatzi zuten azken oharra:

“Por la mañana se levanta esta muy cariñosa y pide el desayuno con mucha amabilidad se arregla temprano y prepara su equipaje con ayuda de la Srta [...] Por la tarde después de comer vienen a buscarle y sale definitivamente”¹⁷⁵.

Horiek dira Carole-i buruz mediku-txostenean aurkitutako dokumentuetako batzuk, baina ez bakarrak. Mediku-txostenean psikiatraren bi eskutitz aurkitu ditut. Eskuz idatzita daude eta hitz batzuk ezabatuta, horrek makinaz idatzitako kopia bat bidaliko zutela pentsatzera eraman nau. Eskutitzek ez dute datarik. Carole-k berak alabei idatzitako hainbat eskutitz komentatzen ditu psikiatrak eta amaren “gaixotasunaren” adierazgarritzat erabili. Berriz ere, ingresatutakoen eskutitzat irakurtzen zitzutenaren froga.

“Distinguida Sta: Adjunto le remitimos varias cartas de su señora madre dirigidas a Uds. Por el contenido de las cartas pueden darse cuenta del estado de la enferma: dominada por ideas delirantes que le hacen vivir en un mundo fantástico e irreal y ~~completam~~ sin ningun contacto con el ambiente que le rodea. A penas habla con los médicos solo con algunas enfermas, no sale de su cuarto, come defectuosamente. Fisicamente está bien y aunque delgada con el mismo peso que cuando vino aqui.

Nuestro esfuerzo se dirige a procurar una mayor normalidad en su vida y un contacto más amplio con el personal que la rodea pero nos encontramos siempre con una absoluta resistencia que se origina en la enfermedad mental que la madre de Uds. padece.

¹⁷⁴ 1950eko martxoaren 23/24/25/26/27/28/29/30eko oharra.

¹⁷⁵ 1950eko martxoaren 31eko oharra.

Reciba Ud distinguida señoñata la expresion de nuestro Con un respetuoso saludo”.

Psikiatraren bigarren eskutitza 1949ko abuztua baino beranduago idatzitakoa da (medikuak hilabete horren aipamena egiten du). Badirudi alabak tratamendua bertan behera uzteko eskatu zuela eta medikuak tratamenduarekin berriro ere hasteko baimena eskatzen dio:

“Distinguida Sta: Acabo de recibir su carta en la que pide noticias de su madre y el giro que ha trasladado a la administración.

La situación de su madre no es buena. Lentamente se van acentuando en ella los síntomas de su enfermedad que cada vez se hacen mas patentes y abundantes. Apenas No sale de su habitación, vive sumergida en el mundo de las ideas absurdas de su enfermedad y el trato con ella se hace muy difícil siendo casi constantes las riñas y desaveniencias con todo el personal de la clinica.

Cuando en el mes de Agosto hicimos el tratamiento que se interrumpe a causa de las ordenes de Uds la situación de la enferma habia variado en el sentido de mejoría de todos sus sintomas y una mejor sociabilidad. Si hubiéramos continuado con el tratamiento es de esperar que la situación actual de su madre sería completamente diferente; pues se hubiera detenido el curso de su enfermedad o esta habría remitido.

Con estas condiciones creo mi deber solicitar de Ud una autorización para comenzar nuevamente un tratamiento a su madre. Naturalmente que no podemos garantizar su curación pero nos parece una obligación indudable de todos nosotros hacer todo lo posible en favor de la enferma proque sino esta continuaría en un estado parecido al actual o peor aún durante tiempo indefinido.

En espera de sus prontas noticias se despide”.

Medikuak berriro ere hasi nahi zuen tratamenduarekin, sendaketarako bide bakarra zela uste zuten. Dena den, artxiboko beste kasu batzuetan oso argi kontatzen dira ingresatutakoen “haluzinazioak”, Carolen kasuan, berriz, zaila egiten zait ikustea zer dagoen fikziotik berak

esaten duen horretan. Carol bera, gizonezko bati (ez du jartzen nor den) zuzendutako eskutitz batean kezu da bere intimitateak kontatzera behartzen dutelako, erlijio katolikoaren ondorio dela irizten dio eta erasotuta sentitzen da. Carolek 1949ko azaroaren 7an idatzi zuen eskutitz hau:

“Dear Sir; I haven’t seen you for ages but I hope you are fine and prosperous. The other day you had the kindness to ask me where I wouldn’t like to live and after careful analyse of my tragic situation, because of my ruined health, there are but two solutions with which I agree plainly. May I please explain to you my wishes and ask for your help and approbation to fulfill them. My health here is every day worse and I wish to leave this country as soon as possible. No human thinking person of my nationality could ever stand such a coercion of ideas and religion. Remember I am no catholic I consider my life here as illegal prison and I beg my powerful friends and my only beloved and respected Son [...] to help me away from it. In his last letter he informed me about his intention to visit me by now, about the end of this year in Suresnes. Remember that I have been transferred here against my will and by brutal force. Nevertheless in Suresnes I have been healthy my body respected and in a certain way happy. If my Monsieur [...] would care to have me back there which I suppose not it would be a pleasure to me. I promise to behave nicely and I always keep my promises. This letter by itself gives a fair concept of it. I have been betrayed a friendship and my devotion to him was of the very best kind. Once again the will have to decide for I suppose he still might have an interest in me. If this idea is absurd and a mere illusion it is much justified for I can’t withdraw a sincere interest a beautiful sentiment developed and intensified during this months like one withdraws an old suit. I belong to a country where private sentiments and private lives are not an utopie. Supposing Monsieur [...] decides to bring me back to Paris there are some considerations for any reasonable order of M [...] will always be accepted and respected by me. I shall not be treated like a prisoner without light and fresh air for I want to live a normal life, writing, reading, working and so on. The food and the service will be good there as usual. Monsieur [...] will kindly claim in certain amount of my money for I need to buy clothes and everything I need and want to make life agreeable and be myself once again. I won’t trouble. Here I have acquired some interesting deductions but I am not disposed to carry with the sins of other people and if ever I meet again Madame [...] or any one who cares to discuss any matter old or new with me, I feel quite at ease to tell them some ¹⁷⁶truth. We are going to set every person in the right place and mine shall be a first class one. My innocence has come to an end. It has not paid

¹⁷⁶ Azpiko marra jartzen dudanean, esan bezala, ulertu ez dudanez zerbait da.

me to be so good. Let's try something different. My respect and admiration for the gentleman to whom I write this letter is sincere. I hope he will help me. The other solution for me is that Don Nicolas Franco shall keep his promise and bring me alive and safely to Portugal. Once there I would like to continue my journey to New York. In the U.S I used to have some first class friends. I love the american way and I would love to work over there I feel sure My American friends will not abandon me and may be they could restore my broken health. I have such a good right and such a sincere desire to live and to be a constructive part of this world. With hope and best love I consider myself affectionately yours".

Psikiatrak, amaren eskutizetan fantasia ikusteko eskatzen zion Carolen alabari. Baina, fantasia non? Klase sozial altua zuen emakumea zela ikusita eta eskutizetan jendea izen eta abizenez aipatzen zuela irakurrita, ez dirudi asmaziotik gehiegi zuenik. Ezin ditut izen-abizen errealk erabili, baina ziurtatu dudana da Carole-k bazuela harreman estua garaiko goi karguekin, Francisco Franco diktadorea eta honekin harremandutako beste hainbat pertsona esaterako. Bilaketa bat egin dut interneten eta datu horiek ziurtatu ahal izan ditut. Carolen biloba bat emakume ezaguna da oso une honetan, eta amonaz esaten duena zera: “gure familiako emakumeek bihotzean dugu idatzita askatasun hitza”. Carolen bilobak kritika asko jaso ditu prentsaren aldetik, hiru aldiz ezkondu delako pertsona boteretsuekin eta gizonezkoak “erabili” dituela esaten da, dirua oso gustuko duela eta familia alde batera utzi duela boterearen izenean. Deigarria benetan Carolek psikiatriatik jasotzen zituen kritikak orain prentsaren eremutik errepikatzen direla ikustea.

Canto para no recordar...

Hace movimientos como si iria a comenzar a bailar...

Carole, 1982. urtean hil zen Parisen. 81 urte zituen.

No tengo ilusión de vivir una vida indiferente...

Josefa

*“Yo cuando vaya a casa haré la prueba un mes;
y si mi marido no se porta como debe agarro la ropa
y me marcho de mi casa no pienso aguantarle mas”*
(Josefa, 1949ko abenduaren 5/6/7/8/9/10/11)

Josefak 34 urte zituen psikiatrikoan sartu zutenean, ia lau hilabete eman zituen bertan, 1949eko azaroaren 23tik, 1950eko martxoaren 7ra. Carolekin batera egon zen ingresatuta. Medikutxostenean agertzen da Josefak intulina bidezko komen tratamendua jaso zuela, 64 denera – ehun egun pasatxo eman zituenez ingresatuta, bi egunean behin baino gehiago. Josefa ezkondua zegoen eta oso argi zehazten ez bada ere, badirudi 2 seme zituela. Artxiboko txostenean gordeta dagoen dokumentu bat aipagarria da (aipagarria beste kasu askotan ez delako horrelakorik agertzen): 1949ko irailaren 21eko data duen Kontseilu Psikiatriko Nagusiaren “Gaixo psikikoentzako ziurtagiria”. Ziurtagiri horrekin ingresatu zute ziur asko zera jartzen baitu: “*Enfermedad psíquica para la que conviene observación y tratamiento*”. Ziurtagiri horiek formulario izeneko atal bat zeukaten. Josefari buruzko datu hauek daude:

- **Actitud general** (*ordenada, accesible, aislada, desordenada, irritable, desmadejada, enérgica, rígida, etc.*): *desordenada*.
- **Orientación** (*en el tiempo, lugar, personas, etc.*): *buena*.
- **Conciencia** (*clara, oscurecida, confusa, distraida, etc.*): *abstraida*.
- **Estado de ánimo** (*indiferente, triste, temeroso, angustioso, tranquilo, alegre, exaltado, variable, suspicaz, colérico, etc. Variaciones periódicas: largas o cortas, de meses, años o semanas*): *suspica y variable*.
- **Inteligencia** (*disminución: progresiva, brusca, con alternativas, sin pérdida de memoria*): *buena*.

- **Actividad motora** (inhibida, inquieta, agotada amanerada, gesticulante, perseverante, negativista, quietud rígida, catatónica, etc.): a temporadas no come, compulsiva y sistemática.
- **Peligrosidad** (ideas y o tentativas de suicidio antes de la enfermedad o actualmente; agresividad inmotivada de palabra o de hechos contra personas o cosas): no.
- **Alucinaciones e ideas delirantes** (tipo y sentidos a que afectan las alucinaciones: ideas de celos, persecución, grandeza, etc.): celotipia.
- **Otros síntomas** (memoria, sueño, convulsiones, parálisis, etc.): sueño agitado.
- **Toxicomanías** (alcohol, morfina, cocaína, etc.): no.
- **Síntesis global de la personalidad anterior** (inteligente, sereno, serio, sistemático, reconcentrado, meticoloso, fantástico, confiado, modesto, debil, etc.): autista sistemática.
- **Enfermedades mentales anteriores** (lugar de tratamiento: Casa de salud, Sanatorio, en familia, etc.): no.
- **Estado jurídico** ¿Está el enfermo incapacitado? ¿Lo ha estado alguna vez?: no.

Hilabete beranduago, 1949ko urriaren 26an Zaragozan honako txostena egiten dio Josefari neuropsikiatra batek:

“Del estudio médico realizado a Da. X, el año pasado, se deduce que la citada enferma presenta una acusada Neurodistonia vegetativa de naturaleza constitucional unida a alteraciones de la personalidad de tipo sensitivo-paranoide a evolución progresiva que explican sus anormales reacciones e imprimen a su conducta una especial actitud de susceptibilidad y desconfianza ante el medio familiar y social, que hacen difícil la convivencia de tales enfermos, siendo aconsejable en tales casos un tratamiento activo adecuado para la corrección de sus transtornos, tratamiento que solo puede realizarse en Clínicas o Sanatorios especializados en esta materia”.

Pentsa daiteke, bi dokumentuak erabili zirela, Josefa, 1949ko azaroaren 23an Gipuzkoako psikiatrikoan sartzeko. Aurreko bi txosten hauetan aipatzen dena kontuan hartuta Josefak “gaixotasun” bat zuela, lehenengoak “*autista sistemática*” jartzen du eta bigarrenak “*neurodistonia vegetativa de naturaleza constitucional*”. Medikuek ez zuten inguruan bizi zuen egoerari buruzko inolako aipamenik egiten. Baina, psikiatriko honetan sartzerakoan aurretik esandakoa zalantzan jartzen da:

“Desde hace tiempo dificultades matrimoniales motivadas por la personalidad tiránica del marido. Repercusión en la esposa que hace un síndrome ansioso depresivo relacionado siempre con la situación del momento. El marido acusa de que es una mujer negligente sucia y gastadora. Ella mantiene que su marido la maltrata y la engaña. Historias y lios legales. En cuanto ingresa se adapta fácilmente y desaparece la angustia. Interpreta catatímicamente¹⁷⁷ su situación. Existe una reacción sensitiva¹⁷⁸”.

Psikiatra honek zuzenki lotu zuen Josefari gertatzen zitzaiona bizi zuen testuinguruarekin, etxean bizi zuen egoerarekin eta zuzenago, senarrarekin. Gainera, ingresatu eta berehala bere angustia desagertu egin zela aipatzen da, etxetik ateratzeak on egin zion. Josefaren kasuan onartzen da egoerak zentzumenak ere baldintzatu ditzakeela edo behintzat hauetan eragina izan dezakeela. Dena den, Josefaren senarrak esaten duenari erreparatzea ere garrantzitsua da, Josefari zabarra, zikina eta xahutzailea izatea leporatzen zion; hau da, ustez emakumeari egokitutako femeninitasun eredutik kanpo zeuden ezaugarriak.

Josefaren egoera testuinguruak eta senarraren “izaera tiranikoak” eragindakoa zela aipatu arren insulina-komen tratamendua jarri zioten, bi egunean behin. Hala ere, etxetik alde egiteko modu bat izan zen psikiatrikoan sartua izatea (nahiago zuen hori etxean egotea baino) eta hasieratik sentitu zen eroso bertan. Erizainek edo mojek idatzitako lehen oharra da hauxe:

¹⁷⁷ Psikiatrian katatimia zera da: egoera emozionalak baldintzatutako interpretazioak egiten direla, adibidez, pertsona batek ilusio optikoak izan ditzake, baina bere egoera emozionalarekin lotzen dira, bere egoera emozionalaren arabera agertu edo desagertu daitezkeelako. (<http://www.ub.edu/personal/docencia/exaper6a.htm>).

¹⁷⁸ Gipuzkoako errotxeko psikiatraren oharra.

“Come y duerme bien. Esta extrañada de lo mucho que ha dormido en casa que no dormia mas que unas dos horas que le debe hacer la tranquilidad lo que dice que en su casa es imposible por las muchas cosas desagradables que le suceden a ella”¹⁷⁹.

Tratamendu gogorra jasotzen zuen:

“Se sigue el tratamiento de Insulina inyectandole hasta 50u que le produce somnolencia, sudor, temblor y hambre”¹⁸⁰.

Hala ere, psikiatrikoko egonaldia ahalik eta luzeena izatea nahi zuen, erizainek 1949ko abenduaren 5/6/7/8/9/10/11ean idatzi zuten,

“Esta bien y contenta porque comprende que esta mejorando mucho que nunca penso que en tan poco tiempo iba hacer tanta diferencia: «Le digo la verdad que no hay cosa mas hermosa que la tranquilidad porque Ud no sabe lo mucho que yo sufro soy de muy mala suerte no sabe Ud lo bien que vive me da Ud envidia» Viene el dia 9 su esposo a visitarle sale a comer y a pasar la tarde con él regresando para la hora de cenar muy nerviosa”.

Senarraren bisitak erabat aldatu zuen Josefaren jarrera, “urduri” itzuli zen. Bisita hartan zerbait gertatu zela pentsa daiteke, 1949ko abenduan senarrak psikiatrikora eskutitz bat helarazi baitzuen, bertan kontatzen zuenagatik ulertu daiteke Josefari egindako bisitaren ondoren idatzia dagoela:

“He observado que mi Sra. sigue igual y todo lo que hace pareciendo docil y bien dispuesta es para engañarles a Uds.

¹⁷⁹ 1949ko azaroaren 24/25ean idatzitako oharra..

¹⁸⁰ 1949ko abenduaren 1/2/3/4ean idatzitako oharra.

Le voy a decir algo relacionado con no volver por la noche el martes. Mi Sra. se había hecho la idea de que el Doctor le autorizaria; con arreglo a eso forjó sus planes que después no le agradaba dejar de realizarlos por razones fáciles de comprender, a pesar de ello si me hubiese puesto energico, hubiera cedido no por transigencia sino por miedo a que a la fuerza la llevásemos a un sitio peor. Esto me sirvió para estar en lo cierto de que todo lo que hace es fingido, sus intenciones eran pasar un mes haciéndose la víctima predisponiendo a Ud. a su favor para que me aconsejase en el sentido de darla todo lo que pida. Se trata de un caso tan increíble que a pesar de que Ud. está enseñada a tratar con enfermos, creo que con ésta quedará asombrada de lo embustera y cinica que es. Si consigue profundizar en ella, para eso debe en principio creer todo cuanto le digo con la seguridad que es pálido al lado de la realidad, y alguna cosa que observe por imposible que pueda parecerla no deje de seguirla pues el resultado terminara siempre a favor de lo peor.

Voy a darle idea de algunas cosas. Se dedicará a hablar mal de todos y de todo si encuentra con quien dirá que la comida es mala, que está mal servido, que a unas las sirven mejor que a otras, que tienen preferencia en este o en aquel sentido, aprovechará cualquier oportunidad para dirigirse a la dependencia con preguntas y chismorreos, siempre de la peor especie. Cuando dice que va a salir si le es posible informarse, verá como no es verdad en varios casos, que va donde le ha dicho, no olvide que es capaz de las cosas mas bajas que pueda imaginarse, eso se lo dice quien por desgracia ha tenido la ocasion de probarlo infinidad de veces.

Deseo que no se le dejen hacer gastos extraordinarios que no sean de verdadera necesidad, aparte de que ella dispone de dinero. Lo mismo que el teléfono no siendo por algo urgente no debe de utilizarlo, que escriba a quien sea, asi podra saberse lo que pone y a la vez se entretendrá.

Es posible que cuando no le autorice hacer las salidas que ella desee (y quiero que sean cuanto menos mejor), alegue que a otras no les ponen inconvenientes, a esto le contesta con alegría que crea conveniente, y si lo cree necesario, puede decirle que es orden mía”.

Psikiatrikoko oharretan ez da Josefak esandakoa zalantzan jartzen eta erizainek jarrera “egokia” zuela errepikatzen dute behin eta berriz. Senarrak Josefarekin duen jarreraren isla bezala ikusi daiteke eskutitza, “emakume mesfidatia” dela esaten du, baina eskutitz honetan jarrera mesfidatia duena senarra da; Josefak egiten duena kontrolatu nahi du eta psikiatrikoko

arduradunei mugak jartzeko eskatzen die (gutxi ateratzen uzteko, telefono deiak murrizteko...) Eta, eskutitzen bitartez egin zitekeen kontrolaren adierazgarri, senarrak “eskutitzak idaztera” bultzatu eta era horretan Josefak *benetan* pentsatzen zuen guztia, eta bere benetako izaera ikusteko aukera izango zutela esaten duela.

Josefaren etxeko egoera hau izan arren, Josefa haserretu egin zen 1949ko abenduaren 18/19/20/21/22/23an etxekoen bisitarik izan ez zuelako:

“Esta de mal humor porque dice que estan tan proximas las fiestas y que no son capaces de venir de su casa a verla ya que ella no ha podido ir”.

Gabonak igarota hau zen Josefaren jarrera erizain edo mojen arabera:

“Esta estos dias muy bien. Las fiestas las ha pasado de lo mas animada desde luego no pensaba haber pasado tan bien dice que ni se acordaba que existia su marido y con mucha indiferencia dice que lo mismo le da que haya ido con la otra”.

No pensaba haberlo pasado tan bien...

... que ni se acordaba de su marido...

Badirudi Josefa bera harritura dagoela hartu duen jarrerarekin. 1950. urteko urtarrilean Josefak bi hilabete daramatza ingresatuta eta bertan ondo dagoela esaten jarraitzen du:

“Duerme bien y tiene poco apetito. Dice que con lo bien que se esta en la clinica y con lo que le ha hecho su marido con el reloj que le tiene tanto miedo que le ha quitado la gana de ir a casa

«Con lo bien que estaba en mi casa lastima en mala hora me case por tener mala suerte hasta eso la que nace desgraciada... enfin que le vamos a hacer»¹⁸¹.

Con lo bien que estaba en mi casa...

...lastima en mala hora me case...

Erlojuarekin gertatutakoa zer den ezin dugu jakin baina argi dago Josefarengan eragin handia izan zuela. Josefak idatzitako eskutitz bakarra aurkitu dut eta, hain zuzen, erlojuarena gertatu zenekoa da:

“Querido esposo: solamente unas lineas _¹⁸² el viaje lo harían sin novedad al mismo tiempo decirte que con esta fecha te mando el reloj. Creo se te haya pasado ya el mal humor porque me cogiste en mentira pero yo también te cogí a ti y no me pasa como tu y lo hice porque si te digo la verdad me hubieses tragado porque te pones que no eres persona. Ya me diras que has hecho de los resguardos si han aparecido porque ahora soy yo la que quiero que aparezcan no quiero quedar como ladrona y quisiera que estas cosas se aclarasen antes de volver yo a casa. Ya te dije que pondría de mi parte todo cuanto sea necesario pero ha de ser con tu ayuda. El otro dia escribi a los niños y despues de escribir me dieron la carta de _ que estaban bien y contentos que el niño esta mediopensionista ahora espero carta de los dos porque les _ que me escribieran los dos bueno te voy a dejar porque quiero que salga la carta hoy mismo recibe el cariño de tu esposa que te abraza.

...

Se me olvidaba decierte que no hace nada de gracia que se entere nadie de nuestro asunto y escribe tu mismo.”

¹⁸¹ 1949ko urtarrilaren 11/12/13/14/15/16/17an idatzitako oharra.

¹⁸² Esan bezala, azpiko-marra ulertu ez ditudan hitzak ordezkatzeko erabiltzen ari naiz.

Si te digo la verdad me hubieses tragado...

... te pones que no eres persona.

Bikotearen arteko harremanaren adibide da eskutitza. Josefak gezurra esan ziola aitortzen du senarraren erreakzioaren beldur delako.

Si te digo la verdad me hubieses tragado...

... te pones que no eres persona.

Eskutitz honetan ikusten dugu lehen aldiz Josefa bere semeetaz hizketan. Deigarria da, izan ere, artxiboan irakurritako emakumezkoen txosten gehienetan emakumezko eta ama izatearen arteko lotura estuaz ohartu gaitezke.

Egoeraz kontziente izanda ere, tokatutakoa aguantatu beharra, hori da Josefak ondorengo oharrean adierazi zuena, zeukana gainean hartu eta pisu horrekin aurrera, beste erremediorik ez zuela – garai hartan ez zegoen dibortziazteko aukerarik. Josefak berak lotzen zituen sentitzen zituenak bere egoerarekin:

“38 decimas «El Dr me dice que esas decimas son del catarro que me va a decir lo que me pasa es el disgusto que tengo y nada mas me he revuelto completamente; pero le aseguro que de aquí en adelante me voy a echar el alma a la espalda y nada mas»”.

Me voy a echar el alma a la espalda...

... y nada mas.

Josefaren egoera aldatzeko zailtasuna ingresoaren azken eguneko, 1949ko martxoaren 7a, ohar honetan ikusi dezakegu:

“Se levanta temprano va a Misa viene su esposo a buscarla a las nueve de la mañana y sale definitivamente”.

Josefari senarra joan zitzaion bila eta elkarrekin atera zen psikiatrikotik. Bere “min” guztiak eragiten zituen egoerara bueltatu zen berriro ere.

Me voy a echar el alma a la espalda...

... y nada mas.

Eta zer gertatu zen ondoren? Josefaren neba edo ahizpa zenak idatzitako eskutitz batean jaso dezakegu horren berri. 1950eko maiatzaren 29an idatzita dago, Josefa psikiatrikotik atera eta bi hilabete eta erdira:

“Muy Sr. Mio: Supongole informado de lo sucedido a mi hermana Josefa el 15 del actual por la Srta X a quien escribió mi hermana y deseando ampliarle lo sucedido y nuestras gestiones me dirijo a usted para tal fin.

Ya sabe como el 15 intentaron llevarla al Manicomio de Logroño a viva fuerza y que gracias a la intervención de los vecinos no pudo llevar a cabo su propósito el marido de mi hermana.

Y ante la denuncia presentada por los vecinos y mi hermana en el Juzgado de Instrucción fue depositada en el Hospital hasta el resultado de la intervención judicial. Yo, sospechando que todo fue tramado en colaboración con un médico de esta, el Doctor Caballero Director del Manicomio de Logroño mi cuñado X y tal vez asesorados por un abogado de este me presente en Logroño al Doctor Caballero y al decirle que mi cuñado y el chofer habían dicho que el 18

le tenían reservado departamento en el Manicomio fue tal la sorpresa que le causó que no pudo negarse y terminó confesando que en efecto allí esperaban a Josefa el citado día 15.

Estuve largo tiempo con él y él todo era decir que al haberla tenido tanto tiempo en X¹⁸³ era porque sus facultades mentales no estarían muy bien y _ al decirle que teníamos un certificado de usted en el que consta que se hace en plena posesión de sus facultades mentales, todo su empeño era en que le entregásemos ese certificado sin duda para estudiarlo y saber como ha de obrar si las autoridades Judiciales requieren su presencia.

Por ello le pongo en antecedentes de todo esto para que el citado Doctor Caballero no sorprenda su buena fe por si se dirigiera a usted en petición de la certificación que nosotros le decíamos poseíamos”.

Baina, kontua ez zen hor amaitu, izan ere, bi hilabete beranduago, 1950eko utzailaren 8an, Gipuzkoako psikiatrikoko zuzendariak eskutitz bat idatzi zuen Josefaren egoeraren berri emanaz. Epaitegian paper batzuk aurkeztu behar zituela-eta Caballero doktoreak Josefaren egoeraren inguruko iritziaren berri ematen zuen txosten bat idazteko eskatu zion Gipuzkoako psikiatrari. Honakoa idatzi zuen¹⁸⁴:

“Mi distinguido compañero: A instancias de la familia de D^a Josefa me permito escribirle para comunicarle los datos que creo puedan interesarle de nuestra paciente.

Ingresó el día tal ...¹⁸⁵ con un cuadro astenico angustioso, reacción comprensible a su desastrosa situación matrimonial. En el curso de su estancia aquí desapareció dicho cuadro y nuestros esfuerzos se dirigieron a procurar arreglar en lo posible el matrimonio, limando asperezas y procurando que ambos conyuges retrocedieran de sus posiciones, cosa que a pesar de nuestros intentos fracasó completamente.

Durante su estancia aquí pudimos estudiar la personalidad e la enferma no descubriendo el menor rasgo psicótico. Aparece una tendencia a la catatimia y una sobrevaloración de su

¹⁸³ Artxiboa dagoen Gipuzkoako psikiatrikoa.

¹⁸⁴ Ez dago datarik zehaztuta.

¹⁸⁵ Eskuz idatzitako eskutitza da, nik uste dut gero makinaz garbira pasako zutela eta datu horiek gehituko zituztela, artxiboko txostenean horrela hutsune horiekin dago.

actuación en relación con su vida matrimonial. Esta se halla complicada por las características del marido: violento, explosivo y muy receloso.

Ante esta situación nuestro consejo ha sido el de la separación pues creemos que la vida en comun es imposible pues originaría numerosos conflictos”.

Me voy a echar el alma a la espalda...

... y nada mas.

Senarrak nola edo hala Josefa psikiatrikoan sartu nahi zuen, eta ez epe motzerako baizik eta luzerako. Zergatik pentsa daiteke hori? Bigarren txosten psikiatrikoa 1949ko irailekoa delako eta bertan medikuak dio urtebete lehenago egindako balorazio batean egin ziola diagnostikoa, beraz, senarrak batetik bestera eraman zuen Josefa psikiatrikoki “gaixotzat” joko zuen txostena lortzeko. Gipuzkoako psikiatrikotik atera ondoren, beste batera eramateko asmoa azaldu zuen, bizilagunen eta senideen eskuhartzeagatik ez balitz ziurrenik bertan sartuko zuten Josefa, bertako zuzendariaren, Caballero doktorearen oniritzia baitzuen senarrak. Gainera, kasu honetan bizilagunek gertatutakoa epaitegira eraman zutelako jarri ziren muga edo oztopoak, horregatik ez balitz, nahikoa izango zen medikuak eta senarrak “gaixo” zegoela esatea emakumezkoa bitzita osorako ingresatua izateko. Dibortzioa debekatuta zegoen garai batetaz ari gara.

Me voy a echar el alma a la espalda...

... y nada mas.

Gregoria

“Hoy me voy a casa por encima de todo”

(Gregoria, 1945ko maiatza).

Gregoria bi aldiz ingresatu zuten; lehenengoan 1944ko irailaren 2tik 1944ko abenduaren 22rarte egon zen ingresatuta, baina atera eta berehala 1945eko urtarrilaren 14ean berriro ingresatu zuten. Bigarren aldian 1947ko urriaren 9rarte egon zen, hau da, bi urte eta bederatzita hilabete. 1944ko abenduaren 22an atera zutenean, familiak eskatuta atera zen psikiatraren sendagiririk gabe.

Gregoria Toledokoa zen baina Bilbon bizi zen. Jostuna zen. 33 urte zituen. Gregoria amarekin bizi zen eta ez zegoen ezkontuta. Aita neumoniak jota zendu zen eta mediku-txostenaren arabera izaera psikopatikoa zuen eta oso jeloskorra zen. Gregoria, Gipuzkoako psikiatriko baino lehen beste batean egon zen ingresatuta, han janariari uko egiten zion eta sonda jartzeko arazoak zeuzkatenez, psikiatriko honetara ekarri zuten. Sonda sartu ahal izateko sudurreko hezur turbinala¹⁸⁶ kendu behar izan zioten sonda sartzeko zailtasunak ekiditeko. Gregoriaren diagnostikoa¹⁸⁷:

“Sindrome paranoide en oligofrenia¹⁸⁸”.

Gregoriari garaiko tratamendu ugari jarri zizkieten: konbultsioak eragiten zituztenak, intsulinkomak eta sukarra eragiten zutenak, besteak beste. Gregoriaren txostenarekin jakin ahal izango dugu baita ere, hamabost egunero bainatzen zirela psikiatrikoan. Badago bere txostenean gauza

¹⁸⁶ Sudurrean dagoen hezur bat da.

¹⁸⁷ Lehen aldiz aipatu dut diagnostikoarena aurreko lau kasuetan ez zegoelako zehaztuta.

¹⁸⁸ Oligofrenia: grekeraz, adimen (frenia) gutxi (oligo).

berezi bat: mediku-txostenean erizain edo mojek eta psikiatrak berak idatzi zuten egunerokoa. Salbuespena dela diot, orokorrean psikiatrek sarrera egunean egiten zutelako idatzi bat eta hortik aurrera ohar puntualak egiten zituzten. Horri esker ikusi ahal izango dugu erizain eta mojek alde batetik eta psikiatrek bestetik zuten lan egiteko modua, ingresatuarekiko tratua eta ikuspuntua ezberdinak zirela.

Senideek Gregoriari buruz emandako datuetatik abiatuko naiz. Psikiatrak honela zioen:

“A los 15 años se volvió triste, reservada, poco comunicativa, y “un poco rara”, quería ir religiosa ya esta inclinación atribuyeron su cambio de caracter.- Así siguió hasta 1939, “retraída y mística” fecha en la que le dio por querer convertir a un sobrino suyo que vino a su casa y con el que salía a todas partes, principalmente a la Iglesia y a actos religiosos.- Opinan los familiares que debió de enamorarse del sobrino, pues pronto les advirtió el confesor que debía de estar enferma de la cabeza por cuanto sus confesiones eran bastante excéntricas.- comenzó a culpar al sobrino que por su causa “no podía” ir ella monja, y le reprochaba que hacía por el cosas que no nos llegó a decir.- poco mas tarde decía que se había condenado, que estaba con el demonio, que veía la bandera tricolor¹⁸⁹, que la cabeza se le quedaba muy pequeña, que la tenía hueca, que notaba cosas extrañas en la espalda, el estómago vacío... ”.

Bere ingresoaren eguna eta egoera kontatzen duen medikuaren ohar bat dago; era honetan Gregoria psikiatrikora iritsi zen momentua eta modua irudikatu ditzakegu:

“Procedente de su domicilio ingresa con enfermeros de la casa y bajo los efectos de escopolamina-somnifene¹⁹⁰, que hubo que ponerle para su traslado. Desde hoy cuan tro días que estaba en su casa no comía, ni bebía, ni defeco; ni orino.- agarrada a su madre permanece día y noche y diciendo si es de Dios, si no es de Dios, si debo, si no debo, no ha sido posible modificar su sitiofobia y negativismo.

Desconfiada, temerosa, no da respuestas concretas, obedece a ideas delirantes que no es posible conocer; se comporta como una niña, “porque soy una niña pequeña”, encontrando

¹⁸⁹ Franco-ren diktadura garaia izanik, Errepublikako banderaz ari zen seguruenik.

¹⁹⁰ Lasaigarri fuertek dira kasu askotan pertsonak egunak eman zitzakeen lo.

*justificada su conducta anomala.- intimidandola y con energia se consigue beba agua y orine.-
se le lleva leche y quiere agua; se le lleva agua y quiere leche; no quiere de esta, quiere de
aquella...*

*Sabe esta en un sanatorio, pero carece de orientación temporal.- Exterioriza envidia, porque 'a
esa enferma le hacen mas caso que a mi' -".*

Beste kasu gehienetan bezala, Gregoriaren tratamendua intsulina bidezko komak eta elektroshock-a ziren batez ere. Psikiatrak aipatzen du dosiak igotzen zizkiotela baina izerditzea besterik ez zutela lortzen. Elektroshock-a astean bitan jartzen zioten eta emaitza positibotzat jotzen zuten 1944ko urriko ohar honi jarraiki:

*“Con lo que ha mejorado bastante: come sola –trabaja algo – y hasta ha sido factible subirla al
piso general donde se relaciona con los demás aunque habla demasiado”.*

Habla demasiado.

Habla demasiado.

Habla demasiado.

Habla demasiado.

Mediku-txostenean agertzen diren oharren arabera, Gregoriak etengabe galdetzen du bere senideengatik, batez ere bere amarengatik. Eurekin hitz egin nahi zuen telefonoz eta etxera joan nahi zuen. Hori dela eta, 1944ko azaroaren 9an ihes egiteko arriskua dagoela aipatu zuen psikiatrak:

*“La vivencia de ver a su madre domina y polariza su conducta. Poca permeabilidad al
razonamiento: “es mucho no ver a la madre en dos meses”. [...] Persevera en la idea de ver a
su madre. Dominada por esta tendencia es posible que intente la fuga.”*

Eta, hain zuzen ere, 1944ko azaroaren 29an ihes egiteko saiakera bat egiten zuen baina psikiatrarentzat zentzurik gabeko saiakera izan zen:

“Un intento absurdo de fuga encerrándose en el W.C de la estación saliendo cuando iba a arrancar el tren siendo sujeta por sus compañeras. Transtornabilidad en el tema de su obsesión de hablar con la madre: ‘Yo lo que quiero es hablar con mi casa’”.

Lo que quiero...

... es hablar con mi casa.

Lo que quiero...

... es hablar con mi casa.

Gregoriak psikiatrikotik atera nahi zuen albait arinen. Medikuak uste zuen gauza asko asmatu egiten zituela senideek etxera eramane zezaten, hau da, izutu egin nahi zituela psikiatrikoan kalte egiten ziotela pentsaraziz:

“Hace tres días estuvo a visitarle su hermana a la que dijo que las HH^a del Sanatorio¹⁹¹, son monjas disfrazadas; preguntó si los médicos son religiosos; reprocha las maniobras de sondaje que se hicieron cuando se negaba a orinar al ingreso; le asegura que en el desayuno le echan alguna cosa, pues después de él ve figuras y fieras en la puerta de su habitación; aqueja dolores en sus genitales; a nosotros no nos ha dicho estas cosas ‘porque creo que no son de confianza para decírselo’.- Un día miró al sol y vio verde.- ‘A mí me están cambiando, algo me dan en la comida que yo no estoy bien’ [...] Creemos no tienen más valor que atemorizar a sus familiares con objeto de que le saquen, pues tiene temor de que no pase las Navidades en casa.- No obstante continuar

¹⁹¹ Gregoriaren eraikinean 12 eta 15 moja artean zeuden lanean, erizainik ez (López Velasco, 2010:56).

*el tratamiento, no se consigue ya más de lo obtenido, pues el defecto es inmodificable.-
Simple, pueril, testaruda, perseverante y caprichosa”¹⁹².*

Simple,

pueril,

testaruda,

perseverante,

y caprichosa.

Azkenean, gabonak senideekin pasa zituen Gregoriak; 1944ko abenduaren 23an medikuaren ohar batek dio familiaren erabakia izan zela, sendagiririk gabe. Hogeita hiru egun beranduago, Gregoria berriro ere ingresatu zuten psikiatrikoan – 1945eko urtarrilaren 14ean. Oraingo honetan bi urte eta bederatzi hilabete eman zituen ingresatuta. Tratamendua Sulfosin-a erabiliz egin zioten. Sulfosina agente piretogenoa zen, hau da, sukarrak eragiten zituen; “sustantzia horrek sukarra eta izerditzea eragiten zien, baina gero, paziente lasaitu eta haren antsietatea ere murriztu egiten zen” (López Velasco, 2010:102). Sulfosina injekzio bidez sartzen zioten Gregoriari:

“Con motivo de una inyección intraglutea quedo dentro parte de la aguja; que no ha sido posible localizarla con Rayos X. Lleva 5 inyecciones de Sulfosin. Sigue igual: negativista, autista-bobalicona, terca”.

Negativista,

autista-bobalicona,

terca.

¹⁹² 1944ko abenduaren 21ean idatzitako oharra.

Gregoriaren mediku-txostenean ere irakur daiteke trementina edo agoarrasa erabiltzen zutela tratamendu bezala. Hau ere agente piretogenoa zen, José María Pigem Serra psikiatrak 1945. urtean azalpenak eman zituen tratamendu horri buruz:

“Errekzio lokala sortzen da injekzioa eman den gunean, mina, beroa eta gorritasuna, eta kolekzio leukozitarioa eratzen da (zorne aseptikoa). Era berean, lehen orduetatik organismoaren errekzio orokorra hasten da temperatura 39 gradu edo gehiagora igotzen delarik. Orokorrean gaixoa ohean etzanda geratzen da injekzioa jarri zaion gorputz-adarretako inpotentzia funtzionalarekin. 3, 4 edo 5 egunetan sukarra desagertu egiten da eta zornedun kolekzioa bir-absorbatzen joaten da” (1945:260).

Horrelako egoera batean irudikatu dezakegu Gregoria. Baina...

Simple,

pueril,

testaruda,

perseverante,

y caprichosa.

Negativista,

autista-bobalicona,

terca.

Otsailaren amaiera zen eta psikiatrak zehazten du, bigarren ingresoa gertatu zenetik Gregoriak ez zuela hilekorik izan; tratamenduak, baina, bere horretan jarraitu zuen – batzuetan elektroshock-a jarri eta hilekoa moztzen zitzaizela aipatzen zuten arren. 1945eko urrian zera dio medikuak:

“Mentalmente igual a pesar del gran número de crisis convulsivas que se le han provocado con electroshoc [...] Muy terca y negativista, bobalicona y pueril”.

Baina, 1946ko otsailaren 25ean elektroshock-a kendu zioten eta psikiatrak honako arrazoi hau ematen du:

“Como resultado desagradable la violencia que hay que emplear para colocarla los electrodos y su resistencia activa es difícil de vencer (a pesar de encomendarla a dos enfermeros y dos o tres Hermanas) dando lugar a bruscos y peligrosos movimientos y a un forcejeo nada terapéutico, desistimos por el momento de seguir este tratamiento”.

Gregoriak erresistentzia jartzen du alde guztietatik. Hitz egiteko eskatzen zioten eta ez zuen hitz egiten, jateko esaten zioten eta ez zuen jaten, kaka eta pisa nahi zuen tokian egiten zituen, batzuetan egin ere ez zituen egin nahi eta sonda sartzen zioten. Behin eta berriz errepikatzen zuen etxera joan nahi zuela eta laguntza eskatzen zuen garrasika amari hots eginez. 1944ko urriaren 13an:

“Está algo mejor, estos días no cesa de decir ‘quiero irme a mí casita deme la ropa que ya me vestiré yo’ ‘deje la puerta abierta que de noche igual iré”.

1945eko urriaren 25ean jarrera aldaketa bat dagoela dirudi, mojek lasaiago dagoela diote, ordu arte horrelakorik ez zen agertzen:

“Está tranquila ‘porque no me dejan ir a mi casa allí con el cariño de mi madre ya me pondré bien un enfermo mejor que en su casa en ningún sitio está”.

Argi dagoena da Gregoriarentzat sufrimendu handia zela psikiatrikoan egotea, bere senideengandik, eta batez ere amarengandik, urrun egotea. Tratamenduarekin bestelako jarrera bat izatea lortu nahi zuten, baina tratamenduak tratamendu, bere ideia hori ez zen aldatzen:

“Estuvieron sus hermanas tuvieron que luchar para marcharse quería irse con ellas y no las dejaba irse, si mal estaba mucho peor después; no solo estaba agresiva sino que mordía donde quiera igual que fueran las hermanas como las chicas como los enfermeros a todos. Por fin el día 18 viendo el Dr X cómo estábamos con ella 4 hnas¹⁹³ y un enfermero mandó que se le pusiera _ de Esencia de Trementina al día siguiente se levantó”¹⁹⁴.

Gregoriaren artxiboko txostenean dauden azken oharra, 1947ko maiatzekoak dira, eta horien arabera, egoera berebetean jarraitzen zuen, aldaketarik gabe. 1947ko urriaren 9an ateratu zen psikiatrikotik. Ihes egiteko saiakerak egin zituen, baina azken honetan ez dago jakiterik sendagiriarekin ateratu ote zen, aurrekoan bezala senideek eraman zuten ala ihes egin zuen?

Gregoriaren haragian orduko psikiatriak erabiltzen zituen tratamendu ezberdinak ikus ditzakegu, baita horiengandik espero zen emaitza eta gero kasu honetan behintzat “lortu” zena.

Simple,

pueril,

testaruda,

perseverante,

y caprichosa.

Negativista,

autista-bobalicona,

terca.

¹⁹³ “Hermanas”, mojak dira.

¹⁹⁴ 1946ko martxoeko oharra.

Tomasa

“Mamá: no te creí nunca tan monstruo, me encerraste aquí donde sabes que mi pobre Juan¹⁹⁵ nada escribirá por mí.”
(Tomasa, 1940)

Tomasak 31 urte zituen psikiatrikoan sartu zutenean, bi hilabetez egon zen bertan, 1940ko martxoaren 9tik 1940ko maiatzaren 7ra. Ezkonduta zegoen eta egin zioten diagnostikoa hauxe izan zen:

“Personalidad psicopática con debilidad mental y rasgos histéricos (Amoral) (Moral insanity)”.

Irakurri ditudan txosten guztietatik, hau da diagnostikoa ingelesez duen bakarra. “*Moral insanity*” kontzeptua James Cowles Prichard (1786-1848) alienista britainiarrak asmatu zuen. Prichard-en hitzetan :

“Jatorri honetako kasuetan printzio moralak edota adimenaren aktiboak era berezian perbertituta edota gaiztotuta daude; autogobernurako gaitasuna galduta dago edo oso kaltetuta, eta gizabanakoa ez da gai, ez hitz egiteko edota proposatzen zaion edozer gauzaren gainean arrazoitzeko, baizik eta bere burua bizitzaren arlo ezberdinetan txukuntasunez eta egokitasunez gidatzeko” (in Millon, Simonsen, Birket-Smith, Davis, 1998:5-6).

Moral Insanity-arekin ulertu beharko genukeena zera da: Tomasaren jarreran ikusten zuten arazoa psikiatrek, gero mediku-ikuspegi batetik justifikatzera iristen ziren arren. Hau da, Tomasaren jarreran “txukuntasun eta egokitasun” eza zegoen, hori da ingresatu zuten egunean

¹⁹⁵ Asmatutako izena da.

mojek idatzi zuten oharra. Hain zuzen ere, Tomasaren artxiboko mediku-txostenean ez dago psikiatraren oharrik, aurkitu ditudan guztiak mojek¹⁹⁶ idatzitakoak dira. Egunerokoa eta Tomasaren eskutitz bat daude gordeta. Aztertu ditzagun banan bana. 1945eko martxoaren 9 zen eta Tomasa psikiatrikora iritsi zen, mojek honela deskribatu zuten:

“Ingresa el día 9 de marzo por la tarde, pone mucha resistencia para bajar del coche, repite muchas veces ‘que no bajará del coche porque la han traído engañada’ es necesario bajarla del coche por violencia, la suben a la habitación, está muy agitada, habla insultando a su madre, a sus hermanas y esposo dice ‘la maldigo a mi madre, es una mala madre esto no se hace con una hija, despreciarme, abandonarme de esta manera, yo no busco más que cariño y ni siquiera esto me quieren dar, son unos ingratos; tanto como y ohe hecho por ellos y me lo pagan encerrándome en un sanatorio. A las cuatro toma café con leche (no lo arroja) se le pone inyección y queda tranquila hasta las doce que empieza a llorar dice ‘Hna no me deje sola porque estoy como loca de tanto sufrir, le aseguro que esta noche me quito la vida, sufro demasiado, estoy agotada, yo no puedo sufrir mas’ _ Pide continuamente un calmante ‘hermana deme algo que me calme este sufrimiento, algo que me haga dormir, que me haga olvidar mi tragedia, no quiero ver más a ese hombre, ni oír hablar de él’, cuando habla de su esposo dice ‘mi exmarido’. La oigo llorar con mucho desconsuelo, entro en la habitación y la encuentro con el crucifijo que hay en el cuarto en las manos repitiendo. ‘Jesús, tú que eres Dios no me dejes olvidar que soy cristiana, que soy católica, que tengo que salvar mi alma, estoy enloquecida, esta noche haré un disparate.’ Pasa el resto de la noche en continúa agitación”.

Ohar honen arabera, Tomasak ez zekien nora zihoan psikiatrikora eraman zutenean, bere errekzioa erresistentzia jartzea izan zen. Tomasak sufrimendu handia zuela esaten zuen eta bere buruaz beste egiteko asmoa aipatzen zuen behin eta berriz. Aipagarria da puntu horretara ez iristeko errezatu egiten zuela, eta bere burua katolikotzat zuenez, bere buruaz beste egitea bekatu bezala ikusten zuen. Mojei deigarria egiten zaie, hala idatzi zutelako diot, Tomasak bere senarrari buruz hitz egiterakoan “senar-ohia” esaten zuela. Ondoren ikusiko dugu, Tomasak beste gizonezko bat maite zuela eta bere senarrarengandik banandu nahi zuela. Bere buruari mina egiten jarraituko du ingresatu eta hurrengo egunean, 1940ko martxoaren 10ean:

¹⁹⁶Tomasaren eraikinean mojak bakarrik zeuden.

“Sigue arrojando todo lo que toma, sobre las diez de la mañana se hace unos pequeños cortes en el brazo con un cristal, en el momento entro en la habitación, al ver la sangre le pregunto por qué se ha hecho eso ‘Porque me quiero morir, ya sé que cuando se entere mi exmarido que estoy aquí, vendrá llorando a pedirme que me vaya con él, porque lo ha hecho otras veces que he intentado dejarle pero esta vez, es inútil que se moleste, estoy resuelta a preocuparme de mí, solo espero los documentos de Roma. A mi no me importa el dinero ni nada en este mundo, yo solo pido y busco cariño, mi deseo ha sido siempre encontrar un marido que me quisiera mucho y tener hijos’ Mira algunas fotos de sus amigos con sus niños y dice. ‘Esto me falta a mí, ¡Cuánto daría yo por tener esos niños!’”.

Hurrengo eguneko oharrean irakurriko dugu lehen aldiz, Tomasak gero etengabe aipatuko duen izena eta ziurrenik Tomasa psikiatrikoan egoteko arrazoa: Juan. Tomasak aipatzen du Juanekin maiteminduta dagoela eta bere senarra utzi nahi duela, eta mojen oharretan irakurri daiteke behin baino gehiagotan oihuka senideak iraintzen dituela eta Juani deitzen diola laguntza eske. Diagnostikatu zioten “*moral insanity*” horri zehazki aipamena egingo dion esaldi bat botatzen du Tomasak 1940ko martxoaren 12an:

“Pasa toda la noche sin dormir nada hablando y llorando ‘¡Oh qué madre más cruel! ¡Qué pena más infinita! Que odio les tendré ya siempre, que dolor que me lleva a la desesperación, por más que examino mi conciencia nada encuentro que merezca este castigo, verme entre locos, el único amparo que tenía era Dios, le he perdido, he pecado contra Él, me he querido quitar la vida, que felices son los muertos. Qué crueldad! No tienen humanidad ni caridad, me ven sufrir y no me dan algo que me haga dormir, ¡Dios mío! Ya no puedo sufrir más, solo te pido una muerte natural (continuamente nombra a Juan) A las 4 se pone muy agitada quiere salir del cuarto. “Me voy a X ya encontraré un auto que me lleve a X quiero vengarme he trabajado para todos y no voy a _ para mí me escaparé y me vengaré, que se prepare ese monstruo que está en X ya será cosa suya el que me hayan traído aquí, no deseo más que escaparme para ir con Juan, él es mi salvación’ nos insulta mucho y al médico ‘ojalá le atropelle un auto al venir aquí’ toda la mañana la pasa escribiendo cartas y telegramas, pide

constantemente que venga su exmarido, come muy poco y todo lo arroja, por la tarde baja al salón, le acompañan a dar un paseo”.

Tomasak esaten zuen “bere kontzientziari azterketa bat egin arren ez duela horrelako zigorra merezi duen ezer aurkitzen”, beraz, era batera “*moral insanity*” hori ukatzen ariko balitz bezalada, bazekien horregatik sartu zutela eta bazekien zein jarrerak eraman zuen horra, baina bere iritziz ez zen bertan egoteko pisuzko arrazoia inondik inora.

Por más que examino mi conciencia...

... nada encuentro que merezca este castigo,

verme entre locos.

Tomasak ez du ezer “txarrik” ikusten bere jarrera horretan, baina bai beste batean, amaiera aldera Tomasak jainkoa aipatzen du eta “galdu” egin duela dio, “bere kontra bekatua egin” duela. Zergatik? Bere buruaz beste egin nahi izan duelako. Baina...

Por más que examino mi conciencia...

... nada encuentro que merezca este castigo,

verme entre locos.

Ondorengo egunetan, Tomasa lasaiago dagoa, lo gutxi egiten du baina lasai dago, batez ere, Juanen eskutitzak jasotzen dituenean:

“Ya estoy salvada, teniendo a Juan lo tengo todo, ya me pueden hacer lo que quieran para curarme mientras no me priven de la correspondencia de Juan”.

“Juanentzat bakarrik zituen hitz onak” Tomasak mojen oharren arabera, eta etengabe ari zen bere izena aipatzen.

Juan...

Juan...

Juan...

Tomasak Juani buruz dio:

“Solo deseo curarme para irme con él”¹⁹⁷.

Tomasak eskutitz bat idatzi zion bere senarrari gauza eskatuz, baina mojek azpimarratzen dute senarrari kide edo lagun esaten ziola beti, inoiz ez senar. Hain zuzen, Tomasaren “sendaketa” prozesua Juan ahaztu eta bere senarrarekin jarraitzearekin lotzen zuten. 1940eko martxoaren 28an bere senarraren bisita jaso zuen. Honelaxe deskribatu zuen bisita moja batek:

“La visita su esposo, le saluda con indiferencia pasa mucho rato sin hablarle nada y muy seria, luego hablan mucho los dos, pasan todo el día, se despiden con manifestaciones de cariño, desde este día se escriben cada día y algunos hablan por teléfono siempre cariñosos, ella cuando es la hora de llamarle está impaciente esperando la llamada de su esposo. Sigue recibiendo cartas de Juan pero no le escribe cada día”.

¹⁹⁷ 1940ko martxoaren 16ean idatzitako oharra.

Eta badirudi Tomasarekin lortu nahi zutena lortu zutela:

“Sigue mejorando bastante, con buen apetito y duerme muy bien, pasa los días muy entretenida unos ratos en su habitación y otros pasea y conversa con loas demás enfermas, las anima mucho, con su esposo cada día se manifiesta más cariñosa, tanto cuando habla por teléfono o viene a visitarla, cuando nos habla de él; de Juan recibe cartas no las lee, se las entrega a su esposo cerradas, ella hace días que no le escribe, me dice “no puedo escribirle porque decirle que estoy mal no puedo hacerlo y decirle que vuelvo con mi esposo no tengo valor; confío en el Dr X como es tan inteligente y bueno que me rematará esto”¹⁹⁸.

Tomasak Juani uko egiten dio behintzat denbora batez, gero kanpoan zer gertatu zen ez dakigu, baina mojek egin zuten deskribapen horretan ikusten dugu Tomasak Juanen kartak pozik jasotzetik, “salbatuta” zegoela esanez, orain “senarrari entregatzen dizkiola itxita”, jartzen zuena irakurri gabe. Tomasak amaieran esan zuen: “Konfidantza dut X doktorearengan hain azkarra eta ona denez hau errematatu dezan”. Hau da, Tomasak bazekien medikuaren “lana” amaitu gabe zegoela, zati bat egin zuela, bere senarrarekin itzultzeko erabakia “hartuarazi” zion, baina gero Juanen egoera “itxi” behar zuen eta medikuak hasitakoa medikuak berak amaitu dezan nahi du.

Por más que examino mi conciencia...

... nada encuentro que merezca este castigo,

verme entre locos.

Dena den, ez zegoen dena uste bezain argi, Tomasari buruzko azken oharrean, 1940ko apirilaren 30koan, moja batek Tomasa eta senarraren arteko eztabaida bat aipatzen du:

¹⁹⁸ 1940ko apirilaren 16an idatzitako oharra.

“Sigue muy bien y engordando, de lo que está muy contenta, viene su esposo a visitarla, se saludan cariñosos, comen en armonía y animados durante la conversación de la tarde disienten por lo de Juan, él se va más pronto que de costumbre y ella queda llorando toda la tarde y parte de la noche, duerme poco.”

Hamaika urte zeramatzan Tomasak ezkondata eta berak bere amari idatzitako eskutitz batean hala dio:

“Tú ibas a buscar sus cartas porque sabías que de ellas dependía la recompensa de dolor infinito que Dios me dio en 11 años con un monstruo. Tu me dijiste madre que antes querías más verme muerta que con mi ex-marido. Y tú que eres tan religiosa como hiciste esto – yo no viví más que para el sacrificio nuestro y de un hombre que como sabéis todos ante Dios no es mi marido [...] Porque todos sabeis que vivo de Juan y para él. Dios lo puso en mi camino y me lo quitais, pero si sano o muero mi pobre Juan sabía que le quise siempre y que fui de él por el corazón. Y ahora estoy encerrada, presa pero este corazón es el de la Virgen al quitarme tú mi madre a Juan.”

Eskutitz hau ingesatu eta hurrengo egunean idatzi zuen Tomasak, beraz, bere hasierako erabakien berri eman zuen, baina, argi ikusten da zer den berak sentitzen duena eta neurri handi batean hasieratik zekien zein asmorekin sartu zuten psikiatrikoan. Gainera, aipatu behar da ez dagoela medikuaren oharrik, gerta liteke galduta egotea, baina mojen egunerokoan ere ez da Tomasari egiten zitzaion tratamenduaren berri ematen, hobeto esanda, badirudi tratamendurik ez zitzaiola egiten, eta gainera Tomasak bera da bere sufrimendua arintzeko zerbait eman ziezaioten eskatzen zuena.

Tomasak 31 urte zituen hau gertatu zenean...

Nor joan zen bere bila psikiatrikora?

Senarrarekin jarraitu zuen?

Juanekin?

Ez batekin ez bestearekin?

Luisa

“Tengo buen apetito y gracias a eso y a la buena voluntad que voy a poner lo sé fijamente que dentro de un mes ya me manda el médico a casa, desconocida de todos”
(Luisa, 1943-05-29).

Luisa bilbotarra zen eta 26 urte zituen. Fitxan jartzen duenez, ezkongabea zen eta etxeko lanetan aritzen zen. Psikiatrikoan sartzeko baimena bere anaiak sinatu zuen eta bi ingreso izan zituen. Lehenengoa 1943ko martxoaren 9tik 1943ko apirilaren 20ra, eta bigarrena, 1943ko maiatzaren 18tik 1943ko ekainaren 24ra. Luisak bi aldiz egin zuen ihes psikiatrikotik.

Bi aldiz egin zuen ihes.

Bi aldiz ihesi.

Lehen ingresoan, apirilaren 20ean, hau da, hilabete eta hamaika egun zeramatzanean, eta bigarren ingresoan ekainaren 24ean, hilabete eta sei egun zeramatzanean. Bigarren ihesaldi honetatik aurrera ez dago Luisaren berri gehiago, behintzat 1950. urterarte.

Luisari “*Histeria*” diagnostikoa egin zioten, “histeria” bakarrik jartzen duen mediku-txosten bakarra irakurri dut. Izan ere, garai honetan ez zen ohikoa “histeria” diagnostikoa jartzea, XX. mendearen hasieran ordu arte “histeria” bezala izendatu zena beste hainbat kontzeptu zehatzagoengatik aldatu zuten, “histeria” orokorregia iruditzen zitzaien.

Luisari Bromidina bidezko tratamendua jarri zioten. Bromidia hipnotiko bat zen eta lasaigarri bezala erabiltzen zuten. Luisa, Josefa bezala, “Gaixo psikikoentzako ziurtagiri” batekin iritsi zen psikiatrikora. 1943ko martxoaren 9an egin zion ziurtagiria Bilboko mediku batek. Bertan jartzen duenaren arabera, sei urte zeramatzan Luisak “manifestazio psikiko ez-normalak” edukitzen:

- **Actitud general** (ordenada, accesible, aislada, desordenada, irritable, desmadrada, enérgica, rígida, etc.): accesible, aislada, rígida.
- **Orientación** (en el tiempo, lugar, personas, etc.): conservada.
- **Conciencia** (clara, oscurecida, confusa, distraída, etc.): clara.
- **Estado de ánimo** (indiferente, triste, temeroso, angustioso, tranquilo, alegre, exaltado, variable, suspicaz, colérico, etc. Variaciones periódicas: largas o cortas, de meses, años o semanas): indiferente.
- **Inteligencia** (disminución: progresiva, brusca, con alternativas, sin pérdida de memoria): conservada.
- **Actividad motora** (inhibida, inquieta, agotada, amanerada, gesticulante, perseverante, negativista, quietud rígida, catatónica, etc.): ligeramente amanerada.
- **Conducta** (sucio, cuidadoso, dócil, agresivo, impulsivo, sociable, se niega a hablar, come vorazmente, no come, erotismo, miente, inmoral, sistemático, sugestionable, etc.): come vorazmente y se provoca el vómito, irritable.
- **Peligrosidad** (ideas y o tentativas de suicidio antes de la enfermedad o actualmente; agresividad inmotivada de palabra o de hechos contra personas o cosas): ...
- **Alucinaciones e ideas delirantes** (tipo y sentidos a que afectan las alucinaciones: ideas de celos, persecución, grandeza, etc.): falsas interpretaciones de estática corporal y cenestésicas.
- **Otros síntomas** (memoria, sueño, convulsiones, parálisis, etc.): insomnio, avitaminosis.
- **Toxicomanías** (alcohol, morfina, cocaína, etc.): esporádicamente alcohol.
- **Síntesis global de la personalidad anterior** (inteligente, sereno, serio, sistemático, reconcentrado, meticoloso, fantástico, confiado, modesto, débil, etc.): reconcentrada.
- **Enfermedades mentales anteriores** (lugar de tratamiento: Casa de salud, Sanatorio, en familia, etc.): no.
- **Estado jurídico** ¿Está el enfermo incapacitado? ¿Lo ha estado alguna vez?: no.

Psikiatrikora iritsi bezain laster medikuak Luisari buruz idatzi zituen oharretan “familiak emandako datuak” atala dago beteta:

“A los dos meses de comenzar la guerra (en Octubre de 1936) comenzó a estar triste sin motivos aparentes, cambió algo de caracter, se hizo apática con preocupaciones por su salud que notaba se alteraba (se sentía muy floja y comenzó a perder peso, pero no apetito). Simultáneamente aparecieron trastornos corporales diversos: comenzó a abultarse el cuello a ambos lados por enzima y delante del la tiroides; le dolían las encias y se le hacían frágiles los dientes; los extremos de los dedos de ambas manos comenzaron a abultarse de la forma de palillo de tambor con _ dolores con el frío y trastornos _ de las uñas que se estriaban transversalmente haciéndose quebradizas. Han seguido aumentando estos trastornos y a pesa de que conserva el apetito y duerme bien ha perdido 6 u 8 Kg. Le han prescrito diversos tratamientos que han fracasado. Dice que con mucha regularidad pero aproximadamente cada 4 o 10 días, suele tener por las mañanas al despertarse crisis de “hinchazón” de garganta, la cara abotargada y las piernas muy hinchadas notándose muy pesada; esto se le pasa en el mismo día: siempre viene la preocupación”.

Luisari buruz medikuak gehiago idatzi zuen bere ingresoan zehar. Deprimititua zegoela dio, eta Luisak berak esaten duela “hau” izango ez balu pozik egongo litzatekeela lan egiteko eta dibertitzeko gogoekin. Baina...

Hau.

Hau.

Hau.

Psikiatrak bere ezaugarri fisikoekin lotzen du Luisari gertatzen zaiona:

“Sus características corporales y psíquicas son de tipo infantil. Hay indudablemente un defecto endocrino que es lo que precisamos especificar”¹⁹⁹.

Medikuaren hurrengo oharra lehen ihesaldiaren ondorengoa da, hau da, Luisa bigarren aldiz ingresatu zutenekoa. Honela deskribatzen du bere egoera:

“Reingresa. Muy contrariada, se excita, insulta, rompe platos y cristales porque le cierran la puerta de su habitación, se le traslada a la sección de agitados; se niega a comer y hay que alimentarle con sonda. Lloro y protesta, pero siempre intenta imponer su voluntad”²⁰⁰.

Ez da jartzen zioten tratamenduari buruz ezer esaten medikuaren oharretan, Luisarekin agertzen den borroka nagusia jatearekin lotuta dago. Berak ez zuen jan nahi eta ematen zioten guztia, askotan sonda bidez behartuta, bota egiten zuen. Psikiatrikoan jasotzen duen tratuaaren kontra hitz egiten duela dio psikiatrak:

“Sigue igual, se niega a comer o si lo hace se provoca el vómito ella misma, está muy rara, contrariada, hablando mal de todo sintiéndose muy desgraciada y protestando del “trato” que le damos aquí. Miente con frecuencia y aunque aparenta modestia, timidez y humildad es todo lo contrario: terca, impulsiva, dominante pretendiendo imponerse por el camino de la enfermedad. Parece que el fondo de todas estas perturbaciones psicopáticas es cierta incompatibilidad con su cuñada; es difícil averiguar estos complejos afectivos, pues se niega a relatarlos y elude cuanto se relaciona con este tema o racionaliza. Se fuga el 24 de Junio 43”²⁰¹.

¹⁹⁹ 1943ko martxoaren 9ko oharra.

²⁰⁰ 1943ko maiatzaren 18ko oharra.

²⁰¹ 1943ko ekainaren 20ko oharra.

Medikuaren azken ohar honetan, Luisaren jokabidea koinatarekin bizi duen egoerarekin lotzen da. Medikua kexu da ezin delako Luisarekin horri buruz hitz egin, ez duelako ezer kontatzen horri buruz.

Hau.

Hau.

Hau.

Carolek esaten zuena lotu daiteke honekin, hau da, beti ere bere intimitate guztiak kontatzera behartuta zeuden. Eta Luisaren jarreran ikusi daiteke berak ere ez duela hainbat gauzetaz hitz egin nahi: “hau” deitzen dio gertatzen zaionari. Luisaren mediku-txostenean medikuen eta mojen oharrak aurreko kasuetan baino gutxiago da. Mojen oharrak bigarren ingresokoak bakarrik dira, ez dago lehen ingresoan gertatutakoaren berri. Baina, kontraesankorra dirudien arren, mojek Luisari buruz osatutako egunerokoan egiten dioten jarraipena oso zorrotza dela ikusten da. Ordua ere zehazten dute:

“Ingresa en el sanatorio a las 11 está tranquila, le han puesto una inyección; se acuesta a la una come bien, pide la ropa para vestirse, ‘bueno deme un libro y leeré’ está leyendo hasta las 5 a las 5 da fuertes voces ‘ábrame el armario yo me quiero vestir, no tengo que hacer lo que quieran, no, tengo que hacer lo que yo quiera (insulta) que se han creído que voy a estar en la cama 15 días, _ ‘esta noche rompe el armario, los cristales ‘no ha de quedar ni uno sano, sin vergüenzas’. Ha cenado bien se acuesta a las 10 de la noche”²⁰².

Mojek idatzitakoaren arabera, Luisak anaiarekin hitz egin nahi zuen, psikiatrikoan gaizki tratatua sentitzen zen eta gertatzen ari zitzaiona kontatu nahi zion; baina senideekin zuen arazo batek, eta badirudi anaiaren emaztearekin zela (gogoratu anaiak sinatu zuela Luisa psikiatrikoan

²⁰² 1943ko maiatzaren 18ko oharra.

sartzeko baimena), eragin zuen bere itxialdia, beraz, imagina dezakegu zaila izango zela anaiak psikiatrikotik ateratzeko erabakia hartzea:

“ ‘Quiero hablar con mi hermano por teléfono quiero decirle cómo me tienen encerrada en la habitación sin dejarme tomar el aire’. A la una se le lleva la comida, empieza a comer la sopa de repente se levanta de la mesa diciendo, ‘que se ha creído que voy a comer delante de Ud.

Vamos hombre, no, delante no como, como cuando a mi me de la gana y no cuando Uds quieran, así tendrán un racionamiento de más y el médico tendrá una ganancia más la cosa es llevar la contabilidad sacar mucha ganancia eso es lo que les interesa (insulta) ya comeré cuando yo quiera, más tarde y cuando esté sola”²⁰³.

Luisaren otordu guztiak kontrolatzen zituzten. Hemen ikusi daiteke logelara eramaten ziotela janaria eta bertan geratzen zela moja bat egiten zuena kontrolatzeko. Egoera hau zeharo aldatzen da mojen oharretan bost egunetara:

“Está más tranquila, come bien diciendo «deme más comida y agua que todo lo comeré con esto no puedo engordar sino me da mas cuando venga el Dr se lo diré» «no tengo suficiente me voy a morir de hambre» no devuelve nada”²⁰⁴.

Mojen hurrengo oharra irakurrita jakin dezakegu Luisa 38 kilorekin iritsi zela psikiatrikora:

“Come bien ya no pide mas comida ni mas agua está tranquila los días se los pasa leyendo y algún rato cantando. No ha devuelto ningún día se la ve que va engordando «Hna que me pesó el Dr y pesaba 41 Kg he engordado aquí 4 kg»”²⁰⁵.

²⁰³ 1943ko maiatzaren 19ko oharra.

²⁰⁴ 1943ko maiatzaren 24ko oharra.

²⁰⁵ 1943ko maiatzaren 30eko oharra.

Baina hurrengo egunean, sartu zuteneko egoera berbera deskribatu zuten mojek. Ezkutatzeko joera zuen Luisak, ihesaldia iragartzen ariko balitz bezala:

“Es una burra no me quiere dar de cenar (se le vuelve a subir por segunda vez la cena) le he dicho que no ceno y mañana ya veremos a ver si comeré ya lo pensaré”²⁰⁶.

“Estos días ha comido bien se entretiene leyendo hoy se la deja bajar por la tarde, entra un momento, cuando sale ya no la encuentra está entre la yerba agachada se la llama unas cuantas veces; no quiere volver. Merienda y enseguida vuelve a desaparecer”²⁰⁷.

“Estos días está muy rara con la comida se le da una cosa y pide otra, se la da un postre y pide otro. Hoy a las doce se ha sentado en la glorieta todo el tiempo ha estado llorando, ha comido dando muchas quejas de todo, ha hecho reposo hasta las tres; a las tres y ¼ ha bajado al vestíbulo con la hermana, a las 4 menos 20 min ha entrado la hna a ver que hora era, saliendo enseguida pero ya había desaparecido”²⁰⁸.

Luisak etengabe jolasten zuen, belar artean adibidez, desagertzera.

Hau.

Hau.

Hau.

Luisak berak idatzitako hainbat eskutitz daude mediku-txostenean. Hauxe 1943ko maiatzaren 29an bere osaba-izebei eta ahizpari idatzitakoa:

²⁰⁶ 1943ko ekainaren 1eko oharra.

²⁰⁷ 1943ko ekaineko oharra.

²⁰⁸ 1943ko ekainaren 24ko oharra.

“La presente sirve para comunicarles que continuo en el sanatorio, pero ahora con un plan riguroso y es que tengo que estar en la cama y estoy todos los días sin levantarme, solamente para asearme un poco y vuelta a la cama. Ahora pienso comer todo lo que me den, pues tengo buen apetito y gracias a eso y a la buena voluntad que voy a poner lo sé fijamente que dentro de un mes ya me manda el médico a casa, desconocida a todos los tíos creo seguirán bien, la tía espero no la aquejará ningun dolor de esos que siempre la aquejan alguno, y el tío estará ya cuidando de su hermoso majuelo que en verdad no le envidia a ninguno. Tú X, seguirás tan majeta, en verdad te digo que tengo ganas de verte, lo mismo que a los tíos pero sabe Dios cuándo será el día, porque nos separan muchos quilómetros.

Das recuerdos a tus hamigas las que pregunten por mí, y vosotros recibáis el cariño que os tiene vuestra sobrina y hermana.

Luisa.

Cuando recibáis esta, X no sientas pereza como todos la tenemos para esto, y me escribes pronto, pues es un consuelo grande tener noticias cuando se está sola de los familiares”.

Beste eskutitz bat dago baina ez dago jakiterik zein egunetan idatzi zuen, anai-arrebei zuzendutakoa da:

“Ya quisiera que estaría ésta en vuestras manos, para que quitarais la preocupación que sé y presiento aunque no merezco tendreis de mi, y que yo os ocasiono, pero to temais ya, gracias a Dios, después del tiempo transcurrido y por desgracia largo, ya os puedo decir sin ser vosotros ni yo la engañada, _ y que hoy se lo he explicado al doctor X, vuelvo a ser pero claro con los años encima esos si que no me los quita nadie, la Luisa de hace seis años rovesta y sana.

Ahora no entro en más detalles, lo primero porque quizá resulte pesada, y lo segundo porque el lápiz que tengo se va gastando la piedra y temo tenga que suspender la carta, a no ser que haciendo rayas en la madera.

Mañana una semana escribí a los chicos, y también a X, pero me figuro no llegarían a su destino; hoy lo hago porque me ha dicho el doctor que escriba al hermano, aunque la verdad,

agradecida en el alma aunque no te lo agradecía la acción que hicistes conmigo, y tenía el propósito de romper las relaciones para toda la vida, aunque reconozco ahora lo iciste en bien mío, yo pensaba Dios se lo pagará que lo que es yo no se lo perdonaré.

Bueno a otro tema:

En cuantito recibáis esta que esijente diréis! Me mandas papel, pluma y tinta, porque no tengo ya una mala hoja de nada, y sellos también que casualidad este que os pongo es _ . Con esto no me mandéis mucho papel pues no pienso escribiros mucho y también les dices a los chicos que ene l cajón mío de la mesa escritorio, ya lo saben los chicos, tengo un cuaderno grande que tiene algunos apuntes y rayas de imprenta. Os doy esos detalles para que sepan cuál es, me lo mandais y dos libros que tu tienes de versos muy bonitos los dos son de tamaño igual con la portada marrón y que los autores me suena así como que son Gabriel y Galán casi estoy segura; pues bien mándamelos. Le dices a X que marque un dibujo bonito en alguna funda que cortó ella y me la mande junto con ilo, y si no le parece bien, que corte de tela blanca unos pañuelos grandes para los chicos y yo los haré a vainica.

Direis que qué más, pero yo bien quisiera hacerlo yo misma sin dar quehacer a nadie, pero no puede ser, porque me encuentro como aquel que dice atada de pies y manos, doce días con hoy sábado encerrada en una habitación con llave y para mayor desgracia solo veo la ventana abierta el tiempo que tardo en comer, vuelta a cerrarla con llave, así que tengo más remedio que estar metida en la cama , como hace la vida el cerdo comer y hecharse, así es la mía ahora. Continúa en el cacho papel”.

Luisak esaten du beste paper batean jarraitu zuela baina eskutitzaren bukaera falta da. Idatzi honetan ikusi dezakegu, paper falta zutela edo behintzat Luisak papera eta luma eskatzen zituela, arkatzaren “harria” (berak esaten duen bezala) amaitzen ari zitzaiolako. Gainera, Luisa bera konturatzen da aurretik idatzitako eskutitza ez zitzaiela iritsi, ez baitzen bidalia izan. Bestetik, jakin dezakegu, Luisak giltzaz itxitako gela batean pasatzen zituela egunak eta moja baten zaintzapean zegoenean bakarrik irekitzen ziotela leihoa janaria emateko, amaitutakoan giltzaz berriro ere itxiz.

1943ko ekainaren 24ean Luisak psikiatrikotik alde egin zuen, ezinezkoa izan zait jakitea nora eta norekin joan zen.

Hau.

Hau.

Hau.

II.4 HUTSUNEEKIN TESTUINGURUA BETETZEN

“Ese día se me acabó la libertad. Me encerraron en una habitación de hotel, en el Ritz. Yo me sentía perfectamente contenta; me lavé la ropa y me confeccioné diversas prendas de gala con toallas de baño para mi visita a Franco, la primera persona a la que debía librar de su sonambulismo hipnótico. En cuanto Franco estuviese libre, llegaría a un entendimiento con Inglaterra, luego Inglaterra con Alemania, etc. Entretanto Martínez Alonso, totalmente confundido por mi estado, me administraba bromuro a litros y no paraba de suplicarme que no estuviese desnuda cuando los camareros me traían la comida”

(Carrington, 1987:14).

Kasu partikularrek dagoeneko eman dizkigute testuinguruari buruzko hainbat datu, orain, era zabalagoan kasu horiengan islatzen diren kontestuaren elementuak identifikatu ahal izango ditugu; kasuak eta testuingurua, testuingurua eta kasuak, bien artean dagoen elkarreagina eta lotura agerian utziz.

Zortzi emakumeak 1935 eta 1950 urteen artean egon ziren Gipuzkoako bi psikiatrikotan ingresatuta Hego Euskal Herrian, beraz, urte horien artean Hego Euskal Herrian bizi zen testuinguru gizartekoa eta morala ulertzen lagunduko digute. Aipatu garai horretan, gertaera gogorak izan ziren: 1936-1939 Espainiako Gerra Zibila izan zen eta ondoren Francisco Francoren (1892-1975) garaipenarekin, diktaduraren lehen hamar urteak hasi ziren. Beraz, Vera, Teresa, Rosa, Carole, Josefa, Gregoria, Tomasa eta Luisaren psikiatrikoko itxialdiak, Espainiako Gerra Zibilaren eta historiagileek Lehen Frankismoa (1939-1959) bezala izendatu duten garaien barruan kokatu daiteke.

Espainiako Gerra Zibilaren eta frankismoaren aurretik Bigarren Errepublikaren garaia izan zen (1931-1936). 1931. urteko Konstituzio Errepublikarrak aldaketa asko ekarri zituen emakumeentzat: “Aurrerapen politiko batzuk egon baziren ere, legeak emakumearen menpekotasuna bermatu zuen 1931ko Bigarren Errepublikaren konstituzio demokratikoak sexuen arteko berdintasun politikoa barneratu zuen arte” (Nash eta Cifuentes, 1999:30). Arlo ezberdinetako erreformak proposatu ziren: hezkuntzan, lan munduan eta nekazaritzan besteak beste. Baina azpimarragarria izan zen oso sufragio unibertsala eta dibortzioa ere tartean zirela. Dena den, Espainiako Bigarren Errepublikak momentu ezberdinak bizi izan zituen eta 1933ko

hauteskundeetan eskuineko alderdiek irabazi zuten²⁰⁹: CEDAk (Confederación Española de Derechas Autónomas) eta Alderdi Errepublikar Radikalak (Partido Republicano Radical). Alejandro Lerroux izendatu zuten presidente eta aurreko urteetan proposatutako erreformak bertan behera utzi zituen, gainera, Eliza Katolikoarekin kontziliazio prozesuari hasiera eman zion. Emakumeei esplizituki egin zieten etxera itzultzeko deia eta mezu hori ez zitzairen alde bakar batetik iritsi: “Bai, klase politikoak, baita jerarkia elizkoiak eta aldizkari femeninoek ere, *emakumea*²¹⁰ bere egiazko tronuan, etxean, kokatzeko helburua zabaltzen hasi ziren berriro” (Folguera Crespo, 1997:497). Beraz, emakumeak berriro ere amatasunera eta familiaren moralara heztera bideratu zituzten eta gizonei eman zieten familiaren barruan botere nagusia.

1936. urtean ezkerreko errepublikarrek irabazi zituzten berriro hauteskundeak, Fronte Popularrean bateratuta zeuden eta Manuel Azaña izan zen Errepublikako presidente (1931-1933an bezala). Baina, 1936ko uztailean Marokon hasi zen Errepublikaren kontrako altxamendua eta Espainiako Gerra Zibila. 1936ko irailean Espainia erdia altxatuen esku zegoen eta Frankok bere burua estatuburu izendatuta Burgosen finkatu zuen bere gobernu. Gerrak hiru urte iraun zituen: 1936-1939.

Gerra Zibilaren ondoren bai Espainiar estatuan baita Hego Euskal Herrian ere ezartzen den erregimenean egoera larria bizi zen:

“Gerra Zibilean, tropa errebeldeen garaipenarekin, irudikatuta geratu zen programa politiko baten inposizioa zeinaren helburu nagusia erregimen autoritario eta antidemokratikoa ezartzea zen [...] Berriro ere, aurretik sedimentatuta geratu ziren katolikotasun tradizionalenaren ohitura ideologikoen diskurtsoa berriro ere dominante bezala eraikiz” (Cobo eta Ortega, 2005:35).

Alde anitzetatik jorratu daitekeen gaia da hau, baina nik genero ikuspuntu batetik azertu – gerturatu – nahiko nuke. Zentzu honetan, datozen ataletan emakumeei planteatzen zitzairen ereduan eta psikiatriaren garaiko printzipio eta oinarrietan sakonduko dut, ondoren bien arteko lotura bat eginez. Amaieran erresistentziei buruz hitz egingo dut antibiografiatutako zortzi emakumeen kasuetan ikusten ditudan erresistentziak azalduz.

²⁰⁹ Eskuineko alderdiak hiru taldetan berrantolatu ziren: CEDA (Gil Robles-en gidaritzapean eta Eliza Katolikoaren babesarekin), Renovación Española (monarkikoak) eta Falange Española (Jose Antonio Primo de Rivera nagusi).

²¹⁰ Kurtsiba nirea da.

Datozen orrialdeetan testuinguruaz eta 8 emakumeez arituko naizenez, edozein momentutan kontsultatzeko aukera ematen duen 8 emakumen laburpen txiki bat egingo dut jarraian:

VERA:

1935. urtean ingresatu zuten, 42 urterekin. Senarrak tratu txarrak ematen zizkion eta probokatutako aborto bat izan zuen. *Malenkoniaren inboluzioa* diagnostikatu zioten. 51 urte eman zituen psikiatrikoan.

TERESA:

19 urte zituen 1944. urtean ingresatu zutenean. Gizonezkoengandik *ihes*²¹¹ egiten zuelako zeuden senideak kezkatuta. Erizain batekiko maitasuna adierazten du. Elektrotroshoc-ari beldur handia zion. 8 hilabetez egon zen ingresatuta.

ROSA:

1945. urtean ingresatu zuten eta 17 urte zituen. Lehengusuarekin maitasun harremana eduki zezakeela eta gurasoek *berreziketa*²¹² egiteko sartu zuten. Aitari eskutitz batean berak nahi zuena egingo zuela zin egiten dio amaieran. Hilabete eta sei egunetara atera zen.

CAROLE:

46 urte zituen 1949an psikiatrikoan sartu zutenean, Belgikarra zen. Seme-alaben zaintza kendu zioten zainketa egoki egiten ez zuelakoan. Erljio katolikoaz kexu da, intimitate guztiak kontatu behar izateak haserrarazten du. Garaiko buruzagiekin harremana zuen. 9 hilabete eta 7 egun eman zituen ingresatuta.

²¹¹ Hala jartzen du bere txostenean.

²¹² Hori da psikiatrek eurek erabiltzen duten hitza: *berreziketa*.

JOSEFA:

1949an sartu zuten psikiatrikoan, 34 urte zituen. Senarrak betiko geratzeko psikiatriko bat bilatu nahi du, emazte txarra dela dio. Familiak psikiatrikora idazten du senarraren trikimailu bat dela esanez. Josefak dio lasaiago dagoela psikiatrikoan etxean baino. Hiru hilabete eta 14 egun eman zituen psikiatrikoan.

GREGORIA:

Bi aldiz ingresatu zuten, 1944ean eta 1945ean. *Sindrome paranoide en oligofrenia*²¹³ diagnostikoa jarri zioten. Ihes egiteko saiakera egin zuen. Tratamendu asko egin zizkioten. Senideen arabera ilobarekin maitemindu zen eta bekatua aipatzen zuen behin eta berriz. Lehen ingresoan hiru hilabete eta hogeitun egun eman zituen eta bigarreanean bi urte eta bederatzita hilabete.

TOMASA:

1940an ingresatu zuten, 31 urte zituela. *Moral insanity*²¹⁴ diagnostikoa egin zioten. Psikiatrikora eramanez ez zekien nora zihoan. Bere senarra ez zen beste gizon batekin maiteminduta zegoen eta azkenean senarra doa bere bila. Hilabete eta 28 egun eman zituen ingresatuta.

LUISA:

26 urte zituelarik ingresatu zuten bi aldiz 1943. urtean. Histeria diagnostikoa egin zioten. Gerra hasi eta bi hilabetera oso triste jarri zen eta gorputzean aldaketak izan zituen. Oso kezkatuta zegoen bere arazo fisikoengatik. Egundak eman zituen gela batean itxita. Lehen ingresoan hilabete eta hamaika egunetakoa izan zen; bigarrena hilabete eta sei egunetako. Ihes egin zuen.

²¹³ Gregoriaren antibiografian emango ditut diagnostikoari buruzko azalpenak.

²¹⁴ Diagnostikoari buruzko azalpen gehiago bere antibiografian emango ditut.

***Emakumea*²¹⁵ 1940ko hamarkadan Hego Euskal Herrian: bekatua, sexualitatea, amatasuna**

1940ko hamarkadan, Francoren erregimenak eskuhartze eta eragin erabatekoa zituen Hego Euskal Herrian eta Francoren diktaduran planteatzen zen *emakumearen* eredu aplikagarria zen.

XX. mendearen lehen erdia emakumeentzat garai paradoxikoa izan zen. Aurrerapenak gertatu ziren euren egoera juridiko eta sozialean Espainiako Bigarren Errepublikan baina baita atzerapenak ere: Gerra Zibila eta Frankismo garaian. Honela, II. Errepublika garaian indarrean jarri ziren emakumezkoei zuzendutako neurri asko bertan behera utzi zituen frankismoak: “Eskola mistoa desagerrarazi zen, emakumeei gauez lan egitea debekatu zitzairen, ezkonduetako emakumeak «tailer eta fabriketatik» «liberatu» ziren” (Moraga, 2008:232). Faszismoan amatasuna eta *emakumearen* otzantasuna goraiatu ziren. Bi helburu zituen jaiotzak bultzatzen zituen politika horrek: alde batetik, *emakumea* arlo pribatura mugatzea eta, bestetik, hazkunde tasa igoz Espainiar estatua nazioartean boterea izango zuen herrialdea bihurtzea.

Emakumeak otzana behar zuen izan, etxekoa, katolikoa eta zaintzailea. Frankismoak planteatzen zuen eredu hori betetzen ez zuten emakumeak eredu horretara sartzen saiatzen ziren, hori lortzeko mota guztietako indarrak eta koertzioak erabiltzera iritsiz:

ROSA:

“Ha sido vista por diversos médicos y ultimamente por el Dr Figuerido quien la deriva con consentimiento de la enferma para hacer reeducación”.

Rosak lehengusu batekin harremanak izan nahi zituen eta senideek beste gizon batekin ezkondu zedin nahi zuten; senideen nahia bete zezan, psikiatrikora bidali zuten.

²¹⁵ Kurtsiban jarri dut singularrean dagoela azpimarratzeko, garai honetan zabaltzen zen *emakumearen* eredu bakarraz hitz egiten ari naizelako eta botere guneetatik ere hala erabiltzen zutelako.

1939ko apirilaren lehen Espainiako Gerra Zibila amaitu eta Lehen Frankismoa (1939-1959) bezala ezagutzen den garaia hasi zen. Garai honetan erregimenak ezaugarri bereziak izan zituen eta ezaugarri horietako bat genero sistema berri bat ezartzeko ahalegina izan zen. Genero sistema hau Elizaren doktrinan oinarritzen zen (Altuna eta Aranburu, 2012:16). 1939tik aurrera *emakumearen* eredu itxi eta konkretu bat ezarriko du diktadurak “feminitatearen ‘idealaren’ eraikuntza ultrakontserbadore bat, egonkortasun sozialaren zaintzaile nagusi bezala ulertuko dena” (Graham, 2010:182)²¹⁶. Legeak zioen:

“Baliagarria den ezkontza bakarra kanonikoa da, zibila «espainiarren kontzientzia katolikoaren kontrako irain» bat bezala kontsideratu zen (42. art); ezkontutako bikote bat hausteko era bakarra bikotekide baten heriotza zen (52. art), emakumea menpekotasun absoluto batean zegoen («senarra da ezkontza-elkartearen ondasunen administratzailea», 59. art, eta «senarra da bere emaztearen ordezkaria», 60. art) eta senarrari obedientzia zor zion («senarrak emaztea babestu behar du eta honek senarra obeditu», 57. art); 237 artikulua araberako emakumeak «gaintasungabeko» pertsonak bezala kontsideratzen ziren, adingabeekin edota eroekin parekatuz; eta 320 artikulua 21 urtetan ezartzen zuen emakumeen adin-nagusitasuna.” (Ruiz, 2009; in Abad, 2009: 73).

Dibortzioa ez zegoen inondik inora onartuta, eta beraz, Carole eta Josefaren egoerek arazoak besterik ez zituzten sortzen:

CAROLE:

“Casó muy joven con su primer marido del que tuvo un hijo. Pronto el matrimonio fue mal. Después enseguida casa con su segundo marido del que tiene 2 hijas”.

Belgikarra izaki lortu ahal izan zuen dibortzioa Carole-k, bestela ezinezkoa izango zuen.

²¹⁶ Ikus baita ere: FRANCO, M.R.R (2007). *¿Eternas menores?: las mujeres en el franquismo*. Biblioteca Nueva.

JOSEFA:

“Ante esta situación nuestro consejo ha sido el de la separación pues creemos que la vida en común es imposible pues originaría numerosos conflictos”.

Nola konpondu egoera dibortzioa legeak aurreikusten ez zuen zerbait baldin bazen? Josefak zituen arazoak senarrak eragindakoak ziren baina ia ezinezkoa izango zuen hortik ateratzea. Aukera bakarra, senarrak banaketa onartu eta bien arteko akordio baten ondorioz – ez legalki jakina – egitea zen. Eta ez zirudien senarrak horrelakorik onartzeko inolako asmorik zuenik.

Gainera, aipatu behar da hainbat gauza legalki erregulatuta ez egon arren debeku bezala ikusten zirela:

“Erregimenak ez zuen behar izan debekurik, ezkonduko emakumearen lan publikoa demonizatzerakoan, ‘estalian’ lan egin zezaten bultzatuak izatean, etxean eta besteen etxeetan, pisu diskurtsiboa hain izan zen gogorra zein gizarteak debeku hori onartzen amaitu zuen. Kasu honetan, etxekotasunaren diskurtsoak legeak baino pisu gehiago izan zuen” (De Dios, 2013:8).

Legeen beharrik gabe, diskurtsoak berak izan dezakeen indarra erakutsi zuen Francoren erregimenak. Zentzu honetan genero sistema berriaren ezarpena Eliza Katolikoaren eta Falangeren Sección Femeninaren bitartez egin zuten neurri handi batean (Altuna eta Araburu, 2012). Errepublikaren kontra altxatutakoekin, Francoren aldekoekin kolaboratu zuten Espainiako Eliza Katolikoko ordezkariak; era honetan,

“Gurutzadaren irudia zabaldu zen, beste faxismo europarretatik desberdintzen zuena. Aberria, Tradizioa eta Erljioa ejertzito altxatuaren ideiak eusten zituen zutabeak ziren eta haueetatik sortu zen “Espainia Berria” (Ibidem:25).

Elizak idatzi zituen, besteak beste, emakumeek frankismoaren eskolan erabili behar zituzten eskuliburuak. Kontraesankorra zen egoera dirudi, Elizak eta erregimen faxistak berak emakumearen ezgaitasuna aldarrikatzen bazituzten ere, emakumearen papera ezinbestekotzat jotzen zuten Katolikotasunaren baloreetan oinarritutako Espainaren “birsortze nazionalen”. Emakumeak ziren balore horiek familian transmititzeko arduradunak eta, beraz, menpekoak eta ezgaiak kontsideratuak baina era berean erregimenak aurrera jarraitu zezan paper garrantzitsua ematen zioten.

“Emakumeek Elizaren eremuan duten garrantzia zera da: mezu elizkoia bereziki eurengana bideratua dagoela da, era berean eta paraleloki, eurak izango dira – emakume taldeen partaide direnak, elizari zegozkien edota erregimenari zegozkienak -, gainontzeko emakumeei diskurtso hori bera iristarazteko ardura izango dutenak” (Piérola, 2000:44).

Era honetan, *emakumea* etxeko espaziora eta familia girora mugatzen zen, oso garrantzitsua zen betebeharrak hor barruan egin “behar” zituelako. Elizaren barruan Acción Católica deituriko erakundea sortu zen; erakunde honetatik *emakumeak* nolakoak izan behar zuen ezartzen zen, betiere, bete beharreko mandamendu katolikoak oinarritzat hartuta. Belen Altunak *Euskaldun fededun* (2003) liburuan azaltzen du Eliza Katolikoak Hego Euskal Herrian berebiziko protagonismoa izan zuela euskaldunen identitate-sortze prozesuan, XVIII. mendearen bigarren erditik frankismora arte gutxienez. Eliza Katolikoak esaten zuen *emakumeak* nolakoa izan behar zuen: umila, obediente, apala eta gozoa.

“Halaber, ahal den neurrian, beti itxita egon behar dira (etxean, komentuan, burdelean)²¹⁷, haien arrisku nagusia *ikustea* eta *ikusia izatea*²¹⁸ baita. Itxitura sinboliko eta fisiko horren horma hausteak ikaragarriko kaltea eragingo luke” (Altuna, 2003:268).

Hego Euskal Herrian, emakumezkoek garai honetan erlijioarekin zuten lotura estuagoaren adierazgarri, Caro Barojak 1949. urtean idatzi zuen *Los Vascos* lanean aipatzen du: “Emakumeak, orokorrean, gizonezkoak baino zentzu zorrotzagoa ematen dio Elizak agintzen dituen jokaera araei, parrokiako bizitzan parte hartze aktiboagoaz esku-hartuz” (Baroja, 1995:273).

TOMASA:

“Jesús, tú que eres Dios no me dejes olvidar que soy cristiana, que soy católica, que tengo que salvar mi alma, estoy enloquecida, esta noche haré un disparate”.

Disparateaz ari denean bere buruaz beste egiteaz ari da eta, jakina denez, hori bekatua da erlijio katolikoan.

²¹⁷ Hemen, *eroetxea* edo *psikiatrikoa* gehitu genezake.

²¹⁸ Kurtsiba berea da.

Interesgarria da, zentzu honetan, Llonak emakumeen eta erlijio katolikoaren inguruan egiten duen irakurketa – 1919-1939 urteen arteko garaiaz ari da baina azalpena baliagarria da eskuartean dugun garairako ere. Llonaren hitzetan, erlijio katolikoak emakumeei balore femeninoen aintzatespen erreala eskaini zien eta eurek fedean baieztapen pertsonal eta kolektiboa aurkitu zuten; emakumeek inplikazio handiagoa zuten ingurukoen zainketan eta horrek sufrimendutik gertuago egotera behartzen zituen:

“Emakumeek zeremonial erlijiosoa mantentzeko zuten nahia ez zen bakarrik eguneroko bizitzaren eta femeninoaren aldean zaintza eta giza alderdi izpiritualak jarriko zituen banaketa sexual baten ondorioa, baizik eta baita ere, emakumeen aldetik zegoen bizipen babesgabeago baten adierazpena, heriotzak, oinaze fisikoak eta sufrimenduak sortzen zuten inpotentziak sortutakoa” (Llona, 2002:38-39).

Eliza katolikoaz gain, Falangeren parte zen Sección Femenina erakundeak ere – Gobernu Frankistaren babesa eta bermea zuen erakunde horrek – eragin handia izan zuen erregimenak inposatu nahi zuen *emakume* eredu zabaltzen. Gizarte-klase ertaineko milaka emakume, “eremu publikotik hartuak izan ziren beste emakumeak kontrolatzeko” (Graham, 2010:187). Sección Femenina erakundeak Gizarte Zerbitzuen (SS) programa jarri zuen martxan, bertan parte hartzera “bultzatzen” zituzten – gero lana egin nahi bazuten, bederen – ezkondata ez zeuden 17 eta 35 urte bitarteko emakumeak, sei hilabetez egin behar zuten “zerbitzu” hau eta gutxienez hiru ordaindugabeak ziren.

“Emakumeek zerbitzari lana egiten zuten eskoletan, ospitaleetan, umezurztegietan, pertsona zaharren etxeetan, edota bestela pobreentzako sukaldeetan laguntzen zuten, arropa eta haur-txikientzako saskiak egiten zituzten SF-k berak zituen tailerretan, edo alfabetatze irakasleei eta SF-ren landa inguruko osasun bisitariei laguntzen zieten” (Graham 2010:187).

Jakina, betekizun hauek egiten zituzten bitartean, *emakumearen* eredu konkretu bat izatera bultzatzen ari ziren: besteen zaintzan eta amatasunean oinarrituta zegoena, besteak beste.

“Mediante leyes, normativas, modelos educativos y la Sección Femenina, el régimen franquista impulsó un arcaico arquetipo femenino recatado y sumiso, que expulsaba a las mujeres de toda actividad en el ámbito público, siendo el hogar y la familia los únicos espacios autorizados” (Nash, 2013:XII).

TOMASA:

“Mira algunas fotos de sus amigos con sus niños y dice: “Esto me falta a mí, ¡Cuánto daría yo por tener esos niños!”

Beraz, emakumeengan erabat sartutako diskurtsoa zen, benetako desio bihurtuta, hori gabe, ez zirela emakume oso pentsatzen baitzuten.

Azken finean, makinaria errepresiboaren eta eredu patriarkal nazionalkatolikoaren ezarpenerako gakoetako bat emakumeen rolaren berdefinizio bat egitea izan zen (Nash, 2013:XI-XII). Berdefinizioak emakume “soila, pubikoa, pairamentsua, pasiboa eta zerbitzaria, familia ugari baten ama” aurreikusten zuen (Moreno, 2013:7).

TERESA:

“Le molesta adaptarse al gusto de los demás”.

Emakume bati “zegokion” rola ez zuen norberaren nahia aurreikusten. Gainera, besteek ezarritako horrekin gustura sentitu behar zuen.

“En esta vida nunca se consigue lo que se quiere”.

Teresaren hitzetatik bi ondorio atera daitezke: bazekiela ez zuela nahi zuena lortuko, eta bazekiela berak nahi zuena ez zetorrela bat gizarteak eta moralak esaten zuenarekin. Teresaren kasuan, “hobeto” dagoela eta psikiatrikotik ateratzeko moduan dagoela justifikatzen dute, lasaiago eta otzanago dagoela esanez, esaten diotena egiten duela eta ez berak nahi duena.

Ingreso amaierako ohar batean idatzi zuten:

“Muy buena todo el día sumisa y obediente”.

Frankismo garaiko diskurtsora iristeko badago beste modu bat: erregimenak egiten zuen propaganda. Hedabideak kontrolpean eduki zituen erregimenak hasieratik eta bertan kaleratzen

zen propaganda ere begirada zorrotzez jarraitzen zuten²¹⁹. Propagandaren Zuzendaritza Nagusi bat sortu zuen eta 1940ko apirilaren 18ko Ordenaren arabera eta zuzendaritza horren pean geratuko dira Elizak, Unibertsitateak edota Falange alderdiak zuzenean egiten ez duten propagandaren kontrola eta zentsura (Sevillano, 1998:115). Dena den, propaganda hori aztertuta, honen bitartez zabaltzen zen *emakumearen* eredua kontraesankorra zela esan daiteke, alde batetik, *emakumea* goratu egiten zuen:

“Amatasunak ematen zizkion bertute fisikoengatik eta berezkoak zituen bertute moral garbiagoengatik, *gizonaren* gainetik jarriaz. Baina, bestalde, emakumeen menderakuntza azpimarratzen zen, beren ustezko ezaugarri naturaletan oinarrituz” (Ibidem:33).

Psikiatrikoan sartzeko arrazoiaren artean, emazteak *emakumeari* zegozkion “bertuteak” ez zituela betetzen esaten zuen senarrak.

JOSEFA:

“*El marido acusa de que es una mujer negligente sucia y gastadora.*”

Jordi Roca i Gironak frankismo garaiko emakumearen ereduari bi erreferentzia erabili zituztela aipatzen du: “Etxekoandre burgesaren eredua eta generoaren gaineko eredu kristau-katolikoa” (Roca i Girona, 2003:48). Nola lortzen zen, neurri handi batean, emakumeak ezartzen zieten rol horretan mantentzea? Erljio kristau-katolikoak erruduntasuna eta bekatua erabiltzen zituen bereziki: “Diskurtso ezberdinetatik eraikita, errua, sujetuaren eguneroko bizitzan txertatzen den arau edo dogma da” (Guzmán, 2007:58). Kristautasunak asko landu du erruduntasunaren kontzeptua eta baita erruduntasunarentzat ezinbestekoa diren bekatua, bertutea eta ordainketa ere (Ibidem:58). Kristau-katolikoentzat gizakiaren “berezko esentzia” bekataria da, baina frankismo garaian, bereziki emakumea lotzen zen bekatuarekin eta beraz, eurak jotzen ziren bekatuari aurre egin behar zieten sujetuak bezala (Piérola, 2000: 45).

²¹⁹ Ikus: MUÑOZ RUIZ, M.C (2003). “Las revistas para mujeres durante el franquismo: difusión de modelos de comportamiento femenino” in Nielfa, G. (ed.) *Mujeres y hombres en la España franquista: sociedad, economía, política y cultura*. Madrid: Universidad Complutense. 95-116 or.

Erruduntasuna, gizarteak eta moralak ezartzen ziena hautsi eta bekatua egiten bazuten iristen zen. Erruduntasunaren bitartez, ez zen beharrezkoa gizartearen aldetik kontrol zorrotza ezartzea, autokontrola sustatzen zen. Emakumeek euren ekintza, desio, nahi, sentimendu, emozio guztiei garaiko gizartearen eta moralaren filtroa pasatzea lortu nahi zen. Psikiatrikoan zeuden emakume gehienengan ikusi dut bekatua egin izanaren beldurra eta erruduntasunaren pisu jasangaitza:

VERA:

“Triste nengoelako eraman ninduten ospitalera eta hori nahita eragindako abortu baten ondorioz gertatu zitzaidan, bekatu hark gogo aldarre hau ekarri zidan”.

Bekatu egin izanaren zigorra da Verarentzat psikiatrikora eraman zuen gogo aldarrea edukitzea.

TERESA:

“«Habré pecado yo con contar estas cosas...» ... Tiene esta cosa de pecar después de que esta tarde me decía que no creía en Dios”.

Edota elektroshocka jartzen zietenean betetzen zuten fitxetan idazten zituzten ikurrak (askotan gurutze itxura zutenak) bekatua egin izanarekin lotzen zituen:

“«¿He pecado?» «Me van a poner cruces...»” por los signos que se ponen en el papel del ES”.

ROSA:

“En conversaciones admite que ha sido “insoporable” que ella es culpable de la situación en su casa [...] sobre el papel ha sido arreglado el conflicto con una dura carta del padre en que impone sus condiciones aceptadas por la enferma”.

Lagarde-k azpimarratzen du emakumeen itxialdietan askotan agertzen den elementu bat da erruduntasunarena:

“Emakumeen itxialdietan elementu garrantzitsua da erruduntasuna. Emakumeen eromenaren oinarri bezala, erruduntasuna emakume-erasoaren errepresio sozial eta kulturalean islatzen da [...] Euren bizimoduetatik sortzen diren kontraesan handiek amorrua, mina eta eraso eragiten dute eurengan eta ez dute adierazpenerako bide positiborik aurkitzen” (2011:760).

Itxialdia jasan duten emakumeen artean, Vera, Teresa eta Rosa adibidez, bekatuarekin eta erruduntasunarekin oso lotuta dator zigorra. Eta ordaintze horren nondik norakoak apaizek erabakiko zituzten aitortzaren bitartez. Horretarako emakumeek euren bizitza guztiaren, pentsamenduen, sentimenduen, emozioen, nahien, desiren... berri eman behar zieten apaizei.

CAROLE:

“No human thinking person of my nationality could ever stand such a coercion of ideas and religion. Remember I am no catholic I consider my life here as illegal prison [...] I belong to a country where private sentiments and private lives are not an utopie”. Carole belgikarra zen eta ez zuen bere burua katolikotzat jotzen. Beraz, psikiatrikoaren barruan gertatzen zitzaiona eta egitera behartzen zutena harrigarritzat jotzen zituen, bere intimitateari eraso egiten ziotela sentitzen zuen. Gainera, aitortza bat egoteko bekatua egiten ari zarela jakin behar duzu, eta horretarako erlijio kristau-katolikoak bertute batzuk zehaztuko ditu eta horiek betetzen ez direnean jakingo du batek bekatua egiten ari dela. Baina, Carole-n kasuan bezala, katolikoa ez bazara, ez duzu egiten ari zarena bekatutzat joko.

TOMASA:

“Por más que examino mi conciencia nada encuentro que merezca este castigo, verme entre locos”:

Erljio kristau-katolikoan hauek lirateke bertuteak: zuhurtzia edo ongia egitea, eta horretarako errealitatearen ezagutza objektiboa beharrezkoa da; justizia; egian bizitzeko gaitasuna; sendotasuna, ongia egiteko gaitasuna, horretara iristeko sakrifizio bat egin behar bada ere; neurritasuna, zentzuzko ordena eramatea (Guzmán, 2005:61-62). Aztertutako zortzi emakumeen

kasuan, bertute horietakoren bat hautsi eta bekatua egiten ari direla pentsatuko dute senarrek, senideek, medikuek, mojek edota baita eurek ere bai.

Gipuzkoako psikiatrikoan 1937tik 1950era egon ziren emakumeen artean aipatzen diren bekatuak eta erruduntasunak bi eremutan banatuko nituzte: sexualitateari dagozkionak eta amatasunari dagozkionak.

Lehen frankismoan ezarri zen emakumearen idealak emazte eta ama ona izatea ziren (Roca, 2003:54). Zentzu honetan, frankismoak ahalegin asko egin zituen emakumeen sexu-praktikak kontrolatzeko eta tradizionalismoan eta katolizismoan oinarritutako arauak ezarri zituen. Bigarren Errepublikak hautsi nahi izan zituen kode eta eredu moralak berrezarri ziren, eta beraz, kontuan hartu beharko genuke zer nolako eragina izan zuen horrek bi garaiak bizitzea tokatu zitzaienengan.

Bigarren Errepublikaren garaian sexualitatearekin²²⁰ zerikusia zuten argitalpen asko egon ziren eta horiek guztiak desagertu egin ziren frankismoaren agerpenarekin batera (Regueillet, 2004:1029). Diktadura garaian, argudio zientifiko eta erlijiosoak erabiltzen ziren, sexualitatearen helburu bakarra ugalketa zela justifikatzeko. Baina, ideia hau batez ere emakumeen jokabide sexualarekin lotzen zen, gizonezkoen kasuan beste ikuspegi bat aplikatzen zen bitartean.

“Feminitateak gizon bakar batena izatea esan nahi zuen, eta beraz, ezkondu arte birjintasuna mantentzea. Amatasunarekin eta ugaltzeko behararekin ere lotzen zen. Bi postulatu horiek zuzenki baldintzatzen zituzten jokabide femeninoak eta berrogeigarren hamarkadako emakumeen gainean ezartzen zen kontrol moral eta sozial zorrotza justifikatzen zuten” (Regueillet, 2004:1030).

Psikiatrikoko artxiboan irakurritako txostenek agerian uzten dute nola bizi zen emakumeen sexualitatea 1940ko hamarkadan. Medikuek betetzen zituzten eta atal finkoak zituzten txostenetan, bazegoen atal bat “sexu-harremanak” izenekoa. Aipagarria da emakumeen kasuan oso gutxitan betetzen zela, eta betetzen zenean hilekoaren aipamenak egiten ziren gehienbat. Gizonezkoen kasuan, berriz, ohikoa zen atal hori betetzea, “normaltzat” jotzen zen. Emakumeentzat, berriz, sexu-gogoak patologiarekin lotzeko aukera zegoen.

²²⁰ Ikus: VÁZQUEZ GARCÍA, F. eta MORENO MENGÍBAR, A. (1997). *Sexo y razón. Una genealogía de la moral sexual en España (siglos XVI-XX)*. Madril: Akal.

“«Yo no he mirado nunca a ningún hombre que no fuese mi marido y a él le he consentido cosas que iban contra mi conciencia en aras del VI mandamiento, ya sabe Dr que muchas veces hay que consentirlo»”²²¹.

Gogora dezagun eliza katolikoaren VI. Aginduak: “Ez duzu ekintza lizunik egingo” esaten duela. Beraz, emakumearen eta gizonezkoaren kasuan jarrera ezberdinak onartzen dira. Emakumeak beti egon behar zuten gizonezkoaren esanetara sexu-harremanei zegokienez, gizonezkoak erabakitzen zuten noiz, nola eta norekin. Emakumeek, berriz, ez zuten inolako eskubiderik ezer erabakitzeko eta beti egon behar ziren gizonezkoak esaten zuena betetzeko eta onartzeko prest. Honela deskribatzen zuten emakume sensuala García Figer apaizak 1945ean Sección Femeninaren *Medina* aldizkarian:

“Emakume sensualak begiak hondoratuta ditu, masailak kolorerik gabeak, belarriak gardenak, kokotsa zorrotza, ahoa lehorra, eskuak izerdituta, malkartsua gerria, ziurtasunik gabeko pausua eta bere tristeza bere izate guztia. Izpiritualki, ulermena ilundu egiten da, gogoetarako berantiarra egiten da: borondateak bere ekintzen gaineko nagusitasuna galtzen du eta olatuen esku dagoen barkutxoa bezala da: memoria sorgortzen da. Irudimena bakarrik mantentzen da aktibo, zure kalterako, irudi lizunen errepresentazioarekin, guztiz betetzen dutenak. Emakume sensualaren aldetik ez da lan serioerik espero behar, ideia serioerik, lan emankorrik, sentimendu garbirik, samurtasun abegitsurik” (García Figer, 1945; in Moraga, 2008:245).

Emakumeak bere sexu-plazer propioa bilatzen eta aurkitzen zuenean, hau kaltegarritzat jotzen zen.

TERESA:

“*Masturbación: épocas en que la ejecutaba intensamente, desde hace un mes nada. Cree que le habrá perjudicado*”.

Teresak berak epaitzen du bere burua masturbazioak kalte egin diolakoan eta hori delakoan psikiatrikoan sartu zutenean zegoen egoeraren arrazoietakoa bat. Bere kasuan ikusi dezakegu

²²¹ 1942an eta 1952an, psikiatrikoan bi aldiz ingesatuta egon zen emakumezko batek “esaten” zuenaren inguruko oharra.

“fisikoki” kaltegarritzat aurkezten den horrek erlijio katolikoak planteatzen duen moralarekin zerikusi zuzena duela, izan ere, erizainaren ohar batean zehazten da gaueko erizainari esan diola gauean lizunkeriak²²² egin dituela, ea ez duen ikusi.

“En el cine se pone en plan amoroso con la enfermera. A pesar de que se le reprende y afea su conducta sigue igual lloriqueando: «es que Ud no sabe como le quiero...desde que vine... ¿Ud no ha amado nunca a una persona?...Dejeme que le agarre...es que yo siento este amor... ¿porqué no corresponde?»”.

Medikuek azaltzen duten beste kezka bat da ez duela gizonezkoekin egon nahi. Teresak askotan azaldu zuen psikiatrikoan egin zuen egonaldian jarrera lesbianoa.

“Muy estimado doctor: quisiera manifestarle que el pensamiento como el eco continua repercutiéndome y que estos dias por haber proseguido con mis apetitos sensuales me aquejo mucho de dolor de cabeza”.

Tratamenduaren bitartez “pentsamendu horiek” kenduko zituela uste zuen Teresak eta bide batez tratamendua planteatzen zuten medikuek ere, baina Teresak berak aitortzen zuen tratamenduak ez ziola ezer egiten:

“Esta mañana pese al tratamiento he continuado con los mismos pensamientos sexuales. Quisiera quitar estos placeres mas por mucho que en quitarlos deseo no lo consigo”.

Regueillet-ek azaltzen duenez, 1940ko hamarkadan zabaldu zen sexualitateari buruzko diskurtso ofizialak ez zuen sexu-plazera bere horretan kondenatzen, “baizik eta harreman heterosexual baten helburu bakarra zenean, eta gizabanakoak masturbazioa eta homosexualitatea bezalako sexu-praktikekin eragiten zuenean” (2004:1031). Beraz, Teresaren kasuan, bi alderdi horiek ikusi daitezke, bere sexu-plazera ez zen ugalketa helburu batekin eginda, masturbazioa eta praktika lesbianoa daude, eta hori ez zen inondik inora onargarria frankismo garaian.

CAROLE:

²²² Erizainak “impureza” idazten du, beraz, pentsa daiteke Teresak horrela esan zuela eta hitz horrek erlijio katolikoaren kontzeptuekin lotura handia du.

“Algunas extramatrimoniales”

Artxiboan gutxi dira “sexu-harremanen” atala betetan duten emakumeak. Carole da horietako bat.

1940ko hamarkadako arau moralen arabera, ezkonkide izanda bakarrik zeuden onartuta sexu-harremanak, ezkon-bizitzaz kanpokoak eta ezkon-bizitza aurrekoa “sexu aberrazio eta jokabidearen perbertsioak kontsideratzen ziren” (Regueillet, 2014:1031).

Teresa eta Carolen jokabideak onartezinak ziren hainbat gauza jartzen zituztelako zalantzan:

“Lehenik eta behin pasibotasun sexual femeninoaren eta honek desiatu eta bere aldetik maitatu ordez, «maitatua izateko» zuen joeraren ideiarik uko egitea zekarren. Beste alde batetik, onartu behar izango zen gizonezkoek sedukzioaren jokoan botere ekonomikoa eta politikoa baino zerbait gehiago eskaini beharko zutelako desio zutena lortzeko; eta azkenik, ugalketari lotutako eredu heterosexuala sexualitatearen balizko formetako bat bakarrik zela onartu beharko zen” (Osborne, 2008: 46).

Proposatzen zen erredua erregimen faxistena zen: hierarkikoa. Goian eliza zegoen, bere esku zegoen sexuaren inguruko jakintza eta berak ezartzen zuen zer zen praktika “normala” eta “ez-normala”; ondoren diskurtso zientifikoa zegoen, bere aparatuen bitartez elizak esaten zuena egiaztatzen zuelarik; eta azkenik justizia eta moralak zeuden eta horiek ziren “ez-normalak” ziren jarrerak zigortzeaz arduratzen zirenak (Regueillet, 2004:1032). 1942. urteko maiatzaren 11ean adulterio delitua berrezarri zen²²³. 1944. urteko Kode Penalaren arabera, adulterio delitua egiten zutenak kartzela zigor txikia (6 eta 12 urte bitartekoa) betetzera kondenatua zen. Baina, kode horrek bi adulterio mota zehazten zituen: femeninoa eta maskulinoa. Bien artean zegoen ezberdintasuna nabaria zen.

“Emakumeak fisikoki gizonezko batenak bakarrik izan zitezkeen eta sexu-harremanek soilik adulterio gile egiten zituen. Baina gizonezkoek delitu hori egiten zuten soilik euren maitalea eurekin bizi zenean, hau da familiaren etxean [...] edota

²²³ Berrezarri diot Bigarren Errepublikaren garaian bertan behera geratu zelako.

bere «amorantearekin» zuen harremana publikoki ezagutzen zenean, hori eskandalu publikotzat jo zitekeen” (Ibidem:1033).

Ezkon-aurreko sexu-harremanak ere delitu ziren, baina ez delitu penala, morala baizik.

VERA:

Haurdun geratu zen ezkondu aurretik eta ezkutuan ezkondu behar izan zuen.

Medikuek ezkon-aurreko sexu-harremanen kalteak justifikatzen zituzten osasunerako arriskutsuak zirela esanez, eta emakumezkoak jotzen zituzten euren birjintasunaren zaindari bezala, euren ondasun preziatuena zela esanez: “Gizonezkoen kasuan, berriz, ezkon-aurreko sexu-harremanak bazituzten euren gizontasun berresten ari ziren” (Regueillet, 2004:1033). Azken finean, emakumeek zentzu honetan egin zezaketen edozerren gaineko kontrol soziala eta morala askoz ere zorrotzagoa zen.

ROSA:

“Durante toda su vida había tratado más íntimamente a un primo suyo, hijo de un hermano de su madre que está reñido con su padre. En Navidades el primo le pidió relaciones, ella consultó con sus padres que se negaron radicalmente”.

Emakumeak eurak, askotan, “gaizki” egiten ari zirelakoan kontrol sozial eta moral horretan parte hartzen zuten, Rosak gurasoei esan zien lehengusuarena eta onartu ez zutelako haserretu egin zen:

“Desde entonces está reñida con sus padres: no hablaba con ellos, se encerraba en la habitación, no comía y hacía toda clase de groserías a su familia y servicio”

Baina...

“Estoy dispuesta a hacer todo lo que quieras solo te pido que me lleves a tu lado que me perdones y que me quieras mucho, mucho, es lo único que me importa”.

Hori zioen Rosaren azken eskutitzak eta psikiatrikotik atera zuten.

Familiaren figura, aitarena eta amarena, subjektuaren gainetik zeuden:

“Ahalguztidun posizio batetik. Zor zen errespetuak norberaren borondatearen obedientziara eta menpekotasunera derrigortzen zituen. Hau horrela zen genero desberdintasunik gabe, ondorengo guztientzat zen horrela, baina nesken kasuan ondorioak zorrotzago ageri ziren, izan ere, neskek ezin zituzten mutilek askatasuna dastatzeko zituzten lizentziak gozatu” (LLona, 2002:44).

TOMASA:

“No deseo nada más que escaparme para ir con Juan”.

Tomasa ezkondua zegoen baina bere senarrari senar-ohi deitzen zion eta Juanekin maiteminduta zegoela esaten zuen. Familiak ez zuen harremana onartzen eta psikiatrikoan sartu zutela dio:

“La maldigo a mi madre, es una mala madre esto no se hace con una hija, despreciarme, abandonarme de esta manera, yo no busco más que cariño y ni siquiera esto me quieren dar, son unos ingratos”.

Tomasa psikiatrikotik ateratzear zegoenean:

“De Juan recibe cartas no las lee, se las entrega a su esposo cerradas, ella hace días que no le escribe”.

Senarrarekin harremana “konpondu” zuela aipatzen da etengabe txostenean, ez dago bestelako daturik. Beraz, pentsa daiteke horregatik sartu zutela psikiatrikoan, Juan ahaztu zezan. Amaiera aldera, honela deskribatzen dute egoera mojek:

Ohorea zen frankismo garaian erreferentziatzat hartzen zen kontzeptua, *gizonezkoaren* ohorea, noski. *Emakumeak* berari ez zegokion zerbait egiten zuenean, *gizonezkoaren* ohorearen kalterako zela aipatzen zen eta beraz horren aurrean *gizonezkoek* galdutako ohore hori berreskuratzeko eskubidea zuten. Sexualitateari dagokionez, tipo penal gogorrenetako bat 1944ko Kode Penalean ezarri zena zen: uxorizidioa ohore arrazoiagatik.

“Uxorizidioaren delitua *gizonezkoari* bere ohorearen defentsan eskeinitako pribilegio handia zen, honen arabera adulterioan harrapatutako emaztea edo oraindik etxean bizi zen hogeita hiru urte baino gutxiagoko alaba hil edo lesionatu zitzakeen” (Moraga, 2008:241).

Aipatu dudan bezala, sexu-harremanak betiere ugalketara bideratuak egon behar ziren erregimen frankistaren printzipio moralen arabera. Emakumeekiko askoz ere era zorrotzagoan aplikatzen zen ideia hori, *emakumearen* ideala “emaztea eta ama” izatea zelarik²²⁴. Emakumeek eurek euren burua eta bizitza epaituko dute amatasunaren arabera, horretarako jaiok izan direla irakasten zaie eskolatik bertatik eta irudi hori ematen zaie batean eta bestean, etxean eta kalean.

Baina erregimen frankistak lortu nahi zuen amatasunak ezaugarri konkretu batzuk zituen: erlijio katolikoak proposatzen duena. Eredu hori bete dadin, erregimen faxista bat izaki, ahalegin asko egin zituen amatasuna kontrolatzeko. Horretarako erabiliko dira erlijioa, zientzia eta legea: “Gertutik jarraitu emakumezkoaren lana, batez ere, haurtzaroan, pubertaroan, haurdunaldian eta edosketa garaian” (Echeverría, 1948:193). Emakumeentzat,

“erabakita zegoen amatasuna bedeinkapen bat zela, baina betiere ezkon-bizitzaren barruan gertatzen bazen eta figura maskulino baten babesarekin. Ezkongabeko emakumeen amatasuna zorigaitza kontsideratzen zen eta, onartzen zen kasuetan ere, gizarte galiziar tradizionalen gertatzen zen bezala, amaren existentzia hipotekatzen zuen eta gizartearen begietara bere «akatsa» konpentsatzeko bizitza guztia aszetika bati eskeintzea behartuta zegoen” (Juliano, 2006:82).

Zer gertatuko zen, orduan...

²²⁴ Ikus: NASH, M. (1996) “Pronatalismo y maternidad en la España franquista”, in Bock, G. eta Thane, P. (koord.) *Maternidad y políticas de género: la mujer en los estados de bienestar europeos, 1880-1950*. Cátedra; PÉREZ, T.G. (2009) “Los programas escolares y la transmisión de roles en el franquismo: la educación para la maternidad”, in *Bordon. Revista de pedagogía*. 61(3), 93-106 or.

Emakumeek ama izateari uko egiten bazioten?

Ezin bazuten?

Haurra galtzen bazuten?

Nahita abortatzen bazuten?

“Amatasun” ideal horretatik urrunduko zituen egoera guztiak erabat kritikatuak eta zigortuak zeuden 1940ko hamarkadan. Frankismo garaian psikiatrikoan lan egindako psikiatra bati egindako elkarrizketan hauxe esaten zuen: “Emakume bati haur bat hiltzen bazitzaion ia-ia behartuta zegoen inklusatik ume bat ateratzen” (Psikiatra 1, 2011). Amatasuna emakumearen patua zen eta bide horretan oztoporen bat bazegoen beste era batera bete beharko zuen, eta oztopoak emakumeak berak jartzen bazituen (ez zituelako izan nahi edota haurdunaldia eteten zuelako) egindako bekatua “ordaindu” beharko zuen.

VERA:

“Triste nengoelako eraman ninduten ospitalera eta hori nahita egindako abortu baten ondorioz gertatu zitzaidan, bekatu hark gogo-aldarte hau ekarri zidan”.

Verak ordaindu beharreko zigorra tristezia zela esaten zuen, tristezia zen abortatu izanagatik jaso zuen zigorra eta ez psikiatrikoa.

Eliza katolikoak abortua bekatu oso larritzat hartzen zuen²²⁵. *Emakumea* haurrak edukitzearekin identifikatzeak abortua bere “patu naturalaren” kontra joatea bezala ikusten da:

“Nahita egina bada, abortua beti da bekatu mortala, eta gainera, eskumikatu egiten dira batzuetan bai ama, bai laguntzaile izan duena. Ezin da onartu abortuaren kasuan ez inolako justifikaziorik ez aringarririk, posibilismoak ez du zirrikitu txikienik ere aurkituko gure predikariengan [...] Izan ere, bataiatu gabeko fetu bat hiltzea pertsona bat hiltzea baino askoz ere okerragoa da” (Altuna, 2003:280).

²²⁵ Ikus: NASH, M. (1988). “Género, cambio social y la problemática del aborto”, in *Historia social*. 2, 19-35 or.

Ikuspegi erlijioso katoliko hori lege aldetik indartuta zegoen aspaldi:

“Gure herrialdean abortua ia beti egon da debekatuta. Espainia, XX. mendean beste herrialde batzuetan gertatu ziren aldaketetatik urrun geratu zen, hala adierazten dute Kode Penalek (1928koak eta 1930ekoak) zeinetan abortua zigor oso gogorrekin zigortzen baitzuten” (Cifrián, Martínez eta Serrano, 1986:48).

Espainiako Bigarren Errepublikan egon zen nahita eragindako abortua despenalizatua 1937. urtetik Frankok boterea hartu zuen arte. Frankismo garaiko Kode Penalek nahita eragindako abortua 6 hilabete eta 6 urte bitarteko kartzela zigorrarekin zigortzen zuten. Dena den, legea ez zen eliza katolikoa bezain gogorra izan Alfonso Ruiz Miguelen arabera:

“Egia da legedia penal frankista horrek, hain katolikoa eta jaiotzen bultzatzailea eta antisorgailuen propaganda eta salmenta zigortzen zuena, inoiz ez zuela Eliza katolikoaren iritzia, abortua hilketatzat jotzen zuen, itsumustuan jarraitu, ez baitzuen abortatzeko era larriena ere, haurdun dagoenaren heriotza dakarrena, hilketaren zigorrarekin berdindu” (2002:128).

Lege honen arabera abortu guztiak zigortzen ziren, nahita eragindakoak eta nahita eragindakoak ez zirenak. 1944ko Kode Penalak abortua egiten zuena eta abortua onartzen zuen emakumea zigortzen zituen; “Abortua desohore bat ezkutatzeko egiten zen kasuetan zigorra txikiagoa zen” (Moraga, 2008:242). Hemen ere, ohore eta desohore kontzeptuak izango dira ekintza hauek baldintzatuko dituztenak, eta ohore eta desohore kontzeptu horiek garaiko moralaren araberakoak izango dira.

Erlijioa eta zuzenbideaz gain, zientziak ere abortuaren kalteak zientifikoki justifikatzen zituen. Medikuntzaren arabera, emakumeen gorputzari kalte egiten zion abortuak:

“1930. urtean, G.G Ter Gabrelianek (Abort und seine Folgen), Moskukoak, esaten zuen aborturen bat eduki duten emakumezkoen erdia baino gehiagok arazoak dituztela une horretan bertan edo gerora; eta azken hauen artean daude neurastenia, histerismoa” (Clement, 1934:68).

Kontuan hartu behar da diskurtso hau zenbateraino zegoen sartua, izan ere, Suitzan lan egiten zuen Clement medikuak 1934. urtean idatzi zuen *Derechos del niño antes de nacer* liburua. Marie-Aline Barrachina-k honela deskribatzen du abortuaren inguruko garaiko egoera:

“1941eko urtarrilaren 24ko Legea «jaiotza-tasaren babesari eta abortuaren kontrakotasunari buruz» ez du nahita eragindako abortua bakarrik zigortzen, baizik eta bapatekotzat jo diren abortu guztien gaineko susmoa zabaltzen du [...] ikuspuntu etiko-erlijioso batetik, abortua haur-hilketarekin parekatzen den krimena da (aurreikusitako zigorrak bi kasuetan antzekak dira) moral kristauaren eta interes nazionalaren kontra doana; ikuspuntu medikutik, abortua beti da naturaren kontrakoa, nahita eragindakoa izan edo bapatekoa, izan ere kasu honetan, emakumeak bere oinarrizko ugalketa funtzioarekiko duen moldakaiztasunaren emaitza da” (2003:91).

Esan bezala, *emakumeak* bizitzan izan behar zuen helburu nagusia ama izatea zen, eta amatasun hori abortuaz gain beste era batzuetan ere hautsi zezakeen. Aurrera jarraitu aurretik aipamen bat, emakumeak ama izanda ere ez zuten bere seme-alabekiko guraso-aginterik: “Aitak seme-alabak adopzioan eman zitzakeen amaren oniritzirik gabe” (Moraga, 2008:236). Beraz, *emakumeari* “patu natural” bezala aurkezten zitzaion amatasuna eta haurren zaintza baina senarrak zuen haien inguruan erabakitzeke ahalmen guztia.

CAROLE:

“Hace 4 años, estando en Biarritz con sus hijos hubo que dar la administración al tutor por desastre”.

Carole-k zuen izaera ez zuten ama izateko egokia ikusten eta hemen ikusi daiteke alaben tutoretza beste pertsona batek zeramala (gizonezko batek senarra hilda zegoen ordurako, bestela tutorea bera izango zen).

Hauxe zen ama eredugarria frankismo garaian Mercedes Suárez-Valdésekin, Sección Femeninako dibulgatzaileetako batek 1951. urtean idatzi zuen *La madre ideal* liburuan dioen bezala:

“Jaiotzen direnetik semeengatik loa galtzen duena, euren zainketara emana, hazi egiten ditu eta haietaz bera bakarrik arduratzen da, dena sakrifikatuz, eta gero moralki eta izpiritualki hezten ditu, gizon eta emakume zintzoak eginez, zuzenak, kristauak eta abertzaleak” (Suárez, in González Pérez, 2009:98).

Ez zen nahikoa emakumea ama izatea, erregimenak ama izateko modu bat berresten zuen eta hortik kanpo zegoen oro.

CAROLE:

Mediku-txostena jarraitzen badugu, berak ez zuen Suárez-Valdésekin aldarrikatzen zituen ama eredugarri hori izateko ezaugarriak jarraitzen: bakarrik bidaiatzen zuen, dibortziatu egin zen, etxea administratzerakoan gasturako joera zuendaiatu egiten zuen, ez zen katolikoa...

Amatasunaren eredu itxia zen oso eta bide horretan mantentzeak izugarritzko autokontrola eta kanpoko kontrola exijitzen zituen.

Amatasunaren atala amaitzeko, Beatriz Celaya-k (2012) esaten duena ekarri nahiko nuke hona:

“Amatasunaren fenomeno bere hiru dimentsioen bitartez errepresentatzen da: fisiko-biologikoa, sozio-kulturala eta sinbolikoa [...] Lehenengoan amatasun *invisibilizatu*²²⁶ bat ikusten dugu: sexualitatea, haurdunaldia eta erditzea ezkutatu eta beste gertakari batzuekin mozorrotzen dira. Dimensio soziokulturala garrantzia gehien hartzen duena da erlijiotik eta medikuntzatik zuzentzat jotako formula egokia dela eta. [...] Etxeari, etxeko ekonomiari, haurtzaintzari eta haurren hezkuntza moral, erlijioso eta patriotikoari buruz aurretik aipatutako ezagutzak [...] Amatasunaren dimensio sinbolikoa, ama aberriaren oximoronaren bitartez errepresentatua, gidaliburuaren edukien gehiengoa hartzen du abertzaletasunarekin fusionatzen delako” (2012:354).

²²⁶ Kurtsiba berea da.

Eroetxeak eta psikiatria 1940ko hamarkadan Hego Euskal Herrian: emakumeen erotzeko “berezko” joera

- What kind of hospital am I in?
- A hospital for girls who ask too many questions
and need to give their brains a rest. Now go to sleep.
- What shall I do? – cries another woman on a Ward
called Sixes and Sevens – I’m wicked... I’ve broken my
Word... I promised my husband I’d get better²²⁷

(Antonia White in Showalter, 1987:211).

VERA,

TERESA,

ROSA,

CAROLE,

JOSEFA,

GREGORIA,

TOMASA,

LUISA...

²²⁷ – Zein motatako ospitalean nago?; – Galdera asko egiten dizuten eta bere buruari atsedena eman behar dioten neskontzako ospitalean. Orain joan zaitez lotara.; – Zer egingo dut? – negarrez ari da Seixes and Sevens deitzen den gelan dagoen beste emakume bat; – Deabruak hartua nago... ez dut nire hitza bete... nire senarrari hobeto jarriko nintzela hitz eman nion. (Nire itzulpena da).

... Gipuzkoako psikiatriko ezberdinetan egon ziren. Vera egon zen psikiatrikoan plaza publikoak eta pribatuak zeuden eta psikiatriko handi bat zen, Santa Ageda. Bertan emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako eraikinak banatuta zeuden, eta haurrentzako eraikin bat ere bazegoen. Teresa, Rosa, Carole, Josefa, Gregoria, Tomasa eta Luisa psikiatriko pribatu batean zeuden, baina denak ez zeuden toki berean, bi herri ezberdinetan zeuden psikiatrikoa pertsona berberak izan arren. Teresa, Rosa eta Carole eraikin txikiago batean zeuden eta erizainek zaintzen zituzten. Josefa, Gregoria, Tomasa eta Luisa, berriz, mojek zaintzen zituzten.

Ez da erraza Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo urteetako eroetxeen argazki bat egitea, ez baitago lan asko horri buruz. Dena den, argi dagoena da, eroetxeak izango direla “buruko gaixoak” egoteko psikiatrentzako tokirik egokienak. Izan ere, “buruko gaixoen” gaineko kontrol zorrotza eskatzen zuten; Echeverría psikiatrak zenbaketa eta gainbegiraketa egingo zituen kontsultategia sortzea proposatu zuen (1948:191).

Frankismoan, asistentzia psikiatrikoarekiko interesa oso murrizta, ezdeusa ez esatearren, izan zen. Eroetxeak oso egoera txarrean zeuden, diru faltagatik abandonatuta asko, baina baita “buruko gaixotasunak” zituztenek sortzen zuten interes ezagatik, izan ere, ez zuten gizabanako bezala, inolako eskubiderik. Frankismo garaiko legedia zibilean, 220. artikulua honela zioen:

“Eroen eta gormutuen zaintza hauei dagokie: 1. Senar-emazteari, bananduta ez badago. 2. Aitari, edota behar bada amari. 3. Semeei. 4. Aitonei. 5. Anai edo nebei”
(Ruiz Franco, 2007:38).

Esan bezala, zaila da argazki orokor bat ateratzea eta psikiatriko batetik bestera aldaketa handiak zeuden, horregatik, Gipuzkoako bi psikiatriko hauen argazkia egiten saiatuko naiz hauei buruz idatzi direnak oinarritzat hartuz. Vera egon zen psikiatrikoari buruzko informazioa 1948an idatzitako testu batean aurkitu dut eta besteari buruzko informazioa 2010. urtean idatzitako testu batean.

VERA:

“Gipuzkoako mendebaldeko mugan, Araba eta Bizkaiarekin mugakide, toki lasai batean [...] Gesalibarko Santa Ageda (Arrasateko Udaletxea) ur sufretsuen Bainuetxea Eroetxe bihurtua izan zen 1989ko Ekainaren 1ean” (Echeverría, 1948:21). Bi elkarteren artean egin zuten bainuetxearen erosketa: “El Iris” deituriko elkarte anonimoa (San Juan de Diosen Orden

Ospitalarioa) eta “La Rosa” (Jesusen Bihotzaren Ahizpa Ospitalarioen Kongregazioa). Biak ala biak elkarte erlijiosoak ziren, beraz, erietxea erlijio kristau-katolikoaren araupean egon zen hasieratik. Erosketa egin eta bi urtera, inguruko baserri eta lurren jabe egin ziren eta pabilioien zabaltze eta eraikuntza lanak hasi ziren. 1948. urterako 6 pabilioi zeuden: Jesusen Bihotza, San José, San Benito, San Camilo, Santa Isabel eta San Rafael. Eraikinak etengabe izan ziren moldatuak jasotzen zuten jende kopurua geroz eta handiagoa zelako. Hain zuzen, 1939. urtea baino lehen²²⁸ Gipuzkoako Diputazioaren Gobernu Batzordeak eskutitza bidali zion Santa Agedako arduradunari bere kezka azalduz: “Gipuzkoako Diputazioaren Gobernu Batzordeak [...] uste du eskumena duten aginpide eta osasun teknikariek izurrite sozial honen arrazoen inguruko azterketa sakona egin behar dutela” (Echeverría, 1948:17).

Hazten doan kopuru horren adibide datu hauek: 1898. urtean Zaragoza eta Valladolideko erietxeetatik 63 lagun eraman zituzten, denera 42 gizonezko eta 21 emakumezko zeuden; 1946. urterako kopuru hori igo egin zen eta 612 pertsona zeuden, 239 gizonezko eta 373 emakumezko. Ingreso kopurua igo egin zen etengabe, 1898. urtetik 1923. urtera batzbestek 24 pertsona sartzen zituzten Santa Agedan; 1924. urtetik 1946. urtera 51 pertsona. Hazkunde horrekiko kezkarik ez du azaltzen Echeverría, bere ustez, ez zen “buruko gaixotasuna” zutenak geroz eta gehiago zirela (Gipuzkoako Diputazioak azaltzen zuen bezala) baizik eta geroz eta gehiago lortzen zela “buruko gaixotasunak” zituztenak hautematea eta kontrolatzea. Bere esanetan, “buruko gaixotasuna” zuten pertsona gehien dituzten herrialdeak ziren aurreratuenak (Amerikako Estatu Batuak, Ingalaterra eta Alemania) “Gure buruko gaixoen hazkundera arrazaren endekapena baino gehiago, higienizazio sozialaren emaitza da” (Echeverría, 1948:49).

Hainbat psikiatreek, bestetik, euren klinika pribatuak irekitzen zituzten, eta hauek “sanatorio” bezala ezagutzen ziren gehienetan, baina “Nerbioetako eta buruko gaixoak, lurjoak, psikopatak, toxikomaniak, neurastenikoak eta beste era bateko neurosiak (histerismoa, fobiak, obsesioak)” (López Velasco, 2010:48) ingresatzen zituzten bertan. Jende gutxiago egoten zen psikiatriko hauetan...

²²⁸ Ezin da data zehatza jarri, 1939. urtean hartu zuelako psikiatrikoaren ardura Jesús Echeverría Urrutia psikiatrank eta aurreko zuzendariak jasotako eskutitza dela esaten du baina ez du data zehatzik aipatzen.

TERESA, ROSA eta CAROLE,

Egon ziren tokian 12-15 ohe zeuden eta hiru erizainek eta beste lau langilek egiten zuten lan. Eraikin hau 11 urtez egon zen irekita, 1941. urtetik 1952. urtera, eta urte horietan, 264 pertsona ingresatu zituzten bertan.

JOSEFA, GREGORIA, TOMASA eta LUISA,

egon ziren psikiatrikoa jabe berarena zen baina beste herri batean zegoen eraikinean zeuden. 1935. urtekoa da psikiatriko honi buruz dagoen lehen informazioa eta gaur egun martxan jarraitzen du. Eraikin honetan, mojek zaintzen zituzten ingresatutakoak. Psikiatrikoari buruzko garaiko iragarki batean²²⁹ prezioen berri ere ematen da: “lehen klasean 30-55 pezeta dira eguneko”, “bigarren klasean 15-30 pezeta eguneko” (López Velasco, 2010:48). Eraikuntzaren prestakuntzak ere ezberdinak ziren: “berokuntza zentrala, telefonia eta bertako automobila” (López Velasco, 2010:48) besteak beste. 30 ohe zeuden denera, 24 ohe zeuden eraikin nagusian, hamabi solairu bakoitzean, eta beste 6 mojen etxeko bigarren solairuan, mojek etxe bat zuten eraikin nagusitik aparte zegoen, bazegoen “asaldatuen etxe” deitzen zioten beste eraikin bat (López Velasco, 2010:51). 12-15 moja artean egoten ziren, eta batek gaubeila egiten zuen, urtean 8 eguneko oporrak izaten zituzten-gogo jardunak egiteko, 1935. urtean erizain tituludunak kontratatzeko asmoa azaldu zuten medikuek eta mojak kontra azaldu ziren, Madrilera joan ziren azterketa bat egitera eta klaseak hartzera (Echeverría, 2010:58).

“Buruko gaixotasuna” zutenak eroetxeetan sartzearen praktika egokiena zela uste zuten garaiko psikiatreek (Echeverría, 1948:188). Espainiako Gerra Zibila amaitzean ofizialki hogeita mila ohe zeuden psikiatrikoetan, psikiatriko batzuk itxita zeuden hala ere.

“Eroetxe asko bizigarritasun baldintza oso txarretan zeuden [...] Eroetxeak laguntza publikoaren oinarritzko ardatza izaten jarraitzen zuen eta gizarte ordenerako erreferente, baina ordenaren eta ordenerako instituzio bihurtu zen. Garrantzitsuena gidaritza bakarra zen eta baita mediku, laguntzaile eta erlijiosoen aberri disziplina ere, ingresatutako gaixoa etengabe kontrolatua edukitzeko” (González Duro, 2008:326-327).

²²⁹ Badirudi 1935. urtekoa dela baina ezin da ziurtatu.

Zentzu eta arlo guztietan kontrol handiko garaia zenez, psikiatrikoetan egiten zena ere gertutik jarraitu zuen psikiatria ofizialak eta, bide batez, erregimenak. Psikiatria horretatik kanpo zeuden psikiatra asko erbestera joan ziren edota erbestera izan ziren (Ángel Garma adibidez, 1902 Bilbo - 1993, Buenos Aires). 1940ko hamarkadako psikiatrikoek erlijio katolikoa izango dute gidari eta bertan erlijio katolikoaren arauak jarraituko ziren, gehienetan mojak ziren zaindaria: Verak, Gregoriak, Tomasak eta Luisak mojak izan zituzten zaindari eta Teresak, Rosak eta Carole-k erizainak.

Eroetxeetan boterea erabat banatua zegoen kontrola ezartzen zutenen aldetik (psikiatrak, mojak, erizainak, etab.). Hain zuzen, botere mota hau da, Foucault-en ustez eraginkorra, ez da ikusi daitekeen boterea eta botere hau ikusi ahal izango da isilpean bertan daudenen otzantasuna eta menpekotasuna lortzen denean (2005:34).

GREGORIA:

“Hace tres días estuvo a visitarle su hermana a la que dijo que las HH^a del Sanatorio, son monjas disfrazadas; preguntó si los médicos son religiosos”.

Kontrol guztien nahasketa ikusi daiteke Gregoriaren hitzetan.

Eroetxeak pribatuak edo publikoak izan eragin handia zuen barne funtzionamenduan. Aztertu kasuetan ikus daiteke Verari buruz apenas dagoela ezer idatzita mediku-txostenean eta gainontzeko zazpi emakumeei dagokionez, egunerokoak idatzita daude; jarraipen estuago bat egiten zitzairen, horrek dauzkan onura eta kalteekin, jakina. Gainera, sozialki ere batzuk eta besteak ez ziren berdin ikusten, “sanatorio” esaten zitzairen askotan pribatuei eta askotan ingresatutakoak “bezero” bezala tratatzen zituzten (González Duro, 1978:17). Logelak ere dira horren adibide, Veraren kasuan logelak handiak ziren eta hainbat emakumek batera egiten zuten lo. Teresa, Rosa, Carole, Josefa, Gregoria, Tomasa eta Luisaren kasuan, bakoitzak bere gela zeukan. Hala eta guztiz ere, Luisaren kasuan argi eta garbi geratzen da psikiatriko pribatuetan ere itxita edukitzen zituztela geletan:

LUISA:

“Doce días con hoy sábado encerrada en una habitación con llave y para mayor desgracia solo veo la ventana abierta el tiempo que tardeo en comer, vuelta a cerrarla con llave, así que no tengo más remedio que estar metida en la cama, como hace la vida el cerdo comer y hecharse, así es la mía ahora”.

Txostenetan irakurri daiteke Luisa urduri jartzen zela maiz, platerak eta kristalak hautsiz eta asaldatuen sekziora eraman zutela. Mojek, dena jaten ote zuen kontrolatzen zutenez, une horretan bakarrik irekitzen zioten leihoa.

“Sujeta por las correas, dije muy cortésmente a *frau* Asegurado: «Desátame, por favor». Ella dijo con recelo: «¿Va a ser buena?». Me sorprendió tanto su pregunta que me quedé desconcertada unos momentos, incapaz de articular una respuesta. ¡Yo no quería otra cosa que ser buena con el mundo entero, y aquí estaba, atada como un animal salvaje! No podía entenderlo, y no tenía el menor recuerdo de mis accesos de violencia” (Carrington, 1987:19).

Sintomak, diagnostikoak eta tratamenduak

XIX. mendearen azken laurdenean, zientzia positibistak indarra hartu zuen²³⁰.

Egia.

Gezurra.

Zientzia, egiazkotasuna eta faltsutasuna ezberdintzeko epaile bihurtu zen eta inguru liberalean legitimazio ideologikoaren iturri nagusia zen. Zientzia eta erlijioaren arteko borroka horrek, eta zientziaren nagusitasunak, hala ere, ez zuen erlijioaren indarra guztiz baztertu, bien arteko nahasketa bat gertatu zela esan daiteke, batez ere, Espainian.

Foucaultek mendebaldeko gizartean psikiatriaren sorrera 1818. urtean kokatu zuen. Esan beharra dago herrialdearen arabera aldaketa asko dagoela, mendebalde osoarentzat data bat zehaztea ezinezkoa delarik, psikiatria zabaltzen lehenak frantses eta alemaniar hiztunak zituzten herrialdeak izan ziren. Esan daitekeena da, psikiatria positibismoa pentsamenduaren korrante nagusi bihurtu zenean sortu zela. Positibismoaren arabera ekintza filosofiko eta zientifiko guztiak esperientziaren bitartez egiaztatutako gertaera errealean analisiaren barruan egin behar dira, eta beraz, psikiatria “zientzia” bihurtu zen. Espainiaren kasuan, 1930. urtean kontsolidatu zen psikiatria, baina esan beharra dago 1936. urtean Espainiako Gerra Zibila lehertzeak ondorioak izan zituela, bai arlo zientifikoan eta baita asistentzian ere (Lorda & Ferrer i Balsebre, 1999:204). Nazioarteko zientziarekiko isolamendua, kontrol politikoa eta erlijiosoa ziren nagusi. “Higiene mentala” deitzen zitzaiona, moral katolikoarekin identifikatu zen. Heterodoxiaren kontrako borroka bat dago garai honetan: psikoanalisiaren, konduktismoaren eta kulturalismoaren kontra besteak beste. Subjekturik gabeko psikiatria bat zen frankismo

²³⁰ Espainian XX. Mendeko lehen hiru hamarkadetako egoera ikusteko: ARESTI, N. (2001). Médicos, donjuanes y mujeres modernas. Los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX. Bilbo: EHU.

garaikoa, izan ere, Estatuaren garapenak eta eraketak lanbide guztiak baldintzatzen ditu gizarte garaikidean (Lorda eta Ferrer, 1999:202).

Hain zuzen, XX. mendearen hasieran dogma katolikoaren defendatzaileek ikusi zuten autoritate berri bat sortu zela, zientzia, eta honek ideologiaren legitimizazioan eragin handia zuela (Aresti, 2001:17). Baina, hala eta guztiz ere, frankismo garaiko psikiatriak, erregimenak bezala, erlijio katolikoa izan zuen etengabe hizpide eta oinarri. Horren adibide garbia, Jesús Echeverría Urrutiak, 1939. urtean Gipuzkoako Santa Agedako psikiatrikoko zuzendari izendatu zutenak, eromenean ez erortzeko sinismen katolikoei men egiteko aholkua emanez idatzitakoa: “Bide hauek abandonatuta, gizonezko izaera galaraziko dion masak jango du eta gero suntsitu. Erlijioak bakarrik salba dezake gizon bezala eta pertsona bezala” (Echeverría, 1988:83).

Zientziak indarra hartzeak aldaketak ekarri zituen eta eragina izan zuen emakumeen eta gizonezkoen, *feminitatearen* eta *maskulinitatearen* eta baita eromenaren gaineko ordurarteko interpretazioetan. Haien gainean aurretik zeuden ideiak sekularizatu egin ziren. Ideiak, funtsean ez ziren gehiegi aldatu; hau da, erlijioak *emakumearen gizonezkoarekiko* menpekotasuna planteatzen bazuen, zientziak horri jarraiki gauza bera egin zuen, baina azken honen kasuan menpekotasuna desberdintasun fisikoetan oinarrituz arazoitu zuen. Espainian, Gregorio Marañon (1887-1960) mediku endokrinologoaren ideiek eragin handia izan zuten orduko gizartean (Aresti, 2001:13). Azken finean, zientziaren aldetik genero kontuetan ez zen apenas aldaketarik izan, hau da, zientziak, erlijio katolikoak ordurarte aldarrikatutakoari oinarri “zientifikoak” jarri zizkion. Horrek emakumeak etxekoandre eta ama roletan mantendu zituen. Honela justifikatzen du hori Nerea Arestik:

“Oso garrantzitsua zen zientzia eta erlijioaren arteko ulergarritasun eta baita identifikazio hori, emakumezkoak fede katolikoaren mantenurako ezinbestekotzat jotzen ziren gizarteetan, hain zuzen, emakumezkoak ziren gizonezkoak baino erlijiosoagoak” (2001:25-26).

Zientziak ez zituen *emakumea* eta *gizonezkoa* bata bestearen azpian kokatu, erlijio katolikoak egiten zuen bezala, zientziak parean jarri zituen bata eta bestea, baina ezberdintasun biologikoen aitzakian, bati gauza batzuk egokitu zizkion eta besteari beste batzuk; 1927. urtean Marañonek idatzi zuen:

“Gizona kanpoko giroan borrokatzeko dago egina. Emakumezkoa energia aurrezteko dago, beregan kontzentratzeko, bere ingurura ez zabaltzeko: bere barruan sortu behar baita bere bizitza luzatuko duen semea, eta bere barrutik

aterako da gizaki berriaren lehen urteetako elikagaia. Horregatik, guretzat zalantzarik gabe emakumeak ezerren aurretik ama izan behar duela, gainontzeko guztia ahaztuz hala izan behar balu” (Marañon, 1927:83).

Zientzia eta erlijioaren arteko bidegurutze hori indartzen psikiatriak ere esku hartu zuen. Antonio Vallejo Nájerarentzat²³¹ (1889-1960) emakumearen funtzio nagusia amatasuna zen eta emakumearen izaera guztia gorputzeko atal batean zentratu zuen: uteroan. Ezin da ahaztu Huertasek dioena:

“Medikuntza, Zuzenbidearekin eta Teologiarekin batera, «osasuntsu» dagoena edo «normala» dena erabakitzeko ahalmena duenez, normatibizazio sozialaren zientzia handietako bat bezala eraikitzen da, maiz, epaiketa kliniko objektiboak baino gehiago, benetako erabaki sozialak diren diagnostiko konkretu batzuk «zientifikoki» justifikatzeko prest dagoelarik” (1997:47-48).

Baina, garai honetan, medikuntza ez zen inondik inora horrela aurkezten, ezta psikiatria ere, guztiz independentea zen zerbait bezala baizik. Beraz, egiten ziren diagnostikoak ez ezik, gaixotasunak ere testuingurutik erabat isolatuta zeuden zerbait bezala ikusten ziren:

“Kanpoko edo inguruko egoera sozialak, ekonomikoak, politikoak, hondamendi handi bat izan arren, ezin zuen buruko gaixotasun baten agerpenean eraginik izan, alde aurretik konstituzionaltzat jotzen zen, herentziazkoa edota gizabanakoaren burmuinean eragiten duten kanpoko faktoreek eragindakoa” (González Duro, 1978:7).

1940ko hamarkadan Espainian indarrean zegoen psikiatriak berezkotzat jotzen zituen “buruko gaixotasunak” bezala izendatuak zirenak, gizabanakoak bere geneetan zeraman zerbait bezala. Zentzu horretan, erregimenak zuen aberriaren irudia aurrera eramateko, “gaixotzat” jotzen ziren pertsonak gizartetik baztertzen zituzten, “arraza garbia” kutsatu zezaketelakoan. Ez zituzten ikerketa genetiko garrantzitsuak egin, nahikoa izan zitzaien garaiko psikiatria alemaniarrek

²³¹ Frankismo garaiko psikiatra nagusienetako bat izan zen eta erregimenarentzat egin zuen lan. Berlinen ikasi zuen psikiatria eta bertan Gröhle, Kretschmer eta Von Jauregg bezalako psikiatrak izan zituen irakasle. 1923. urtean Madrilera itzuli zen eta mediku komandante zelarik Ciempozuelos-eko Klinika Psikiatriko Militarrean aritu zen lanean. 1945. urtean Madrilgo Psikiatria Katedra lortu zuen eta 1959. urtean jubilatzen zen. *Eugenesia de la hispanidad y regeneración de la raza* (1937), *Investigaciones psicológicas de marxistas femeninos delincuentes* (1939), *Tratamiento de las enfermedades mentales* (1940), *Psicología de los sexos* (1944) eta *Tratado de psiquiatría* (1944) liburuak idatzi zituen, besteak beste.

esaten zuena jarraitzea (Ibidem:34). “Arraza garbiaren” ideiak eugenesiarekin²³² zuen harremana zuzena da eta psikiatrak izan ziren ideia horien bultzatzaile handienetakoak²³³:

“Espainian arrazari buruzko ideia poliedrikoak zeuden, non, adibidez, Vallejo Nájera bezalako autorea, hogeita hamargarren hamarkadan zituen posizio idealistetatik, posizio askoz ere biologizistagoetara pasa ziren berrogeiko urteetan. Biologizismo hori berarekin batera López Iborrek edota Fernández Cabezasek defendatu zuten eta frankismo garaian «arraza espainiarraren» formula idealistagoekin edo sozialagoekin batera bizikide izan zen” (Medina, 2004:298)²³⁴.

Psikiatria horrek oinarrian alemaniarra zuen, baina hura baino organizistagoa zen, hau da, “depresio reaktiboak” bezala izendatzen zirenak eta, beraz, egoera baten aurrean sortutakoak, endogenoak zirela pentsatzen zuten, pertsona horrek bazuen zerbait egoera baten aurrean ahuldadez erreakzionatzera eramaten zuena.

JOSEFA:

“Neurodistonia vegetativa de naturaleza constitucional”.

Izan zen psikiatra batek jarri zion diagnostikoa. Eta hitz horietatik interpretatu daiteke Josefak berezkoa duen “gaixotasuna” duela, konstituzionala.

“Síndrome ansioso depresivo relacionado siempre con la situación del momento [...] interpreta catatimicamente su situación. Existe una reacción sensitiva”.

Idatzi zuen Gipuzkoako errotxeko psikiatrak. Hitz horietatik ulertu dezakegu inguruak eragiten diona dela Josefaren egoeraren arazoia (gogoratu, Josefaren senarraren jarrerak eragina dela esaten duela).

²³² Eugenesia “prozesu zientifikoa, soziala eta kulturala da, XIX. eta XX. mendeetan zehar gizarte garaikidee izan zituzten aldaketa sakonei – kolonislismoa, industrializazioa, nazio-estatua, besteak beste – lotuta dago (Medina, 2004:291).

²³³ Adibidez, ikus: VALLEJO NÁJERA, A. (1934). *La higiene de la raza. La asexualización de los psicópatas*. Madril: Editorial Medicina; VALLEJO NÁJERA, A. (1937). *Eugenesia de la Hispanidad y regeneración de la raza*. Editorial Española.

²³⁴ Ikus baita ere autore beraren: MEDINA DOMÉNECH, R. M. (2013). *Ciencia y sabiduría del amor: una historia cultural del franquismo (1940-1960)*. Iberoamericana.

Lehenengo medikua da psikiatrikora bidaltzen duena eta bigarrena psikiatrikoan Josefa tratatuko duena. Azken honek senarraren jarreraren ondorio dela esan arren, tratamendua Josefari jarri zion.

“Buruko gaixotasunak” endogenoak bezala ulertzen zirela frogatzeko, Gipuzkoako psikiatrikoko artxiboan aurkitutako mediku-txostenetan, buruaren forma ere kontuan hartzen zela ikusten dugu, fisikoki pertsonak zituzten ezaugarriak zuzenean lotzen zituzten psikiatrikoki egiten zuten diagnostikoarekin: “Frenologiaren teoriak nortasunarekin lotzen baitzuen buruaren forma” (López Velasco, 2010:98).

LUISA:

“Sus características corporales y psíquicas son de tipo infantil. Hay indudablemente un defecto endocrino que es lo que precisamos especificar”

Luisak psikiatrikoan ez zuen jan nahi, baina aurretik, etxean, asko jaten zuen eta ondoren oka egiten zutela nahita. Bere jarrera hori ere, “akats endokrino” batek eragindakoa dela esaten du psikiatrak, ez da “kanpoko” arrazoirik aipatzen, nahiz eta Luisaren jarrera Espainiako Gerra Zibila hasi eta bi hilabetera hasi zen horrelako izaten:

“A los dos meses de comenzar la guerra (en Octubre de 1936) comenzó a estar triste sin motivos”.

Hain zuzen ere, psikiatria mota honen printzipio nagusia metafisikotzat eta ia teologikotzat jotzen zuten. Psikismoa edo arima materiala ez zenez, gaixotzea ezinezkoa zela zioten eta, beraz, “buruko gaixotasunek” nahitaez izan behar zuela oinarri organiko bat. Ez zuten “gaixoak” esaten zuena sinisten, bizi duen egoera edota ingurukoek berarekiko zuten jarrera kritikatu arren, bere “gaixotasunaren” sintoma bat bezala ulertzen zuten psikiatreek.

TOMASA:

Bere borondatearen kontra eraman zuten psikiatrikora.

“Ingresa el día 9 de marzo por la tarde, pone mucha resistencia para bajar del coche, repite muchas veces ‘que no bajará del coche porque la han traído engañada’ es necesario bajarla del coche por violencia, la suben a la habitación, está muy agitada, habla insultando a su madre, a sus hermanas y esposo dice ‘la maldigo a mi madre, es una mala madre esto no se hace con una hija, despreciarme, abandonarme de esta manera...’”.

Tomasak bere senarra ez den beste gizonezko batekin joan nahi duela dio; medikuak ez dute horren inguruko inolako aipamenik egiten, baina era berean ez du beste inolako oharrik egiten

Tomasari buruz, baina bai diagnostikoa:

“Personalidad psicopática con debilidad mental y rasgos histéricos (Amoral) (Moral insanity)”.

Tomasak duen “emazte ez-egokiaren” jarrera hori Tomasak berak organikoki duen arazo baten ondorio bezala ikusten dutela islatzen da txostenean.

CAROLE:

Carole-i bere alaben tutoretza kendu egin zioten:

“Hace 4 años, estando en Biarritz con sus hijos hubo que dar la administración al tutor por desastre”.

Berak halaxe dio:

“Yo a mis hijas las quiero mucho aunque me las han quitado hace cuatro años yo las educado muy bien aunque ellas se han dejado engañar por un hombre vulgar que no se lo que habra hecho con mi dinero...”.

Carole-k gauza hauek kontatzen zituenean, ez medikuek ezta mojek ere ez zuten serio hartzen berak esaten zuena: “pazienteen narratiban zalantza bat ezartzen da, iruzur ekidinezinen eramaile eta euren egoera patologikoaren berezko gezur” (Martínez Hernández, 2013:468) zirelako. Beraz, garai honetako psikiatriak egingo duena da sendaketa bidea landu baino

gehiago, sintomak isilaraztea²³⁵. Hau da, ingesatu duten persona horren jarrera, kanporantz azaltzen duena kontrolatzea eta isiltzea, baina ez da bere barruko kezkez arduratuko.

Erregimen frankistaren bi printzipio nagusiak aberria eta katolikotasuna izanik, eta gizabanakoen jarrera ideia horietan oinarrituta egon behar zenez, psikiatriak ere erlijio katolikoaren eta abertzaletasunaren bultzatzaile eta sustatzaile izango ziren teoriak eta gidaliburuak zabaldu zituen. Psikiatria ofiziala erregimen faxistaren alde jarri zen bere helburu politikoetan lagunduz. González Durok honela deitzen zion eraikitzen ari zen “zientzia berriari”: psikiatria fisiologiko-antropologiko-izpiritual-teologikoa (1978:63). Frankismo garaiko psikiatria akademikoak eroa “buruko gaixo”²³⁶ bihurtu zuen, hau da, biologikoki behe-mailakoa zena, animalia-aren ezaugarriak zituen eta gizaki “osasuntsu eta normalarekin” apenas senidetasunik ez zuena (Ibidem:147). “Buruko gaixotasunak” “gizakiaren funtzio nobleenak nahasten ditu: gizakia animalietatik bereizten duten horiek” (Vallejo Nágera, 1944: 30). Erregimen faxista bat izaki, 1940ko hamarkadan, ez zegoen psikiatria ofizial horretatik ezberdina zen beste psikiatria bat egiteko aukerarik: “Formazioa eta katedrak, filtro ideologiko frankistak dominatzen zituen, salbuespen txiki batzuk zeudelarik” (Marquínez, 2011:31).

1940ko hamarkadan kokatzen bagara, helburua eroak edo “buruko gaixoak” isolatzea zen, gizartea kutsatu egiten zutela pentsatzen zen eta isolatu egiten zituzten.

Baina...

Nola egiten zen baina sailkapen hau?

Nola zehazten zen zeintzuk ziren “buruko gaixoak” eta zeintzuk ez?

²³⁵ Esango nuke gaur egungo psikiatriak ere antzera jokatzen duela. Landa-lanaren egunerokoan psikiatrikoko arduradunen bileran egon nintzanean: “Bileran zehar jakin dut, ingesatutakoei helburu batzuk jartzen zaizkiela sartzen direnean. Denentzat ez dira berberak, baina badago bat denetan errepikatzen dena: ‘Conciencia de la enfermedad’. Ingesatutakoak onartu edo errekonozitu egin behar du bere diagnostikoa, bestela, diote, ezin da inolako aurrerapausurik egin bere ‘egoeran’” (2013ko azaroaren 12ko oharra.

²³⁶ Psikiatrian kontzeptu hau erabiltzen zen entitate zientifikoa ematen ziolakoan.

Hori jakin ahal izateko garaiko gizartearen ezaugarrietan atentzioa jartzea beharrezkoa da, horren arabera ezarriko baita “buruko gaixoaren” eta “ez-gaixoaren” arteko muga. Ruth Benedict-en arabera,

“kultura bakoitzak gaixotasunaren irudi bat egingo du, eta gaixotasun honen perfila, kultura horrek gutxietsi edo erreprimitzen dituen birtualtasun antropologikoei esker marraztuko da” (Benedict in Foucault, 1988:85).

Garaiko gizarteak proposatzen dituen ezaugarrietatik kanpo dauden pertsonak bazterrean egongo dira eta kasu askotan “buruko gaixo” bezala kontsideratuak izango dira. XIX. mendetik aurrera psikiatria “zientziazat” kontsideratua izateak aldaketak ekarri zituen “buruko gaixotasunaren” definizioan, izan ere, eromenaren eta une hartan “buruko gaixotasun” bihurtu zirenen mugak zehaztu eta sailkapen bat egin behar izan zuten. Horren adibide Emil Kraepelin²³⁷ (1856-1926) zen, “buruko gaixotasunen” sailkapena egin zuen berak. Sailkapen hau erabiltzen zen 1940ko hamarkadan Hego Euskal Herriko eta espainiar estatuko psikiatriko gehienetan (González Duro, 1978:176). 1944. urtean Vallejo Nágerak, erregimen frankistaren erreferentziazko psikiatrak, idatzi zuen *Tratado de psiquiatría* liburuan agertzen da Kraepelin-en sailkapena²³⁸ eta Vallejo Nágerak esaten du sailkapenak hainbat puntu ahul dituela baina oro har ia autore guztiek onartzen dutela (1944:340).

²³⁷ Kraepelin psikiatra alemaniarra zen. Milaka behaketa kliniko egin zituen era deskriptibo eta sistematikoan. “Jokabidearen desorekak” aztertu zituen psikiatrikoetan ingresatutakoekin eta prozesu psikikoen sailkapena egiten saiatu zen. 1883. urtean kaleratu zuen *Compendium der Psychiatrie* liburuan eman zuen egindako lanaren berri.

²³⁸ “Kraepelinek bere *Manual de psiquiatría clínica*-ren lehen edizioak (1883 eta 1896) argitaratu zituztenean, ez zen buruko gaixotasunen inguruko nosología sendo bat existitzen [...] Sailkapen objektibo eta fidagarri bat ezinbestekoa zen positibismo medikoaren postulatuetan oinarritzen zen psikiatria zientifikoaren proiektua finkatzeko” (Martínez Hernández, 2013:469).

I. BURUHEZURREKO TRAUMATISMOETAN NAHASMENAK:

- a) Delirio traumatikoa.
- b) Epilepsia traumatikoa.
- c) Akats psikiko traumatikoak

II. BESTE ENTZEFALOPATIA ORGANIKOETAN BURUKO NAHASMENAK:

- a) Tumoreak, zorne-zorroak, zistizerkosia.
- b) Birika esklerosia eta esklerosi anitza.
- c) Gaixotasun germinalak: Huntingtonen Corea, tuberkuludun esklerosia, idiozia amaurotikoa, Merzbacherren gaixotasuna, Wilsonen gaixotasuna, sasi-esklerosia.
- d) Entzefalitisa (entzefalitis epidemikoa, hidrozefalia)
- e) Intsolazioa.

III. BURUKO NAHASMENAK INTOXIKAZIOETAN:

- a) Kanpoko intoxikazioak.
 - 1. Alkoholismoa.
 - 2. Alkaloideek eragindako intoxikazio kronikoak.
 - 3. Beste intoxikazio kroniko batzuk.
 - 4. Intoxikazio larriak.
- b) Intoxikazio endogenoak:
 - 1. Ordezkapen nutritiboaren produktuengatik.
 - 2. Intoxikazio endokrinoak (gaixotasun endokrinoak).

IV. BURUKO NAHASMENAK GAIXOTASUN INFEKZIOSOETAN: (tifusa, baztanga, poliartritis, neumonia, influenza, korea, aldizkako sukarra, paludismoa, sepsia, tisia, errabia, legenarra, tripanosomiasia)

- a) Sukar eta infekzio delirioa.
- b) Nahasmendu egoerak (gaixotasun infekziosoen ondoren, amentzia).
- c) Labilitate infekzioso egoerak.

V. SIFILIA:

- a) Buruko sifilia.
- b) Pixkanakako paralisia.
- c) Psikosi tabetikoak

VI. PROZESU ARTERIOESKLEROTIKOAK ETA ERREGRESIOZKOAK:

- a) Arterioesklerosia.
- b) Zahartzaroaurreko prozesuak.
- c) Zahartzaroko psikosiak.

VII. BEREZKO EPILEPSIA (ergelkeria epileptikoa, demenzia epileptikoa, egoera krepuskularrak, *status epilepticus*).

VIII. ESKIZOFRENIAK:

- a) Demenzia goiztiarra.
- b) Parafreniak.

IX. PSIKOSI MANIAKODEPRESIBOAK:

- a) Aurretiko joera maniakodepresiboa.
- b) Psikosi maniakodepresiboa.

X. PSIKOPATIAK:

- a) Urduriak.
- b) Obsesio-neurosiak.
- c) Kitzikakorrak (ezaugarri histerikoekin eta gabe).
- d) Ezegonkorrak (ezaugarri histerikoekin eta gabe).
- e) Borondatez ahulak (ezaugarri histerikoekin eta gabe).
- f) Oldakorrak (inpultso normalen areagotzea). Epilepsia afektiboa. g) Inpultso patologikoak.
- h) Perbertso sexualak (homosexualak, sadistak, masokistak, fetitxistak, exhibizionistak).

i) Eztabaidazaleak.

j) Bitxiak, makurrak.

k) Gezurtiak.

l) Nortasun historikoak (izaera historikoa, endekapen-histeria).

m) Liskargileak.

n) Asoziala.

XI. ERREAKZIO PSIKOGENOAK (erreakzio historiko guztiak barne):

a) Egoerari lotutako psikosi eta neurosiak.

b) Urduritasun egoerak.

c) Erreakzio historikoak.

XII. PARANOIA:

a) Nortasun paranoidea.

b) Paranoiaren forma estutuak eta abortiboak.

c) Gorren pertsekuzio delirioa.

d) Paranoia klasikoa (pertsekuzio delirioa, jeloskortasunarena, ondorengotzarena, handitasunarena, erlijiosoa, asmatzaileena, erotikoa).

XIII. OLIGOFRENIAK:

a) Gradu ezberdinak:

1. Idiozia.

2. Ergelkeria.

3. Ahultasuna.

b) Mongolismoa.

c) Infantilismoa.

XIV. KASU ILUNAK

*(Vallejo Nájera, 1944:340-341)

Hau guztia genero perspektiba batetik begiratuta, beharrezkoa da azpimarratzea ez zirela pertsona batzuk eta besteak eromenerako joera berberarekin ikusten. Banaketa hori gizonezkoen eta emakumezkoen artean egiten zuten. Vallejo Nágera frankismo garaiko psikiatrak emakume eta gizonezkoentzako psikologia ezberdin bat osatu zuen, banaketa horretan emakumezkoen emozioen papera tokatzen zitzaion: “Feminidadearen ezaugarria da kitzikakortasunareako joera eta umore txarra, baita euforia eta oldarkortasunerakoa ere” (Vallejo Nágera, 1944(b):31). Emakumeak, beraz, emozioarekin lotzen ziren, baita ezegonkortasunarekin ere. Gizonekoaren kasua ezberdina zen:

“Normalean arrazoiak bideratutako ekintzat egitera bultzatua dena, sexu ahularengan ohikoa da arrazoi sentimentalegatik aritzea, baita harrokeriagatik ere, batez ere erlijioarekin eta bere harreman sozialekin zerikusia duten adierazpenetan” (Vallejo Nágera, 1944 (b):31).

Beraz, *gorputz emozionala* eta *gorputz arrazionala* femeninitasunarekin lotuta lehenengoa eta maskulinitasunarekin lotuta bigarrena: “emakumeen nagusitasun sentimentala eta gizonen nagusitasun intelektuala” (Medina, 2013:71). Hainbat testu psikiatrikoetan agertzen zen misoginiak normaltasun maskulinoa, anomalia femeninoaren eraikuntzan oinarrituta zegoela erakusten zuen (Ibidem:83).

Eromena arrazionaltasun ezarekin lotuta egonik, emakumeak zuen horretarako joera handiagoa, eta gainera, biologikoki justifikatzen zuten hori orduko medikuntzak ikusi dugun bezala: “Bi sexuen arteko diferentzia biologikoa «naturala» zela justifikatzen zen. Honek logikoki bi psikologiaren existentzia zekarren, bat femeninoa eta bestea maskulinoa” (Regueillet, 2004:1033). Zentzu honetan, “medikuntzak zientzia ordena patriarkalaren zerbitzura jarri zuen [...] sexu femeninoaren berezitasun fisologikoak berezitasun mentala zekarrela zientifikoki frogatzeko lana hartu zuen” (Barrachina, 2003:69).

Zentzu horretan,

“izaera osasuntsu baten parametroak: independentzia, autonomia, objektibotasuna ez ziren buru osasunez ondo zegoen emakumearentzako parametroak, baizik, dependentzia, esanekotasuna eta sentimentalismoa. Beraz, emakumeak «ero» bezala jo zitezkeen, rol femeninoaren alderdiak onartu edo baztertzen bazituzten” (Ruiz Somavilla eta Jiménez Lucena, 2003:8).

Psikosi maniakodepresiboan ehuneko 83 emakumezkoei diagnostikatutakoak ziren (Consiglieri eta Villasante, 2007:132). Emakumezkoen kasuan, Santa Agedan 1918tik 1947ra ingresatutako emakumezkoen kasuan adina kontuan hartuta, kopururik handiena 35 urteko emakumezkoena da. Hain zuzen, 25 urtetik 50 urtera da emakumezkoen ingreso gehien gertatzen den adin tartea. Adin tarte bakoitzean, gaixotasuna ezberdina da, gazteagoen artean eskizofrenia zen nagusi eta adinduagoen artean malenkoniak eta antzerakoak. Hauxe orduko psikiatriaren azalpena:

“*Sexuari*²³⁹ dagokionez, estatistikek frogatzen dute psikosiak ohikoagoak direla femeninoan maskulinoan baino, bai emakumearen hunkiberatasun handiagoagatik, bai hilekoaren zikloek, haurdunaldiek eta haurren zaitzak eragin biologiko kaltegarria eragiten dutelako psikosiaren kontrako defentsan. Argi dago psikosi alkoholiko eta sifilitikoak ugariagoak direla gizonezkoengan; baina ziurra dirudi ohitura modernoek sexuen arteko berdinketa eragingo dutela psikosi exógeno hauei dagokionez. Eskizofrenia antzeko banatzen da bi sexuen artean, baina hilekoak eta haurdunaldiak sexu femeninoaren aldeko desoreka portzental bat eragiten dute” (Vallejo Nágera, 1944 (b): 283-284).

Datu horien aurrean beste interpretazio bat egin liteke. Ez da kasualitatea, ikuspegi feministaren esanetan, eskizofrenia izatea emakume gazteen artean, XX. Mendearen lehen erdian gehien diagnostikatzen zen “buruko gaixotasuna”. Emakume hauek, gizarteak markatzen zien roletik atera nahi zuten eta euren jarrerak eskizofreniaren barruan sartzen zituzten. Teresa eta Rosa, 19 eta 17 urte dituzte eta psikiatrikoan sartzen dituzte gurasoek, baten desio lesbianoak eta bestearen lehengusuarekiko harremanak aldatzeko, Luisak 26 urte ditu eta ihes egiten du.

Tratamenduetan ere ezberdintasunak zeuden emakumezkoen eta gizonezkoen artean, mutilazio ginekologikoak adibidez. Psikiatriak garai honetan zuen joera biologizista eta organizista izaki, erabiltzen zituzten tratamenduak biologikoak ziren, gorputzean eragina izan asmo zuten, eta gizon eta emakumeak biologikoki ezberdinak ikusten zituztenez, tratamendu horien desberdintasuna justifikatu egiten zuten. Moral bidez egiten zen tratamenduetan ere genero ezberdintasunak oso argiak ziren, berreziketa bat proposatzen zitzaientzen gizarteak markatzen zizkien rola betetzeko:

²³⁹ Kurtsiba berea da.

ROSA:

“Ha sido vista por diversos médicos y ultimamente por el Dr Figuerido quien la deriva con consentimiento de la enferma para hacer reeducación”.

Lehengusuarekin zuen harremana utzi eta familiak aukeratutako beste gizon batekin elkartu nahi zuten.

Kasu batzuetan, gizonezkoak zeukan psikopatia diagnostikatuta, baina ez zuenez tratamendurik onartzen, emakumezkoari egiten zitzaion bere senar-emazte bizitzan jarraitu zezan eta kasu askotan lobotomia²⁴⁰ ere erabili izan zen (Showalter, 1987:210). 1941. urtetik aurrera Ingalaterran egindako hamabost mila lobotomietatik gehienak emakumezkoei egin zitzaizkien.

JOSEFA:

Ez zioten lobotomiarik egin, baina bai tratamendua jarri eta txostenean argi esaten zen bere egoera senarraren izaerak eragindakoa zela.

Ikuspegi feministatik salatu izan da tratamenduak ez direla generoarekiko neutroak, oinarri patriarkalak dituztela, kultura patriarkala eta misoginoa bultzatuz. Zentzu horretan, emakumezkoak ez zituzten gai jotzen psikoterapia egiteko, garaiko medikuen arabera, ez ziren hori jasateko gai eta gai zirenak gizonezko batzuk bakarrik ziren (González Duro, 1978:114). Gainera, Sigmund Freud-en lana, psikoanalisi, oso kritikatu izan zen Espainiako psikiatrien aldetik, batez ere, neurririk gabeko sexualizazioa zuela uste zutelako (Medina, 2013: 107).

VERA:

“Malenkoniaren inboluzioa” diagnostikatu zioten.

²⁴⁰ Lobotomia, 1935ean Egas Moniz neurozirujau portugaldarrak erabili zuen lehen aldiz. Honen bitartez, burmuineko zati batzuk kentzen zaizkio “gaixoari” bere jarrera eta joakera aldatzeko. Oso agresiboa da eta ez du atzera bueltarik (Pedrosa-Sánchez eta Sola, 2003:888).

Opiazeoak eta lasaigarriak eman zizkieten, ez da zehazten zeintzuk. Aipamen bakarra dago mediku-txostenean tratamenduari buruz 1940. urte inguruan²⁴¹, dagoeneko 5 urte zeramatzanean; beraz, tratamendua hasieran beste bat izan zela pentsa daiteke.

TOMASA:

Lasaigarriak aipatzen dira bere mediku-txostenean.

TERESA:

Diagnostikorik ez, baina elektroshocka jartzen ziotela uler daiteke erizainak idazten duen ohar honengatik:

“«¿He pecado?» «Me van a poner cruces... » por los signos que se ponen en el papel del ES”.

Elektroshocka jartzen zitzaienean eboluzio-orri bat betetzen zen eta bertan shockaren intentsitatea, iraupena eta emaitza zehazten ziren, besteak beste.

“Se produjo un breve silencio, como cuando se contiene el aliento. Entonces algo se inclinó y se apoderó de mí y me sacudió como si fuera el fin del mundo. Vi-i-i-i-i, chillaba, a través de un aire crepitante de luz azul y con cada relámpago un gran estremecimiento me vapuleaba hasta que pensé que se me romperían los huesos y que la savia se iba a derramar de mí como una planta partida en dos. Me pregunté qué cosa tan terrible había hecho” (Plath, 2013: 226).

²⁴¹ Ezin izan nuen data zehatza ulertu.

Vi-i-i-i-i-i-i...

Vi-i-i-i-i-i-i...

Elektroshock-a 1938. urtean asmatu zuten eta Espainian 1940ko hamarkadan hasi zen erabiltzen. Kasu askotan, “anestesia gisa ‘sulfonala’²⁴² edo ‘azetilikoa’ ematen zitzaaien eta 3 edo 4 gizonen artean eusten zioten pazienteari; batzuetan anestesiarik gabe ere egiten zizkioten elektroshockak” (López Velasco, 2010:103).

GREGORIA:

“Como resultado desagradable la violencia que hay que emplear para colocarla los electrodos y su resistencia²⁴³ activa es difícil de vencer (a pesar de encomendarla a dos enfermeros y dos o tres Hermanas) dando lugar a bruscos y peligrosos movimientos y a un forcejeo nada terapéutico, desistimos por el momento de seguir este tratamiento”.

TERESA:

“Muy preocupada con el electro. Quisiera saber como perdemos el conocimiento y porqué. Es decir la causa y el efecto. Tardo en perder el conocimiento con el electro cosa que antes no me sucedia. Si el ideal o fúe es llamar la atención, al saber de antes que no consigo lo que pretendo y no solo no consigo sino que pierdo mucho”.

Teresak beldur handia zion tratamenduari, eta konturatzen zen elektroshock-ak jaso arren, berak, ustez kendu behar zituen pentsamenduak izaten jarraitzen zuela.

Baina ez zen Teresari jartzen zioten tratamendu bakarra, intsulina bidez komak ere eragiten zizkioten, hilabete batean hamasei jarri zizkioten, hau da, bi egunetik behin. 1927an asmatu zuen tratamendu hau Manfred Sakelek (1900-1957):

²⁴² Kurtsiba berea da.

²⁴³ Erresistentziak azken zati honen azken atalean landuko ditut sakonago.

“Batuetan, gaixoak lasaitzeko bakarrik injektatzen zen intsulina, komara iritsi gabe. Goizean, pazientea bere logelan zegoela, baraurik, intsulina injektatzen zitzaion besoan edo hankan; pazientea uneoro kontrolatzen zuten, eta koma hipogluzemikoan sartzen zenean (intsulina sartu eta 2 edo 3 ordura), zunda nasogastriko bat sartzen zioten. Horren ostean, urina xurgatzen zuten birikan halakorik bazegoen jakiteko, eta ezta edo 200 g azukre²⁴⁴ soluzio batean nahastuta [...] Pazienteak 1 edo 2 ordu behar izaten zituen berriz ere guztiz kontziente egoteko [...] Batuetan elektroshocka ere erabiltzen zuten pazientea konorterik gabe zegoenean. Paziente batzuk pixkanaka-pixkanaka pasatzen ziren logura izatetik komara, biana beste batzuek asko izerditzen zuten eta apnea eta konbultsioak ere izaten zituzten” (López Velasco, 2010:103).

JOSEFA:

“Se sigue el tratamiento de Insulina inyectándole hasta 50u que le produce somnolencia, sudor, temblor y hambre”.

²⁴⁴ Kurtsiba berea da.

“Me había quedado dormida después de la cena. Me despertó una fuerte voz. Señora Bannister, señora Bannister, señora Bannister, señora Bannister. Cuando salí con un esfuerzo del sueño, me encontré golpeando la cabecera de la cama con las manos y llamando. El severo, torcido gesto de la señora Bannister, la enfermera nocturna, apareció precipitadamente.

- Espera, no queremos que lo rompas.

Desabrochó la correa de mi reloj.

- ¿Qué ocurre? ¿Qué pasó?

El rostro de la señora Bannister se deshizo en una rápida sonrisa.

- Has tenido una reacción.
- ¿Una reacción?
- Sí, ¿cómo te sientes?.
- Rara, ligera y flotante.

La señora Bannister me ayudó a sentarme.

- Estarás mejor ahora. Estarás mejor enseguida. ¿Te gustaría un poco de leche caliente?
- Sí.

Kasu gehienetan elektroshocka eta intsulina bi tratamenduak erabiltzen ziren batera (López Velasco, 2010:103).

GREGORIA:

Zortzi kasuetatik tratamendu gehien zehazten diren mediku-txostena da. Elektroshockaz eta intsulinaz gain, sukarra eragiten zuten tratamenduak jarri zizkieten, piretoterpia.

“Con motivo de una inyección intraglútea quedo dentro parte de la aguja; que no ha sido posible localizarla con Rayos X. Lleva 5 inyecciones de Sulfosin”.

Sulfosin-a aipatzen da mediku-txostenean. Piretoterapia J. W. Jauregg-ek (1857-1940) asmatu zuen paludoterapian dago oinarrituta.

“Sukar-igoaldiak eragiten zitzaizkien malaria injektatuta [...] Eta gero, kinina bidez tratatzen zituzten, baina erabiltzeari utzi zitzaion penicilina asmatu zutenean (1940). Horren arriskutsua ez zen beste método batean, “*finkapen-abzesua*”²⁴⁵ eragiten zuen substantzia bat injektatzen zitzaien pazienteei [...] produktu horiek kristalezko anpulu batzuetan etortzen ziren eta izterrean edo besoan injektatzen ziren” (López Velasco, 2001:102).

Sulfosinaz gain trementina-esentzia ere erabili zuten GREGORIArekin. Trementina agoarrasa zen eta nahasketa oliotsu batekin sartzen zitzaien. Injekzioa jarri eta ordu gutxira ipurmasaila puztutzen hasten zen eta bi edo lau egunetara puntu gorenera iristen zen eta bat edo bi astez irauten zuen, temperatura 40 gradura igoz eta, horrekin batera, goserik eza, nekea, oinaze handia, etab. sortuz; honela, ingesatutako pertsona ohean mantentzen zuten (González Duro, 1978:158).

Ikusi ditugun tratamenduez gain, kimikoki eragindako konbultsioak, elektronarkosia esaterako, psikokirurgia, etabar zeuden.

“Le prometí todo lo que estaba a mi alcance conceder, si desistía de ponerme la inyección [...] En medio de mis convulsiones, reviví mi primera inyección, y sentí de nuevo la atroz experiencia de la dosis original de Cardiazol: ausencia de movimiento, fijeza, realidad espantosa. No quería cerrar los ojos, pensando que había llegado el instante sacrificial, y estaba dispuesta a oponerme con todas mis fuerzas. A continuación me trasladaron a «Abajo» en estado cataléptico” (Carrington, 1987:47).

²⁴⁵ Kurtsiba berea da.

Terapien barruan sar genezake laborterapia edo lanaren bitartez egindako terapia ere. Garai hartako Echeverría bezalako psikiatreek esaten zuten erotasunetik salbatzeko tratamendurik onena lanarena zela, eta erlijio katolikoarekin lotzen zuen. Bere esanetan, eroa ezin da ero izateagatik zigortu baina, era berean, ezin zaio ero dagoelako dena egiten utzi, eta Echeverriak tarteko zerbait aurkitzen du lanean (1948:118). VERAk adibidez, giltzak egiten ziren tailerrear egiten zuen lan; psikiatriko inguruko enpresek hainbat lan mekaniko egiteko psikiatrikoan ingresatuta zeudenen eskulana erabiltzen zuten: “Hain zuzen ere, gure eskualdean gertatutako industrializazioa medio, gaixoek ospitalaren inguruan kokatutako enpresentzat eskulanak egiteko aukera sortu zen” (Aristorena eta Fdz de Larrinoa, 1998:82). Psikiatreek esaten zuten lanak on egiten ziela ingresatutakoei, baina egia esan, protesta asko sortu zituen, esku lan merke edo dohakoa zirelako.

1940ko hamarkadan baino beranduago sartu ziren, esaterako, psikofarmakoak antsietate egoerak lasaitzeko, baina psikiatria ofizialean mesfidantza sortzen zuten tratamenduak ziren, izan ere, barne ezinegonak lasaitzen zituen, eta hori ez zen Espainiako psikiatriaren helburu nagusia, honen helburu nagusia, kanpo jarrera kontrolatzea zen, jokaera antisoziala hain zuzen (González Duro, 1978:159).

II.4 EROMENETIK ERRESISTENTZIA: 8 EMAKUME, 8 ERRESISTENTZIA MOTA

“Hain da atsegina kanpoan egotea,
Gela handi honetan, eta narras ibiltzea,
buelbaka, nahierara!”
(Perkins-Gilman, 2012:37).

VERA:

“No quiere ir a casa”.

TERESA:

“«Llama a la Srta X preguntándole con insistencia si tiene novio, no se marcha le dice varias veces Ud es muy guapa... que ojos... porque no se acuesta Ud conmigo?»”.

ROSA:

“Rompe esta carta en cuanto la leas”.

CAROLE:

“No hace ningun gesto unicamente que me habla en Inglés. Como yo no comprendo lo que me quiere decir se hecha una carcajada”.

JOSEFA:

“Las fiestas las ha pasado de lo mas animada desde luego no pensaba haber pasado tan bien dice que ni se acordaba que existia su marido”.

GREGORIA:

“Como resultado desagradable la violencia que hay que emplear para colocarla los electrodos y su resistencia activa es dificil de vencer”.

TOMASA:

“Me voy a X ya encontraré un auto que me lleve a X quiero vengarme he trabajado para todos”.

LUISA:

“Muy contrariada, se excita, insulta, rompe platos y cristales porque le cierran la puerta de su habitación, se le traslada a la sección de agitados; se niega a comer y hay que alimentarle con sonda. Lloro y protesta, pero siempre intenta imponer su voluntad”.

Emakumearen eredu eraiki eta bakartzat jotze horrekin “1940ko hamarkadako Espainiak ‘emakumea orokorrean’ edota ‘esperientzia tipikoa’ bezalako gauza baten axiomarik ez dela existitzen demostratzen digu” (Graham, 2010:183). Garai horretan egindako hainbat ikerketek erakusten dute emakumeek, hainbat kasuetan, ez zutela inposatzen zitzaizen eredu bakar hori jarraitzen.

Eredu hegemonikoarekiko subertsio motak egon bazeuden, beraz, zergatik ez ikusi errotxeetan sartu zituzten emakumeen jarrera eta bizipenak erresistentziaren ikuspuntutik? Foucault-ek ere aukera hori ez du baztertzen:

“Gaixotasuna defentsarako era bat da. Baina, zein baldintzetan sortzen da eta zein mekanismok zehazten dute defentsa hori gaixotasun bezala? Hain zuzen, gatazka egoera guztiek ez dute defentsa patologiko bat ekartzen” (1988:113).

Erresistentzia, ikerketa antropologiko feministetan Julianok landu duen zentzuan ekarri nahiko nuke hona. Julianoren arabera, emakumeak ez dira inoiz ez pasiboak ez otzanak izan (1992:12): “onarpenak eta egokitzapenak ematen dira [...] baina baita zalantzan jartze inplizitu eta esplizituak” (Ibidem:22). Hori dela eta Julianok azpimarratzen du aldarrikapen esplizituak ez ditugunean, jokabideak aztertu eta horietatik atera ditzakegu, jokabi horiek ezarritakoetatik urruntzen direnean batik bat (Ibidem:167).

Martin-ek esaterako, mania, gizakiek aktiboki sortzen duten zerbait bezala ikusten du eta ez gizakia mendean hartzen duen egoera bat: “Ekintzak, bat-batekoak izan arren, izaera deliberatua dute neurri handi batean, zergatik ezin ditugu razionaltzat hartu?” (2008:135). Zentzu horretan hitz egiten du Allice Bullard-ek bere *The truth in madness: Colonial doctors and insane women*

in *French North Africa* (2001) artikuluan: “‘Maniak’, ‘depresioak’, etab. bezalako eromenek emakumeen proiektu eta planen berri eman diezagukete, gizartean eta euren familia-harremanetan boterea lortzeko borroken berri” (Bullard, 2001:120).

Eroetxeetan giltzapetutako emakume idazleen obretan agertzen da emakumezkoen eromena babestokiarekin lotzen duen ideia. Sistema patriarkalaren ideietatik babestuta egon zitezkeen toki bezala agertzen da eroetxea hainbat kasutan, etxekolanetatik ateratzeko modu bat bezala, markatutako rolaren kontrako erresistentzia bat bezala ikusi daitekeena. Camile Claudel (1864-1943) eskultore frantsesaren adibidea ekarri nahiko nuke hona. Claudelek, eskulturagile bikaina zen, besteak beste: *Sakountala* (1888), *Clotho* (1893), *El vals* (1895) eta *La edad madura* (1898) egin zituen. August Rodin eskultorea ezagutu zuen eta maitaleak izan ziren. Claudel haurdun geratu zen eta Rodinek abortatu zezan eskatu zion, trukean bere emaztea utziko zuela esanez. Claudelek abortatu egin zuen baina Rodinek ez zuen esandakoa bete eta Claudelek Rodin utzi zuen. Claudel bere estudioan sartu zen eta haurren buruan zizelkatu zituen atsedetik gabe. Gehienak berehala hautsi zituen. Bere bizilagunek zioten oihuak entzuten zituztela egunero. Claudelek orduak ematen zituen estudioan katuz inguratuta. Arratsalde batean, hiru erizainek (gizonezkoak hirurak) Claudelen estudioko atea behera bota zuten eta alkandora hertsigarria jarri zioten. Bere familiak aginduta, Parisetik gertu zegoen psikiatriko batean sartu zuten. Bere amak bisita guztiak debekatu zituen eta eskutitzak idaztea debekatu. Ez zuen inoiz gehiago eskulturarik zizelkatu. Bere diagnostikoa: “Handitasun nahiak eta jazarpen mania sistematikoa”; 30 urte eman zituen psikiatrikoan, bertan hil zen eta izenik gabeko hilarri baten azpian lurperatu zuten (García, *El País Digital*, 2007). Claudelek psikiatrikotik idatzi zituen eskutitzak publikatu dira eta aipagarria da eskutitz horietan Claudelek erakusten duen jarrera, orduko emakumeari agintzen zitzaion jarreratik oso urrun zegoen erantzuten dituen hainbat galdera ikusita:

“Zein da gizonezkoengan gustuko duzun ezaugarria: bere emazteari men egin diezaiola; zein da emakumeengan gustuko duzun ezaugarria: bere serrara amorraraztea; zein da miseriari buruz duzun ideia: seme-alaba askoren ama izatea” (Claudel, 2006:57).

Beraz,

Zortzi kasu...

... zortzi erresistentzia mota.

Honela, antibiografiatutako zortzi emakumeen erresistentzia puntuak, sistema patriarkalaren kontra joateko “abileziak” (Julianok esango lukeen bezala) zeintzuk izan litezkeen proposatuko dut. Jakina, psikiatriko barruan izan zuten jarrerara mugatuko naiz, izan ere, aurretik izan zutena eta psikiatrikora eraman zituena erresistentzia bezala ulertu daiteke.

VERA:

Amaieran ez zuen psikiatrikotik atera nahi, bertan geratu nahi zuen, eta psikiatrikoan ezagutu zuen emakume batek (psikiatrikoko apaizaren arrebak) esan zidanaren arabera, Verak beti esan izan zuen psikiatrikoan “alarguna zela”. Bere senarra bizirik zegoen arren, berak gaintetik kendu zuela esan daitek, benetan, senarra izan zen arren eroetxera eraman zuena. Senarrak tratu txarrak ematen zizkion eta dibortzioa onartuta ez zegoen garai batean, senarra “gaintetik kendu” zuen Verak. Hortaz gain, Verak bekatua aipatzen zuen etengabe, abortua egiteagatik bekataritzat jotzen zuen bere burua.

Hain zuzen, bekatuaren kontzeptuan ahuldadea eta desafioa biak ikusiko ditu Søren Kierkegaard-ek:

“Bekatua egiten da, Jainkoaren aurrean edota Jainkoaren ideiarekin, desesperatuta, ez duzunean zu zeu izan nahi, edo zu zeu izan nahi duzunean. Honela, bekatua ahultasuna edo desafioa da goreneko mailara eramanda” (2004:105).

Beraz, bekatuaren kontuan, desafioaren irakurketa ere egin dezakegu. Verari buruz esaten du medikuaren ohar batek: “Hemen ez zen beste gaixoekin erlazionatzen eta orduak ematen zituen bakardadean, ez oso abegitsua izanik berarekin elkarrizketa bat izateko”. Verak dagoeneko bost urte zeramatzen eroetxean medikuak ohar hau idatzi zuenean, eta medikuak ez du aldaketarik egin duenik esaten, beraz, pentsa dezakegu hasieratik zegoela horrela. Isiltasun hori, inorekin hitz egin nahi ez izate horrek badu bere barnean erresistentzia puntu bat Lila Abu-Lughodek dioen bezala, isiltasun aktiboa erresistentzia aktibotzat jo daiteke:

“Kodearen hausturak sistemaren kontra egiteko moduak bezala ulertuak izan daitezke eta sistema hori errepresentatzen duten eta sistematik onura ateratzen duten horien autoritateari desafio egiteko” (1990:47).

Vera nola zegoen jakiteko psikiatreek hitza erabiltzen zuten maiz, galderak egiten zizkieten eta kasu honetan deskribitzen den bezala, irudia honakoa izan zitekeen: Vera bakarrik zegoen, psikiatra gerturatu eta galderaren bat botako zion, Verak ez zuen erantzunik eman edo eman bazuen oso hitz gutxi esan zituen. Beraz, esan liteke, psikiatrikoko autoritateari erantzuteari uko egin ziola eta horrek bere barnean bazuen, Abu-Lughod-ek plateatzen duen moduan, desfioa eta erresistentzia.

TERESA:

Veraren kontrakoa gertatzen dela dirudi, asko hitz egiten duela. Eta badirudi hitz egiteari uzteko eskatzen diotela, beraz, Teresaren jarrera Veraren kontrakoa izango da: “Ez dago eskubiderik... ez diote bati hitz egiten ere uzten”. Hau da, Teresaren kexa isilarazi egiten dutela izango da eta bere jarrera batean eta bestean nahi duena esatea izango da, maindireetan idaztera iritsiko delarik.

Teresak emakumeekiko sexu-desira adierazten zuen behin baino gehiagotan, eta bere artxiboko txostena irakurrita, badirudi hori zela psikiatrikoan sartua izateko arrazoi nagusia. Teresak ez du bere sexu-gogoa ezkututzen, kontrakoa, masturbatu egiten da eta erizainaren aurrean egiten du: “Gaubeila egin duen erizainari esaten dio gaez gauza ezpuruak egin dituela, ez ote duen ikusi”. Probokazio puntu bat ere badago Teresaren jarrera horretan, eta horrekin lotu daiteke erizainek behin eta berriz errepikatzen dutena: “Beti “nahi dut” eta “ez dut nahi” hitzek agintzen dituzte bere ekintzak” edota “ez du gustuko besteen nahietara moldatzea”.

ROSA:

Berreziketarako sartu zuen aitak psikiatrikoan. Lehengusuarekin bikote harremana hasteko aukerari buruz hitz egin zien gurasoei eta hauek ezetz esan zioten, beste batekin hasi zedin nahi zuten. Egoera horren aurrean Veraren kasuan bezala, isiltasunaren bidea hartu zuen Rosak. “Ordutik haserre dago gurasoekin: ez du beraiekin hitz egiten, bere gelan ixten zen, ez zuen jaten eta era guztietako oieskeriak egiten zizkion familiari eta zerbitzuari”. Azkenean, bere aitari eskutitza idazten dio hark nahi duena egingo duela esanez eta gertatu den guztiaren errudun

bakarra Rosa bera dela aitortuz. Baina egun bat lehenago, bere osabari kontrako jarrera erakusten duen eskutitz bat idazten dio: “Osaba, ulertarazi amari ez doktoreak ez inork ez duela zeresanik honetan, hau euren, zure eta nire arteko gauza da”. Beraz, pentsa liteke, aitari idatzitako eskutitza psikiatrikotik ateratzeko idatzi zuela, hau da, aitak nahi zuen jarrera hartu zuela handik ateratzeko, baina ez benetan hala penstazten zuelako, hau da, berak nahi zuena lortzeko estrategia bezala erabili zuela. Erizainek esaten dute jarrera ondo egokitzen dela eroetxera, baina osabaren kartan irakurri dezakegu: “Medikua ergela da, eta haserretzeko gaitasun handia dauka”.

CAROLE:

Bere jarreraren erresistentziaren puntua hizkuntzan ikus dezakegu. Carolek gazteleraz gain, frantsesez eta ingeles hitz egiten zuen (gutxienez). Ingelesa erabiltzen zuen maiz erizainek esaten zuena ulertu ez zezaten eta beraz, nahi zuena esateko: “Ingelese hitz egiten duenez ez dakit zer esaten duen”. Carole-k eskutitzak ere idazten zituen ingelesez eta, beraz, pentsa daiteke berak bazekiela esaten zuena ulertzerik ez zutela, hori dela eta askeago esan zitzakeen gauzak: “Nik ez dudanez ulertzen zer esaten duen algara handi bat botatzen du”. Gainera, kexu da, erlijio katolikoa nagusi den herrialde batean etengabe intimitate guztiak kontatu behar direlako, eta berak ez ditu kontatu nahi, bere barruan gorde nahi ditu, ez du katolikotasunak. Carole-k gauza asko botatzen ditu lurrera, “lurrera bota ditu mahaia eta gosaria”, ez duela eroetxean egon nahi adierazteko modu bat bezala erabiltzen du, bertako ordena hautsi nahi du, medikuei garrasi egiten die baita ere: “Hiltzaile eta traidore deitzen die”. Azken finean, protesta jarrera dauka Carole-k eroetxean, “bila etorriko direla dioen albistea jaso eta egunetara izaera erabat aldatzen du, oso pozik dago bere herrialdera eramango dutela pentsatuz”.

JOSEFA:

Oso gustura zegoen psikiatrikoan, esaten zioten guztia egiten zuen eta tratamendua gogorra izan arren, ez zuen haren kontrako inolako adierazpenik egiten. Bertan geratu nahi zuen “etxera bueltzako gogoia kendu dio”, hori esan zuen erizain batek Josefari buruz senarrarekin izan duen eztabaida baten ondoren. Josefak, eroetxean geratu nahi zuen etxean zuen egoera ezin zuelako jasan. Senarrak medikuari zera idatzi zion eskutitz batean: “Otzana eta prestua dirudi baina zuek engainatzeko egiten du”. Pentsa daiteke Josefaren erresistentzia hortik datorrela, psikiatrikoan

gustura eta prestua azaltzen da berriro etxera eraman ez dezaten, hau da, emazte papera ez betetzeko. Zera esaten dio senarrari eskutitz batean: “Esan nizun nire aldetik ahal dudan guztia jarriko nuela baina zure laguntzarekin izan behar du”. Ondoren, etxera bueltatu eta senarrak epe luzeago baterako psikiatriko batean sartu nahi izan zuenean, Josefak kontra egin zion eta bere ahizparen eskutitz bat jaso zuten psikiatrikoko medikuek bigarren psikiatrikoan sartzeko senarrak behar zuen eskutitza idatzi ez zezaten, edo behintzat eskutitzean bigarren ingresorik behar ez zuela azaldu zezaten.

GREGORIA:

Ez zuen psikiatrikoan egon nahi eta horren adibide bertara eramateko lasaigarriak jarri behar izan zizkiotela. Ez zuen jan nahi, ez eta pisa edo kaka egin nahi eta bere amarekin egon nahi zuela errepikatzen zuen behin eta berriz. Erresistentzia fisiko handia jartzen zuen Gregoriak tratamendua jaso behar duenean, eta bertan behera utzi behar izan zuten behintzat behin. Erresistentzia hitza erabiltzen zuten mojek Gregoriaren egunerokoan agertzen den ohar batean: “bere erresistentzia aktiboa zaila da gainditzen”. Ihes egiteko saiakera ere egin zuen, baina ez zuen lortu.

TOMASA:

Tomasa ere bere borondatearen kontra eraman zuten eroetxera, “engainatua” berak esaten duen bezala. Eta erresistentzia hitza aipatu zuen baita ere medikuak: “Erresistentzia handia jartzen du autotik jeisteko”. Behin eta berriz azaltzen zuen Tomasak ez zegoela eskubiderik bera bertan itxita egoteko, berak ez zuela bere senarrarekin egon nahi eta beste gizonezko bat maite zuela, berak ez zuela horretan ezer txarrik ikusten. Senideen kontra hitz egiten zuen, batez ere, bere amaren kontra, ez zuela ulertzen nola onartu zuen eroetxera eramatea. Bertatik atera, beste nahirik ez zuen eta bere buruari min ematera iritsi zen, “goizeko hamarrak aldera mozketa txiki batzuk egiten ditu besoan kristal batekin”. Tomasak bere buruaz beste egingo zuela errepikatzen zuen maiz, katolicoa zela zioen, eta bazekiela Jainkoaren kontrako ekintza bat zela, baina ezin zuela gehiago aguantatu. Beraz, Tomasaren erresistentzia hori izan liteke: ez zuela berak aukeratuko ez duen bizitza bat bizi nahi eta bere buruaz beste egitera iritsi zitekeela bere sinismen erlijiosoaren kontra zihoan zerbait bazen ere. Hitzez ere erresistentzia jartzen du Tomasak: “Asko iraintzen gaitu eta medikuari ´ea auto batek harrapatzen zaituen hona

etortzerakoan”, hau da, psikiatrikoko autoritatearen kontrako jarrera zeukan. Amaieran, senarrarekin itzultzea erabaki zuen eta senarrarekin joan zen psikiatrikotik; baina Rosaren kasuan bezala, bertatik ateratzeko era bakarra izan zitekeelako har zezakeen jarrera hori, eta behin handik ateratzea lortzen zuenean, bestelako erabaki bat hartu.

LUISA:

Hemen erresistentzia janarekin lotu genezake. Luisak ez du jan nahi eta psikiatrikora 39 kilo pisatzen zituela iritsi zen. Askotan jatera behartu zuten eta berak ondoren oka egiten zuen nahita. Luisak bi aldiz egin zuen ihes eroetxetik, lehenengo aldian etxera itzuli zela pentsa daiteke, berriro ere eraman zutelako psikiatrikora, baina bigarren ihesaldiaren ondoren ez dago berriro ingresatu zuten berririk (ez behintzat psikiatriko honetan): “Asaldata egiten da, iraindu, platerak eta kristalak hautsi”, gelako atea ixten ziotelako egiten zuela zioen mojak ohar batean. “Negar eta protesta egiten du, baina beti saiatzten da bere borondatea inposatzen”. Isiltasuna ere badago Luisaren jarreran, isiltasuna erresistentzia bezala, izan ere, medikuak zioen “badirudi perturbazio psikopatiko guztien arrazoia bere koinatarekin duen bateraezintasuna dela; zaila da konplexu afektibo hauek zeintzuk diren jakitea, uko egiten baitio hauek kontatzeari”. Luisak ez zuen gertatzen zitzaionaren berri eman nahi, beste hainbat gauza kontatzen zituen, nola sentitzen zen adibidez, baina ez zituen horri buruz medikuak egiten dizkion galderak erantzun nahi. Luisaren gelako atea beti zuten giltzaz itxita, eta beti zegoen moja bat bera zaintzen gelatik ateratzen zenean, honela deskribatu zuten Luisaren ihesaldia bere egunerokoan: “Hiruak eta laurdenetan atarira jeitsi da ahizparekin²⁴⁶, lauak hogeit gutxitan ahizpa sartu egin da zein ordu zen ikustera, segituan atera da baina dagoeneko ihes eginda zegoen”.

Erresistentziaren ideia honekin oso ados ez dauden autoreak ere aurkituko ditugu. Euren esanetan, emakume hauek rolak apurtu nahi zituzten eta sistema patriarkalaren kontra borrokatu (konszienteki edo ez) baina ez zuten eromena aukeratu. Hau da, eromenaren azpian erresistentzia eta iraultza seinaleak egon daitezkeela uste dute, baina eromena bere horretan ez zen horretarako tresna euren ustez. Eromena, ohiko rolak zalantzan jartzen zituzten patologia, jarrera era pentsamendu ezberdinak ezkutatzeko estalkia zela uste dute (Ruiz Somavilla & Jiménez Lucena, 2003:15).

²⁴⁶ Mojaz ari da.

Baina, estalkia izan edo ez, frankismoak ezartzen zuen *emakumearen* rola zalantzan jarri zuten?

Bata edo bestea izan abiapuntua, hau da, “buruko gaixotasuna” gizartearen ondorio edota gizarteari aurre egiteko sortzen den mekanismoa, biek ere egoera hori pairatzen ari diren pertsonen sufrimendua dakarte, baina era berean, biek ere rol hegemonikoa zalantzan jarriko dute. Jakina, askotan eromena ez zela konszienteki aukeratutako zerbait izango, baina egoera horretan biktimizazio hutsa ikusteak ere ez digu pertsonari gertatzen ari zaiona bere osotasunean ikusten uzten.

“Gizabanakoaren agentzia, aldaketarako borondatea eta euren baldintzen barruan maniobrak egiteko erabilitako estrategiak, arauen lehiarekin bat egin zuten, batzuetan agerikoa zen modu batean, bestetan ezkutuago batean, eta gerra-ostean gertatu ziren praktika disidente zoli baina etengabekoen parte ziren” (Murillo, 2013:16).

Psikiatrikoan egondako emakume hauei borondate eta agentziarik ematen ez badiegu, talde bezala ikustera joko dugu, batera eta zentzu berean jokatzeko masa uniforme bezala:

kontraesanik gabekoa,

erresistentziarik gabekoa,

anbivalentziarik gabekoa.

Isiltasuna eta hutsunea,

hutsik baleude bezala.

AMAITZEKO, ABIAPUNTURA

Imaginatuz dezagun espiral koniko bat.



Puntu estu batetik hasi eta aurrera egin ahala zirkulua handituz doa...

... handituz doa ...

... handituz doa ...

... handituz doa ...

... handituz doa ...

Horrela irudikatuko nuke ikerketa honetan egin dudan ibilbidea: isiltasun konkretu batetik hasi eta horren inguruan bueltaka... eta bueltaka... eta bueltaka... eta bueltaka... pixkanaka ikuspegia zabalduz eta aldatuz.

Abiapuntua ahaztu gabe,

ezberdin sentitzen naiz orain.

Ikerketa honen helburu nagusia ez da izan ondorio zehatz eta konkretuetara iristea, gaiak berak baldintzatzen zuen zerbait zen seguru aski. Izan ere, kontraesanez betetako ikerketa eremu batean murgildu naizela iruditu zait. Baina, oro har, antropologiak badu bereziki horretatik: “Antropologia idaztea, ondorioen kontra idaztea da. Ondorioa ezegonkortzea da, ez aberastea; ondorio zuzenak errefusatzea eta une batez kontraesana eta ugaritasuna onartuz hori gelditzeko ahalegina egitea da” (Holm Vohnsen, 2013:143).

Hain zuzen, kontraesanak lan honen indargune (eta ez kezka) bihurtzeak asko lagundu dit. Espiralean eman ditudan bueltekin adierazten duten moduan, askotan iruditu zait zerbaitetan aurrera egiten nuela baina kontraesan bat aurkitu eta atzera eramaten ninduela berriz. Baina, ez nintzen berdin itzultzen.

Ikerketaren amaierara iritsita, eta ondorio batzuk idaztera “behartuta” (nik neuk besteak beste), esango nuke ondorioak era askotakoak izan direla. Horietako batzuk hitzez azaltzea ezinezkoa egiten zait. Hain zuzen, mamu bihurtu genuen pertsona bati buruz hitz egiteko ezintasuna izan da honen guztiaren abiapuntua eta *hutsune* hori betetzeko hitzak behar nituela, hori zela arazoa, pentsatzen nuen. Baina, ikerketa hau egin ondoren, hainbat gauza azaltzeko hitzik gabe jarraitzen dut.

Hitzek ez dute balio.

Hitzak ez dira nahiko.

Hitzak ez dira beti beharrezko.

Arazo larri batekin egin nuen topo isiltasunari/isiltasunei buruz ari nintzela eta hauek paperean islatu behar nituela konturatu nintzenean:

“Ikerketaren galdera min eta sufrimendu esperientzien oroimenaren forma subjektiboen inguruan kokatzea, ikertzaileak lengoaiaren hausturari, enuntziatuaren ohiko formen etendurari, esanezina kudeatzeko saiakera alferrikakoei, horroreak duen komunikatzeko ezintasun horri guztiari, aurre egitea dakar” (Aranguren, 2008:21).

Gainera, isiltasun hori(ek) hitz bihurtzen nituenean, indarra kentzen eta esanahia aldatzen niela iruditzen zitzaidan. Isiltasun(ek) kontraesan anitzekin ari nintzela erakutsi zidaten; nik era batera interpretatzen nituenean, beste hainbat interpretazio posible etortzen zitzaizkidan burura, eta beste askok ihes egiten zidaten. Isiltasunak/isiltasunek hitzengandik ihes egiten zu(t)en, hitzekin mugatzea eta eustea besterik ez nuen lortzen.

Isiltasuna(k) mugimendua dira,

mugimendu etengabea.

Isiltasuna(k) hitz bihurtzerakoan, geldiarazi egiten ditugu eta ezaugarri nagusitzat du(t)en mugimendua kendu egiten diegu/diogu. Hori dela eta, isiltasuna(k) ikertzerakoan, horiek erabiliko dugun euskarrian islatuak izateko ahalegin bat egin dut: edukia, testu etnografikoaren narratiba eta honen aurkezpena, hirurak ere kontutan hartuz.

Lengoaiaren subertsioa tresna feminista izan daiteke. Hitza, lengoaiaren erabilpen konkretu bat (are gehiago akademikoa) arrazionaltasunari lotua eta arrazionaltasuna maskulinitate hegemonikoari lotua dator, implizituki bada ere. Lengoaia hori haustea tresna feminista bezala erabili dut. Erotzat jotako emakumeak (izan) diren isiltasuna(k) hitzez betetzeak, hau da, askotan proposatzen den bezala, eurei buruz hitz egiteak, idazteak... euren istorioak hitzez hornitzeak, isiltasun horretatik/horietatik aterako ditu, baina arrazionaltasuna eta, beraz, maskulinitate hegemonikoa aldarrikatzen duen ereduaren barruan sartzen ariko gara. Beraz, isiltasuna(k) ikerketa aurkeztuko dugun euskarrian islatuta geratzea emakume horien

errepresentazio bat egitea da. Orrialdea hitzez bakarrik beteko bagenu, euren existentzia hitzekin betetzera jotzen dugu, eta euren isiltasuna(k) batzuetan kontzienteki erabakiak, subertitzeko eginak edota behartuak izan zirela ahaztu dezakegu.

Hutsune bat.

Hitzik ezak sortua.

Baina hutsik ez dagoena.

Hutsuneak ere egiten gaitu.

Zerbait ezkutatu nahi denean ahalegin handi bat egin behar dugu baina, geroz eta gehiago saiatu, geroz eta indar handiagoa hartzen du. Geroz eta indar handiagoa hartu, are gehiago baldintzatzen gaitu.

Isiltasuna(k) hitzak bezala, kulturalki baldintzatuta daude. *Emakumea*, esaterako, isiltasunarekin lotu da erlijio katolikoaren doktrina jarraitu duten herrialdeetan. Eta are gehiago, erotzat jotako emakumeen kasuez ari bagara. Kasu horretan isiltasunaren indarra bikoitza eta kontraesankorra da: alde batetik, zerbait ezabatzeko ahalegina da, baina, beste alde batetik, isilduta dagoen horrek egin duena eginez gero etorriko zaigun zigorraren iragarpena da.

Isiltasunak/isiltasunek eragina dute euren inguruan bizitza eraiki duten pertsonengan. Familien kasuan, senide bat ezkutuan, isiltasunean edota sekretupean mantentzeak, egitura konkretu bat sortzen du, deserosoa eta beldurrez josia ia gehienetan. Baina, hemen ere, hasieran aipatu kontraesanak aurkitu ditut. Hitz egin nahi ez duenik ere badago, eta isiltasun hori aukeratua da, hitz egiteak min gehiago ematen diolako. Jon:

“Nik directamente besarkatu egiten det, ama emaiazu besarkada bat eta orduan besarkatu egiten det eta egoten gera pixkat besarkatuta, baina ja berbalizatzen dituzunean gauza hoiek, zoaz fum! Zoaz hondora”.

Isiltasuna(k) aukeratuak izan daitezke askotan, hitz egiteak min handiagoa ematen duelako. Psikiatrikoko behaketa parte-hartzailean isiltasun handia(r)ekin egin nuen topo; baina ohartzen nintzen era berean, komunikazioa etengabekoa zela, batzuetan gainezka ere egiten zuela eta batzuetan ez nintzela jasotzeko gai ere.

Gizarteak isildu nahi duenari buruz hitz egiteko askotan ez du hitzik eraiki, eta hainbat egoera, sentimendu eta emozio hitzez azaltzeko ezintasunean aurkitu gaitzke. Horrek beste bide bat hartzera eramaten gaitu eta hutsuneak eta isiltasuna(k) sortzaile ere izan daitezke. Sormenari bidea irekiz sortuko ditugun “errelatoak” bakarrak izango dira:

Gogoan dut, oso ondo gainera, psikiatrikoan landa-lanarekin hasi nintzen egun hura.

Beldurtuta nindoan, oso beldurtuta, atzera egitea ere pentsatu nuen, ikerketarako nahikoa nuela aitzakiatzat hartuz. Baina banekien, ikerketa baino garrantzitsuagoa zen zerbait zegoela jokoan egoera hartan; aurre egitea lortzen ez banuen, nire beldurren kontra galdu egin nuela esan nahi zuen...

Orain, eromenarekin hizketalditxo izan ondoren,

arnasa hartu dezaket sakon...

... sakon...

...

BIBLIOGRAFIA

ABAD, I. (2009). “Las dimensiones de la “represion sexuada” durante la dictadura franquista” in Rodrigo, J. eta Ruiz, M.A. (koord) *Dossier: Guerra civil: las representaciones de la violencia*. Jeronimo Zurita. 84, 65-86 or.

ABU-LUGHOD, L. (1990). “The romance of resistance: Tracing transformations of power through Bedouin women” in *American ethnologist*. 17(1), 41-55 or.

AGUIRRE BAZTÁN, A. (1994). *Estudios de etnopsicología y etnosiquiatría*. Bartzelona: Editorial Boixaren Universitaria Marcombo.

ALANIS CARRIZO, J.; GUTIÉRREZ MIRANDA, J. I.; TAPIA JIMÉNEZ, O. (2013). “El ideal femenino y la educación emocional a principios del siglo XX” in *Revista Electrónica de Psicología Iztacala*. 16(4), 1361-1384 or.

ALTUNA, B. (2003). *Euskaldun fededun*. Irun: Alberdania.

ALTUNA ETXEBERRIA, M. eta ARANBURU ZINKUNEGI, M. (2012). *Ibiltari behartuetatik hegan egiteaz oroitu zirenetara: Genero femeninoaren eraikuntza lehen frankismoan Tolosan*. Tolosako Udalaren Berdintasun Saila, II. Ikerketa Beka (argitaratu gabea).

ÁLVAREZ MARTÍNEZ, J. M eta COLINA PÉREZ, F. (2011) “Origen histórico de la esquizofrenia e historia de la subjetividad” in Martínez, O. et al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 137-147 or.

ÁLVAREZ PELÁEZ, R. (1990). “Medicina y moral sexual en la España de preguerra” in *Ascepio*. II, 201-210 or.

AMARO CASTRO, L. (2011). “Algunas ideas sobre subjetividad, escritura, silencio” in *Analecta: revista de humanidades*. 5, 117-127 or.

APARICIO BASAURI, V. eta SÁNCHEZ GUTIÉRREZ, A. E. (1997). “Norma y ley en la psiquiatría española (1822-1986)” in *Revista de la Asociación Española de Neuropsiquiatría*. 17(61), 125-145 or.

ARADILLAS, A. (1994). *La Iglesia, último bastión del machismo*. Madril: Gaesa.

ARANGUREN ROMERO, J. P. (2008) “El investigador ante lo indecible y lo inenarrable (una ética de la escucha)” in *Nómadas*. Colombia: Universidad central. 29, 20-33 or.

ARESTI, N. (2001). *Médicos, Donjuanes y Mujeres Modernas. Los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*. Bilbo: EHU.

ARISTORENA, J.C eta FDEZ DE LARRINOA, P. (1998). *1898-1998 Aita Menni Ospitalea. 100 años de historia en Santa Ágeda*. Gipuzkoa: Hospital Aita Menni.

ARTAUD, A. (1961 [1956]). *Ouvres Completes*. Paris: Editions Gallimard.

- ARTAUD, A. (1947). *Van Gogh el suicidado por la sociedad*. Digitalizado por Librodot.com <http://www.bsolot.info/wp-content/uploads/2011/02/Artaud_Antonin-Van_Gogh_el_suicidado_por_la_sociedad.pdf> [kontsulta data 2014-02-05].
- ASAD, T. (1991) “El concepto de la traducción cultural en la antropología social británica” in Clifford, J eta Marcus, G. E. (ed.) *Retoricas de la antropología*. Madril: Editorial Jucar. 205-234 or.
- ASSMANN, A. (2008). “Canon and archive” in Erll, A. eta Nünning, A. (ed.) *Cultural memory studies: An international and interdisciplinary handbook..* 8, 97-108 or.
- ASSMANN, J. (2008) “Communicative and Cultural Memory” in Erll, A. eta Nünning, A. (ed.) *Cultural memory studies: An international and interdisciplinary handbook*. 8, 109-118 or.
- APPIGNANESI, L. (2008). *Mad, bad and sad. A history of women and the mind doctors from 1800 to the present*. Britainia Handia: Virago.
- AUGÉ, M. (1998) *Las formas de olvido*. Bartzelona: Gedisa.
- AUGÉ, M. (1993) *Los “no lugares”: espacios del anonimato*. Bartzelona: Gedisa.
- AUSTIN, J. L. L. eta URMSON, J. O. (1995). *Cómo hacer cosas con palabras*. Buenos Aires: Paidós.
- BADOS, Á. (2008) *Oteiza. Laborategi esperimentalta*. Oteiza Fundazio Museoa.
- BARBER, S. (1993). *Antonin Artaud*. London: Faber and Faber.
- BARRACHINA, M. A. (2003) “Discurso medico y modelos de género. Pequeña historia de una vuelta atrás” in Nielfa, G. (ed.) *Mujeres y hombres en la España franquista: sociedad, economía, cultura, política*. Madril: Universidad Complutense de Madrid. 67-94 or.
- BART, P. B. (1979) “Depresión en mujeres de mediana edad” in Saez, C. (ed) *Mujer, locura y feminismo*. Madril: Dédalo ediciones. 87-113 or.
- BARTHES, R. (1996). *The pleasure of the text*. New York: Hill and Wang.
- BARTRA, R. (2006). *Antropología del cerebro*. Valencia: Editorial Pre-Textos.
- BARTRA, R. (2004) “Doce historias de melancolía en la Nueva España” in *Revista Frenia*. Madril. 4, 31-52 or.
- BASSOLS, L. (2011) “Cuadros para una exposición” in Viñuales, O. (ed.) *Y no fueron Marujas*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.
- BATAILLE, G. (2005). *Discusión sobre el pecado* Buenos Aires: Paradiso.
- BATESON, G. (1987 [1971]) *Steps to an ecology of mind*. London: Jason Aronson Inc.
- BECHDEL, A. (2012) *Are you my mother?: A comic Drama*. Houghton Mifflin Harcourt.
- BEHAR, R (1993) *Translated Woman: Crossing the Border with Esperanza’s Story*. Boston: Beacon Press.

- BENADIBA, L. (2007). *Historia oral, relatos y memorias*. Buenos Aires: Editorial Maipue.
- BENEDICT, R. (1934). "Anthropology and the abnormal" in *Journal of General Psychology*. 10(2), 59-82 or.
- BOURDIEU, P. (2001[1982]). *¿Qué significa hablar?: Economía de los intercambios lingüístico*. Madril: Akal Ediciones.
- BOURDIEU, P. (1989) "La ilusión biográfica" in *Revista Historia y Fuente Oral*. 2, 29-35 or.
- BOX, Z. (2013). "De linealismos y femeniles curvas: metáforas de la nación en el en el discurso del primer falangismo" in *VIII Encuentro Internacional de Investigadores del Franquismo*. Barcelona. 1-14 or.
- BULLARD, A. (2001). "The truth in madness" in *South Atlantic Review*. 66(2), 114-132 or.
- BUTLER, J. (2002). *Cuerpos que importan: sobre los límites materiales y discursivos del" sexo"*. Buenos Aires: Paidós.
- CAGE, J. (1961). *Silence: Lectures and Writings*. Middletown: Wesleyan University Press.
- CAMPOS, J. A. eta SEOANE, A. (2011) "Mentalization based treatment. Una aproximación teórica" in *SISO SAUDE (Boletín da Asociación Galega de Saúde Mental)*. 51, negua, 73-87 or.
- CANDELA, R. eta VILLASANTE, O. (2011) "Las historias clínicas del manicomio de Leganés (1924-1931) Enrique Fernández Sanz y la nosología Kraepeliniana" in Martínez, O. eta al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 201-220 or.
- CAPRANZANO, V. (1991) "El dilema de Hermes: la máscara de la suversión en las descripciones etnográficas" in Clifford, J. eta Marcus G.E (ed.) *Retoricas de la antropología*. Madril: Editorial Júcar. 91-122 or.
- CARDIN, A. (1990). *Lo próximo y lo ajeno*. Bartzelona: Icaria.
- CARDÍN, A. (1988). *Tientos etnológicos*. Madril: Júcar Universidad.
- CARO BAROJA, J. (1949). *Los vascos*. Madril: Istmo.
- CARR, E. S. (2013). "'Signs of the times': confession and the semiotic production of inner truth" in *Journal of the Royal Anthropological Institute*. 19(1), 34-51 or.
- CARR, E. S. (2010). *Scripting Addiction: The politics of therapeutic talk and American sobriety*. Princeton University Press.
- CARRINGTON, L. (1987). *Memorias de abajo*. Madril: Siruela.
- CARROL, D. (1989). *Paraesthetics. Foucault, Lyotard, Derrida*. London: Routledge.
- CASTILLA DEL PINO, C. (1992) "El silencio en el proceso comunicacional" in Castilla del Pino, C (zuz.) *El Silencio*. Madril: Alianza Editorial. 79-97 or.

CASTILLEJO CUELLAR, A. (2005) "Las Texturas del Silencio: Violencia, Memoria y los Límites del Quehacer Antropológico" in *Empiria, Revista de Metodología de Ciencias Sociales*. 9, urtarrila-ekaina, 39-59 or.

CASTILLO, J. M. (2004). *Víctimas del pecado*. Madril: Ed. Trotta.

CASTILLO GÓMEZ, A. eta SIERRA BLAS, V. (2005). "Prólogo. Entre la represión y la libertad", in Castillo, A. eta Sierra, V. (ed) *Letras bajo sospecha*. Gijón: Trea, 11-14 or.

CELAYA, B. (2012). "El discurso medico del franquismo: persistencia de un modelo sexualizado de mujer" in Osborne, R. (ed.) *Mujeres bajo sospecha*. Madril: Editorial Fundamentos. 193-215 or.

CHESLER, P. (2005). *Women and Madness*. New York: Palgrave MacMillan.

CHESLER, P. (1979) "Paciente y patriarca: las mujeres en la relación psicoterapéutica" in Saez, C. (ed.) *Mujer, locura y feminismo*. Madril: Dédalo ediciones. 169-202 or.

CIFRIÁN, C.; MARTÍNEZ TEN, C.; SERRANO, I. (1986) *La cuestión del aborto*. Bartzelona: Icaria.

CIXOUS, H. (1976) "The Laugh of the Medusa" in *Signs*. University of Chicago Press 1(4), 875-893 or. <<http://www.dwrl.utexas.edu/~davis/crs/e321/Cixous-Laugh.pdf>> [Kontsulta data: 2014-02-19].

CLAUDEL, C.(2006). *Correspondencia de Camille Claudel*. Madril: Síntesis.

CLEMENT, Dr. G. (1934). *Derechos del niño antes de nacer*. Madril: Ediciones Fax.

CLIFFORD, J. (1991a). "Introducción: Verdades parciales" in Clifford, J. eta Marcus G.E (ed.) *Retóricas de la antropología*. Madril: Editorial Júcar. 25-60 or.

CLIFFORD, J. (1991b). "Sobre la alegoría etnográfica" in Clifford, J. eta Marcus G.E (ed.) *Retóricas de la antropología*. Madril: Editorial Júcar. Madrid, 151-182 or.

COBO ROMERO, F. eta ORTEGA LÓPEZ, T. M. (2005). *Franquismo y posguerra en Andalucía oriental: represión, castigo a los vencidos y apoyos sociales al régimen franquista, 1936-1950*. Granada: Universidad de Granada.

COLLINGWOOD-SELBY, E. (1997). *Walter Benjamin. La lengua del exilio*. Santiago de Chile: Arcis-lom.

COMELLES, J. M. (2006). *Stultifera navis: la locura, el poder y la ciudad*. Lleida: Editorial Milenio.

COMELLES, J. M. (2005). "El purgatorio del Doctor Torras. Reforma y reacción en la psiquiatría catalana del S. XX" in *Frenia*. Madril. 5, 101-132 or.

CONSEGLIERI, A. eta VILLASANTE, O. (2007). "Neuropsiquiatría de posguerra: una aproximación a la población manicomial de Leganés" in *Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq.* 27(99), 119-141 or.

COSTA, J. (2005). "El planeta de las palabras que no herían. Corrección política y nuevos tabúes" in *Tabu la sombra de lo prohibido innombrable y contaminante*. 11-24 or.

- CUNHA, M. C. P. (1989). "Loucura, gênero feminine: as mulheres do Juquery na São Paulo do início do século XX" in *Revista Brasileira de História*. São Paulo. 9(18), 121-144 or.
- CUÑAT ROMERO, M. (2007). "Las cartas <locas> de Doña Juana Sagrera" in *Frenia*. Madril. 7, 89-107 or.
- DALSGAARD, A. L. (2013) "Montage in Writing" in Willerslev, R. eta Suhr, C. (ed.) *Transcultural Montage*. Oxford. 100-105 or.
- DANIEL, E. V. (1996). *Charred Lullabies: Chapters in an anthropography of violence*. New Jersey: Princeton University Press.
- DAZA, O. (2009). "El paradigma del control social en los orígenes de la psicología". <http://germinallibertario.blogspot.com.es/2009/09/el-paradigma-del-control-social-en-los.html> [kontsulta data: 2014/02/13]
- DE DIOS, E. (2013). "Una ley *ni por asomo feminista*. Análisis historiográfico de la Ley de 22 de Julio de 1961 a través del Montepío del Servicio Doméstico". Bartzelona: VIII Encuentro Internacional de Investigadores del Franquismo. 1-23. or.
- DEL VALLE, T. (2000). "Procesos de la memoria: cronotopos genéricos", *La Ventana*. 9, 7-43 or. <<http://148.202.18.157/sitios/publicacionesite/pperiod/laventan/Ventana9/ventana9-1-1.pdf>> [Kontsulta data: 2014-11-05]
- DEL VALLE, T. (1997) *Andamios para una nueva ciudad. Lecturas desde la antropología*. Bartzelona: Anthropos.
- DELBÉE, A. (1989). *Camille Claudel*. Bartzelona: Circe.
- DELEUZE, G. (1989). *El pliegue*. Bartzelona: Paidós Básica.
- DERRIDA, J. (1997). *Mal de archivo: Una impresión freudiana*. Madril: Editorial Trotta.
- DERRIDA, J. eta BENNINGTON, G. (1994). *Jacques Derrida*. Madril: Ediciones Cátedra.
- DERRIDA, J. (1989 [1967]). *La escritura y la diferencia*. Bartzelona: Anthropos.
- DÍAZ, P. eta GAGO, J. M. (2006). "La construcción de las fuentes orales para el estudio de la represión franquista" in *Hispanianova*. 6. <hispanianova.redinis.es/6/dossier/6d006.pdf> [Kontsulta data: 2012-01-30].
- DÍAZ VIANA, L. (1991). "Prólogo a la edición española" in Clifford J., Marcus G.E. (ed.) *Retóricas de la antropología*. Madril: Editorial Júcar. 9-19 or.
- DIDI-HUBERMAN, G. (2007) *La Invención de la histeria. Charcot y la iconografía fotográfica de la Salpêtrière*. Madril: Ediciones Cátedra.
- DIÉGUEZ GÓMEZ, A. (1999). "Psiquiatría y género: el naciente discurso médico-psiquiátrico en España y el estatuto social de la mujer" in *Revista Asociación Española de Neuropsiquiatría*. 19(72), 637-652 or.
- DIETZ, G. (2011). "Hacia una etnografía doblemente reflexiva: una propuesta desde la antropología de la interculturalidad" in *AIBR, Revista de Antropología Iberoamericana*. 6(1), 3-

26 or. (<http://www.aibr.org/antropologia/06v01/articulos/060101.pdf>) [Kontsulta data: 2015-03-16].

DÍEZ MINTEGUI, C. (2003). “Deporte, socialización y género”, in Medina eta Sánchez (ed.) *Culturas en juego*. Bartzelona: Icaria.

DOLAR, M. (2006). *A voice and Nothing More*. AEB: MIT Press Book.

DOUGLAS, M. (1973). *Pureza y Peligro. Un análisis de los conceptos de contaminación y tab*. Madrid: Siglo XXI editores.

ECHEVERRÍA, J. (1948) *Notas para un estudio psiquiátrico de Guipúzcoa (En el cincuentenario de la apertura de la Casa de Salud de Santa Águeda)*. Donostia: Gipuzkoako Aldundia.

EHRENREICH, B. eta ENGLISH, D. (2010 [1989]) *Por tu propio bien. 150 años de consejos expertos a mujeres*. Madril: Capitán Swing.

ENGEL, M. G. (2008). “Sexualidades interdidadas: loucura e gênero masculino” in *História, Ciências, Saúde*. Rio de Janeiro. 15, gehigarria, 173-190 or.

ERLL, A. (2008). “Cultural Memory Studies: An introduction” in Erll, A. eta Nünning, A. (ed.) *Cultural memory studies: An international and interdisciplinary handbook*. Walter de Gruyter. 8, 109-118 or.

ESPINOSA IBORRA, J. (1987). “Ideología de la Ilustración en España y tratamiento moral” in *Revista Asociación Española de Neuropsiquiatría*. 7(20), 117-123 or.

ESTEBAN, M. L. (2008). “Etnografía, itinerarios corporales y cambio social: apuntes teóricos y metodológicos” in Imaz, E. (ed) *La materialidad de la identidad*. Donostia: Editorial Hariadna. 135-158 or.

ESTEBAN, M. L. (2004) “Antropología encarnada. Antropología desde una misma”, *Papeles del CEIC*. EHU. 12(1) <<http://www.ehu.es/CEIC/papeles/12.pdf>> [Kontsulta data: 2013-10-07].

ESTEBAN, R.; ÁLVAREZ, J. M.; COLINA, F. (2011) “Las memorias de Emil Kraepelin. A propósito de su reciente edición en castellano” in Martínez, O. et al. (ed) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 129-135 or.

ESTROFF, S.; S.LACHICOTTE, W.; C.ILLINGWORTH, L.; JOHNSTON, A. (1991) “Everybody's Got a Little Mental Illness: Accounts of Illness and Self among People with Severe, Persistent Mental Illnesses” in *Medical Anthropology Quarterly*. New Series, 5(4), abendua, 331-369 or. Published by: Wiley-Blackwell on behalf of the American Anthropological Association <<http://www.jstor.org/stable/649291>> [Kontsulta data: 30/08/2012].

FERRÚS, B. (2007). “Silencio, se rueda” in *Lectora*. 13, 11-15 or.

FIERRO, A. (1992). “La conducta del silencio” in Castilla del Pino, C. (zuz.) *El Silencio*. Madril: Alianza Editorial. 47-78 or.

- FISCHER, M.M.J. (1991). "El etnicismo y las artes postmodernas de la memoria" in Clifford, J. eta Marcus, G.E (ed.) *Retóricas de la antropología*. Madril: Editorial Júcar. 269-319 or.
- FOLGUERA CRESPO, P. (1997). *Historia de las Mujeres en España*. Madril: Síntesis, Madrid.
- FOUCAULT, M. (2006). *History of Madness*. Erresuma Batua: Routledge.
- FOUCAULT, M. (2005). *El poder de la psiquiatría*. Madril: Akal.
- FOUCAULT, M. (2002). *La arqueología del saber*. Buenos Aires: Siglo Veintiuno.
- FOUCAULT, M. (1988). *Enfermedad mental y personalidad*. Bartzelona: Paidós Studio.
- FOUCAULT, M. (1984). "What is an Autor?" in Rabinow, P. (ed.) *Foucault Reader*. New York: Pantheon Books. 101-120 or.
- FOUCAULT, M. (1976 [1975]). *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*. Buenos Aires: Siglo XXI editores.
- GALEOTTI, G. (2004). *Historia del aborto*. Buenos Aires: Nueva Visión.
- GALVÁN, V. (2010). *De vagos y maleantes: Michel Foucault en España*. Bartzelona: Virus.
- GALVÁN, V. (2009). "La recepción extraacadémica de Michel Foucault en la cultura de la Transición española: la antipsiquiatría y la Historia de la locura en los psiquiatras progresistas" in *Revista Asociación Española de Neuropsiquiatría*. 29(104), 485-500 or.
- GARCÍA, A. (2007) "Los demonios de Camille Claudel" in *El País digital*, 2007/11/07, <http://www.elpais.com/articulo/cultura/demonios/Camille/Claudel/elpepucul/20071107elpepicul_1/Tes> [Kontsulta data: 2011/03/14]
- GARCÍA, R. (1995). *Historia de una ruptura: el ayer y el hoy de la psiquiatría española*. Bartzelona: Virus Editorial.
- GARCÍA DEL VILLAR BALÓN, R. (2005) "Los métodos de la Antropología y la Literatura" in *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*. 50(1), 43-58 or.
- GARCÍA MARTÍNEZ, A. (2005) "El tabú: una mirada antropológica" in Domínguez, V. (ed.) *Tabú: la sombra de lo prohibido, innombrable y contaminante*. Universidad de Oviedo, 143-180 or.
- GARCÍA ORELLÁN, R. (2012). "Historias de vida: su aplicación en las ciencias sociales". *Historias de vida kurtsoan emandako dokumentazioa*. Donostia: Fundación Asmoz.
- GATTI, G. (2011) "El lenguaje de las víctimas: silencios (ruidosos) y parodias (serias) para hablar (sin hacerlo) de la desaparición forzada de personas" in *Universitas Humanística*. 72, uztaila-abendua, 89-109 or.
- GATTI, G. (2006) "Las narrativas del detenido-desaparecido (o de los problemas de la representación ante las catástrofes sociales)" in *CONfines de Relaciones Internacionales y Ciencia Política*. Monterrey. 2(4), abuztua-abendua, 27-38 or.

- GEERTZ, C. (1989). *El antropólogo como autor*. Bartzelona: Paidós Studio.
- GIACAGLIA, M. A. (2004). “Acerca del vacío y los sujetos” in *Ciencia, Docencia y Tecnología*. 15(29), azaroa, 93-104 or.
<http://revistacdyt.uner.edu.ar/pdfs/Cdt29_Giacaglia.pdf> [Kontsulta data: 2015-03-18].
- GINZBURG, C. (1994 [1976]). *El queso y los gusanos*. Bartzelona: Muchnik editores.
- GOENA ALDANONDO, C. (1994). “Aportación vasca a la historia de la psicología y psiquiatría” in *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. 42(39)(2), 325-345 or.
- GOFFMAN, E. (1991). *Asylums*. London: Penguin Books,.
- GONZÁLEZ, F. M. (2007). “De los secretos familiares a los institucionales” in *Revista electrónica de Ciencias Sociales*. Mexico D.F. 2.
<<http://www.culturayrs.org.mx/revista/num2/gonzalez.pdf>> [Kontsulta data: 2015/04/15].
- GONZÁLEZ ABRISKETA, O. (2011) “Azar y creatividad son cuestiones de método”, *Ankulegi*. 15, 47-56 or.
- GONZÁLEZ ABRISKETA, O. (2005). *Pelota vasca: un ritual, una estética*. Bilbao: Muelle de Uribitarte Editores.
- GONZÁLEZ DURO, E. (1978). *Psiquiatría y sociedad autoritaria: España 1939-1975*. Madril: Akal editor.
- GONZÁLEZ DURO, E. (2008). *Los psiquiatras de Franco: Los rojos no estaban locos*. Bartzelona: Península.
- GONZÁLEZ PÉREZ, T. (2009). “Los programas escolares y la transmisión de roles en el franquismo: la educación para la maternidad” in *Revista de Pedagogía*. Bordón. 61(3), 93-106 or.
- GOVE, W. R., TUDOR, J. F. (1979) “Roles sexuales adultos y enfermedad mental” in Saez, C. (ed.) *Mujer, locura y feminismo*. Madril: Dédalo ediciones. 59-86 or.
- GRAHAM, H. (2010). “Gender and the State: Women in the 1940s” in *Spanish Cultural Studies*. New York: Oxford University Press. 182-195 or.
- GROSZ, E. (1994). *Volatile Bodies. Toward a corporeal feminism*. AEB: Indiana University Press.
- GUIMÓN, J. eta AGUIRRE OAR, J. M. (2011) “Julián Ajuriaguerra: un psiquiatra comprometido”, in Martínez, O. et al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. Madril. 17-25 or.
- GUTIERREZ, M. (2011). *Decir la nieve*. Madril: Siruela.
- GUYOTAT, J. (1994). *Estudios de antropología psiquiátrica*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.

- GUZMÁN VÁZQUEZ, A. (2007). “De cuerpo presente: pasión y culpa” in Muñiz, E. eta List, M. (ed.) *Pensar el cuerpo*. Mexiko: Universidad Autónoma Metropolitana. 51-67 or.
- HALL, E. T. (1984). *Le langage silencieux*. Éditions du Seuil.
- HARAWAY, D. (1995). *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*. Madril: Cátedra.
- HASTRUP, K. (1992). “Writing Ethnography. State of the Art” in Okely, J. eta Callaway, H. (ed.) *Anthropology and Autobiography*. London: Routledge. 115-131 or.
- HERNÁNDEZ HOLGADO, F. (2003). *Mujeres encarceladas: la prisión de Ventas de la República al Franquismo, 1931-1941*. Madril: Marcial Pons Historia Estudios.
- HIRSCH, Marianne (2008) “The generation of postmemory”, *Poetics Today*, 29 (1), 103-128 or.
- HOFFMAN, E. (2005). *After such knowledge: Memory, history, and the legacy of the Holocaust*. New York: PublicAffairs.
- HOLDEN, L. (2001). “Taboos. Structure and Rebellion” in *The Institute for Cultural Research*. 41.
- HOLM VOHNSEN, N. (2013). “Labor Days. A Non-Linear Narrative of Development” in Willerslev, R. eta Suhr, C. (ed.) *Transcultural Montage*. Oxford: Berghahn. 131-144 or.
- HUERTAS, R. (2014). “Paratopías. El manicomio como un no-lugar y la experiencia del internamiento” in *XIII Coloquio Internacional de Geocrítica, El control del espacio y los espacios de control*. Barcelona.
- <<http://www.ub.edu/geocrit/coloquio2014/Rafael%20Huertas.pdf>> [Kontsulta data: 2015-05-12].
- HUERTAS, R. (2010). “Memorias de Ultrafrenia (1890). La novela científica y los territorios de la subjetividad” in *Revista de Estudios Hispánicos*. 44(1), 31-55 or.
- HUERTAS, R. (2008) “Los lugares de la locura: reflexiones historiográficas en torno a los manicomios y su papel en la génesis y el desarrollo de la Psiquiatría” in *Arbor*. 184, 471-480 or.
- HUERTAS, R. (2001a). “Las historias clínicas como fuente para la Historia de la Psiquiatría: posibles acercamientos metodológicos” in *Frenia*. 1(2), 7-37 or.
- HUERTAS, R. (2001b). “Historia de la Psiquiatría, ¿por qué? ¿para qué? Tradiciones historiográficas y nuevas tendencias” in *Frenia*. 1(1), 9-32 or.
- HUERTAS, R. (2001) “Historiografía de la asistencia psiquiátrica en España. De los límites fundacionales a la historia social” in *Secuencia, nueva época*. 51, iraila-abendua, 123-144 or.
- HUERTAS, R. (1997). “Entre la enfermedad y la exclusión. Reflexiones para el estudio de la locura en el siglo XIX” in *Historia Contemporánea*. 16, 47-65 or.
- HUNT, N. R. (2008) “An Acoustic Register, Tenacious Images, and Congolese scenes of Rape and Repetition” in *Cultural Anthropology*. 23(2), 220-253 or.

- HUNT, N. R. (2007) "Between Fiction and History. Modes of Writing Abortion in Africa" in *Cahiers d'études africaines*. 186. <<http://etudesafricaines.revues.org/7100>> [Kontsulta data: 2015-05-19].
- IGLESIAS DE USSEL, J. (1979) *El aborto: un estudio sociológico sobre el caso español*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- INGOLD, T. (2012). "Toward an Ecology of Materials" in *Annual review of anthropology*. 41, 427-442 or.
- INGOLD, T. (2008). "Anthropology is *Not* Ethnography" in *Proceedings of the British Academy*. 154(2007), 69-92 or.
- JIMENEZ LUCENA, I. (2008). "¿Qué es esa cosa llamada lo femenino?" in *Paradigma*. 7, 7-8 or.
(<http://riuma.uma.es/xmlui/bitstream/handle/10630/999/Jim%C3%A9nez%20Lucena,%20I.pdf?sequence=1>) [Kontsulta data: 2013-11-13].
- JIMENEZ LUCENA, I.; RUIZ SOMAVILLA, M. J.; CASTELLANOS, J. (2002). "Un discurso sanitario para un proyecto político. La educación sanitaria en los medios de comunicación de masas durante el primer franquismo" in *Asclepio*. 44(1), 201-218 or.
- JIMÉNEZ LUCENA, I. (2010) "Género, Regulación social y subjetividades. Asimilaciones, complicidades y resistencias en torno a la loca (el manicomio provincial de Málaga, 1920-1950)" in *Frenia*. 5, 123-144 or.
- JONES, A. (2004). "Archaeometry and materiality: materials-based analysis in theory and practice*" in *Archaeometry*. 46(3), 327-338 or.
- JULIANO, D. (2011) "Estrategias femeninas de supervivencia y estereotipos" in *Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrean emandako ponentzia*. 2011eko Martxoaren 10a.
- JULIANO, D. (2006). *Excluidas y marginales*. Madril: Ediciones Cátedra.
- JULIANO, D. (1992). *El juego de las astucias: mujer y construcción de modelos sociales alternativos*. Madril: Horas y Horas.
- KIERKEGAARD, S. (2004). *Tratado de la desesperación*. Buenos Aires: Leviatán.
- KIRSTEIN HØGEL, J. (2013) "Montage as Analysis in Ethnographic and Documentary Filmmaking. From Hunting for Plots Toward Weaving Baskets of Data" in Willerslev, R. eta Suhr, C. (ed.) *Transcultural Montage*. Oxford: Berghahn. 213-225 or.
- KLEINMAN, A. (1995). *Writing at the margin: Discourse between Anthropology and Medicine*. AEB: University of California Press.
- LAGARDE Y DE LOS RÍOS, M. (2011). *Los cautiverios de las mujeres: madresposas, monjas, putas, presas y locas*. Madril: Horas y Horas.
- LAGUNAS, C. (1996). "Historia y género: algunas consideraciones sobre la historiografía feminista" in *La Aljaba*. 1, 27-33 or.
- LARREA, M. (1932). "Estado actual del problema del histerismo" in *Guipúzcoa Médica*. 17(190), 57-79 or.

- LARREA KILLINGER, C. (2011). "Intensidad etnográfica. Reflexividad y emoción en el trabajo de campo" in *Ankulegi*. 15, 11-22 or.
- LATHER, P. (1993). "Fertile Obsession: Validity after Poststructuralism" in *The Sociological Quarterly*. 34(4), 673-693 or. <<http://www.jstor.org/stable/4121374>> [Kontsulta data: 2015-03-16].
- LATOUR, B. (2007). *Nunca fuimos modernos*. Buenos Aires: Siglo XXI editores.
- LAZZARATO, M. eta NEGRI, A. (2001 [1991]). *Trabajo inmaterial, formas de vida y producción de subjetividad*. Rio de Janeiro: DP&A Editora.
- LE BRETON, D. (2001). *El silencio*. Madril: Sequitur.
- LE BRETON, D. (1999). *Las pasiones ordinarias: antropología de las emociones*. Buenos Aires: Nueva Visión.
- LE GOFF, J. (1991) *El orden de la memoria. El tiempo como imaginario*. Bartzelona: Paidós Básica.
- LEIRIS, M. (2007 [1934]). *El África fantasmal*. Valentzia: Editorial Pre-textos.
- LEÓN NANCLARES, A. (2009). "Las "débiles mentales" del franquismo" in *Revista Diálogos*. Bilbo: Hegoa-EHU. 2, 8-13 or.
- LÈVI-STRAUSS, C. (1997). *El Pensamiento Salvaje*. Colombia: Fondo de Cultura Económica.
- LIEBLING, A. (1999) "Doing research in prison: Breaking the silence", in *Theoretical Criminology*. 3(2), 147-173 or. <<http://tcr.sagepub.com/content/3/2/147.full.pdf+html>> [Kontsulta data: 2014-09-10]
- LISPECTOR, C. (1998). *Laços de Família*. Rio de Janeiro: Editora Rocco.
- LLONA, M. (2002). *Entre señorita y garçone. Historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)*. Malaga: Atenea, Universidad de Málaga.
- LOPEZ DE LA PLAZA, G. (1993). "Historia de las mujeres: compromiso y método", in Segura, C. (ed.) *La voz del Silencio II*. Madril: Asociación Cultural-Almudayna. 7-15 or.
- LÓPEZ VALE, A. (2011). "Predicción en psiquiatría: El caso de la esquizofrenia" in *SISO SAUDE (Boletín da Asociación Galega de Saúde Mental)*. 51, negua, 13-28 or.
- LÓPEZ VELASCO, R. (2010). *Usurbilgo Sendategia. Iragana eta oraina*. Lasarte-Oria: Usurbilgo Sendategia.
- LORDA, S. eta FERRER I BALSEBRE L. (1999) "Asistencia psiquiátrica en el primer franquismo: Ourense (1939-1959)" in *Anales de Psiquiatría*. 15(5), 202-222 or.
- LORDE, A. (2012). *Sister Outsider: Essays and Speeches*. The Crossing Press.
- LOVELL, A. (2003). "Problèmes de définition et de délimitation de l'objet de la surveillance en sante mentale" in *Surveillance dans le champ de la santé mentale*, Extraits, L'Institut de Veille sanitaire Département des maladies chroniques et des traumatismes.
- LOWEN, A. (2000). *El narcisismo. La enfermedad de nuestro tiempo*. Bartzelona: Paidós.

- MALAFOURIS, L. (2004). "The cognitive basis of material engagement: where brain, body and culture conflate" in *Rethinking materiality: the engagement of mind with the material world*. 53-61 or.
- MARAÑÓN, G. (1927). *Maternidad y feminismo. Tres ensayos sobre la vida sexual*. Madrid: Biblioteca Nueva. 82-84 or.
- MARCO FURRASOLA, A. (2001) *Una antropología del silencio*. Bartzelona: PPU.
- MARCUS, G. E. eta CUSHMAN, D. (1982) "Ethnographies as Texts" in *Annual Review of Anthropology*. 11, 25-69 or. <<http://links.jstor.org/sici?sici=0084-6570%281982%292%3A11%3C25%3AEAT%3E2.0.CO%3B2-C>> [Kontsulta data: 2014-02-14]
- MARCUS, G. E. (1991). "Problemas de la etnografía contemporánea en el mundo moderno" in Clifford, J. eta Marcus, G.E. (ed.) *Retoricas de la antropología*. Madrid: Editorial Júcar. 235-268 or.
- MARCUS, G. E. (1991) "Epílogo: las escritura etnográfica y la carrera antropológica", in Clifford, J. eta Marcus, G.E. (ed.) *Retoricas de la antropología*. Madrid: Editorial Júcar. 357-363 or.
- MARECEK, J. eta KRAVETZ, D. (1979) "Mujer y salud mental: un análisis de los intentos feministas de cambio" in Saez, C. (ed) *Mujer, locura y feminismo*. Madrid: Dédalo. 203-214 or.
- MARKEZ, I. (2011). "El legado documental de Ángel Garma" in Martínez, O. et al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madrid: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 43-66 or.
- MARKEZ, I. (2008). "Un proyecto de manicomio que acabó en seminario" in *Norte de salud mental aldizkaria*. 6, 10-13 or.
- MARQUÍNEZ BASCONES, F. (2011) "Un psiquiatra vasco internacional. El profesor Félix Letemendía" in Martínez, O. et al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madrid: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 27-42 or.
- MARTIN, E. (2008) "Experiencia interior y trabajo de campo etnográfico" in Bullen, M. eta Diez, C. (koord) *Retos teóricos y nuevas prácticas*. EHU, XI.Antropología kongresua. 117-139 or.
- MARTIN, E. (2000). Mind-Body Problems. *American Ethnologist*. 27(3), 569-590.
- MARTIN ZAPIRAIN, I. (2012) *Ni, Vera*. Donostia: Elkar.
- MARTÍNEZ AUZMENDI, O. (2005) "Terapéutica psiquiátrica en los años 40 (III)" in *Revista Norte de Salud Mental*. 22, 72-75 or.
- MARTÍNEZ HERNÁEZ, A. (2013). "Kraepelin, el desafío clasificatorio y otros enredos anti-narrativos" in *Scientiae Studia*. 5(11)(3), 467-489 or.
- MARTÍNEZ HERNÁEZ, A. (1998) *¿Has visto cómo llora un cerezo?*. Bartzelona: Universitat de Barcelona.

- MATE, R. (2004) "El silencio de las palabras" in *Babelia*. 663, uztaila, <http://elpais.com/diario/2004/08/07/babelia/1091834230_850215.html> [Kontsulta data: 2015-04-16].
- McNAMARA, J. (1996) "Algo no funciona: la locura como discapacidad" in Morris, J. (koord.) *Encuentros con desconocidas: feminismo y discapacidad*. Madril: Narcea. 217-228 or.
- MEDINA DOMÉNECH, R. (2013). *Ciencia y sabiduría del amor: una historia cultural del franquismo (1940-1960)*. Iberoamericana.
- MEDINA DOMÉNECH, R. (2004). "Eugenesia y formas de hacer historia. Cuestiones para el debate" in *Dynamis*. 24, 291-305 or.
- MENÉNDEZ, E.L. (1991). "Definiciones, indefiniciones y pequeños saberes" in *Alteridades*. 1 (1), 21-32 or.
- MERCANT, S. T. (2005). "Historia y Antropología de archivo" in *Memòries de la Reial Acadèmia Mallorquina d'Estudis Genealògics, Heràldics i Històrics*. (15), 75-88 or.
- MILLON, T.; SIMONSEN, E.; BIRKET-SMITH, M. eta DAVIS, R. D. (eds.) (2002). *Psychopathy: Antisocial, criminal, and violent behaviour*. AEB: Guilford Press.
- MINH-HA, T. T. (1989). *Woman, native, other*. Bloomington: Indiana UP.
- MOLINARI, A. (2005). "Autobiografías de mujeres en un manicomio italiano a principios del siglo XX" in Castillo eta Sierra (ed.) *Letras bajo sospecha*. Gijón: Trea, 379-399 or.
- MORAGA GARCÍA, M. A. (2008). "Notas sobre la situación jurídica de la mujer en el franquismo" in *Feminismo/s*. 12, 229-252 or.
- MORENO, M. (2013). "La dictadura franquista y la represión de las mujeres" in Nash, M (ed.) *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista*. Granada: Comares. 1-21 or.
- MURILLO ACED, I. (2013). *En defensa de mi hogar y mi pan. Estrategias femeninas de resistencia civil y cotidiana en la Zaragoza de posguerra, 1936-1945*. Zaragoza: Sagardiana, Universidad de Zaragoza.
- NASH, M. (2013) "Presentación" in Nash, M. (ed.) *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista*. Granada: Comares. XI-XIV or.
- NASH, M. eta CIFUENTES, I. (1999). *Rojas: Las mujeres republicanas en la guerra civil*. Madril: Taurus.
- NOVELLA, E. J. (2011) "La difusión del conocimiento psicológico en la España romántica" in Martínez, O. et al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 155-176 or.
- OKELY, J. (1975). "The Self and Scientism" in *Journal of the Anthropological Society of Oxford*. 6 (1), 171-188 or.

ORREGO, J. C. eta SERJE, M. (2012) “Antropología y literatura: travesías y confluencias” in *Antipod. Rev. Antropol. Arqueol.* Bogotá. 15, 15-16 or. <<http://antipoda.uniandes.edu.co/view.php/238/view.php>> [Kontsulta data: 2014-02-13].

ORTNER, S. B. (2006). *Anthropology and Social Theory. Culture, Power, and the Acting Subject*. Durkham: Duke University Press.

OSPINA MARTÍNEZ, M. A. (2006). “Con notable daño del buen servicio: sobre la locura femenina en la primera mitad del siglo XX en Bogotá” in *Antípoda*. 2, 303-314 or.

OTEIZA, Jorge (2007) *Quousque tandem...!*. Nafarroa: Oteiza Fundazio Museoa.

PADRÓ MORENO, D. (1994) “Modernidad versus posmodernidad en psiquiatría: consideraciones en el País Vasco” in *REIV Revista Internacional de los Estudios Vascos*. 42(39)(2), 347-360 or.

PEDROSA-SÁNCHEZ, M. eta SOLA, R. G. (2003). “La moderna psicocirugía: un nuevo enfoque de la neurocirugía en la enfermedad psiquiátrica” in *Rev neurol.* 36(9), 887-97 or.

PÉREZ ARIAS, J. (2005). *La literatura como cura en la obra de Julia Kristeva*. Madril: Universidad Complutense.

PÉREZ JIMÉNEZ, J. C. (1988). “ ‘El silencio no existe’, afirma John Cage” in *El País* egunkaria. Madril. <http://elpais.com/diario/1988/09/23/cultura/590968804_850215.html> [kontsulta data: 2014-02-21]

PERKINS-GILMAN, C. (2012). *Hormako paper horia*. Donostia: Edo! Argitaletxea.

PIEPER, J. (1979). *El concepto de pecado*. Bartzelona: Herder.

PIÉROLA NARVARTE, G.(2000). “Aspectos del discurso moral de la Iglesia sobre la población femenina navarra del Franquismo” in *Gerónimo de Uztariz*. 16, 43-55 or.

PLATH, S. (2013 [1963]). *La campana de cristal*. Bartzelona: Edhasa.

POLO GRIÑAN, C. eta MARTÍNEZ AZUMENDI, O. (2011) “Visionarios e inquisidores: las apariciones de Ezquioga” in Martínez, O. et al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 237-256 or.

PRAKASH, G. (1997). “Los estudios de subalternidad como crítica poscolonial” in Rivera, S. eta Barragán, R. (konp.) *Debates poscoloniales: una introducción a los estudios de la subalternidad*. Bolivia: Sepsis. <<http://es.scribd.com/doc/50479171/09-Los-estudios-de-la-subalternidad-como-critica-postcolonial>> [Kontsulta data 2015-01-30].

PRAT, J. (2007). *Los sentidos de la vida: la construcción del sujeto, modelos del yo e identidad*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

PRATT, M.L. (1991). "Trabajo de campo en lugares comunes" in Marcus, G.E eta Cushman, D.E (ed.) *Retóricas de la antropología*. Madrid: Júcar. 61-90 or.

PRECIADO, P. B. (2013). “La muerte de la clínica”. Madril: Museo Reina Sofía. (<http://www.youtube.com/watch?v=4aRrZZbFmBs>) [kontsulta eguna: 2014/04/08]

PRITCHETT, J. (2009) “Lo que el silencio enseñó a John Cage: la historia de 4’33’” in *Museu d’Art Contemporani de Barcelona*, Barcelona, 166-177 or. <http://www.macba.cat/PDFs/jamespritchett_cage_cas.pdf> [kontsulta data: 2014-02-21].

PUJADAS MUÑOZ, J. J. (1992). *El método biográfico: El uso de las historias de vida en ciencias sociales*. Madril: Colección Cuadernos Metodológicos, CIS. 1.

RABINOW, P. (2009). “Pasos hacia un laboratorio antropológico” in *Revista de Antropología Experimental*. Universidad de Jaén. 9 (10), 137-151 or. Universidad de Jaén. <<http://revista.ujaen.es/rae>> [Kontsulta data: 2013-10-23].

RABINOW, P. (1991) “Las representaciones son hechos sociales: modernidad y postmodernidad en la antropología” in Clifford, J. eta Marcus, G.E (ed.) *Retóricas de la antropología*. Madril: Editorial Júcar. 321-356 or.

RAMBLADO MINERO, M.C. (2013). “Cine y documentales sobre las mujeres en el Franquismo: transmitiendo la memoria en femenino” in Nash, M. (ed.) *Represión, resistencias y memoria: las mujeres bajo la dictadura franquista*. Granada: Comares. 159-178 or.

RAMÍREZ GONZALEZ, J. L. (1992). “El significado del silencio y el silencio del significado” in Castilla, C. (zuz.) *El Silencio*. Madril: Alianza Editorial. 15-45 or.

RAMÍREZ JIMÉNEZ, M. (2005). *La legislación de la Segunda República Española (1931-1936)*. Madril: Centro de estudios políticos y constitucionales.

RAMOS, D. (1993) “La importancia de lo cualitativo en la historia” in Segura, C. (ed.) *La voz del Silencio II*. Madril: Asociación Cultural-ALMUDAYNA.135-155 or.

REGUEILLET, A.G. (2004). “Norma sexual y comportamientos cotidianos en los diez primeros años del Franquismo: noviazgo y sexualidad” in *Hispania*. 64(3)(218), 1027-1042 or.

REY GONZÁLEZ, A. eta JORDÁ MOSCARDÓ, E. (2011) “La primera cátedra de psiquiatría en la universidad española del siglo XIX: la ‘contribución’ de Manuel Soler y Espalter” in Martínez, O. eta al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 81-100 or.

RICH, A. (1983). *Sobre mentiras, secretos y silencios*. Bartzelona: Icaria.

RICHARDSON, L. (1994). “NINE POEMS: Marriage and the Family” in *Journal of Contemporary Ethnography*. 23(1), 3-13 or.

RICHARDSON, L. (1992) “The consequences of poetic representation” in *Investigating subjectivity: Research on lived experience*. 125-137. or.

RICHARDSON, L. (1991) “Postmodern Social Theory: Representational Practices” in *Sociological Theory*. 9(2), udazkena, 173-179 or. <<http://sociology.sunimc.net/htmledit/uploadfile/system/20100905/20100905010956802.pdf>> [Kontsulta data: 2015-03-16].

RICOEUR, P. (1979). "The Model of the Text: Meaningful Action Considered as a Text" in Rabinow, P. eta Sullivan, W.M. (ed.) *Interpretive Social Science. A reader*. Berkeley: University of California Press. 316-334 or.

ROCA I GIRONA, J. (2003). "Esposa y madre a la vez. Construcción y negociación del modelo ideal de mujer bajo el (primer) franquismo" in *Mujeres y hombres en la España franquista: sociedad, economía, política, cultura*. 9, 45-65 or.

ROJAS ORTIZ, R. G. (2009). "Género y enfermedad mental" in *Revista Margen*. 54.

ROMERO NOGUERA, P. (2004). "¿Muerte sin llanto? Reflexiones y comentarios críticos en torno de las investigaciones de Nancy Scheper-Hugues sobre la pobreza y la muerte infantil en el Nordeste brasileño" in *Gazeta de Antropología*. 20(26) <http://www.ugr.es/~pwlac/G20_26Pablo_Romero_Noguera.html> [Kontsulta: 2011/02/13].

ROSALDO, R. (1991). "Desde la puerta de la tienda de campaña: el investigador de campo y el inquisidor" in Clifford, J. eta Marcus, G.E (ed.) *Retoricas de la antropología*. Madril: Editorial Júcar. 123-150 or.

ROSENHAN, D. L. (1973) "Acerca de estar sano en un medio enfermo" in Watzlawick, P. (komp.) *La realidad inventada*. Bartzelona: Gedisa, 99-119 or.

RUIZ, S. eta SERRANO, A. (2012). "Hormako paper horia: Teilatupeko emakume(ar)en isileko garrasiak" in Perkins-Gilman, C. *Hormako paper horia*. Donostia: Edo! Argitaletxea. 41-76 or.

RUIZ FRANCO, R. (2009). "Mujeres y represión jurídica en el franquismo" in Fernández, A. (koord.) *Mujeres bajo el franquismo: Compromiso antifranquista*, Madrid: AMESDE.

RUIZ FRANCO, R. (2007). *¿Eternas menores? Las mujeres en el franquismo*. Madril: Biblioteca Nueva.

RUIZ GARCÍA, C. (2011) "El hospital psiquiátrico provincial de Córdoba: estudio de la población manicomial en el periodo 1900-1940" in Martínez, O. et al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 221-235 or.

RUIZ MIGUEL, A. (2002). "El aborto, entre la Ética y el Derecho" in *Revista Iberoamericana de Estudios Utilitaristas*. 11(2), 105-124 or.

RUIZ SOMAVILLA, M. J. eta JIMÉNEZ LUCENA, I. (2003). "Género, mujeres y psiquiatría: una aproximación crítica" in *Frenia*. 3, 7-29 orr.

RUIZ TORRADO, M. (2014). "Género, poder y resistencia: las mujeres encarceladas como agentes" in *II Jornadas/Seminario Taller sobre la Ejecución Penal Femenina "Mujeres, Sistema Penal y Exclusión Social: Construyendo alternativas desde el género"*. Bartzelona.

SACRISTÁN, C. (2009). "La locura se topa con el manicomio. Una historia por contar" in *Cuicuilco*. 16 (45), 163-188 or.

SÁEZ, C. (1979). "Mujer, locura y feminismo" in Sáez, C. (ed) *Mujer, locura y feminismo*. Madril: Dédalo ediciones. 9-57 or.

SÁENZ HERRERO, M. (2012). "Psicopatología y género" in *Norte de Salud Mental*. Bizkaia. 42,otsaila, 7-8 or.

- SÁENZ HERRERO, M. (2011) “Cuerpo y género” in Martínez, O. et al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios, 101-116 or.
- SALAMON, K. L. (2013) “Mind the Gap” in Willerslev, R. eta Suhr, C. (ed.) *Transcultural Montage*. Oxford: Berghahn. 145-157 or.
- SÁNCHEZ CARRETERO, C. (2003). “Voces y escritura: la reflexividad en el texto etnográfico” in *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*. Madril: CSIC. 58(1), 71-84 or.
- SÁNCHEZ MUÑOZ, C. (2000) “La difícil alianza entre ciudadanía y género” in Pérez, P. (ed.) *También somos ciudadanas*. Madrid: Instituto Universitario de Estudios de la Mujer, UAM. 3-25 or.
- SARLO, B. (2005). *Tiempo pasado. Cultura de la memoria y giro subjetivo. Una discusión*. Buenos Aires: Siglo Veintiuno.
- SELLERS, S. (ed.) (1994). *The Hélène Cixous Reader*. Erresuma Batua: Routledge.
- SERRA, J. M. P. (1945). “La piroterapia, las curas de choque y asociación de métodos en psiquiatría” in *Anales de medicina y cirugía*. 18(3), 260-264 or.
- SEVILLANO CALERO, F. (1998). *Propaganda y medios de comunicación en el franquismo (1936-1951)*. Publicaciones de la Universidad de Alicante.
- SHANNONHOUSE, R. (2003). *Out of Her Mind: Women Writing on Madness*. New York: The Modern Library.
- SHAVIRO, S. (1993). *Cinematic body*. Minneapolis: University of Minnesota Press.
- SHORTER, E. (1997). *A history of psychiatry: From the era of the asylum to the age of Prozac*. AEB: John Wiley & Sons.
- SHOSTAK, M. (1981). *Nisa. The Life and Words of a !Kung Woman*. AEB: Harvard University Press.
- SHOWALTER, E. (1987). *The Female Malady*. Erresuma Batua: Virago.
- SOLLERS, P. (1976) *La escritura y la experiencia de los límites*. Caracas: Monte Ávila Editores.
- SONTAG, S. (1997). “La estética del silencio” in *Estilos radicales*. Madril: Taurus. 13-56 or.
- SPIVAK, G. C. (2003). “¿Puede hablar el subalterno?” in *Revista Colombiana de Antropología*. 39, urtarrila-abendua, 297-364 or.
- STOLLER, P. (1989). *The taste of ethnographic things: the senses in anthropology.*, AEB: University of Pennsylvania Press.
- STOLLER, P. (1984). “Eye, Mind and Word in Anthropology” in *L'Homme*. 24(3-4), 91-114 or.

- STRATHERN, P. (2002). *Derrida en 90 minutos*. Madril: Siglo XXI.
- SURRALLÉS, A. (2005). "Afectividad y epistemología de las ciencias humanas" in *AIBR, Revista de antropología iberoamericana*. 44, 1-15 or. Edizio elektronikoa: <<http://www.aibr.org/antropologia/44nov/articulos/nov0502.pdf>> [Kontsulta data: 2015-03-13].
- SZASZ, T. (1970). *Ideología y enfermedad mental*. Amorrortu Ed.
- TAUSSIG, M. (1995). *Un gigante en convulsions*. Bartzelona: Gedisa.
- TAYLOR, D. (2003). *The archive and the repertoire: Performing cultural memory in the Americas*. Durkham eta London: Duke University Press.
- TERRADAS, I. (1992). *Eliza Kendal. Reflexiones sobre una antibiografía*. Bartzelona: Publicacions d'Antropologia Cultural, Universitat Autònoma de Barcelona.
- THUREN, B. M. (1993). "Sistemas de género mediterráneos. Benituria" in Thuren, B.M. *El poder generizado*. Madril: Instituto de Investigaciones Feministas. 104-127 or.
- TYLER, S. A. (1991). "Etnografía postmoderna: desde el documento de lo oculto al oculto documento" in Clifford, J. eta Marcus, G.E. (ed.) *Retóricas de la antropología*. Madril: Editorial Júcar. 183-204 or.
- USSHER, J. (1991). *Wome's Madness: Misogyny or Mental Illness*. AEB: Massachusetts.
- VALLEJO NÁJERA, A. (1944). *Tratado de Psiquiatría*. Bartzelona: Salvat Editores.
- VALLEJO NÁJERA, A (1944b). *Psicología de los sexos*. Bilbao: Ediciones de Conferencias y Ensayos.
- VAN MAANEN, J. (2011[1988]). *Tales of the Field. On Writing Ethnography*. AEB: University of Chicago Press.
- VÁZQUEZ DE LA TORRE, P. (2008) "Nosografía psiquiátrica en el manicomio nacional de Santa Isabel (1931-1952)" in *Frenia*, 8, 69-96 or.
- VELASCO, R. (2012) "La construcción compartida", <<http://elhilodelamadeja.blogspot.com.es/2012/07/la-construccion-compartida.html>> [Kontsulta data: 2014-02-13]
- VILLATE, P.; BORDA, J.L; HERNÁNDEZ, M.; IBÁÑEZ, J.I. (2011) "Una perspectiva de la historia de la locura en su dualidad entre lo psíquico y lo somático" in Martínez, O. et al. (ed.) *De pleistoceno a nuestros días. Contribuciones a la historia de la psiquiatría*. Madril: Asociación Española de Neuropsiquiatría Estudios. 149-153 or.
- VIRCONDELET, A. (2008). *SérAPHINE*. Bartzelona: Elba.
- VIVEIROS DE CASTRO, E. (2004). "Perspectival Anthropology and the Method of Controlled Equivocation" in *Tipiti: Journal of the Society for the Anthropology of Lowland South America*. 2(1)(1). <<http://digitalcommons.trinity.edu/tipiti/vol2/iss1/1>> [Kontsulta data: 2015-04-21].
- WADI, Y. M. (2008) "Confissões da 'loucura': narrativas de mulheres em espaços de internamiento" in *Fazendo Gênero 8 Corpo, Violência e Poder*. Florianópolis: Simposio 08/20008.

- WADI, Y. M. (2009). *A história de Pierina: subjetividade, crime e loucura*. Uberlândia: Edufu.
- WADI, Y. M. (2005) "Recreando la vida: catarsis y escritura íntima en las cartas de una paciente psiquiátrica" in Castillo eta Sierra (ed.) *Letras bajo sospecha*. Gijón: Trea, 421-447 or.
- WADI, Y. M. (2004) "Um lugar todo seu!?: paradoxos do viver em uma instituição psiquiátrica" in *Varia História*. 32, 75-101 or.
- WAXLER, N. E. (1977). "Is mental illness cured in traditional societies? A theoretical analysis" in *Culture Medicine and Psychiatry*. Holland: Reidel Publishing Company, Holland. 1, 233-253 or.
- WEBSTER, S. (1983). "Ethnography as storytelling" in *Dialectical Anthropology*. 8, 185-205 or.
- WILLERSLEV, R. eta SUHR, C. (ed.) (2013) "Montage as an Amplifier of Invisibility" in *Transcultural Montage*. Oxford: Berghahn. 1-15 or.
- WILLERSLEV, R. eta SUHR, C. (ed.) (2013b) "Montage in Writing" in *Transcultural Montage*. Oxford: Berghahn. 97-99 or.
- WOLCOTT, H. (2003). *Mejorar la escritura de la investigación cualitativa*. Kolonbia; Contus.
- WOOLF, V. (2008). *Una habitación propia*. Bartzelona: Seix Barral.
- YOUNG, A. (1982). "The anthropologies of illness and sickness" in *Annual Review of Anthropology*. 11, 257-285 or. (http://www.fcm.unicamp.br/interfaces/images/TEXTOS_CALENDARIO/THEANTHROPOLOGIESOFILLNESSANDSICKNESS.pdf) [kontsulta data 2012/09/17].
- YOUNG, A. (1981). "When rational men fall sick: An inquiry into some assumptions made by medical anthropologists" in *Culture, Medicine and Psychiatry*. Holland eta Boston: Dordrecht. 5, 317-335 or.
- YUSTA, M. (2002) "Historia oral, historia vivida. El uso de fuentes orales en la investigación histórica" in *Pandora: revue d'études hispaniques*. 235-244 or.
- ZULAIKA, J. (2000). *Del Cromañon al Carnaval*. Donostia: Erein.

Ikusentzunezkoak

- BAGGS, Amanda (2007) "In My Language," <<https://www.youtube.com/watch?v=JnylM1hI2jc>> [Kontsulta data: 2014-04-08].
- BERGMAN, Ingmar (1966) *Persona*, Suezia.
- CARRI, A. (2003). *Los Rubios*. Argentina.
- HERMOSILLO, J. H. (1979). *María de mi corazón*. Mexico.
- LT22 RADIO COLIFATA (2008)

PRECIADO, P. B. (2013) “La muerte de la clínica”, Museo Reina Sofía, Madrid, <<http://www.youtube.com/watch?v=4aRrZZbFmBs>> [Kontsulta data: 2014-04-08].

RADIO NICOSIA (2007) “El revés del tapiz de la locura”: <<http://www.youtube.com/watch?v=Tp8hP2Ph3ww>> [Kontsulta data: 2014-02-25].

